

# Ikastolatik



# Zumadira



Amezketako Udala 2019



# IKASTOLATIK ZUMADIRA

**Argitaratzailea:** Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

**Koordinatzailea:** Antton Amondarain

**Erredakzioa:**

- Feli Etxeberria
- J.M. Otermin
- Joxepi Saralegi
- Antton Amondarain
- Zumadiko eskola komunitatea

**Zuzentzailea:** Mikel Haranburu

**Aurre Maketazioa:** Antton Iztueta

**Azken Maketazioa:** Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

**Azala/kontrazala:** Koldo Alijostes

**Bertsoak:** Bixente Gorostidi.

**Eskertzak:** Eskerrik beroenak argazkiak eskuratu dizkiguzuen guztioi eta bereziki J.M. Otermin, Feli Etxeberria, Alaitz Labaien eta Iñigo Zubeldiari. Ezin ahaztu, noski, Estankoko Anik gorderik zuen artxibategia, asko baliatu baikara agiri horietaz. Baita ere testigantza hain esanguratsuak idatzi dituzuen guztioi, horiek eman baitiote gatza eta piperra lanari. Auzolanean egindako lantxo honek badu berariazko helburu zehatz bat: ikastolaren proiektua bururatu zitzaien eta gauzatu zutenen ausardia, kemena eta lanerako borondatea laudatzea, goraiatzea eta omentzea. Beraz, proiektu horren inguru bildu zineten guraso eragile, laguntzaile, guraso, ikasle eta irakasle orori eskerrik beroenak, Amezketako herriaren partetik. Bejondeizuela!, Historiak ere eskertuko zaituztete.

**Inprimaketa:** Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

**Lege gordailua:** SS-365-2019

**ISBN:** 978-84-09-10040-8

<b>1. AMEZKETAKO ESKOLAK, 1693TIK HASITA</b> ( <i>Egilea: J.M. Otermin</i> ).....	9
1_ Argibide zenbait.....	10
2_ Amezketako eskolaren ibilbidea 1693tik gerozkoan.....	10
3_ Eskola non eman Amezketan.....	12
4_ Amezketarren kezka eskolatze eskasaren aurrean 1924an.....	13
5_ Gure eskolaren ezaugarriak.....	17
5.1_Neskak eta mutilak aparte.....	17
5.2_Maisu-maistrak erdaldunak gehienak. Noski, eskolako liburuak ere gaztelaniaz.....	17
5.3_Eskola-ume sartu berriak eta hamalau urtekoak talde berean.....	20
5.4_Udal aretoan, armak.....	20
6_ Piper-egitea: behartua eta pikarua.....	20
7_ Eskola-garaia bukatzen zeneko maila.Gau-eskolak.....	21
8_ 1950 eta ondorengo urteetako “zigorraren pedagogia”.....	23
9_ Ideologia sartu nahia.....	24
9.1_Gai edo materia “nazionalak”.....	25
9.2_Ikonografia “nazionala”.....	26
9.3_Abesti “nazionala”.....	26
10_ Erlijioa eskolan.....	27
11_ Bizitzarako prestatzea, hutsaren hurrengo helburua.....	27
12_ Azken puntua.....	27
13_ Ikasle ohien testigantzak.....	28
<b>2. AMEZKETAN, ESKOLA ZAHARRETIK BERRIRAKO IBILERAK</b> ( <i>Egilea: Feli Etxeberria</i> ).....	33
1_ Sarrera.....	34
2_ Elizak, eskolarekin batera, ikasleen sozializazioan izan zuen eragina eta hari buruzko testigantzak.....	34
2.1_Komunio Handia Amezketan.....	36
2.2_Zer aldatzen zen egun handi horretatik aurrera?.....	39
3_ Amezketako gure eskolaren nolakoaz hainbat oroitzapen.....	41
3.1_Nire oroitzapenak.....	41

3.2_ Aldaketarako urratsik nabaritu al zen gazteagoen eskolan?.....	45
- Euskara, hizkuntza zigorgarria. ....	46
- Eskolaren antolaketa berriak zahar izaten segitu zuen.....	47
- Pedagogia solidarioa: batak bestea joz, ikasten lagundu.....	48
- Diziplina: “Kristo balon eta Kristo balin”.....	48
- Ikasleen errebolta. ....	49
- Ikasten zenaren oroitzapena eta etxean kontatzen zena. ....	50
4_ OARGI elkartearen Amezketan. ....	51
4.1_ Aldaketa garaia Amezketan. ....	51
4.2_ Biltzeko, hitz egiteko eta ekintzak antolatzeko OARGI sortu zen Amezketan, eta haren praktikak etena eragin zuen herrian. ....	51
4.3_ Zenbait ekimen aipagarri. ....	56
4.4_ Euskararen eta eskolaren egoeraz kezkatuta. ....	60
4.5_ Euskara ikasteko txoko bila. ....	63
4.6_ Aralar Paper Lantegiaren eskola-eskaintza. ....	66

### **3. BESTELAKOA NAHI ZEN ESKOLAREN BILA (Egilea: Feli Etxeberria).....** 69

1_ Testuinguruaren ezaugarriak. ....	70
2_ Hasierako ikastola: Elbira Zipitria andereñoa. ....	70
2.1_ Zer ikusten zen Elbiraren praktika pedagogikoan? .....	71
3_ PIAGETen arrastorik bai Elbira andereñoaren praktika pedagogikoetan? .....	72
3.1_ Elbira andereñoaren praktika pedagogikoak ikusmira zabala zuen.....	73
3.2_ Eskola orduz kanpoko ekimena.....	73
4_ Antolaketa eta ikasbideak.....	74
5_ Metodologia eta materialak: praktikak egiterakoan jasotakoak.....	75
6_ Hiritik herrietara, Ikastolaren ibilbide berria. ....	77
7_ Ikastola, euskara berrindartze prozesuan .....	80
8_ Euskara Batuaren premia nola sentitu zuen Ikastolak.....	82
9_ Prestakuntza andereñoen ibilbide profesionalean. ....	83
10_ Era berriko ikastolak elkar lanean.....	92
11_ Pedagogia eremua.....	93
12_ Irakasleak gero eta gehiago zireneko Ikastola Elkartearen GORDAILU. ....	96

### **4. SAN BARTOLOME IKASTOLA, AMEZKETAKO IKASTOLA**

(Egileak: Joxepi Saralegi eta Antton Amondarain)..... 103

1_ Amezketaren 60ko hamarkadan. ....	104
2_ Amezketaren, lozorrotik esnatzen. ....	108
3_ Ikastolaren sortzaileei, eskerrona eta ohorea.....	114
4_ Amezketako ikastolaren sorrera: 1966-1967 ikasturtea. ....	118

5_	Irakasleen prestakuntza .....	122
6_	Feli Etxeberría, ikastolen sustatzailea .....	130
	6.1_ Amezketatik donostiara maistra ikasketak egitera .....	130
	6.2_ Lehen lana, Altzolan .....	131
	6.3_ Oposaketak gaindituta, Errezilera.....	131
	6.4_ Jaxintoren gutuna, infleksio puntua.....	132
	6.5_ Murgil, ikastolen munduan.....	132
	6.6_ Donostia bizileku eta lantoki .....	136
	6.7_ Unibertsitatea.....	136
	6.8_ Amezketako irakasleengan eragin zuen .....	136
7_	Pedagogia berriaren muina .....	136
8_	Buruhaustek, ekonomia alorrean. ....	143
9_	Gurasoen eta ikasleen garrantzia.....	148
10_	Irakasleak, motibazioz blai!.....	154
11_	VILLAR PALASI legea eta ondorioak (1970).....	156
12_	Ikastola eta Eliza .....	160
	12.1_ Goi mailako eliz erakundearen esku hartzea.....	163
	12.2_ Amezketako apaizak, eliztarrak eta ikastola .....	170
13_	Ikastola eta Amezketako Udala. ....	176
14_	Beste arazo bat: ezin gauzatu Amezketan Lehen Hezkuntza osoa.....	181
15_	Bailara Txikiaren osaketa. ....	182
16_	Amezketak, eskola galtzeak.....	184
17_	Ikastola eta Eskola Nazionala bateratzearen nondik norakoak.....	186
18_	Ikastola eta Eskola Nazionala batzetik eskola berria sortu zen, gero Zumadi Herri Eskola (Euskal Eskola Publikoa) izango zena.....	190
19_	Ikastolak eskola berriaren esku jarritako ondarea. ....	195
20_	Herri Eskolaren izena eta izana. ....	197
	20.1_ Zumadi Herri Eskola, amezketarren lorpena .....	197
	20.2_ Zumadi herriarentzat sortua.....	198
	20.3_ Lehen pausoak, zalantzatiak .....	198
21_	Ikastolako ikasle ohiak, Amezketako lehen euskal ikasleak. ....	199

## **5. BIZIA ETA INDARTSUA: ZUMADI ESKOLA (2018-2019 ikasturtea)**

<i>(Egileak: irakasleak, gurasoak, ikasleak)</i> .....	209
1_ Zumadi: Amezketako euskal herri-eskola publikoa. ....	210
2_ Irakasleak, ikasleak eta gurasoak: Zumadiko euskarri nagusiak.....	211
3_ Joxepi Saralegi eta Lurdes Larreta: Zumadiko irakasle erretiratuen testigantza..	213
4_ Egungo irakasleen testigantzak.....	216
5_ Ikasle ohiak eta gaur egungo haurren gurasoak .....	230
6_ Ikasleen bat-bateko sentipenak. ....	233
7_ Etorkizun hurbileko erronka: Eskola Berria. ....	236



---

## HITZAURREA

---

Amezketako eskolen historia jarri dugu agerian liburutxo honetan. Eta marko horren barruan, San Bartolome Ikastolaren ibilbide esanguratsua azpimarratu dugu, hura izan baitzen euskal eskolaren bidea urratu eta ireki zuena. Beraz, historia da. Zinez gertatua. Herritarren bultzadez eta etxe barrutik zein kanpotik etengabe jasotako trabei aurre eginez gauzatua. Eta historia honi ere, beste guztiei bezala, usain gozoak eta garratzak nabaritutako dizkiogu irakurtzean. Ilusioak, pozak, zerbait lortu nahiak eta elkarlanak isurtzen duten esentziari dagokiona, batetik; eta bestetik, nahi eta ezinaren, etengabe jasandako zangotraben ondorioz gorputzari eta arimari darion mingostasuna.



Bestalde, hau ez da bereziki ikertzaile eta idazle batzuen lan zehatz bat, historia egiteko metodologia zientifiko bat jarraitu duena, nahiz eta lan ordu asko eskatu eta buruhauste ugari sortu dizkigun berau egituratu eta gauzatzeak. Beraz, ez ditu biltzen, segur aski, etorkizuneko ikertzaileek ezinbestean aztertu beharreko dokumentu bilduma esanguratsu batek bildu beharko lituzkeen bereizgarriak. Liburua, bereziki, herritarrena da, eta herritarrek emandako testigantzen eta argazkien bilduma da. Era arruntean esaten den modura, **estampa** asko dituen, erraz begiratu eta erraz irakurtzeko modukoa. Hau da, datu zehatz batzuez gain, gurasoen eta ikasle ohien bizipen eta testigantzen isla da, noski.

Beraz, eskerrik beroenak, batetik, San Bartolome ikastolaren sortzaileoi eta ikastolaren proiektua gauzatu zenuten guraso, laguntzaile, irakasle eta ikasleoi. Garai gogorretan, aurkari gogorrei aurrez aurre begiraturaz, bide berria urratu eta ireki zenutelako. Zuek zarete ikastolaren zutabeak, euskal eskolaren sostenguak eta Amezketako historiaren zati bat, eta ez txikia, izen propioz osatu duzenak. Bestetik, zorionak baita ere, geroago, Amezketako eskola galzorian zegoenean, arazoaren tamainaz jabetuta, herriak eskola izan zezan elkartu eta borroka egin zenuenoi. Zorionak, baita ere, azken urteotako irakaskuntza-eskaintzak egituratzen buru-belarri lanean aritu zaretenoi.





Historia ezagutzea, batzuentzat denbora galtzea bada ere, ezinbestekoa da egungo eta etorkizuneko errealtatea zuzen aurreikusteko eta ekinaren ekinez bide zuzenetik egituratzeko. Lehengoaren eta egungoaren arteko etengabeko elkarrizketak argi diezaguke etorkizuna. Horrek, ordea, eskatzen du eguneroko arazoan gainetik, ohikotasunetik (lana, afariak, parrandak, norgehiagokak..) tarteka burua altxatu eta pentsatzea, elkartzea, horretaz hitz egitea eta ekitea. Hor du lekua historiak. Hortik jasotzen da historiaren balioa. Baina, tamalez, gure susmo soila bada ere, amezketar askori, helduei eta batez ere gazte askori, hori guztia zail samar egiten zaiolakoan gaude. Penagarria ere bada, izan ere, inori bada-gokio gazteei baitagokie goi mailako ideal horiei lotuta euren buruari eta herriari bultzada ematea.



Amezketako herriak pauso asko eman ditu eskolen munduan. Guk, lantxo honetan, 1693az geroztiko informazioa bildu dugu eta hori da zuenganatu duguna. Geroztik, hor agertzen dira irakaskuntzaren puzzle orokorrean zati esanguratsu ugari, denak garrantzizkoak: Eskola Nazionala, Ikastola, OARGIk antolatutako batxilergoaren eskaintza, Aralar paper-lantegiaren eskola, Ugartekoa, Abaltzisketakoa eta, batez ere, egungoa, Zumadi Eskola. Urte horietan zehar emandako pauso bakoitzak ahalbidetu du egungo egoera.

Horrela, Zumadira heldu gara, egungo eskolara. Zumadi da euskaldun orok eta amezketar orok zaindu, babestu eta elikatu behar duen Euskal Eskola. Udalari, gurasoei, irakasleei eta herritarrei dagokie Amezketako eskola-umeen heziketaz bereziki arduratzea eta horretarako behar dituen baliabideak eskolari eskaintzea; eskola baita, inongo zalantzarik gabe, herriaren etorkizunean eragin dezakeen enpresarik eraginkorrena. Ea historian eman diren pausoak, okerrak zein zuzenak, laguntzen diguten Zumadi eskolaren norabidea denon artean gidatzen eta Amezketari dagokion Euskal Eskola sendoa gorpuzten.

Eta bukatzeko esan argazkietan ageri diren herritarren izen-abizenak ezagutzeko zailtasun handiak izan ditugula. Hor ibili gara etxez etxe, eta batzuk identifikatu arren, zalantzak dira ia guztietan nagusi. Beraz, zalantza horiek argitzea, ausarkeria handia ez bada, zuen esku uzten dugu. Zuen solasaldietarako hizketa-gai egokia duzue. Ea denborarekin lortzen duzuen iluna argi bihurtzea, hau da, ezezagun ditugunak ezagun bihurtzea.



## AMEZKETAKO ESKOLAK, 1693tik HASITA

J. M. Otermin

Bide luzea jaio ta  
hiltzen garen artekoa,  
bitartean ikastea  
pertsonak du berezkoa,  
abiapuntua beti  
izaten da etxekoa  
eta eskola da berriz  
hurrengo bitartekoa...  
Amezketan ikusi zen  
premia haurrak heztekoa  
eskola bat sortu eta  
bideari ekitekoa,  
1.700 inguru  
ez da atzo goizekoa  
hirurehun urte eta gero  
hazten eta hezten doa.

Garai hartako guraso  
haiek nolako azaina  
jakintzaz bete nahi zuten  
transmisioaren zaina,  
kontzientziak berotzen  
herrian zenbat kanpaina,  
gurasoak konbentzitzen  
herritar batzuk ze maina.  
Nahi zena nahiz beti ez lortu  
egin zuten lan bikaina,  
eskola zaharra ez zen arren  
gaurkoa bezain apaina  
historiak begi-bistan  
jarri digu alajaina  
bidean ere ikasi  
degula eskolan haina.

**Doinua: Habanera**

1

## 1 ARGIBIDE ZENBAIT

Joan den udaberrian Amezketako eskolaz zerbait idatzi nezan eskatu zidaten. Eskolari buruzkoa asko maite dudan gaia denez, berehalaxe eman nien baiezkkoa; egia esan, aise samar eta behar beste hausnartu gabe eman nuela baietza pentsatzen dut orain. Berandu da ordea emandako hitza jateko, eta hori horrela, alde edo moldez gaiari heltzea erabaki eta lerro hauek idazteari eman diot.

Bai, Amezketako eskolaren gainean hitz egiteko ez naiz pertsona aproposena, seguru asko. Hamar urterekin utzi nuen. Beraz, nire esperientzia oso mugatua da alde horretatik. Hamalau urterekin utzi zuenak –berez, eskola hamalau urterekin uzten baitzen 1950-1960 aldera–, bai, hamalau urtera arte eskolan ibili zenak nire kontakizuna baino askoz aberats eta zehatzagoa emango luke. Beraz, alde horretatik begiratuta, nahikoa hanka-motz geratuko da nire ahalegina.

Bestalde, mutilen eskolan ibilitakoa naiz. Oso gauza gutxi esan dezaket neskenaz. Are gutxiago Garazabalgoaz. Beraz, nire ikuspuntua aski estua izango da, eta irakurleak eduki bitza gogoan nire lanaren gabezia horiek.

## 2 AMEZKETAKO ESKOLAREN IBILBIDEA 1693TIK GEROZKOAN

Baliteke agiri zaharragorik ere han edo hemen izatea, baina ez dira asko izango. Oraindaino aurkitu ditudanen artean 1693koa da zaharrena. Urte hartan, urriaren 25ean, herriko agintariak eta eskola kontuaz arduraturik zeuden familiaburuak batzartu ziren. Guztira hamazazpi-hamazortzi ziren. Horien artean zegoen Amezketako herriak ezagutuko zuen lehen maisua ere: Bernardo de Mugarrieta. Bileran ondoan egindako agiriak aditzera ematen duenez, ez zen hura aurreneko aldia “eskola bai/eskola ez” gaia aztertzeke, lehendik ere eginik baitzituzten bilerak “zenbait batzarre eta juntadizotan”. Urriaren 25eko bilera hartan proiektua aurrera ateratzea erabaki zen eta Mugarrietarekin sei urterako hitzarmen-kontratua sinatzea. Bestalde, oso betekizun zehatzak ezartzen zitzaizkion maisuari:

*“... la enseñanza de letrear, leer, escribir y contar a los muchachos y niños pupilos hijos de los dichos vecinos y demas moradores que avitan en esta dicha villa y por lo mucho util y provecho que se esperaba tendrian todos de aprender con la continua educacion y asistencia al dicho maestro”.*



Honen antzekoa zen Amezetako eskola.

Egia esan, ez dakigu zenbat urte eman zituen Bernardo de Mugarrietak Amezetako eskola-lanetan. Jakin badakigu, ordea, nor izango den hurrengo maisua Amezetan: Pedro de Miner, hernaniarra.

Horretarako 1714ko irailaren 16an garrantzi handiko bilkura izan zen Amezetako udaletxean. Berrero ere herriko agintariak, boza emateko gaitasuna zuten auzotarrak eta maisua elkartu ziren. Maisutzarako bere burua aurkeztutakoa Pedro de Miner hernaniarra zen. Bilera hartan hartutako erabakiak oso zabalak izan ziren: zenbat, noiz eta nola ordaindu, herri-basoetan gaztaina biltzeko eskubidea... Eta hitzarmen honek ere sei urteko iraupena izan behar zuen. Maisuaren egitekoak:

*“... educar a los hijos de ella, leer, escribir y contar, como **tambien la doctrina cristiana**”.*

Irakurlea ohartuko zenez, kristau dotrina erakusteko obligaziorik ez zuen biltzen 1693an sinatutako akordioak. Aldiz, hurrengoak, 1714an izenpetuak, argi eta garbi uzten zuten eginkizun hori. Hemen oso zeharka bakarrik aipatuko dut kristau dotrina irakasteko eginkizun hori, 1960ra arte indarrean egon zena.

Jauzika egiten ari garen ibilbide honetan hirugarren zedarria 1810ean ezarriko dugu. Izan ere, urte horretan tituludun maisua izango baitu Amezetak, eta herriko semea gainera: Martin Bernardo Gorostieta Gorostegi (Urtsulategi, 1719). Hogeita hamaika urte zeuzkan, beraz, herriko umeak eskolatzen hasi zenean.



Munduko bola.



Eskola-materiala: lumak, arkatzak, tintontzia.

### 3 ESKOLA NON EMAN AMEZKETAN

Maisuarekin hitzartutako akordioa izenpetzea zen eginkizunik erosoena agintarientzat. Erabaki horrek zekartzan ondorio guztiak zuzen betetzea askoz zailagoa zen, eta horien artean zegoen eskolak non eman behar ziren zehaztea. Arestian aipatu dugun 1693ko akordioan esaten denez, Mugarrietari ezarritako baldintzetan honako puntu hau zegoen:

*“... que el dicho Bernardo de Mugarrieta maestro se quede obligado como se obligo de enseñar a todos quantos muchachos y criaturas y niños, que esta Villa llegaren o acudieren a su casa”.*



Maisu-etxea.

Ikusten denez, aurreneko urte haietan maisuaren etxean bertan ematen ziren eskolak. Tamalez, ez dakigu Mugarrieta non bizi zen, hau da, Amezketako lehen eskola non kokatua egon zen.

Jakin badakigu 1832an eskola-ume dezente (70 inguru) biltzen zela Amezketako eskoletan, eta gauza ezaguna da 1861ean eskabide hau egin ziola Amezketako udalak Gipuzkoako Hezkuntza Batzordeari:

*“... conseguir la aprobación de las obras que se tratan de executar en la casa consistorial vieja, con el fin de establecer en ella las dos escuelas para los*



Udaletxe zaharra.



Garazabal eskola.

*niños de ambos sexos, y habitaciones del Maestro y Maestra de Instrucción primaria, y en solicitud de conseguir también la aprobación de imponer nuevos arbitrios”.*

Esan nahi da, 1862an edo, Amezketak bazituela eskolak eta Maisu-Maistrentzako gelak. Eta horrela izan zen 40 urtez. Izan ere, 1903an lokal aldaketa izango baita berriro: Eskola-Maisuena esaten zitzaionetik Udaletxera. Eta udal-txean ibili ziren gerozkoan Amezketako eskola-ume gehientsuenak. Bestiak, Ola auzoan dagoen Garazabalen biltzen ziren. Zubillagatik beherako guztiak, Ugartekoak barne noski, Garazabalera etortzen ziren goiz eta arratsalde. XX.mendeko lehen hamarraldian bilakatu zen Garazabal eskoletxe. 1960 aldera itxi zituen ateak.

Atal honi ezin emango diot amaiera Kontxision (Concepción Larreta Agirre, 1881, Amezketak) maistraren aipamenik egin gabe. Izan ere, 1950 aldera, bere esku egon baitzen “Eskolaurrea” esan ohi zaion eskola garaia. Gaztelaniaz idatzitako agirietan “escuela de párvulos” esaten zitzaion Kontxisionen eskolari.

#### 4 AMEZKETARREN KEZKA ESKOLATZE ESKASAREN AURREAN 1924AN


Sarritan aipatu izan dudan batzarra ospatu zen 1924ko maiatzaren 6an. Izango ziren Amezketan bilera sakonak hezkuntzaren gainean, baina hura bezalako gutxi. Bi zati izan zituen bilkurak: batetik, arazoa zertan zegoen aztertu; bestetik, hartu behar ziren erabakiak mahai gainean jarri. Herriko agintariak, maisuak, medikuak, Amezketako erretorea eta Ugartekoa batzartu ziren analfabetismoaren arazoari gerri-gerritik heltzeko:

*“... con el fin de de que sus componentes sometieran los estudios que, a cerca de las causas o motivos principales productores del analfabetismo y medios para atacarlo y resolverlo”.*



Neskak frontoian (1933). Irakaslea: Lutxi Puldain. Labaien.


- 1\_ .....
- 2\_ Dolores Gorostegi
- 3\_ Anttoni Ulazia
- 4\_ Maritxu Sagastume
- 5\_ Joxepa Altungonekoa
- 6\_ Kristina Otamendi
- 7\_ Axun Artola
- 8\_ .....
- 9\_ Iñaxi Agirrebarrena .
- 10\_ Anita Etxeberria
- 11\_ Sebastiana Sagastume
- 12\_ Ramona Alustiza
- 13\_ .....
- 14\_ Baleri Etxeberria
- 15\_ Iñaxi Etxeberria
- 16\_ Joxepa Maiza
- 17\_ .....
- 18\_ Joxepa Etxeberria
- 19\_ Maria Puldain
- 20\_ .....
- 21\_ Elena Agirre ??
- 22\_ Maria Sagastume
- 23\_ Mikela Gorostegi
- 24\_ .....
- 25\_ Martina Artano



- 26\_ Margari Goñi
- 27\_ Maria Garin
- 28\_ Euxebi Zuriarrain
- 29\_ Lutxi Puldain ( Irakaslea)
- 30\_ Miren Etxeberria
- 31\_ Jexuxa Bengoetxea
- 31.a\_ Joxepa Sagastume
- 32\_ Lorentxa Larreta
- 33\_ Felisa Etxeberria
- 34\_ Karmen Apolo
- 35\_ Maria Sagastume
- 36\_ Juanita Altuna
- 37\_ .....
- 38\_ Juanita Tolosa
- 39\_ Xabina Larreta (Julinea)
- 40\_ Maria Altuna
- 41\_ Joxepa Agirrezabala
- 42\_ Angelita Benito
- 43\_ Maria Etxeberria
- 44\_ Maria Artano
- 45\_ Bernarda Mujika
- 46\_ Joxepa Otermin



Mutilak frontoian (1933). Irakaslea: Felix Lopez Monedero.



- 1\_.....
- 2\_Martzelino Benito
- 3\_Karlos Sagastume
- 4\_Ramon Etxeberria
- 5\_.....
- 6\_Fermin Ulazia
- 7\_Patxi Artolakoa
- 8\_Bernardo Artola
- 9\_.....
- 10\_.....

- 11\_Ziriako Otamendi
- 12\_.....
- 13\_.....
- 14\_Domingo Garin
- 15\_Joxe M<sup>a</sup> Karrera
- 16\_Felix Lopez Monedero (irakaslea)
- 17\_.....
- 18\_Martin Larreta
- 19\_.....
- 20\_.....

- 21\_Fermin Sagastume
- 22\_Martin Gorostidi
- 23\_.....
- 24\_Mariano Artano
- 25\_.....
- 26\_Santiago Agirrezabala
- 27\_Joxe Ulazia
- 28\_.....
- 29\_.....
- 30\_Zezilio Garin
- 31\_Joxe Etxeberria
- 32\_Juan Joxe Artola
- 33\_Joxe Etxeberria
- 34\_Juanito Artola
- 35\_.....
- 36\_.....
- 37\_Xantio Karrera
- 38\_Kaxpar Larreta
- 39\_Gillermo Zabala
- 40\_Juan Joxe Artola
- 41\_.....
- 42\_Paskual Lekuona
- 43\_.....
- 44\_Iñaxio Artano
- 45\_Joakin Goikoetxea
- 46\_Joxe Balerdi



Luze jo zuen bilera hartan hitzetik hortzera erabili zuten “analfabetismo” hitza. Alkatea bera izan zen lehen aipamena egin zuena:

*“Es innegable que el problema del analfabetismo tiene existencia real en este pueblo, que él, a su manera, en los ratos que ha dedicado a la meditación del problema, se ha formado una de los motivos del mismo y del sistema a seguir para combatir el mal”.*

Hurrena Erretore jauna izan zen hitz egiten:

*“Manifiesta que, en efecto, el analfabetismo existe, y ha constituido una constante pesadilla a su vida”.*

Arazoaren larria ikusirik, bospasei erabaki hartu zituzten, zein baino zein zorrotzagoak. Ezin esango da erabat antzuak gertatu zirenik, baina oso emankor izan zirela aitortzea ere...

1924ko bilera egin eta handik hogeita lau urtera beste gai interesgarri bat mahairatu zuen Juan Nizeto Sagastume alkateak osoko bilkura batean. Funtsean hau esatera zetorren: Paper-fabrikako nagusietako batekin egona zela, –Senen Amunarriz izan zuen solaskidea– eta, hark neska eta mutikoentzat ikastetxe bat eraikitzeaz hitz egin ziola. Areago, non jaso zitekeen ere begiz jota zeukala. Baina... lurren gainean tratuan hasi eta Hondarribian lurrak egiten zuen halako bi eskatzen ziotela Amezketan. Amezketako udalaren esku uzten zuela lur-jabearekin hitz egitea. Hori bai, eskolatzeaz arduratzen diren erlijiosoekin hitz eginda zegoela, Amezketara etor zitezten.

Proiektu hura hutsean geratu zen 1953an, baina 1968. urtean hasi zen eskola berria lanean, Zumadi deritzan parajeen.



Paper-fabrikak eskola jarri nahi. Lehen albisteak: 1953ko azaroaren 8ko bilera.



Aralar paper-lantegiak eraikitako eskola.

## 5 GURE ESKOLAREN EZAUGARRIAK

### 5.1\_Neskak eta mutilak aparte

Pepi Otamendi eta Juan Labaieni egindako elkarrizketan argi eta garbi geratzen da bi gela-tan banaturik ibiltzen zirela/ginela gure eskola garaian Amezketan. Aspaldikoa zen ohitura hori, eta inork kolokan jartzen ez zuena gure garaian.

### 5.2\_Maisu-maistrak erdaldunak gehienetan. Noski, eskolako liburuak ere gaztelaniaz

1810ean, Martin Bernardo Gorostietak, Amezketako eskolaz arduratzeko hitza eman zue-nean, nahiz eta bera sortzez amezketarra izan, gaztelania erakusteko konpromisoa hartu zuen:

*“Lo primero que haya de ser de la obligación del citado Gorostieta el enseñar a la juventud indistintamente la Doctrina Cristiana, **la lengua castellana**, leer, escribir y contar”.*




1950eko argazkia. Neskak Mari Kontxi Tolosa irakaslearekin.

- 1\_ M<sup>a</sup> Kontxi Aitzuokoa
- 2\_ Martina Galartza Ulazia
- 3\_ Lolita Aierbe
- 4\_ Karmen Karrera
- 5\_ Anita Etxeberria
- 6\_ Milagros Galartza
- 7\_ M<sup>a</sup> Angeles Etxegoien
- 8\_ .....
- 9\_ Pilar Elurbe
- 10\_ Pakita Agirrezabala
- 11\_ Martina Artola
- 12\_ Damiana Iriarte
- 13\_ Maria Jesus Aierbe ??
- 14\_ Genobeba Tolosa
- 15\_ M<sup>a</sup> Jesus Galartza
- 16\_ Joakina Elurbe
- 17\_ Manoli Zuriarrain
- 18\_ Juanita Goikoetxea
- 19\_ M<sup>a</sup> Karmen Aierbe
- 20\_ .....
- 21\_ M<sup>a</sup> Jesus Aierbe ??
- 22\_ Bittori Mujika



- 23\_ Joxepa Mendikokoa
- 24\_ M<sup>a</sup> Angeles Urizar
- 25\_ Karmen Karrera
- 26\_ Juanita Otamendi
- 27\_ Anttoni Maiza
- 28\_ M<sup>a</sup> Karmen Altuna
- 29\_ Bittori Tolosa
- 30\_ M<sup>a</sup> Karmen Beldarrain
- 31\_ M<sup>a</sup> Karmen Otamendi
- 32\_ Martina Artano
- 33\_ M<sup>a</sup> Kontxi Altuna
- 34\_ M<sup>a</sup> Rosario Altuna
- 35\_ Josefa Ramona Lasa (irakaslea)
- 36\_ Margarita Mujika
- 37\_ Rexu Elurbe
- 38\_ .....
- 39\_ M<sup>a</sup> Tere Altuna
- 40\_ Lolita Sagastume



- 1\_ .....
- 2\_ Gerardo .....
- 3\_ .....
- 4\_ Ignazio San Martin
- 5\_ Joxe Ulazia
- 6\_ Anjel Gereño
- 7\_ .....
- 8\_ .....
- 9\_ Antonio Zabalbarrenekoa
- 10\_ Migel Zabala
- 11\_ .....
- 12\_ Eladio Balerdi
- 13\_ Felipe Tolosa
- 14\_ Ramon Etxeberria
- 15\_ Ignazio Artano
- 16\_ Roberto Gallurralde
- 17\_ Joxe Altuna ??
- 18\_ Polikarpo Etxeberria
- 19\_ Joxe Karrera

- 20\_ Alberto Etxeberria
- 21\_ Jon Ander Arrue
- 22\_ Martin Artola
- 23\_ Joxe Goikoetxea
- 24\_ Nemesio Larrea
- 25\_ Abraham Etxeberria
- 26\_ Martin Sagastume (apaiza)
- 27\_ Sabino Iraola
- 28\_ Pedro Ormazabal

- 29\_ Nemesio Etxeberria
- 30\_ Bixente Telletxea
- 31\_ Bautista Zubeldia
- 32\_ Iñaki Ormazabal
- 33\_ Alberto Bocos
- 34\_ Fidel Tolosa
- 35\_ Martin Sarasola
- 36\_ Bittor Artola
- 36\_ Bittor Artola

### 5.3\_Eskola-ume sartu berriak eta hamalau urtekoak talde berean

Ezer gutxi azpimarratu behar da puntu honetan. Zazpi urte bete orduko hasten ginen eskolara joaten, eta hamalauarekin uzten genuen. Baziren noski lehenago uzten zutenak ere, baina legez, hamalau urte bete ondoan utzi behar izaten zen. Maisu/ maistrak lanik asko izan ohi zuten talde hain nahasiak behar bezala gobernatzeko.

### 5.4\_Udal aretoan, armak

Eskolarekin zerikusi zuzena ez badu ere, gure hartzaroen garunean iltzaturik geratu zen zerbait ez nuke utzi nahi aipatu gabe. Gerrateko kontuak isilpean gordetzen baziren ere, adinekoen artean batez ere, Amezketako Udaletxean, osoko bilkuretarako aretoan, baziren gerra-arrasto nabariak: dozena bat edo fusil zahar herdoilduak. Gero jakin genuen gerra ondoren sortutako *somaten* taldekoek soilik erabil zitzaizketenak zirela. Ikasgelatik irten eta osoko-bilkuretarako aretora hurbiltzea nahikoa izaten zen aipaturiko fusil herdoilduak bistarazteko. Gaurko ikusmolde edo pentsaeratik begira jarriz gero, herriko agintariek hautatutako gordelekua ez genuke segur aski egokitzen joko. Baina...

## 6 PIPER-EGITEA: BEHARTUA ETA PIKAROA

1924ko maiatzaren 6an egindako batzar sonatu hartan, analfabetismoaren muin-muinera jo zuten eta egoeraren diagnostikoa egin zuten: eskolara joan gabe geratzea zen gaitzaren iturburu nagusia. Eta erabakiak ere hartu ziren:

*1-. La falta injustificada a clase de niños y niñas que están en la edad escolar, que se señala y extiende hasta los catorce años, durante cinco días seguidos merecerá una amonestación que se practicará por el señor Alcalde cerca de los padres o guardadores de los niños.*

*2-. La falta justificada de un niño durante ocho días no consecutivos de un mes, se castigará igualmente con una amonestación.*

*3-. La falta de un número superior de días a los señalados en los párrafos precedentes, hasta diez y seis días, durante un mes, se castigará con una multa de veinticinco céntimos por día.*

Bistan dago arazoa larria zela 1924 aldera. Dena den, ez dakigu zer nolako emaitzak eman zituzten hartutako erabakiek.

Gure hartzaroen, seme-alaben heziketa kontuan, gurasoentzat bi ziren arau nagusiak. 1-. Euren etxeetan edota erakunde publiko zein pribatuetan haurrak hezten saiatuko dira gurasoak. Eginkizun hau betearaztea euren eginbeharrekoa da eta horrela egingo ez balute, legeak finkatzen duen zigorra ezarriko zaie. 2-. Haurrak eskolara joan daitezen saiatuko dira gurasoak.

Gurasoen egitekoak horiek izan arren, ez zitzaizkien askotan jaramon handirik egiten garai batean. Baserrietan bereziki eta artzaintzan ere aukera ugari izaten zen haurrak eskolara

bidali gabe etxean geratzeko. Aitzakia txikienarekin etxeko lanetan jartzen ziren haurrak. Itzulean ez bazen, Mailo aldera otordua segariei eramaten, abereak ferratzera eramaten... Beti sortu ohi zen aitzakiaren bat eskolari iskin egiteko. Artzainen familietan ere, udazkenean Aralar utzi eta negualdia paraje epelagoetan egin beharrak haur asko uzten zuen eskolari bizkar emanda. Neronen kasua aipatu behar banu, Amezketan egindako azken ikasturtea udazkenean pixka bat eta udaberrian ere oso gutxitan eskolara joanda egin nuen. Baziren etxean lehenagoko eginkizunak... Orendainen eman genuen negualdia eta ez nuen egun bakar batean ere eskolara joaterik izan.

Beraz, nahikoa ohikoa zen eskolara joan gabe geratzea, etxean ziren eginbeharrei erantzuteko. Esan liteke hori zela "piper egite" behartua. Bazen bigarrena ere: pikardiaz egindakoa. Baina, gure garaian horrelakoak ez ziren gehiegi izaten, bakan batzuk bai, baina sistematikoki eskolara azaldu gabe geratzea ez zen joera normala.

**7 ESKOLA-GARAIA BUKATZEN ZENEKO MAILA. GAU-ESKOLAK**

1961eko gertaera da hau; uztailean sartu eta berehalaxekoa. Urte hartan oporretako egun batzuk pasatzera Aramara joan nintzen, anaia bat han bizi zen eta. Gaur handia ez eta orduan oso txikia zen Arama; Gipuzkoan txikienetakoa. Plaza-plazan bizi nintzen, eta egun batean egundoko iskanbila sumatu nuen eliza atarian. -Zer gertatzen da?, galdetu nion jolas-kideari. -A!, hutsaren hurrengoa... Bi familiaren arteko haserre-kontuak; batekoek Goierriko eskolan bestekoek baino nota hobeak jaso dituztela eta...Puntu horretan kateatu dira bi familiak.

Oso harrigarria egin zitzaidan gertaera eta oraindik ere ongi iltzatua daukat memorian. Nota hobeak eta eskasagoak zirela-eta, haserrea piztu? Amezketan, nire inguruan behintzat, ez nuen horrelako pasadizorik ezagutu. Ez dut esango izango ez zenik, baina ez dut horrelakorik gozatu.

CURSO 19 51-19 52

SECCION

PERIODO

CONCEPTOS		PUNTUACION		
		Primer trim.	Segun. trim.	Terce trim.
Materias instrumentales	Lectura.....	2	3	4
	Escritura.....	2	3	5
	Dibujo.....	2	2	3
	Cálculo.....	2	3	4
Materias formativas	Religión.....	2	3	4
	Geografía e Historia.....	2	3	4
	Lengua.....	2	3	4
	Matemáticas	2	3	5
	Formación del espíritu nacional.....	2	3	3
Educación Física.....	2	3	3	
Materias complementarias	Ciencias Naturales.....			
	Trabajos Manuales.....			
	Prácticas Taller.....			
	Formación para el hogar.....			
Hábitos	Deberes.....	B	B	B
	Conducta.....	B	B	B
	Puntualidad.....	B	B	B
	Aseo.....	B	B	B
Faltas	Justificadas.....			
	No justificadas.....			

Firma del Maestro: *[Signature]* Enterado: Firma del *[Signature]*

1.er trim. *[Signature]*

2.º trim. *[Signature]*


3.er trim. *[Signature]*

DETALLE DE LAS CALIFICACIONES

Suspenseo.....	0 a 1
Aprobado.....	2 y 3
Bueno.....	4, 5 y 6
Notable.....	7 y 8
Sobresaliente.....	9 y 10



Urteroko eskola irtenaldian, neskek eta... Larraitzen.



- 1\_Maite Goitia ??
- 2\_ .....
- 3\_Axun Tolosa
- 4\_Primi Galartza ??
- 5\_ .....
- 6\_Begoña Larreta
- 7\_ .....
- 8\_M<sup>a</sup> Karmen Zabala ??
- 9\_ .....
- 10\_Maritxu Beobide
- 11\_Mari Kontxi Beldarrain
- 12\_Felix Iraola

Lasaiago jokutzen zen, nire iritzirako, Amezketan. Notak-eta aztertzen ziren, baina oso gaingiroki, axaletik.

Aurreneko notak jasotzea, seguru asko, 1878-1889ko ikasturtean egin zen. Eta agiri zaharrek ez digute esaten inoiz ika-mikarik sortu zenik ume batek besteak baino nota ho-beak atera zituelako.

Dena den, ez dezagun pentsa jendea axolagabea zenik eskola kontuetan. Ikasturteak aurrera joan ahala sortzen ziren kezkek: bizimoduak gaur egun eskatzen duenerako prestatu-rik ote daude gure eskola-umeak? Hori zen familia askotan kezka nagusia. Eta erantzuna ezezkoa baldin bazen, “gau-eskola” esaten zitzaionera bidaltzeko erabakia hartu ohi zen.


Egia esan, jende larriari eskola emateko eginkizuna paper askotan dator. Esan nahi da, jendea ez zela erabat konforme geratzen haur eta nerabeek lortzen zuten eskola-mailaz eta hobeto prestatu-rik irten zitezen, “gau-eskola” esaten zitzaizen haietara joateko bideak ireki-zen zizkieten. “Gau-eskola” hori azken ahalegin baten gisara hartu behar zen.

Maisuak ez ezik, apaizak ere saiatu ohi ziren gau-eskolak ematen. 1924ko maiatzaren 6an egindako batzarrean, argi eta garbi utzi zuen hori Ugarteko erretoreak:

*“En el barrio de este pueblo llamado Ugarte, desde ya bastante tiempo, venía dando clase diurna a los chicos que querían recibir enseñanza, dedicándola especialmente a los que, ya rebasada la edad escolar, deseaba continuar recibiendo alguna instrucción del deplorable olvido en que suelen caer todos los caseros de esta comarca”.*

Gau-eskola zen, nire iritzirako, umetako gure eskolaren porrota azaleratzen zuena.

## 8 1950 ETA ONDORENGO URTEETAKO “ZIGORRAREN PEDAGOGIA”



Unicefek oso datu bitxia eskaini zuen 2014an: bi urtetik hamalaura bitarteko haurretatik % 80ak zigor fisikoren bat nozitu zuela. Beharrik, 1950-1960 aldera ez zen horrelako ikerketarik egiten, bestela %80 hori oso eskas geratuko baitzen. Garai hartan oso ohikoa eta arrunta zen, –oso zabaldua zegoen alegia–, bihurrikeria bakoitzari erremedioa berehala jartzea: zume edo makilarekin, kaskarreko on batekin, belarrondoko mingarri batekin, zaplazteko zaratatsu batekin, aztalak berotzearekin... Hots, bihurrikeria egindakoari modu batera zein bestera “berehala kentzen zitzaizkion hotzak”, hurrengo baterako eskarmentua izan zezan

Gaur egun oso zabaldua dago galdera hauek egitea: Zenbateraino onartu daiteke haurrak hezterakoan zigor fisikoa baliatzea?

*“No hablaré en clase” hainbat aldiz idaztea, ohiko zigorretako bat zen.*



Aldian behin belarrondoko bat ematea okerreko bidea al da? Ondorio txarrik ekar ote dezake horrek? Eta mesederik?

Eta mesederik? Baietz uste zen alde guztietan. Gure garaian oso argi eta garbi zegoen belarrondoko on batek, –mingarri batek alegia– mesedea baino ez zuela ekartzen. Eta pentsaera hori oso sustraitua zegoen hiru esparru hauetan:

- etxe dezentetan
- kristau ikasbidearen irakaskuntzan
- eskola ordu guztietan.

Inork ez zuen zalantzan ipintzen “beldurraren pedagogia” hura; ez behintzat jendaurrean. Inork ez zituen aztertzen horrelako jokabide batek eragin zitzakeen ondorio makturak. Analisi hauek askoz geroztikoagoak dira.

Azken apunte bat atal honetan. Nire usterako, zigor fisiko gehiago jasandakoak gera mutiko izan ginenok neskatoak baino. Hau da, zigorra gehiago erabiltzen zen mutikoentzat neskatoentzat baino. Nago zigor fisikoaren arazoa askoz larriagoa zela mutiletan.



## 9 IDEOLOGIA SARTU NAHIA

1958an hamar urte bete genituenon eskola arauak 1945eko uztailaren 17an onartutako Hezkuntza Legeak finkatutakoak ziren. Ongi diot, 1945ekoak ziren arauak, hau da, azken gerratea bukatu eta handik sei urtera indarrean jarritakoak. Hori horrela, buruari astindu handirik eman beharrik ez dago orduko agintarien asmoak zeintsu izan zitezkeen pentsatzeko.

Hasteko, Hezkuntza Lege hori, Ministerio de Educación “Nacional” –kakotxak neronek ezarritakoak dira– zeritzanak agindutakoaren esanetara gauzatu zen. Bai, inongo zalantzarik gera ez zedin hezkuntza izenari “nazionala” izateko eskakizuna eransten zitzaien. Eta Oinarrizko Hezkuntza barrutiari eginkizunok bete zitzaion agintzen zion aipatu Legeak:

a) Proporcionar a todos los españoles cultura general obligatoria.

b) Formar la voluntad, la conciencia y el carácter del niño en orden al cumplimiento del deber y a su destino eterno.

c) Infundir en el espíritu del alumno el amor y la idea al servicio de la Patria de acuerdo con los principios inspiradores del Movimiento.

d) Preparar a la niñez capacitándola para ulteriores estudios y actividades de carácter cultural.




e) Contribuir, dentro de su esfera propia, a la orientación y formación profesional para la vida del trabajo agrícola, industrial y comercio.

### 9.1\_Gai edo materia “nazionalak”

Legeak nabarmentzen zituen helburu “nacional” haiek betetzeko, besteak beste, garai hartako curriculumean hiruzpalau gai edo materia ziren azpimarragarrienak:

Formación del espíritu nacional, Lengua –esan beharrik ez dago kasu honetan ere– hizkuntza hori gaztelania/castellanoa zela, Geografía eta Historia. Lau zutabe horietan oinarriturik zutitu eta eraiki nahi zuen legeak hezkuntzaren “nazional” izaera. Espainiako ibaien izenak buruz ikastea ezinbestekoa zen, baina ez genekien Alegian barrena zihonaren izena, edo Donostian itsasoratzen zenarena. Horiek ez izaki nonbait “nazionalak”... Geografía kontuetan, joera berbera: Sistema Penibetikoak bazela jakitea beharrezkoa zen, baina Aizkorriren edo Gorbeiairen aipamen txikiena ere ez.



Historia kontuan bide berbera jorratu zuen gure haurtzaroko hezkuntzak. Jasota daukat –estimu handiz, gainera–lehenbiziko urteetan eskolan erabili genuen liburuxka: Mis Primeros Pasos. Egilea: M. Antonio Arias. Arrakasta handikoa izan zen. Guk bederatzigarren argitaraldikoa erabili genuen, 1955ean argitara emana. Oso modu xumean kontatzen da Espainiaren bilakaera:

“Después de los Reyes Católicos España fue la nación más poderosa del mundo. Más tarde perdimos muchos territorios. Hace pocos años se hizo el Movimiento Nacional para conseguir una España mejor. El Jefe del Estado es el Generalísimo Franco”.

Liburuen sailean, hurrengo jauzia “Mis segundos pasos” erostea izaten zen. Hau ere M. Antonio Ariasena. Oso argi eta garbi erakusten du liburuak garai hartako pentsaera:

## 9.2\_Ikonografia “nazonala”

Alderdi honetan hiru elementu izan genituen begi aurrean: Francoren argazkia, Espainia-ko bandera eta Abesti nazionala.

## 9.3\_Abesti “nazonala”

Guztien gainetik “Cara al Sol” famatua abestu behar izaten zen. Egia esan behar bada, asko ginen zer esaten genuen ere ez genekienak. Hobeto esanda, ez dakit inor egon ote zitekeen garai hartako Amezketan kanta honen mamia ulertzeko moduan. Beraz, ez dut uste eskola-ume bat bera ere abesti honen muinak “falange-ume” bihurtu zuenik. Por gustoz, oso osorik utziko dut hurrengo lerrootan:

*Cara al Sol con la camisa nueva,  
que tú bordaste en rojo ayer,  
me hallará la muerte si me lleva  
y no te vuelvo a ver.*

*Formaré junto a mis compañeros  
que hacen guardia sobre los luceros,  
imposible el ademán, y están  
presentes en nuestro afán.*

*Si te dicen que caí,  
me fui al puesto que tengo allí.*

*Volverán banderas victoriosas  
al paso alegre de la paz  
y traerán prendidas cinco rosas  
las flechas de mi haz.*

*Volverá a reír la primavera,  
que por cielo, tierra y mar se espera*

*¡Arriba, escuadras, a vencer,  
Que en España empieza a amanecer!*

Gaztelania guk menderatzen genuena baino hobeto menderatzea eskatzen du falangis-tek asmatutako kanta honek.

## 10 ERLIJOIA ESKOLAN

Haurren Eskola kartilari atentzio pittin batekin erreparatuz gero, berehala ikusten da non kokatzen zen erlijioa irakastea: ikasgai formatiboen artean, geografia-hizkuntza-matematikak-izpiritu nazionaleko prestakuntza eta hezkuntza fisikoarekin batera. Hau da, hezkuntzaren mami-mamian.

Gure haurtzaroko ikasturteetan erlijioaren irakaskuntzak bi iturri nagusi zituen. Batetik, apaizen bitartez lantzen zena. Bestetik, eskolan bertan jasotzen zena. Bai, eskolak ere bere helburuen artean zeukan erlijio kontuetan ere ikasleak leziatu beharra. Izan ere, urte haietan oso indarrean zegoen gerora “nacional catolicismo” deituraz ezagutu zen pentsaera. Hau da, politika eta erlijio katolikoa eskutik oso estuki helduta joatea. “Mis primeros pasos” liburu-ko aurren-aurreneko kapituluak honela dio: Instrucción Religiosa, Moral y Patriótica. Eta segidan haren atalak:

1-. Jainkoa. 2-. Jesukristo. 3-. Amabirjina. 4-. Adan eta Eba. 5-. Otoitza. 6-. Mandamenduak. 7-. Aberria (La Patria). 8-. Gure gurasoak. 9-. Haur onak.

Hurrengo liburuan ere gainerako guztien buruan zeuden erlijioari itsatsitako atalak, bi sailetan berezirik: Ikasbide erlijiosoak, morala eta patriotikoa, alde batetik, eta bestetik, “historia sagrada” esaten ziotena. Honetan Testamentu Zahar zein Berriko gertaerarik esanguratsuenak jorratzen ziren.

## 11 BIZITZARAKO PRESTATZEA, HUTSAREN HURRENGO HELBURUA

Gure haurtzaroko eskolaren helburuen artean, besteak beste, bi hauek zeuden. Batetik, horretarako gogoia eta bitartekoak izanez gero, ikasten jarraitzeko bideak urratzea. Bestetik, bihar-etzi nekazaritzan, merkataritzan eta industrian lan egiteko prestatzen joatea. Hau da, umearen joera nagusiak ezagutu eta, etorkizunaren arrastoan, bide zuzenetik abiaraztea.

Teoriak hori erakusten zuen, baina, salbuespenak salbu, garai hartako eskolak ez zion bete-behar horri erantzuten. Gurasoak kezkatu baldin bazeuden, ahalegin berezia egin ohi zen haurrak Tolosara nahiz Donostiara bidaltzeko, eskolaz hornituago, jantziago atera zitezen.

## 12 AZKEN PUNTUA

Egungo ikuspegitik begiratuta, Amezketako umeak eskolatzeko bide zaharrari 1960 aldera jarri zitzaion ataka. Gu, gure adinarengatik, neurri handi batean behintzat, “eskola zaharra” esaten zaion horren fruituak gara. Gure belaunaldiak ondo baino hobeto ezagutu zuen hori; ezagutu eta nozitu. Nire iritzirako, 1693an abian jarritako eskola-sistema ezagutu genuen guk. Ñabardura zenbait aldaraziko zuen denboraren joanak, baina funtsean, 1693an Bernardo de Mugarrieta irakasleari ezarri zitzaizkion eginkizunetan hazi eta hezitakoak gara. Irakurtzen ikasi, eta firma botatzen ez ezik, gehixeago idazten ere trebatu, eta matematiketako eragiketa xumeenak egiteko gauza izan eta kito. Hor egin genuen planto. Hori bai, gure garaian ez zen inor geratu firma botatzen ikasi gabe. XX.mendearen hasieran, nahiz eta eskolan ibilitakoak izan, amezketar asko zegoen mahai gaineko tintarekin bi zirriborro egiteko gai ez zena.

### 13 IKASLE OHIEN TESTIGANTZAK

#### KALBARIO HUTSA IZAN ZEN NIRE ESKOLA GARAIA



Lan bereziak egingo nituen bizitzan, baina horrenbestekorik ez dut uste. Eskolan ibili ginen garaiei begira jarri behar omen dut nire burua. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa ere egin horrelako putzuan sartu behar nuenik. Zer esan dezaket nik eskolaz? Esateko handiegirik ez daukat, ibili ere ez ginen gehiegi ibili eta. Eskubete puntu biltzeko gauza banintz, sikira... Saiatuko naiz. Lau urteko eskola aldiak ez du orrialde asko betetzeko aukerarik ematen, baina saiatuz gero, ezinik ez omen dago eta... hor noakizue bidea urratzera.

Zazpi urte izango nituen Etxaisko etxe ataria utzi eta nire poltsatxoarekin eskolara bidean jarri nindutenean, lehenbizikoz. Aurreneko aldia zen hura niretzako. Beste batzuk Kontxition maistrarekin eskolatutakoak-edo baziren, baina nik ez nuen inoiz zapaldu eskola-aurreko gelarik. Ez letra, ez zenbaki... ezer jakin gabe hasi nintzen udaletxean zegoen gela hartara igotzen. Poltsa arina neraman eskolara estreinako zegoen igo nintzenean.

Aurreneko maisua Don Luziano Aranguren izan zen, Abaltzisketan jaio eta Alegian bizi izan zena. Eskola-umeen artean “Kafetero” esaten genion. Ez genuen asko ikasi berarekin. Hori alde txarrari dagokionez. Alde onari dagokionez, esango nuke ez zela ume-jotzaile gisara nabarmendu. Hantxe ibiltzen ginen gu, pupitre azpitan, jolasean eta denbora-pasa.

Gure eskola-gelak, gaurkoekin alderatzen baditugu, zerikusirik ez dute. Maisua ikasle helduenez arduratzen zen batez ere. Gauza jakina da, gela bakar batean adin ezberdinetako ume eta gaztetxoak biltzen ginela, nahasian. Nik neronek Joakin Sarasola ezagutu nuen eskolan, eta oso oker ez banago, guk baino zortzi urte gehiago zituen eta ditu Joakinek. Alde izugarria zegoen batzuen eta besteen artean.

Ez dakit zer nolako portaera izango nuen eskolan, baina don Luziano Aranguren ez ninduen inoiz jo. Bigarrenak, bai. Don Victor esaten geniola uste dut. Huraxe izan zen eskua gainean jarri zidan bakarra.

Zazpi urterekin sartu eta... hamaikarekin utzi nuen eskola. Lau urte eskas... Batere eskolarik gabe atera nintzela esatea gehiegikeria irudituko zaio zenbaiti, eta modu goxoagoan esango dut: Eskola handirik gabe atera nintzen. Zergatik inor engainatu... Hutsaren hurrengo eskolarekin atera nintzen, bai. Nik ez nuen batuketa, kenketa, biderketa eta horrelakorik ikasi. Gurea sumar-restar-multiplicar izan zen. Eta nahiko larri hori ere.

Nire iritzirako, matematika horiek erakusten dutena baino prezisoagoa da bizitzak ematen dizkigun irakaspenak jaso eta aplikatzea.

Den-dena esan behar badut, eskolako joan-etorriak utzi eta hilabete pare batez Anparo Garaikoetxearekin ibili nintzen, gau-eskola esaten genien haietan. Gogotik ahalegintzen zen gauzak konpreniarazten; euskaraz ere bazekien hark. Lau urtetan eskolan ikasitakoaz baino gehiago baliatu izan naiz bizitzan Anparok emandakoarekin. Don Luzianorekin ere ibili nintzen bolada batean... Hamabi-hamahiru urte izango nituen orduan, gau-eskolan Anparorekin ibili nintzen garaian.

Lagunarteko kontuetan-eta, askotan galdetzen didate zergatik utzi nuen eskola hain gazterik, hamaika urterekin. Beti erantzun berbera ematen dut. Hitz gutxitan esango dut:-Gogorik ez nuelako. Ikusten nuen batzuek disfrutatzen edo gozaten zutela, eta nik berriz ez nuen batere ondo pasatzen. Kalbario hutsa izan zen nire eskola garaia. Gaztelaniaz ezer ulertu gabe...

Gure gurasoak saiatzen ziren eskolara bidaltzen, baina... aitzakia gutxi behar izaten nuen etxean geratzeko. Halaz guztiz, zera aitortu behar dut:- Inoiz ez nuela piperrik egin, gurasoek esanda joandakoetan.

**Juan Labaien**

### **BIDE MALKARTSUA IZAN ZEN GURE ESKOLA GARAIA**

Nire eskola garaiko oroitzapenak berritzeko eskatu didate. Gero eta urrutiago geratzen ari zaizkit kontu eta gertaera haiek, baina saiatuko naiz, galbahea dantzatu, eta oroitzapen nagusienak eguneratzen. Ariketa egokia da ezarri didatena.

1956an hasi nintzen eskola-eskolan, baina ordurako bizpahiru urte eginak nituen Kontxixion Larreta zenarekin, eskolaurrea edo horrela esan diezaiokegun ahaleginean. Lau-bost urte nituela hasi nintzen Kontxixioneekin. Nire etxean zegoenez, asko ezagutzen nuen Kontxixion, eta nahi nuen bezala ibiltzen nintzen berarekin, ezer ikasteko kezka handirik gabe; libre-libre ibiltzen utzi zidan. Eskolaurreko gela horretan 1952an hasi nintzela esango nuke; hortxe-hortxe ibiliko da, hor nonbait. “Estanko Txikia” esaten genion gelan ibili ginen. Martonean edo Altunatarren Okindegian ere ibili ginela buruan daukat, baina oso lauso; gandutan bezala...


Argi eta garbi daukadana zera da: eskolan hasi nintzenean, -eta 1956ko kontua da hau-, hutsetik abiatu behar izan nuela. Hau da, maletan ez neukala ezer jasorik Kontxixionen gelan ikasitakoetatik. Oso zehatz ez dakit zenbat eskolume izango ginen urte hartan, baina, hamairu urte bete eta eskola utzi behar izan nuenean, laurogeitik gora ginela ez zait ahaztutzen. Eta hori nesken sailean soilik. Erantsi beste horrenbeste mutiletan... Gero, bigarren oroitzapena honako hau da: gure gelan, txikiak zein nagusiak, guztiok hantxe ibiltzen ginela. Txikiak, sei-zazpi urtekoak eta nagusiak, hamairu-hamalaukoak.

Suerte on samarra izan genuen guk maistrarekin; Anparo Garaikoetxea, oñatiarra egokitu zitzaigun. Matematikak eta erakusten oso trebea zen. Amezketako eskolan emandako urte guztietan bera izan nuen “maixtra”. Oso emakume txukuna zen. Eskolako orduz kanpo, “partikularrak” izenez ezagutzen genituen eskolak ere ematen zituen Anparok. Niri asko irakatsi zidan.

Anparori buruzko xehetasun dezente daukat buruan. Oso oker ez banago, Oñatiko plazan zegoen pasteleri bateko alaba zen. Ezkondu eta, senarraren lan-postuak horrela eskaturik, Kanariar Uharteetara joan behar izan zuen. Alargundu eta Amezketara etorri zen, bi alaba zituela. Urte mordoa egin zuen Amezketan. Emakume prestua zen hura.



Gure ikasgela nola zegoen banaturik ondo gogoratzen naiz. Aurre-aurrean, banku luxekak; gero, pupitreak, eta azken lerroetan, berriro, bankuak. Anparo maistrak arbelean jartzen zizkigun egin beharrekoak, baina gehienetan ez genion kasu handirik egiten. Pupitre artean ere noiznahi gordetzen ginen. Hala ere, asko saiatzen zen Anparo, alde batera zein bestera.



- 1\_Lontxita Gorostegi
- 2\_Maixabel Zubeldia
- 3\_Mª Karmen Beldarrain
- 4\_Feli Etxeberria
- 5\_Juanita Iriarte
- 6\_Maxux Altuna
- 7\_Maitere Altuna
- 8\_Mª Angeles Urizar
- 9\_Mª Kontxi Altuna

- 10\_Juanita Gorostegi
- 11\_Mª Karmen Otamendi
- 12\_Rexu Elurbe
- 13\_Manoli Zuriarrain
- 14\_.....
- 15\_Axun Tolosa
- 16\_Loli Sagastume
- 17\_.....
- 18\_Arantxa Etxeberria

- 19\_Pepi Zubillaga
- 20\_Margari Mujika
- 21\_Mª Karmen Elurbe
- 22\_Mª Karmen Aierbe
- 23\_Mari Kruz Zubeldia
- 24\_Maitere Goitia
- 25\_Feli Goitia
- 26\_.....
- 27\_Anparo Garaikoetxea (irakaslea)
- 28\_Maritxu Beobide
- 29\_Arantxa Beobide
- 30\_Mª Jesus Zabala
- 31\_Mª Kruz Arandia
- 32\_Loli Tolosa ??
- 33\_Pepi Otamendi
- 34\_Mª Jesus Otamendi
- 35\_Izaskun Zubeldia
- 36\_Maitere Galartza
- 37\_Primi Galartza ??
- 38\_Begoña Larreta
- 39\_Mª Kruz Sagastume
- 40\_Arantxa Altuna
- 41\_Maritxu Altuna
- 42\_Xabina Aierbe



Kontxixon, irakasle preziatua.

Brodatzen erakusten ere ahalegintzen zen. Maistra ona izan genuen hura. Cuarto Grado de Álvarez egin genuen berarekin; gure hartzako enziklopediak ziren haiek... lehenengo maila, bigarrena, hirugarrena eta guretzat laugarrena.

Badakit mutilen eskoletan zigorra maiz erabiltzen zela; neskean ez zen horrelakorik gertatzen. Beste bide bat erabiltzen zuen Anparo Garaikoetxeak, gaiztakeriaren bat egiten genuenean. Ni ere bihurri samarra izaki, okerren bat egindakoan beti hauxe esaten zidan: “Pepita, coge los trastos y vete a la calle”. Mila bider entzundako leloa izan nuen hori. Larriena hori esan ondoan sortzen zen: –Non gordeko naiz?

Izan ere, kalean inork ikusiz gero, begien bistakoa zen egindako pikardiaren baten zigorra betetzen ari ginela. Horregatik, ahal nuenetan, osoko bilkuretako gelan egoten nintzen, erdi ezkutuan, beste bigarren baten zain... Hura izan ohi zen niretzat unerik gogorrena.

Bai, mutilen gelakoak oso bestelako kontuak zirela badakit. Inoiz, burua estaltzen saiatu eta, besoak ubelduta edukitakoak bizi dira oraindik ere Amezetan. Ezagutzen ditut nik neronek. Guk beldurra Ipiñaren gelatik komunera pasatzen ginenean izaten genuen... Zigortzaile amorratuaren fama baitzuen maisu hark.

Beste puntu bat. Gure ama zena gaixoa asko arduratu zen bere seme-alabok eskola izan genezan; anai zaharrena Santander ondoko herri batera bidali zuen, lana egin eta eskola gehiago izan zezan; bigarrenarekin ahalegindu zen, baina zortzi egun pasa eta etxean aurkeztu zen; hirugarrengoa berriz, neskame joan zen Irun aldera, Laturuko Karmenen etxera; laugarrena, haurrak zaindu eta eskola gehixeago izango ote zuen... Ni berriz ikastetxe “apostoliko” esaten zitzaizen haletako batera bidali ninduen. Eta Secretariado edo Idazkaritza bukatu nuen ikastetxe horretan.

Gure ama zenak oso garbi zeukan eskolaren premia, baina ez dut uste pentsakera hori asko sustraitua zegoenik Amezetan. Salbuespenak... Izaskun Zubeldianekoa, Larreaneko Arantza, Auzoetxeko Joxepi... Herritik kanpo familiakorik ez zeukanak jai zeukan eskola kontuan.

Arestian aipatutako ikastetxe horretan izan nuen esperientzia nahiko gogorra gertatu zitzaidan. Hiru urte eman nituen eta hiru bider bakarrik etorri nintzen etxera. Osaba hil zitzaigunean, hiletara; Kontxixon zena hil zenean...

Nahiz eta maistra ona izan gurea, bide aldapsua zen gure eskola garaiko hura, malkartsua.

**Pepi Otamendi**







## AMEZKETAN, ESKOLA ZAHARRETIK BERRIRAKO IBILERAK

*Feli Etxeberria*

Pertsonak tokatzen zaion  
garaian behar du hazi  
inguruak babesten du  
ta ingurua du hesi.  
Eskola beti izan da  
boterearen gutizi,  
jendea nahi izaten du  
berera makur arazi;  
lehengo eskola haietan  
nahiz bazen zenbait oasi,  
ezin zitezkeen keinu  
atsegin asko ikusi,  
diziplina gogorrean  
zaplazteko ta garrasi...  
“Heziko zaitugu baina  
gero guretzako bizi”.

Heziketa da herrien  
iraupenaren oinarri  
baina eskola zahar hura zen  
herriko haurrentzat harri  
hizkuntza ta curriculum  
arrotzak jakintza iturri;  
dena gaztelaniaz zen  
entzun, idatzi, irakurri,  
ta adi baino gehiago  
belarriak gorri-gorri,  
eskola zahar hura ezin  
zitzaion opa inorri  
hortz eroriak bezela  
hobe sugarretan jarri:  
“Otok su hartzak zaharra ta  
guri berria ekarri!”.

*Doinua: Habanera*

# 2

## 1 SARRERA

Ikastolaren sorrera eta ibilbidea aztertzeko ezinbestekoa da herriak eskolaren eremuan bizi izan zuen egoera ezagutzea. Aldi berean, neurri batean, guztiok bizi izan ditugun esperientziak eta izan dugun eskolaren helburua eta portaera agertzea ere oso egokizat jotzen dugu.

Hori horrela izanik, nik neronek bizi izan nuen herriko eskolari buruzko gogoeta laburra egingo dut. Badira 70 urte lehen aldiz eskolan hankak jarri nituela. Eskolaren arloan egin dudan ibilbidea luzea eta etenik gabea izan da, ikasle eta irakasle izateko zorte handia izan baitut. Ez dut esperientzia osoa sartuko idatzitxo honetan, baina bai aipagarriak iruditzen zaizkidan pasarte batzuk. Eta, batez ere, 15 urte geroagoko eskolan ibili ziren ikasle batzuen bizipenak deskribatuko ditut, nirearen antzekoak izan ote ziren ikusteko.

Irakaskuntzaren eremuan, garai horretan, 60ko hamarkadaren azken aldera, eskola nazionalaz eta ikastolaz gain, Amezketan beste eskola bat antolatu zen gaztetxoentzat. Eskola hori Aralar paper-lantegiak antolatu zuen bertan lan egiten zuten gurasoen semeentzat. Mutilak soilik bultzatu zituen batxilergo ikasketak egitera. Bide horretatik kanpo geratu ziren herriko beste mutilak eta neska guziak. Atal horri buruzko gogoeta egiteko, eskarmentu horretan partaide izan ziren neska-mutil batzuen lekukotasuna jaso dugu.

Garaiko testuinguruan ikusi behar da ikastolaren sorrera eta bilakaera. Orokorrean, Ikastolak aurrez indarrean zegoen eskolaren eredia puskatu eta eredu berri bat sortzera jo zuen. Amezketan beste herri askotan bezala, ikastolaren sorrera ez zen euskaran bakarrik oinarritu. Beste heziketa mota bat emateko funtzioa eta euskaraz irakastea, biak sartzen ziren eskola aldatzeko asmo horren baitan, lan honetan azalduko den bezala. Jakina, herriari ikastola sortzeak zekarren zama bertako guraso, andereño eta gazte konprometituen sorbaldeetara joan zen. Eskola berri bat sortzeko ahalegin horretan, motibazioak bazuen noski zerikusia, eta aldaketarako borondate hori OARGIk eta Guraso Elkarteak bideratu zuten.

## 2 ELIZAK, ESKOLAREKIN BATERA, IKASLEEN SOZIALIZAZIOAN IZAN ZUEN ERAGINA ETA HARI BURUZKO TESTIGANTZAK

Elizarekin batera, familia eta lagunarteaz aparte, eskolak sozializatzen zituen haur eta gazteak hezkuntzaren bidez. Diktaduraren mendean geunden, euskara galtzeko zorian zegoen, egunetik egunera euskal hitzun gutxiago genituen. Euskal kulturaren zapalkuntza bistakoa zen. Baina amezketarren hizkuntza euskara zen. Eskolako hizkuntza, berriz, gaztelera zen, erabat goitik behera inposatua. Eskola erregimen frankistari lotua zegoen eta eliza ere bai maila batean. Hala ere, elizak herriaren sinesmena landu eta bere eragina mantendu nahi bazuen, derrigorrezkoa zuen euskara erabiltzea sermoietan, dotrina irakastean, otoitzetan, baktuak aitortzean e.a.

Nola nahi ere, agertoki desberdinetan kokatzen ziren elizaren presentzia zuten bizipenak eta eskolarenak, bieki komunak zitzaizkien bizi-guneetan topo egin bazezaketen ere. Sozializazio edo gizarteratzeak integrazioa eskatzen du. Eta norbanakoak bere bizi-girotik jasotzen ditu giza komunitateak eta beste erakundeek helarazten dizkieten elementuak: hizkuntza, gizarte balioak eta arauak. Garbi dago Amezketak gerra ostean bizi izan zuen giroak ere gure sozializazioan eragin zuela. Horrela, gogoratzen dugu familia bakoitzak



*Bataio-festa. Sozializazio prozesuaren abiapuntua. Martin Zabala Aierberen (Albitzurikoa) bataioa. Aldamenetan, Martin Aierbe aita pontekoa, eta Martina Artano ama pontekoa.*

- 1\_Sebastian Goñi
- 2\_Agustina Etxeberria
- 3\_Joakin Galartza
- 4\_Maria Zabala
- 5\_Kostantino Galartza
- 6\_.....
- 7\_Jose Ramon Aierbe
- 8\_Sabina Etxeberria
- 9\_.....
- 10\_.....
- 11\_Joxepa Joakina Sarasola
- 12\_Joxepa Murua
- 13\_Agustina Sarasola
- 14\_Anttoni Sagastume
- 15\_Luis Galartza
- 16\_.....
- 17\_Joxe Galartza
- 18\_Joakin Galartza
- 19\_Josefa Otamendi



- 20\_Jose Altuna
- 21\_Pilar Etxegoien ??
- 22\_Martin Ayerbe
- 23\_Joana Ezeiza
- 24\_Martina Artano
- 25\_Migel Ignazio Zabala
- 26\_Ignazio Etxeberria
- 27\_.....
- 28\_.....
- 29\_Joxe Ignazio Galartza
- 30\_Juanito Elizalde
- 31\_Juan Ignazio Aierbe
- 32\_Ramona Galartza
- 33\_Antonio Etxeberria
- 34\_Tiburtzio Artola

kontsumitu zezakeena soilik jaso zezakeela, etxean genuen “arrazionamenduko kartila” zela eta. Adibide gisa, gogoan dut olioia, azukrea eta horrelako produktuez gain, “esne kondentsatua” ekartzen zutela eta oso gauza berezia zela hura guretzat. Janariaren eskasiak bizi-modu bat erakusten zuen, elikagaiak eta beste ondasunak elkarrekin banatu beharrekina zerikusia zuena, ziur aski; eta horretara iristea ez zen beti gauza erraza izango; belar motxean ibili beharrek ere asko erakusten du. Gizarteratze prozesua ez da amaitzen, bizitzan zehar hainbat mailatan egiten da. Jakina da, dimentsio bat baino gehiago iker daitezkeela, baina hemen elizaren eremuan ospatzen den komunio handiak sozializazio prozesuan zer-nolako zentzua duen ere aztertu nahi da. Era berean, norbanakoaren portaeraren kontrola nola gauzatzen den ere bai.

Esaterako, testigantza batek hauxe dio:

*“Ez genuen pagarik izaten; niri amak txanpon batzuk ematen zizkidan igandetan elizan botatzeko, baina batzuetan Elizaldera joan eta gozokiak erosten nituen. Gero, ordea, konfesatu egin behar zen. Gogoan dut ilusio handia izaten genuela komunioa egiteko; gero helduagoak sentitzen ginen”.*

*“Dotrina ere ikasi behar izaten genuen. Dena buruz. Batzuek zailtasunak izaten zituzten; izan ere, egun askotan ez zuten joaterik izaten ez dotrinara, ez eskolara, etxeko lanetan lagundu behar zutelako”.*

## 2.1\_Komunio Handia Amezketan

Nerabegarotik gaztarorako pauso ematea mugarri bat zen, eta horrek ospakizuna eskatzen zuen. Alde batetik, eliza zen horren antolatzailea; bestetik, familia eta gizarte zibila ere elizaren esanetara mugitzen ziren. Han eta hemen antolatzen ziren ekintzen protagonista zuzenak komunioa egin zuten neska-mutilak izaten ziren. Ekintza nagusia elizan egiten zen, jaunartzea zen; bertan agertzen zen egun horretatik aurrerako jokoerak nolakoa izan behar zuen, bizitzaren epe berri baten hasieratzat hartzen baitzen. Esaterako, taldearen izenean neska



Ugarteko eliztarrak.

edo mutil batek olerki bat errezitatu behar izaten zuen, aldartetik edota pulpitutik. Olerkiaren edukia oso loturik egoten zen Ama Birjinaren irudiarekin, bekatutik ihes egin beharrekina, eta horretan erortzeko beldurrarekin. Azken batean, kulpadun edo errudun sentiarazten gintuen zenbait ekintzak.



*Komunio handia egitearen zentzua ez zen jaunartze hutsarena.*



- 1\_D. Emigdio Lizarza (apaiza)
- 2\_Juan Mari Etxegoien
- 3\_Jose Artano
- 4\_.....
- 5\_Manuel Sarasola
- 6\_Bittor Artola
- 7\_Martina Artola

- 8\_Pilar Elurbe
- 9\_Pilar Artano
- 10\_D. Manuel Lizarribar (apaiza)
- 11\_.....
- 12\_.....
- 13\_Rafael Tolosa
- 14\_Bixente Telletxea

- 15\_Nemesio Etxeberria
- 16\_Karmen Karrera
- 17\_.....
- 18\_Karmen Mujika ??
- 19\_Iñasi Arteaga



### “RAMONA, IRAKASLE SAIATUA”

Amezketan jaio nintzen 1939an, gerra bukatu zen urtean. 1945ean joan nintzen eskolara lehen aldiz ahizpa Angelexek lagunduta. Gelako guztiak, maistra barru, ezezagunak ziren niretzako, bat izan ezik: Arantxa Karrera. Maistrak haren ondoan jartzeko esan zidan, nahiz eta bera handienetakoa izan. Hurrengo egunetik aurrera bankura pasa nintzen, maistraren pupitrearen ondora. Gero ikasi ahala bankuz aldatzen joan ginen, azkeneko bankura iritsi arte. Katona esaten genion liburuxka bat genuen hizkiak ikasteko. Goizez, matematika, gramatika, gizartea eta historia sagrada lantzen genituen. Oraindik gogoan ditut Jacoben semeen izenak, karretillan dakizkit.

Arratsaldez, berriz, esku lanak egiten genituen: margotu, marraztu eta batez ere laboreak, festoiak, bainekak, filtirea, bastidoreko bordatuak etab... Horietaz baliatuz, maindireak, mantelak, mukizapiak eta tapeteak egiten genituen.

Ramona maistrari errespetu handia genion, beldur pixka bat ere bai. Oso gogorra zen, baina asko saiatzen zen guri irakasten. Bestelakoa zen, Luziano maisua, kafetero ezizena zuena, hau nire anaia Rafaelen maisua zen. Rafaellek gutxi ikasten zuen eta gurasoek uste zuten ez zuela ikasteko balio. Pixka bat laguntzeko On Jose Maria apaizarengana bidali zuten klase partikularretara eta honek esan zien erraz ikasten zuela. Ez zuela arazorik. Nola ikasiko zuen bada, irakasleak arratsaldero burua mahai gainean jarrita lo egiten bazuen?

Zailtasun handia gaztelarekin genuen. Guardia Zibilak sarri etortzen ziren herrira buelta bat ematera, eta haiek bakarrik hitz egiten zuten erdararaz. Beste inori ez genion erdararaz entzuten. Eta guk irakurri, idatzi eta zenbakiak erdaraz egin behar genituen. Hura komeria!

Gogoan dut ilusio handia izaten genuela komunioa egiteko, gero helduagoak sentitzen ginen eta. Baina, aurrez dotrina ikasi behar genuen. Dena buruz.

Komunioko egunean familiartekoak etortzen ziren guri lagun egitera. Festa eguna zen. Goizean elizara joan, komunioa hartu eta olerki moduko bat esan behar genuen; M<sup>a</sup> Jexus Luisitonekoak amabirjinaren aurrean, eta nik pulpitutik. Oraindik gogoan dut. Hona hemen:

*Ama begira gaitzazu irripar gozoaz,  
Jesus gugan dago eta atsegin osoaz.  
Eman eskerrik asko denon izenean,  
Egon dedila beti gure etxean.  
Ez dezagula bota bekatu astunez,  
Gogoratuaz beti gaurko egunez.  
Orain bai garbiak gara,*

*Zure antzekoak,  
Beti izango ote gara gaur bezalakoak?  
Ez ote gara ahaztuko zure maitasunez  
Munduko atseginen atzetik joanez?  
Ezetz esaten dizu gaur gure bihotzak  
Lehenago gaitzala hartu heriotzak.*

*Ondoren gosaria sakristian, eta arratsaldean arroz esnea parroikiko lokalean. Jarraian, herriko plazan aurrekuia dantzatu behar zen, larri ibiltzen ziren mutil gehienak, lehenengo aldia izaten baitzuten.*

*Handik gutxira eskola utzi eta Angelexekin josten ikasten hasi nintzen. Lagun asko goratzen ditut jostundegian. Eustaxi eta Lolita, Joxepa eta Bittori Benta Txikikoak, Anttoni Maiza, Ramonita Latukoa, Juanita Otamendi, Joxepa Beantetxe-berrikoa, M<sup>a</sup> Jesus Ayerbe, Lolita Ayerbe, Regina Mauduit, Martina Maindegikoa. Lagun arte bikaina genuen eta oso ondo pasatzen genuen. Oroitzapen onak ditut.*

**Bittori Tolosa**

Elizaz kanpo ere bazuen bere esanahia komunio handia egiteak. Esparru publikoan aurkezten ziren komunioko neska-mutilak, eta gizarte zibilaren onarpena ospatzen zen herriko plazan egindako ekintza sinbolikoaren bidez. Gogoan dut, lotsaturik, eskutik heldu eta borobil bat eginez, Txanbolinen txistu soinuaren erritmoan plazaren erdian azaltzen zirenek bizi izaten zuten momentu magikoa. Sokadantza egin behar izaten zen apaiz, herriko agintari, familia eta beste herritarren aurrean. Komuniorako prestakuntza denborak epe batera mugatu behar zuen. Dotrina ondo jakin behar zen, eta dantzatzen ere bai. Entseguak elizaren alboan egiten zituzten dotrina egunetan; mutilek nesken begien bistatik ezkutan dantzatzen saiatzen ziren. Askori dotrina ikasteak baino kezka handiagoa sortzen zien sokadantza egin beharrak. Ez da harrizkekoa, plazaren erdian dantza eginez aurkeztu beharrak barnean sortzen zien beldurra, emango zuten itxura, jasoko zituzten txaloak... kontuan hartuta.

Ondoren "Accion Catolica"ko lokalean, Kontxisin eskola egon zen gelan, hauxe izaten zen askaria: arroz-esnea eta txokolate egina gailetekin. Plazan ez ziren falta izaten globoak, goxoki saltzaileen mahaiak eta han-hemengo txistu soinuak. Ia beti Korpus egunean ospatzen zen egun hori. Egun horretako prozesioa elizatik udaletxerainokoa izaten zen, komunioko neska-mutilak lehen lerroan zirela. Beste ospakizun garrantzitsua sendotza egunekoia izaten zen Amezketan. 1951n, adibidez, Font Andreu gotzaina etorri zen ospakizunera eta gogoan dut hari ongi etorria egiteko eskolan eta dotrinan egin genituen esku-lanak. Egun berezia izan zen hura amezketarrentzat.

## **2.2\_Zer aldatzen zen egun handi horretatik aurrera?**

Komunio handia hartutakoek helduen erdua jarraituko zutela espero zen: janzkera eta nortasun berria agertuko zuten. Neskek, oso pozik, galtzerdi luzeak janzten zituzten eta, mutilek, berriz, galtza luzeak.

Orokorrean, gehientzat, batez ere neskentzat, bukatu ziren jolasak, eta baita eskolako ikasketak ere. Garai hartan, hamahiru-hamalau urte betez gero ogibidea aurkitu behar zen eta, bide horretatik, neskek neskame lanetara, etxeko lanetara, jostun izateko ikastera edo beste lanen baten bila jotzen zuten. Mutilak, berriz, baserriko lanetara, morrontzara, baso-lanera, edo tailerretako aprendiz lanetara joaten ziren. Mutilen beste irtenbidetako bat apaizgai, edo fraidegai bihurtzea zen. Aldiz, neskek beranduago hartzen zuten mojetarako bidea.





San Isidro eguneko ohitura.

- 1\_Joakin Etxeberria
- 2\_Luis Goñi
- 3\_J. Jabier Larrea
- 4\_Jose Etxeberria
- 5\_Jabier Goñi
- 6\_Rufino Goñi
- 7\_Koldo Agirrezabala
- 8\_Joxe M<sup>a</sup> Zubeldia
- 9\_Martzelino Iñurrita
- 10\_Jexux Iñurrita
- 11\_Joxe M<sup>o</sup> Ramos
- 12\_Gillermo Zabala
- 13\_Juani Labaien
- 14\_Iñaxi Etxeberria
- 15\_Bakartxo Galartza
- 16\_M<sup>a</sup> Karmen Ordozgoiti
- 26\_Inmakulada Olano.
- 17\_Eba Garmendia
- 27\_Ana M<sup>a</sup> Etxeberria
- 18\_Arantxa Gorostidi



- 19\_M<sup>a</sup> Luisa Labaien
- 20\_Amaia Goñi
- 21\_Mari Jose Galartza
- 22\_Bittori Galartza
- 23\_Pepi Artola
- 24\_M<sup>a</sup> Luisa Iñurrategi
- 25\_M<sup>a</sup> Elena Terradillos
- 26\_Inmakulada Olano
- 27\_Ana M<sup>a</sup> Etxeberria
- 28\_.....

Garai hartako bizierak aldatu dira eta gaur egun Amezketako haurrak eta gazteak ez dira eliza eta eskolaren mende bizi, garai haietakoak bezala. Bizitzarako beste ikuspegi bat dute gizarteak, familiak eta eskolak; izan ere, ikaskuntza akademikoaz gain beste balore asko lantzen baitira. Azaldu dugun transizio errituari dagokionez, nerabezarotik gaztarrak zubia beste era batera egiten da. Gatazkak sortzen direnean, nerabeen izaera pertsonala gogoan hartzen da, haiei buruz hitz egiten eta beren ikuspegiak adierazten uzten zaie eta gatazkaren ebazpena ondo bideratzen bada, lagungarri suertatuko zaie gerorako. Beraz, heziketaren planteamendua aldatzen doa; nerabea heldu arduratsu eta autonomo izatera gidatuko duten gaitasunak lantzen dira.

### 3 AMEZKETAKO GURE ESKOLAREN NOLAKOAZ HAINBAT OROITZAPEN.

#### 3.1 Nire oroitzapenak

Gure lehen eskolari Eskola Txikia deitzen genion eta Estankoko gela handi batean zegoen; gela hura parrokiako lokala moduan ezagutzen zen. Bertan 4 urtetik 6 urtera arteko ume txikien eskola, Kontxision Larreta irakasle zela. Guk ezagutu genuenean beltzez jantzita ibiltzen zen, alarguna zen nonbait eta; Ertartenean bizi zen, eta halako errespetu berezia ere bagenion; haren inguruan topatuz gero, Ave M<sup>a</sup> Purisima esaterainoko errespetua.

Eskola Txikiko nire bizipenak onak dira. Pozik joaten nintzen kartilako letrak eta zenbakiak ikastera. Baita otoitzak eta abestiak gogotik kantatzera ere. Gogoan dut” **Nire ama txit laztana**” abesten genuela eskolatik irteterakoan. Han neska-mutilak biltzen ginen eta lotsati xamarra nintzela uste dut. Gogoan dut mahai-gainean edukitzen zuen makilatxo: oso distiratsua zen. Noiz-behinka kaskarrekoen bat ematen zien mutilei, baina jotzeko baino gehiago isiltasuna eskatzeko hartzen zuen eskuan makilatxo hura. Emakume serioa zela dirudit eta harekin harreman ona izan nuen arren, ez zitzaidan iruditzen oso goxoa zenik. Halere, euskaraz hitz egiten zigunez, ikasbidea asko errazten zigun. Beldurrik ez nuen sentitu. Geroago, 6 urterekin, Eskola Nazionalera joaten ginen. Nesken ikasgelan 6 urtetik 12 edo 14 urtera artekoak biltzen ginen, eta asko ginen. Nik, eskola horretan, beldurra nion irakasleari. Gogoan ditut jasotako masailekoak, maistrak “enhebra la aguja” eskatu eta, nik ezer ulertu ez nionean. Geldi-geldi geratu nintzen berari begira, negar batean. Behar bada, nire burugogorkeria zela pentsatuko zuen, baina nik ez nion ulertzen eskatzen zidana.

Ramona maistra jantzi ilunez janzen zen; ileak buruaren atzealdean moño batean bilduta orrazten zen. Aurpegiko larru-azala oso iluna zuela, gorpuzkera meharra eta luzea dirudit. Ormaiztegiko alaba izan arren, eta euskaraz jakin arren, sekulan ez nion euskararik entzun. Beste behin zigortuta utzi ninduen gelan; marrazki bat kopiatu behar nuen arbetetik eta nik ezin egin hura. Hainbesterainokoa zen sentitzen nuen estutasuna, ez baitzidan uzten neure buruari bueltarik ematen. Beldurraren beldurrez etxekoei laguntza eskatzen nien idazten aritzeko, biderketa taulak ikasteko, bainikak egiteko eta beste zenbait gaitarako, eskolara joan aurretik ikasita eraman ahal izateko. Gogoan dut armairu baten barruan liburu batzuk bazirela, eta taldeka irakurtzen genituela. Baina egunero izaten ziren aritmetika eta lengoai saioak, gaztelera hutsean. Zuzenean ez genuen dotrinarik ikasten, baina batzuetan aitortzarako gaiak lantzen genituen. Han azaltzen zen Don Emigdio apaiza ere. Harrigarria da etxean ez nuela kontaktzen eskolan gertatutako ezer, nahiz eta goizean



*Feli Etxeberria, umetan, Kontxionen eskolan.*

jaikitakoan tristura handia sentitu nire barruan. Orduko ikaskide batzuen oroitzapena ez da nirearen antzekoa; horiek uste dute asko ikasten zela nahiz eta maistra askotan haserretu; alegia, garai hartako eskolaren jokabidea naturalizat jotzen dute.

Maistra hura beste eskolaren batera joan ondoren, beste bi izan genituen. Ni 10 urtera arte joan nintzen Amezketako eskolara. Asko maite nituen irakasle haiek; politik ikusten nituen, kolorezko jantziekin eta gorritz pintatutako ezpain eta azkazalekin. Ez nien beldurrik. Egia da euskararik ez zutela egiten, baina harreman giro ona sortzen zen eskolan. Liburuak zekarrena eta maistrak azaldutakoa memoriaz ikasi beharra izaten genuen. Bage-nuen entziklopedia bat, “Alvarez Enciclopedia” izenekoa; denetik zekarren liburu lodikote

3. Se vende un molino en Beasa  
 tasado en 13480 ptas. con el 12 p<sup>o</sup>  
 de rebaja; que cantidad se paga  
 ra por el molino?

13480	13480,00
x 12	1611,60
-----	-----
26960	11862,40 ptas.
13480	
-----	
16117,60 ptas	

Contesto que pagara 11862,40 ptas

4. Tengo un censo contra mi por el cual  
 pago 23,5 ptas. siendo el 3,5 p<sup>o</sup> el  
 interes; cual sera el capital?

100:c::3,5:23,5=671,32	
23,5 x 100 = 23500	135
0250	-----
0050	671,32 ptas
150	
0700	
630	

Contesto que sera 671,32 ptas.


Matematikako ariketa.

bat zen. Ikasi beharrekoa behin eta berriro errepikatzea zen ikasteko modu bakarra. Gogoan ditut aditzen zerrenda haiek eta konjugazioa ulertzeko zailtasunak. Ozenki irakurtzen genuen eta irakurgaiari buruzko galderaren bat egiten zigun irakasleak txandaka. Hor izaten genituen komeriak. Gelan beti zegoen besteak baino zerbait gehiago ulertzen zuen norbait eta honi eskatzen zitzaion laguntza. Haserrerren bat sortzen bazen, errieta jasotzen genuen, baina ez dut gogoan jotzen gintuztenik. Jende gehienak ahaztu egin du nolako



Irakaslea, eskola-umeekin.

- 1\_Jabier Urriza
- 2\_Jose Mari Morea
- 3\_Juan Mari Agirre
- 4\_Jesus Mari Goitia
- 5\_Ignazio Zabala
- 6\_Andres Altuna
- 7\_Anastasio Goitia
- 8\_Nemesio Larrea
- 9\_Rafa Beldarrain
- 10\_Mikel Etxeberria
- 11\_.....
- 12\_Demetrio Terradillos
- 13\_Karlos Etxeberria
- 14\_Asintxio Goñi
- 15\_Joakin Tolosa
- 16\_Migel Mari Sagastume
- 17\_Antonio Sagastume
- 18\_Jose Antonio Agirrezabala
- 19\_Martin Arandia
- 20\_Pedro Goñi
- 21\_Patxi Arandia
- 22\_Juanito Nazabal
- 23\_Jose Mari Agirrebarrena



- |                          |                         |
|--------------------------|-------------------------|
| 24_Jose Puldain          | 31_Joakin Zubillaga     |
| 25_.....                 | 32_Jose Luis Altuna     |
| 26_Iñaki Jauregi         | 33_Martin Agirrebarrena |
| 27_Ignazio Puldain       | 34_Roberto Azpeitia     |
| 28_Martin Alijoste       | 35_Antonio Sagastume    |
| 29_Jose Artola Sagastume | 36_Pedro Nazabal Tolosa |
| 30_Joakin Altuna         | 37_Jose Zabala          |

eskolatze prozesua izan zuen, eskola garaia pasatu eta gero. Baina, nire ustez, irakaslearekiko harremanak eta ikasketa esperientzian sentitutako poz eta tristurak ez dira ahazten.

### 3.2\_Aldaketaranzko urratsik nabaritu al zen gazteagoen eskolan?

Era berean, 15 urte beranduagoko eskolaren jokabidea nolakoa zen jakiteko gogoia erakutsi du eztabaida taldetxo batek. Ez da erraza gertakizunen berri zehaztasunez ematea; izan ere, denborak esperientziari beste ukitu bat ematen dio; baina, kasu honetan, baliagarria da askotariko ahotsak entzutea, eskolak aldaketarik izan duen ala ez ikusteko. Amezketan Eskola bakarra, eskola Nazionala, zegoenean izandako eskolatze bizipenak aipatzen dira jarraian: irakaslearen jokabidea eta irakats eredia nolakoak ziren, diziplina arazoa nola bizi izan zuten, nolako harreman giroa zuten eta abar.

#### “ESKOLA, INFERNUA; OARGI, ZERUA”

*Nire haurtzaroaren eta nerabezaroaren oroitzapenek badute gazitik eta gozotik. Nik bederatzirte arte izan nuen eskola, zapaltzaile frankista izan zen. Eta haren zerbitzari fidela Prudencio Lopez de Ipiña maisua zen. Eskola hark eragindako beldurrak eta terroreak markatu ninduen halaberrez, ni txiki sentiarazi ninduen, auto estimarik gabe. Bizipen gozoak baserria eta lurra maitatzen irakatsi ziguten gurasoengandik jaso nituen.*

*Bestalde, 6oko hamarkadaren erdialdetik aurrera Amezketan sortu zen gazte mugimenduari eskerrak eman beharrean gaude, egin zuen lan bikainagatik. Haiek egindako lanari esker, bereziki OARGIren inguruan antolatuta, garai alai eta zoriontsuak bizi izan genituen. Euskara eta euskal kulturaren bueltan hezi gintuzten, eta horrek lagundu zidan / zigun, eskola frankistan bizitu genuen ikara saretik ihes egitera. Horrela, nerabe zoriontsuak izateko aukera izan nuen / genuen, esperientzia berriak bizituz eta gure adinekoekin partekatuz.*

*Gainera, ezin ahaztu 1968 / 1969 ikasturtean Oargiren ekimenez herriko hainbat neska-mutilek aukera izan genuela batxilergoko lehen ikasturtea egiteko, eta horrek egia esan nire geroa bideratu zuen.*

*Beti izan dut oroimenean urte hura: izua bizi izatetik, euskaraz ezin hitz egin izatetik, pentsatzeko ahalmena kamustua izatetik, nola igaro ginen beste lurralde batera, nola igaro ginen giro lasai batean ikastera, gure arteko harremanak euskaraz izanez. Egia esan, esperientzia bikaina bizi izan genuen neska-mutilak elkarrekin.*

*Horren guztiaren ondorioz, gerora ere, gure koadrilan neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ginen harat eta honat. Eta hori guztia gure erreferentzia izan den 6oko hamarkadaren hondarreko Amezketako gazte eta herri mugimenduari zor diogu, eta lerroon bidez eskertu nahi diet bihotz-bihotzez, ondorengoek ere horren berri izan dezaten.*

**Karlos Etxeberria**



## • Euskara, hizkuntza zigorgarria

Irakaslearen irudia oso ezkorra ikusten da orokorrean. Hasteko, Amezketako jendearen hizkuntza euskara zen, euskaraz bizi ziren, baina gazteleraren inposaketa sufritu zuten. Eskola Nazionalean euskaraz hitz egitea ere debekatu egiten zen. Hau dio Koldok: “Eskolan ezer ez nuen ulertzen, dena zen gazteleraz, erabat kikilduta egoten ginen, ez genion ezer ulertzen maisuari. Euskaraz hitz egitea debekatua genuen”. Karlosek, hauxe: “Askotan ez genion ulertzen zer eskatzen zigun ere; batetik, gazteleraz ez genuen ulertzen eta, bestetik, beldur bizian bizi ginen. Jotzen gintuzten egindako galderak ez erantzuteagatik edo oker erantzuteagatik. Hainbestekoa zen debekua, hezurretaraino sartu baitziguten euskara zigorgarria zela”. Euskaraz egiten zuena zigortzeko eraztuna ere baliatu zuten irakasle batzuek. Gaztelera berriz, jakintzarako hizkuntza baliagarri gisara ikusi izan zen beti. Erraz ulertzen da, euskara maila baxuko hizkuntza eta gaztelera berriz goi mailakoa zela uste izatea. Arazoaren adierazpen gisa jasotako esanak dira horiek.

Imak dio: “Nesken kasuan ez da nabarmendu euskaraz egitearen kontrako zigorrik. Mertxe izeneko irakaslea genuen, jakina gaztelera hutsa egiten zuen, baina ez naiz oroitzen ulermen arazogatik zigortzen ninduenik”. Martinak hau du gogoan: “Irakasleak bazuen guk gaztelera ez jakitearen kezka. Adibideak jartzen saiatzen zen, honelakoak esanaz: “gazteleraz ikasi eta hitz egin behar duzue, bestela Mirenek bezala kurtsoa errepikatu beharko duzue”.

### “LEHEN ALDIZ, NESKA-MUTILAK ELKARREKIN”

Ni eskola Nazionalean 6 urterekin hasi nintzen. Hizkuntza arazoa handia zen, ez genuelako gaztelania ulertzen. Ez naiz gogoratzen nola konpontzen nintzen, baina argi dut irakasleari ez niola beldurrik. Harekin gustura egoten nintzen eta hark egiten zuena kopiatu egiten nuen. Mertxe zuen izena irakasle hark. Ikasleok modu onean tratatzen gintuen.

Geroago, paper-fabrikako eskolan ginela, Santanderko maistra bat ekarri ziguten, gaztelera hobeto ikas genezan, baina harekin ez ginen ongi konpontzen, eta beti gogoan dut gaizki portatzen ginela berarekin.

Gu OARGIRA pasatu ginen 10-11 urterekin, harriturik nago nola gertatu zen hura. Uste dut gurasoekin bilera bat egin zutela eta han konbentzitu zituztela haurrek, baita neskek ere, ikasketak egiten jarrai zezaten. Nire ustez, berebiziko aukera izan genuen ikasketak egiteko. Hogei ikasle ginen, eta Abaltzisketako Katalina izan genuen maistra. Euskalduna zenez, ez zegoen ulermen arazorik, nahiz eta ikasgaiak gaztelaniaz eman. Benetan jatorra zen, eta giro ona geneukan gure artean. Lehenbiziko aldia zen neska mutilak ikasgela berean biltzen ginela, elkarrekin ikasteko. Esperientzia oso polita izan zen. Nire ustez, herrian gazte ikasiak izatearen alde jokatu zuten Guraso Elkarteak eta OARGIk, eta asko eskertzen diet hori. Iruditzen zait haren inguruko dena atsegina zela. OARGIN eskolaz kanpoko jarduerak egiten genituen: antzerkia prestatzeko entseguak, dantza ikasketak, txistua jotzen ikasteko saioak (mutilentzat). Oso gogoan dut Eguberritako abestiak ikasten genituela, denok elkarrekin eskean ibiltzeko, eta Eguberritako jantziak OARGIK jarritakoak izaten genituela. Beraz, oroitzapen onak ditut, nik behintzat.

Ima Etxeberria



Nesken kasuan, dirudienez, irakasleak harreman giro ona sortuko zuen ikasgelan eta horrek hizkuntzaren arazoa, neurri batean, estali egiten zuen. Neskek uste dute irakaslearekin komunikatzea lortzen zutela, hizkuntza ez jakinagatik.

### • Eskolaren antolaketa berriak zahar izaten segitu zuen

Eskolako antolaketa alderdi desberdinetatik ikus liteke: ikastetxearen kudeaketa, ikasgelaren hedatzea, espazioa, planifikazioa, baliabideak, ordutegia, noiz eta nola egin ebaluazioa e.a. Hemen sartzen dira aspektu praktikoak, didaktikoak eta arauak...

Taldekilde desberdinek diotenez, ikastetxe osoa ikasgela batean sartzen zen; adin desberdinetako ikasleak pilatuta. Aldaketa bat nabari izan zen eskola berrietara pasatu eta talde handiak bikoiztu zituztenean. Hori neskak mutilekin nahasi gabe egin zen; ez zegoen hezkidetzarik. Horren inguruan hau dio Koldok: **“5 urtekoak eta 14koak elkarrekin geunden, denetara 100dik gora mutil ginen ikasgela berean. Ondoko gelan, 120 neskez osatutako taldea”. Hortik eskola berrira aldatu gintuzten, “Beltzaren Plazan” egin zutenara. Kontzejuko gela handian asko ginen eta, bi talde egin zituzten. Denak mutilak ginen. Eta beste talde bi neskenak, bi ikasgeletan banatuta”.**

#### “ESKOLA NAZIONALERA, BETI BELDURREZ”

Ni 6 urterekin eskolan hasi nintzenean, ez nuen gaztelaniarik ulertzen. Geure artean euskaraz egiten genuen, baina maisuari ezin zitzaion euskaraz egin, gazteleraz egin behar zitzaion derrigorrez. Hura zen komeria hura!, larritasun latzak pasatu genituen, bai nik, eta baita besteek ere. Gauza bat da euskaraz hitz egitea debekatua egotea eta beste bat gaztelania ulertu ere ez genuela egiten. Arazo horri beste hau erantsi behar zaio: Ipiña maisuari genion beldur ikaragarria. Beti haserre bizian eta modu gaiztoan tratatzen gintuen. Haren ustez, zigorra izango zen guk ikasteko modu bakarra, baina sortzen zuen giroa ikastearen kontrako zen erabat. Jipoitzea zen haren lana. Eskolako zigor, istilu eta iskanbilak ikasleen eta irakaslearen artean gelditzen ziren. Ez genuen horrelakorik etxean kontatzen.

Niretzat irtenbidea 1968-1969 ikasturtean, 11 urterekin, paper-fabrikako eskolara joatea izan zen. Mutilak bakarrik sartu ginen eskola horretan. Aldaketa handia izan zen, baina han ere izaten zen zigorra, maila berekoa ez bazen ere. Esatekoa da garai hartan lasaitasuna sentitzen genuela OARGIra joaten ginenean. Nik oso ondo pasatzen nuen. Igandetan zinea izaten genuen eta han ikusitako pelikulak oso polittak ziren; adibidez, *El Gordo y el Flako*. Nahiko barre egiten genuen. OARGIko lokalean antzerkiak prestatzen, olerkiak antzetzten, eta abestiak ikasten poz-pezik pasatzen genuen denbora. Horrela, guraso eta herritarren artean, Domingoeneko ezkaratzean, antzerkia egiten genuenean oso pozik sentitzen ginen. Hango txaloez zuten Ipinaren danbatekoekin antzik. OARGIK igande goizetan mendirako irteerak antolatzen zituen guretzat; Larraitzera joaten ginen askotan, eta benetan dibertigarria zen hura.

**Koldo Etxeberria**





Lekua aldatu zuten eta ikasgelako ikasle kopurua ere bai, baina, batzuentzat, ez zen maisurik aldatu. Ondoko esaldi hauek adierazten dute maisuaren presentzia gogorrak bere horretan segitzen zuela. Mutilen adierazpenak eta neskenak ez datoz guztiz bat. Hau dario Koldori barru-barrutik: **“Lehen genuen irakasle berarekin jarraitu behar izan genuen zaharrenen taldean; txikienek, berriz, maisu berria zuten. Beraz, maisu bakarra 6 urtetik 11 urtera bitartean”**. Karlosi ozpin kutsuko iritzi hau dario: **“Guretzat etzan izan zorterik. Lekuarena baino arazo latzagoa bizi genuen Ipiña maisuarekin. Harekin jarraitzea infernuan segitzea zen”**.

Maisu aldaketarik gabe gelditu zirenek sufrimenduaren haritik segitu behar izan zuten, Koldok dion bezala: **“Nire anaia zaharrak Ipiña maisuarekin jarraitu behar izan zuen 14 urtera arte. Handik “Escuela de Trabajo”ra joan zen Tolosara. Haren kalbarioa luzea izan zen, beste askorena bezalaxe”**.

Nesken ustez, talde batekoek zein bestekeok harreman onean jarraitu zuten eskola aldatuta ere. Martinak honela dio: **“Irene beste taldeko irakaslea zen, oso kariñosa, eta mandaturen bat egitera bidaltzen gintuenean, pozik sentitzen ginen, irakasleari laguntzen geniola uste baikenuen. Berdin gertatzen zen Ixiarrek ikasgela berotzeko estufa pizten zuenean ere”**.

#### • **Pedagogia solidarioa: batak bestea joz, ikasten lagundu**

Haurren kopuru handiko ikasgela batean ezinbestekoa da ikasleak talde txikitik banatzea eta lankidetzaren antolatzea; baita lidergoaren rola ondo ezartzea ere, modu horretan ikas-kuntza motibagarria izan dadin, eta harreman giro jatorrean ikas-kuntza bideratzeko. Ildo horretatik aipatzen dira gaur egun elkarrekintza eta interaktibotasuna.

Dibertsitate eta ikasle kopuru handiko ikasgela haietan ikasle handiek bete behar izaten zuten maisuak emandako ardura. Baina, ondorengo adierazpenek azaltzen dutenez, eta tamalez, ardura hori betetzeko zigorra zuten pedagogiarenekin oinarri. Hauxe dio Koldok: **“Gogoratzen dut gai batzuk handiagoekin ikasten genituela, adibidez biderketa taulak”**. **“Ezer ulertu gabe buruz ikasi behar dena. Etengabean beldurra nagusitzen zen gelan”** Eta Karlosek hauxe: **“Niri ere tokatu zitzaidan irakurtzen ikasten laguntzea. Nire egitekoa zen irakurraraztea, baina maisua beti gainean nuela. Eta eskola lagunak huts egiten zuen bakoitzean, nik hura jo egin behar nuen. Dena zegoen agindupean, eta gogoko ez genuen arren, hori ere egin behar izaten genuen. Gogorra da gero, batak bestea joz irakasten saiatzea!**

#### • **Diziplina: “Kristo balon eta kristo balin”**

Arestian ikusi da gizon-emakumeen ikaste prozesua, sozializazio barne, txikitatik hasten dela. Horren ardura, noski, oro har gizartearena zen eta horren barruan, Elizarena, eskolarena eta familiarena. Deigarria da eskola zaharrak ikasleei irakasteko zuen jokabidea, baina baliteke familiaren hezkuntza kontzeptuan ere zigorra haurren diziplinarako baliagarritzat hartzea. Ez dugu uste gurasoen gogorkeria hainbestekoa izatera iritsiko zenik. Dakiguna da ikasleek ez zietela ematen gurasoei kalean edo eskolan gertatukoaren berririk. Izan ere, gurasoek uste zuten diziplina legeak bete beharrekoak zirela seme-alabak ikasiko bazuten. **“La letra con sangre entra”** esaera zaharra, beti ahotan omen zuen irakasleak, baina ez zen soilik ahozko erabileran gelditzen. Noiznahi gorputz zigorra ematen

zien ikasleei, mina jasanez ikas zezaten. Horren adierazle zuzenak ditugu ondorengo testigantza hauek. Gauza berezia da Karlosek kontatzen duena: **“Gure eskolako maisuak bazituen bi makila: Kristo Balon handia eta Kristo Balin txikia. Golpeak, buruan, eskue-tan eta bizkarrean ematen zituen, eta gure portaeraren arabera hautatzen zuen makila bat ala bestea”**. Koldok, berriz, hau dio: **“Beldurra hainbestekoa zen, dardara batean egoten ginela denok; behar bada salbuespenen bat egiten zuen etxe batzuetako umeekin, baina orokorrean haserre bizian eta umore gaiztoz tratatzen gintuen. Beldurrik ezin kendu gaintetik, hura zen komeria hura! Ezagutu genituen bi kasu: eskolara etorri eta sartu gabe gordeta gelditu zirenak ere, sentitzen zuten beldurratik”**. Inoiz ez dugu ahaztuko Axintxiori egindakoa, geure begiekin ikusia: irakasleak bi belarrietatik heldu eta zintzilikatu zuenekoa. Eta Patxi osti-koka ibilitakoa, zentzua galdu arte”


Nesken kasuan ez da bizipenik azaldu zigorraren poderioz ikasten zutela adierazten duenik. Imak dio: **“Gu eskolan ez ginen mutilak bezain gaizki sentitzen, irakasleari beldurrik ez baikenion. Nik ikasten nuen, baina ez dakit nola.”** Irakaslearen irudia, afektibitatearekin lotzen zuten. Hori da Martinaren iritzia: **“Irakaslearen irudiarekin badu zer ikusia ikasgaiak. Irakaslea gustukoa bazen, haren ikasgaia ere bai. Niretzat, Lengoaia zen ikasgaiarik interesgarriena, irakaslea asko maite nuelako. Irakasleaz gain, badut beste oroitzapen bat. Ez genuen material askorik: arbela, koaderno eta liburu batzuk. Hala ere, gelan baziren pintura kaxa polit bat zuten bi neska. Nire ustez etxe onekoak ziren. Horrek nire barruan mina sortarazten zuen.**

Irakaslearekin harreman ona duenean eta etxeko giroa ikastearen aldekoa denean, handitu egiten da ikasleen ikasteko arreta. Horren lekuko da Martinak dioena: **“Ikasketak egitea naturalizat jotzen nuen lan on bat lortzeko. Neska guztiek ez zuten berdin pentsatzen. Familiak ez bazuen bide hori markatzen, etxeko lanetan edo etxetik kanpokoetan zerbait egin beharrean gertatzen ziren neska asko”**


### • **Ikasleen errebolta**

Hainbeste danbateko hartutako ikasleek, sufrimendu gehiago ezin zela jasan pentsatu zuten eta errebolta ekintza prestatu zuten, maisuari beraien indarra azaltzeko. Hori ikasle heldueneren ideia eta lana izan zen, baina txikiagoek ere parte hartu zuten. Mota izeneko muinoan bildu ziren. Gurasoek ez zuten horren berririk izan. Bertan parte hartu zutenen ahotik jaso dira testigantza hauek. Karlosek dio: **“Ez dakit nola heldu ginen Motara, handiak eta txikiagoak, denok batera. Goiza han pasa genuen, baina itzuleran zer gerta zitekeenaren arrastorik ez”**. Koldok, berriz, hau du buruan: **“Beldurrak eraginda edo, eskolako handienek pentsatu zuten greba egitea, alegia, eskolara joan ordez, Motan denok bildu eta maisua bakarrik egon zedila eskolan, ea ohartzen zen bere portaeraz”** Hori 1961ean gertatu zen. Harritzekoa bada ere, eskola hutsik gelditu zen goiz osoan.

Goiza igaro zen eta arratsaldea gainean genuen. Arratsalde hura latza izan zen: maisuaren irainak, zartakoak, gu dardarka... Koldok honela kontatzen du: **“Arratsaldean eskolara joan beharrean ginen, goizean egindakoaren berri herrian zabaldurik baitzen. Baina beldurrak lotzen gintuen. Nik amari esan nion arratsaldean ez nintzela joango**



*Martina Etxeberria*



eskolara, beldur nintzela. Amak esan zidan, bai, berak lagunduko zidala. Halaxe joan ginen eta atea zabaldu genuenean ikusitakoak ez du izenik: denak belauniko, maisua-  
ren orroak, gehienak negarrez. Infernurik ere ezin da izan halakorik.”

• **Ikasten zenaren oroitzapena eta etxean kontatzen zena**

Garai hartako curriculumean, ikasi beharreko edukiak honela sailkatzen ziren : Historia, Geografia, Ciencias, Matemáticas, Lectura eta Historia Sagrada. Ikas metodoa diziplina gogorrean oinarritzen zen eta edukiak memoriaren eta errepikaren bidez eskuratzen ziren. Hori erakusten dute ikasle ohiek. Hona Karlosek oroitzen duena: “Gogoan dut Ebanje-  
lioia eta Historia kontatzen zizkigula. Niri hori gustatzen zitzaidan. Adibidez, Adan

eta Ebaren historia, Abrahamena... Itun zaharra oso gogoko nuen. Baita Espainiako Historia ere: Konkistak, Pizarro, Magallanes... Baina, matematikak oso zailak ziren... erronboak, asmatzen ez banituen, egurra gainean.”

Koldoren ekarpena: “Arratsaldetan liburuak irakurtzen ziren; D. KIJOTE adibidez. Banan- banan, izena esanez, irakurtzea eskatzen zuen irakasleak.” Bestalde, gogoan dut baita ere:” ADELANTE esaten zuenean, Geografia, edo Historiako zerbaiz kontatzen zuela, eta guk horretaz esaldi zuzen bat egin behar genuela. Ezin genuen berak esandako esaldirik errepikatu. Baina, gaia ulertu ez bagenuen, orduan izaten ziren kontuak.”

Eskolak ez zuen harremanik gurasoekin. Gurasoek ez zuten konfiantzarik ikasleari buruzko informazioa eskatzeko. Abisurik ez bazen gurasoak lasai. Beti ere, maisu edo maistrak ikaslea begitan hartuko zuen beldur ziren. Ikasleak isilik pasatzen zituen bere buruhaustea. Horren adierazgarri dira ondoko ikasleen esanak. Hauxe dio Karlosek: “**Guk ez genuen etxean ezer kontatzen. Ezta eskolako trataerari buruzko ezer ere. Zer-nolako izuak ginen! Garbi genuen ikastearen truke zela diziplina hura; horrela usteko zutela gurasoek, eta guk ere bai, nahiz eta asko sufritu!**”

Ikasteko beste modu batzuen berri ere izan zuten. Koldoren oroimenean dago: “**Eskolan dotrinarik ez genuen ikasten; hori, euskaraz ikasten genuen, Laturuko Maritxukin. Abestirik ez, baina errosarioa erreztatu, erreztatzen genuen.**” Eta Karlosek: “**Nire anaia gazteagoa Ikastolara joaten zen, berak ipuin asko zekizkin eta nik bat bera ere ez. Berari eskatzen nion niri ipuinak kontatzeko. Ez sinestekoa zen ikastolara joaten zirenen lasaitasuna; pozik joaten ziren ikastolara**”.

## 4 OARGI ELKARTEA AMEZKETAN

### 4.1 Aldaketa garaia Amezketan

60. hamarkada oso berezia izan zen European, eta baita Euskal Herrian ere. Euskal Herrian pentsaera aldaketa handia gertatu zen; ordura arte isilean eta nekepean gordetako pentsamenduak eta sentimenduak azaleratzen hasi ziren, besteak beste, kultura, politika, erlijio eta langileagoaren ingurukoak. Garai hartan, ikuspegi tradizioaletik aldendu eta modernizazio prozesu batean sartu zen gizarte zibila eta era guztietako mugimenduak sortzen hasi ziren. Gogoan ditugu “**Ez dok Hamairu**” mugimendua, kantagintzan; “**Gaur**” taldea, artearen eremuan; eta elizaren babespean sortu ziren beste elkarte asko: “**Baserri Gaztedia**”, “**Guraso Elkarte**” eta “**OARGI**”, adibidez. Gizartean gertatzen ari zen mugimendu horrek izan zuen eraginik Ikastolaren hedatze eta herrietara zabaltze prozesuan.

### 4.2 Biltzeko, hitz egiteko eta ekintzak antolatzeko OARGI sortu zen Amezketan, eta haren praktikak etena eragin zuen herrian

Amezketan garai hartan gazteek ez zuten bilgunerik elizaz kanpo eta, 1965-1966an, OARGI izeneko elkarte sortu zuten, biltzeko, hitz egiteko eta herrian ikusten zituzten gabeziei ekinez aurre egiteko. Guztiok dakigu ilusio eta maitasun handiz ekin geniola euskal kulturaren alorrari eta herrian genituen beste beharrei. Horrela, atal honetan, aipamen berezia egingo diegu OARGIK herrian egindako ahaleginei.

## “OARGIK ARNASBERRITU GINTUEN”



Nire gazte denborako oroitzapenak bi sailetan banatuko nituzke. Bata da lana eta bestea festa. Hemezortzi urterekin Donostiara joan nintzen Prim kaleko eskola publikora, moja etxe bat zen. Bi urtez lan egin ondoren, ama gaixotu zenean, etxera itzuli nintzen. Hogei urterekin berriro Donostiara, neskame lanetara. Lau neskame ginen eta hiru urte egin nituen.

Aitak deitu zidan Amezketako paper-lantegian sartzeko aukera nuela eta lan hori gogoko banuen, aurkeztu nintekeela. Horixe egin nuen. 18 neska hasi ginen lanean eta 2 hilabete barru hamahiru gelditu ginen. Ikasteko aukerarik ez nuen izan. Lau senide ginen: bi neska eta hiru mutil. Amak fabrikari lan egiten zuen.

Beraz, ni gatzetxo nintzanean etxeko ardura nuen eta eskolara oso gutxi joan nintzen. Anaiak ez zuten etxean egin behar zenaren kezkarik, baina ni neskaren egin beharretara behartzen ninduten. Festa-kontuak igande arratsaldetakoak ziren. Baina, jakina zenez, elizako bete beharrak festaren aurrekoak ziren. Bezperetara joaten ginen eta zain egoten ginen noiz amaituko ziren hango arrosario eta abestiak. Gure kezka plazako pilota partiduetan zegoen eta horien ondoren, soinuaren doinuez, antolatzen zen dantza saioan.

Eliza beti presente zegoen. Hamaika urterekin egiten zen komunio handia eta kongregazioan sartzen zen; apaizaren kontrola gogoan eta gainean genuen beti. Dantza lotua, bal-tsean egitea debekaturik genuen, eta apaizak jakinez gero, kitto, kongregaziotik botatzen zintuzten. Herrian ere ez zegoen ondo ikusita. Apaiza ez zen baltsa egiten zen lekuetan ibiliko noski, baina jakitun zen. Urtero pasa behar genuen txarteletatik, horretarako dotrina ondo erreparatu behar zen. Beti besteak zer esanaren menpe bizi ginen.

Halako batean, Amezketako gazte talde bat elkartu ginen zerbait egin behar genuela pentsatuz. Hor sortu zen OARGI egitearen proposamena. Nire ustez, Feli eta Bautista izan ziren berria ekarri zutenak, harremanetan baitzeuden beste OARGI batzuekin. Elizaren izenean legalizatu behar zela eta komisio bat osatu zen: Feli, Batiste, eta ez dakit nor gehiago. Gauza da Domingoneko taberna eta sukaldeak bat egiten zuen lokala errentatu zela eta ekintza bidean sartu ginen. Gogoan dut, 1965-1966ko Eguberritan gabon kantak etxez etxe abastera irten ginela, lehenengoz neskak mutilekin elkarrekin eta karroza batekin. Oso gustura ibili ginen, herritar guztientzat horrela izan ez bazen ere.

Ekintza asko bultzatu zituen OARGIK, elkarrekiko harremanak sortzea inportantea zen eta. Horretarako, prestakuntza eta festa bitartekoak ziren: hitzaldiak, ikastaroak, irteerak e.a. Adibide modura, sukaldaritza ikastaroa antolatu zen, nahi zuen herritar ororentzat. Mari Karmen Zubeldiarekin ere eskulanetarako ikastaro bat egin genuen.

Feli andereñoak OARGIn neskentzat gau eskola antolatu zuen, pasaporte ateratzeko prestakuntza eskaini zigun. Anparo Garmendia, Bittori, eta ni prestatu ginen, baina ni nire konplexuengatik ez nintzen aurkeztu. OARGIRI esker ikasi nuen konplexuak eta lotsak baztertzen. Euskaldunon lotsa gaztelera ez jakitea izan da, moja etxeko kapilauak hau esan zidan behin: “En Amezketa las burros hablan”.

Feli asko saiatu zen OARGI bidez euskara sustatzen eta Amezketako haurrek eta gazteek ikasteko aukera izan zezaten. Eta lagunak izanik, igandero lauetako autobusean Tolosara joaten ginen eta bueltan bederatzitakoa hartzen genuen. Festa luzatu nahian edo, itzulerako bide osoa kantari egiten genuen. Hura zen aste osorako hartzen genuen indarra. Tartean OARGIKO bileraren bat bagenuen, aitzakia polita elkartzeko.

**Regina Mauduit**



## “ISUNA EZ ORDAINTZEAGATIK, KARTZELARA”

Nire gaztaroan, 16-17 urte nituenean, sortu zen OARGI Amezketan eta bertan hasi nintzen parte hartzen. Hasiera hartan, gogoan dut hainbat ekimen antolatzen zirela: hitzaldiak bizi genuen egoeraz, antzerkia egiten ikasi eta egin, mendira irteerak antolatu, Aste Santuan, 30 gazte inguru, kanpora irtetzen ginela ( Etxarri Aranazera, Brinkolara, etab)...

Handik denbora batera diruzain izendatu ninduten eta geroago lehendakari.

OARGIk herriko ekintzetako gora-beheretan parte hartzen zuen. Horiek antolatzeko eta egiteko borondate handia genuen garai hartan. Zeregin asko zeuden, Guraso Elkartearen sorrera, ikastolaren hastapena, udaletxearen zereginetan sartu nahia, etab.

Gauza asko egin egiten genituen, ondorioetan gehiegi pentsatu gabe. Egin beharra ikusten genuen, eta aurrera egiten genuen.

OARGI elizaren zaintzapean zegoen erakundea zen, baina gure praktikarekin ados ez zegoenez, herriko erretorearekin eztabaida ugari izaten genituen. Benetan, bere esanei ez genien jaramon handirik egiten.

Urte haietan herriko festak OARGIk antolatzen zituen; udalak gure eskuetan uzten zuen festak antolatzeko ardura eta dirua, eta guk antolatzen genituen festak.

Urte haietako batean, ohitura zaharrari jarraituz, bertsolariak ekarri genituen. Hauek Azpilaga eta Lopetegi ziren. Gai modura azaldu genizkien, saioa hasi aurretik, parrokoarekin genituen arazoak. Gure arazoan lemari ahobizarrak gabe heldu zioten abesteko orduan, beren ohiko erreztasunean azaldu zuten Francoren Eliza eta erretorearen Elizaren arteko lotura.

Bere ondorioak ekarri zituzten bertso haiek. Handik hamabost egun ingurura, han azaldu ziren OARGIn Tolosatik etorrira 007 polizi sekreta ezaguna beste batekin, gu galdekatzera (Batiste eta biok), erretoreak denuntziatu gintuelako bertsoetan esandakoagatik. Handik bi hilabete ingurura iritsi zen isuna 10.000 pzt., gobernadore zibilak jarria ( garaiko hilabeteko soldata baino gehiago zen).

OARGIko batzarrean erabaki zen ez ordaintzea isuna. Lehendakaria nintzenez, kartzelan sartu ninduten, isuna ez ordaintzeagatik.

Udaletxearekin ere nahiko goraberatsuak izan ziren gure hartu-emanak. Guraso-Elkar-tearekin eta Ikastolarekin elkarlanean eramaten baitziren ekintza asko. Gazteak ginen eta ausardi handiarekin egiten genituen gure ekintzak, ez ginen atzera begira gelditzen.

**Gontzalo Karrera**

Denbora asko pasa da harrezkero. Buruz eta bihotzez hainbeste ilusio eta lan egin zuten zenbaitek utzi gaitu; beste batzuen artean, Batiste Galartza gogoratu nahi da txosten hone-tan. Gure artean bagenu, ziur egon haren esku-hartzeak gure lantxoa aberastuko lukeela.

Euskararen arnasa bizirik zegoen herrian; denak ziren euskal hiztunak, baina gaztele-ra zen eskolako hizkuntza eta bizitza modernorako estimu handiz preziatzen zena. Euskarak estatusa galdu zuen eta gaztelera moldatzen ez zirenak barregarri sentitzen ziren.

Euskararen erabilera eremuak guztiz murriztu ziren eta gure hizkuntza, gazteleraren menpeko bihurtu zen. Astindu berritzailea heldu zen Amezketara ere eta bertako agintariekin, apaizekin eta, zenbait kasutan, familiartekoekin zituzten loturak puskatzeko giroa sortu zen. Beldurra nagusitu zen apaizengan eta, zer esanik ez, udaleko agintariengan; ondorioz, eskatu eta egiten zen guztiari politika etiketa jartzen zioten. Agintarientzat ere oso arriskuak ziren gazteen joera berriak. Gogoan ditugu, adibide gisa, dantza lotuaren kontuak. Debekatua zegoen dantza mota hori, eta horretan erortzen ziren neskak Mariaren Alaba izatetik kanpo gelditzen ziren.

Amezketako gazteek beren nortasuna erakutsi nahi zuten. Neska-mutilak elkarrekin bilzen eta bidegabekotzat zituzten gertaera eta portaerei aurre egiten hasi ziren. Garai hartan nabaria zen euskal kulturaren eta hizkuntzaren moteltasuna, baina inguruko herri eta hirietan gai horretaz kontzientzia hartzen hasi zirenean, Amezketak ere jaso zuen euskalduntasuna suspertzera zetorren mezua. Testuinguru horretan jardun zuen OARGIK Amezketan.

Aldi berean, euskalgintzaren sustatzaile ziren apaizak ezagutu genituen eta guk ere horietako bat nahi genuen herrirako. Hasieran herriko apaizei azaldu genien premia hori, eta gotzainari ere bai, beti ere, herrikoak aintzat hartuz. Alferrikakoa izan zen, eta gure gisa aurrera jo genuen. Domingoeneko taberna izan zen leku berean kokatu zen OARGI, leku ederra eta egokia. OARGIren egituran bazkide asko zegoen, bai neska eta bai mutilak, eta horiek boto bidez hautatzen zituzten batzordekideak. Bazkideek, hileroko bat ordaintzeaz gain, antolatzen ziren ekimenetan parte hartu behar zuten. Adibide gisa, Elkarreak tabernaren funtzioak betetzen zituen, batez ere jai eta festa egunetan. Publikoari irekia egoteak jende asko erakartzen zuen bertara, adin guztietakoak. Hainbat ekintza antolatzeko diru iturria ere bazen.



Ejertzizioak.

Argi dago OARGIk aire berria eman ziola herriari, eta ez beti denen gustukoa; gazte erreboltariak baitziren batzuentzat eta, politikaz kutsatuak, besteentzat. Zailtasunak ere bazituen zenbait ekintza antolatzeko, politika usaina erraz hartzen baitzieten ekintza horiei eta horretan oinarrituta erraz zapuzten baitzizuten. Begi-bistakoak ziren guardia zibilen bisitak; behin baino gehiagotan eraman gintuzten Tolosako kuartelera neska eta mutilak. Beldurra eragitea zen haien egitekoa. Esan behar da OARGIko gazte batzuk ETA zela eta kartzelaratuak izan zirela eta beste batzuek ihesari eman ziotela. Isilpeko egoerak maiz bizi izan genituen; egoera zailak ziren, batetik, jasan behar genuen errepresioarengatik eta, bestetik, gure arteko tentsio puntuak zirela eta. Halere, euskal kulturagintzaren aldeko giroa bizi-bizirik zegoen herrian, batez ere, Guraso Elkarte, Ikastolaren eta gazteen artean.

Esatekoa da Amezketa eta haren antzeko herri txikietan, gazteak, gurasoak eta helduak harro sentitzen zirela euskara beraien hizkuntza zutelako eta hizkuntza hori ikasteko premia hirietara zabaltzen zuten. Hala, Amezketa euskalduntze lekua izan zen. Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruñetik, eta atzeritik hainbat jende etorri zen euskara ikastera. Herriko etxeetan denboraldi bat pasatzen zuten eta OARGI euskaraz mintzatzeko leku aproposa izaten zuten.

### GOIZEKO 9.00etan, “CARA LA SOL”

*Nire eskola ibilbidea Ugarteko Gaazal etxean hasi zen, Amezketa eta Ugarte arteko eskola-etxean. Hori 1954an eman zen. Sei urte nituen eta neskak zein mutilak elkarrekin egoten ginen maistra batekin. Mutilak ere gurekin zirelako, “marimutilak” deitzen ziguten.*

*Goizeko bederatzietan eskolan sartzen ginenean “cara al sol” abesten genuen, eskua altxata eta, bukatzean, espainiar bandera zintzilikatzen genuen leihoan.*

*Ikasketak erderaz egiten genituen. Maistrak erdaldunak ziren, hitzik ez zuten ulertzen euskaraz. Horietako bat Celia Arranz zen, Valladolidekoa, eta bestea Teresa Aguado, Donostiarra. Euskaraz hitz egitea debekatua zegoen, eta zigorrak jartzen zituzten; zenbaitetan belauniko jarrita egon behar izaten genuen paretera begira; edota, «Arantxa coje los trastos y vete a la calle» esaten zuenean, kalera joan behar izaten genuen.*

*Gazteleraz ez genuen tutik ere ulertzen. Beraz, ikasi genuen apurra errepikatzearen errepikatzeaz buruz edo memoriz izan zen. Hori bai, arratsaldeko lauretan merienda ematen ziguten, Estatu Batuarrek, “ley Marshall” zerion laguntza bidez bidalia: esne hautsa, gurina edo gazta. Ez zedila esan espainiar umeak gosea pasatzen zutenik. Hamabi urtera arte ibili nintzen “en las Escuelas Nacionales de Ugarte”.*

*1965 inguruan, gu gazteon eraginez, OARGi sortu genuen. Izan ere, biltzeko areto bat behar genuen eta OARGItik kanpo galazita zegoen biltzea. Gure gazetetasunak ematen zigun indarrarekin aurrera egin genuen. Zer behar sentitzen genuen? Gogoan eduki behar da gu guda zibilaren ondorengo gazteak ginela. Gure jakinmina zera zen: zer gertatzen ari zen, sozialki eta politikoki, bai Euskadin eta bai Espainian.*





Frantziako iraultzaren ezagupenak bagenituen, “Pirenaica” zeritzaion irratia entzuten genuen gauean, nahiz eta oso pattal entzun, “interferentziak” zirela-eta.

Guk ere, gure herriaren askatasuna lortu nahi genuen eta borrokarako prest geunden. Horrek mugitu zuen Amezketako gazte taldea. Herriko zenbaitek, eta elizak ez zuten OARGI onartu, susmotxarrak zituzten gurekiko.

Hitzaldiak antolatzen genituen. Gogoan ditut, zenbait hizlari: “Feli” “Txato” “Antonio” “Moxo” eta abar. Beste herrietako OARGIekin ere hartu emanak izaten genituen. Elkarrekin antolatzen genituen mendi irteerak. Behin, Sakanaldera egin genuen irteera, Gaua iritsi zenean ez genuen hotelik, baina bai borda ederra belarraren gainean lo egiteko. Gustuko lekuan aldaparik ez.

Garai hartan Euskal Herriko egoera penagarria zen, eskola nazionaletan ez zegoen euskaraz hitz egiterik. Manifestaldiak ere antolatzen genituen zenbait garaiz. Donostian “grisen” aurrean, korrika saio ederrak egiten genituen.

**Arantxa Beain**



OARGIk antolatutako jaiotza.

### 4.3\_Zenbait ekimen aipagarri

Euskal nortasuna indartzeko hedatzen ziren ekimen batzuk aipatuko ditugu ondoren, Amezketan giro polita sortu baitzen euskararen inguruan; horrela, hainbat ekitaldi, jardunaldi eta jaialdi antolatu ziren: Euskal Jaiak, mendi irteerak, hitzaldiak, antzezlanak, dantzaldiak, bertso saioak, irtenaldiak, gau-eskola bidez prestakuntza saioak, irakur giroa sortzeko asmoz dezentzat irekia zen liburu txokoa e.a. Ekin-tza hori Aurrezki Kutxaren bidez hedatu genuen. Hilero liburu berriak genituen eta txoko horretatik hartzen genituen liburuak etxean irakurtzeko.

Hainbat ekintzaren artean, aisialdi irteerez gain, euskal giroko ospakizunak antolatzen ziren egun jakinetan; hala nola, aberri egunean parte-hartzea, Gabonetan eta Erregetan etxez etxe eskean ibiltzea, OARGIk antolatutako bazkari eta afarietan bertso saioak, OARGIKO lokalean urte zahar egunez egiten zen soinu jotzea, herriko umeekin antzerki saioak prestatu eta Domingoneko ezkaratzean antzeztea etab... luze bat.

Talai-dantza Amezketan inauteritan egiten den dantza da. Urte askotan galduta egon zen ohitura da eta berreskuratu egin da. Inauteritako igande eta astelehenetan Amezketan zehar, etxez etxe eta baserriz baserri joaten dira talai-dantzariak; gune bakoitzean maki-la-dantza egin eta ematen zaiena jasotzen dute. Taldez taldeko trasmisioari esker eutsi zaio ohiturari. Ohiturak gordetzearen aldeko ardura nabaria izan zuen OARGIk. Hona, belau-naldi ezberdinetako argazkiak.



*Lehenagoko Amezketako talai-dantzariak, ezkerretik eskubira: Joxe Joakin Bernaras, Xanti Urizar, Joxe Tolosa, Asintxio Karrera, Juanito Tolosa eta Manuel Artano.*



*Amezketako talai-dantzariak. Ezkerretik eta behetik hasita: Juan Elizalde, Bittor Artola, Ignazio Galartza, Baxilio Tolosa, Juanito Tapia (Asteasukoa). Ezkerretik eta goialdean: Iñaxio Maiza, Joxe Karrera, Migel Beain, Bitoriano Goikoetxea eta Juan M<sup>a</sup> Etxegoien.*

OARGIren lorpenetako bat izan zen gazteen arteko elkarkidetasuna lantzea eta haur eta gazteen parte-hartzea modu dibertigarrian bultzatzea. Jarduera horietan ibilitakoek asko baloratzen dute OARGIn bizi izandako sentipen eta eskolan bizi izandakoen arteko aldea. Jarduera horietan asko ikasten zutela uste dute; besteak beste, jende aurrean hitz egiten, iriztiak ematen, txandak errespetatzen, neska mutilek elkarrekin esperientziak partekatzen, barre egiten eta jolasten ikasi zuten.



*Etenaren ostean talai-dantzak errekupepatzen.*



*Ezkerretik eskuinera goialdean: Jose Antonio Zabala, Joxe Mari Zubeldia, Joxe Miel Tolosa, Jabier Goñi, Matxino Iñurrita, Manuel Tolosa. Erdian: Anjeli Lizarribar. Behean: Jexux Iñurrita, Josetxo Iñurrita eta Nekane Saralegi.*



## “FRAIDEAK ZETOZENEAN, NIK IHES”

Ni Zubillaga auzokoa izanik, Ugarteko Garazabal eskolara eraman ninduten. Margarita izeneko irakaslea izan nuen eta horrek huts egiten zuenean, Dn. Karlos apaiza etortzen zitzaigun.

Garai hartan ohikoa zen fraideak eskolara etortzea eta ikasleak euren ikastetxeetara joateko animatzea. Gurera, Hondarribiko fraideak etortzen ziren eta nik ihes egiten nuen haiengandik. Maiz, haiek zetozela jakitean, piper ere egin nuen.

Gogoan dut ilusio handiz karameluak erosten nituela, eskolan gustuko nuen neska bati emateko. Beti karameluren bat poltsikoan nuela ibiltzen nintzen...

OARGI sortu eta martxan jarri aurretik, Estankoko tabernan elkartzen ginen astean zehar gazteok. Batzuk fruta janez, beste batzuk kafesnea edo limonada edanez. Han ordu pare bat pasatzen genuen kontu kontari. Oroitzen naiz baita ere, gogoko genuela futbola eta Europako Txapelketako partidua ikustera Abaltzisketara joaten ginela, garai hartan Amezketan ez baitzen telebistarik.

Uste dut 1960an ireki zela OARGI. Elkarte bezala funtzionatzen zuen, taberna eta guzti. Festetan eta egun berezietan herritar guztiei irekitzen zitzaizkien ateak. Alde batetik, sosak ateratzeko eta, bestetik, herritarrei eta kanpokoei zerbitzua eskaintzeko. Oso gustuko lekua genuen. Urte Zaharreko festa berezia izaten zen, Urte Zaharra ondo bukatu eta Berria ondo hasteko dantzan egiten genuen, ondo helduta noski.

Etxean afaldu ondoren OARGIKO lokalean soinua izan zedin ahalegintzen ginen; zenbaitetan Asteasuko Antton konbidatzen genuen, baita beste festa egun batzuetan ere: gaztaina jate egunean, bertsolari saioen bazkaritara eta beste zenbaitetara. Gogoan dut, gai honetaz ari garelarik, Batistek Feliri deitu eta nola esaten zion: “joan hadi lokutoriora eta esaion Anttoni etor dadila soinuarekin”.

OARGIK antolatutako irteeretan festa giroa polita izaten zen beti. Korpus egunean San Migelerako autobusa jartzen zen. Han etxetik eramandako “puska” jaten genuen. Eta arratsalde erdira edo, Lakuntzara jaisten ginen, han egiten zen festara. Dantza egitea inportantea zen, baina Lakuntzan zegoen altzari zahar eta beste harraminta askoren erakuts lekua ere bisitatzen genuen. Eta bertan Nafarroaren Historia ere kontatzen ziguten. Mendi irteera asko antolatzen ziren. Horien artean, gogoan dut, berezia izan baitzen, Urbiara egindakoa, aurretik ikurrina genuela. OARGITIK antolatutako Igaratzako festara ere joan izan ginen. Mendiz eta festez aparte, OARGIK antolatzen zituen, gu barne ginela, hitzaldiak, euskal festak, bilera egunak, eta hainbat ikastaro.

Herriak herriko gaietan parte hartzera bultzatzen zuen. Estankoko Joxe eta Alberto Etxeberria Udal zinegotzi hautatzeko lan handia egin genuen, taldeka antolatu eta herritarrek botoa eman zezaten bultzatzen saiatu ginen

Ikastolaren ibilbidean ere bultzatzaile izan zen Oargi. Garai hartan egiten zena ona zena uste osoa dut.

**Joxe Ezkergain**

Prestatzen zituzten antzerkitxo horietan ohikoa zen, tartean edo amaieran, olerkiren bat deklamatzea. Horietako batean “Moro katua”ren istorioa kontatzen duen olerkia deklamatuz zuten. Hona, jarraian, olerkia:



Olerkia ikasi eta antzeztu jendaurrean.

*Ai, gure katu zarra,  
Moro dek izena,  
Burutik oñetaño  
beltza aiz ta dena.  
Baiña are beltzagoa  
dek ire barrena.  
Odol orde z noski dek*

*zaiñetan edena,  
katu gaiztoena  
lapur maltzurrena,  
beidatu zekena,  
al dan okerrena,  
inpernun sartuko al aiz  
zuzen-zuzena!*

Santa Ageda

Zo-ri-on e-txe on-ta-ko de-noi, o-lea e-gi-te-ra ga-toz: e-txe.  
rik e-txe ohi-tu-ra za-rra aur-ten be-ri-tze-ko as-moz.  
Ez gau-de o-so a-be-rats di-ruz ez-ta e-re oi-ne-ta-koz, lai-na  
ez-ta rriz sa-no ga-lil-tza ta kan-ta nai du gu go-goz.

Eske abestia

#### 4.4\_Euskararen eta eskolaren egoeraz kezkatuta

Garai hartan gazteak hobeto eskolatuak izatea nahi zuen OARGIk. Ildo horretatik sortu zen herriko eskolen dinamika jarraituko zuen junta edo batzorde baten premia. Guraso ziren bazkideen eta guraso ez zirenek osatu zuten batzordea. Alde batetik, ikastola eraikitzeko premia ikusi zen; bestetik, berriz, eskola nazionalako ikasleen bilakaera eta eskolen egoera aztertu beharra. Herriko paper-lantegiak pausu handia eman zuen bere langileen semeentzat eskola zabaltzean. Bestalde, gaur egun ulertezina da neskak aukera horretatik kanpo uztea. Erabaki horren aurrean, 1968–69 ikasturtean, batxilergoko eskolak OARGIn eman ziren, Katalina irakasle zela. Lan handia egin zuen Katalinak, eta hori beti eskertuko dio Amezketako herriak. Bide horretatik, batxilergoa egiteko aukera eman zitzairen paper-lantegiak antolatutako eskolan sartzerik izan ez zuten neska-mutil guztiei. Katalina irakasleak gogoan du Don Tomas ikuskariak OARGira egin zion bisita; bertan mehatxu gisa hala adierazi omen zion: Katalinaren titulua bi eskoletan zegoela, hau da, OARGIn ez ezik, ikastola legezatzeko prozesuan ere agertzen zela bere titulua. Katalina irakasleak Alberto eta Mari Karmen izan zituen harremanetarako erreferentziazko pertsonak. Eskola librea zen, eta azterketak institutuan egiten zituzten. 20 ikasle ziren eta emaitza oso onak izan zituzten. Ikasle eta gurasoek preziatzen zuten eta maite zuten Katalina irakasle modura.



EUSKALTZAINDIA  
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINDIAK dio, AMPARO GARMENDIA  
CARRERA, andereñoa,  
euskalduneri euskeraz irakurri eta idazten irakasteko gai dela.

*Deburtoz Manuel*  
Euskaltzainburuak

Bilbon, 1.967'gn. Agorraren 2'an.



EUSKALTZAINDIA  
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINDIAK dio, GONZALO CARRERA  
AGUIRREBARRENA jauna,  
euskalduneri euskeraz irakurri eta idazten irakasteko gai dela.

*Deburtoz Manuel*  
Euskaltzainburuak

Bilbon, 1.967'gn. Agorraren 2'an.



Papelerako eskolan, ikasle taldea.

- 1\_Martin Alijostes
- 2\_Roberto Azpeitia
- 3\_Jose Mari Tolosa
- 4\_Joxe Artola
- 5\_Juan Antonio Zubeldia
- 6\_Lorenzo Tolosa
- 7\_Joxe Maiza
- 8\_Iñaki Jauregi
- 9\_Jokin Zubillaga
- 10\_Joakin Tolosa
- 11\_Migel Mari Zabala
- 12\_Anastasio Goitia
- 13\_Patxi Arandia
- 14\_Andres Altuna
- 15\_Karlos Etxeberria
- 16\_Pello (Pedro) Goñi
- 17\_Demetrio Terradillos
- 18\_Bixente Galarza
- 19\_Rafael Beldarrain



- 20\_Manu Tolosa
- 21\_Jose Angel Altuna
- 22\_Jose Luis Altuna
- 23\_Jexus Zubillaga
- 24\_Koldo Etxeberria
- 25\_Patxi Labaien
- 26\_Manolo Etxaniz (maiusu)
- 27\_Migel Mari Saralegi
- 28\_Antonio Sagastume
- 29\_Constantino Sagastume

**“OARGIK BIZITASUN HANDIA ZUEN”**

Ni, OARGIn, 1968an sartu nintzen, 17 urterekin. Orduan martxa handia zeukan OARGIk, ekimen asko antolatzen zituen: antzerkia, festak, mendi irteerak eta abar. Ia-ia gu izan ginen azkenekoak. Nik soldaduskara joan-ertoria egin ostean, 1972-73 inguruan, itxi zituen ateak. Ondoren, beste zer-bait behar genuela eta, Zazpi-iturri elkarte sortu genuen. Zazpi-iturrik atea ireki zuen 1975eko urtarrilaren 5ean, errege bezperan, eta handik hona segitzen du martxa onean. Udalarekin batera antolatzen ziren, besteak beste, ekintza hauek: Albizuri Handi harriarekin lehiaketa, futbol partiduak, pilota txapelketak...

Esan behar dut bai Oargi, eta bai Zazpi-iturri, biak elkarte mistoak zirela, eta gaur egun Zazpi-iturrik hala segitzen duela.

**Xabier Goñi**

1969-70 ikasturtean Aralar paper-lantegiko eskolara pasatu ziren batxilergoa egin nahi zuten herriko neska mutil guztiak. Eskola horretatik Beasaingo institutura edo Donostia-kora joaten ziren 5. kurtsoa egitera.

**4.5\_Euskara ikasteko txoko bila**

Jakina da aspalditik, herri askotan, baita Amezketan ere, Kristau ikasbidea zela idatzizko euskara ikasteko aukera bakarra, gaztelera hutsean eskolatzen ziren ikasleentzat behintzat. Geroago ere, ikastolara joaten zirenek dotrina euskaraz lantzen jarraitu zuten, ikastolatik kanpo, Laturuko Maritxu andrearekin.

**“AMEZKETA, HELDUEN EUSKAL ESKOLA”**

Pertsona guztien bizitzan data batzuk guztiz erabakiorrak dira. Manolo Gomez-en (nire senarra) eta nire bizitzan (Enkarni Genua) gauza bera gertatu da. Data batek zerikusi handia du AMEZKETAKO herriarekin. Eta hori da, hain zuzen ere, gaur zuekin partekatu nahi duguna.

1964. urtean ezkondu ginen; 1965. urtean gure lehendabiziko alaba, Enkarni, jaio zen, eta segidan Manu eta Juanekin osatu genuen gure familia.

1968an Enkarniri, gure alabari, eskolara joateko ordua heldu zitzaion, eta gure buruan zen-bait kezka eta galdera sortu ziren. Eskola bat zure umearentzat aukeratzea ez da txantxetako gauza: Moja Eskolara eraman? Eskola Publikora? Edo, agian, gure auzoan jaio berria zen eskola berezi batera, hau da, Ikastolara?

Zenbait lagunek aholkatu ziguten azkeneko aukera hori, pedagogiaren aldetik interesgarria zelako eta... bai, animatu ginen.



Baina horrek arazo garrantzitsu bat zuen. Delako ikastola horretan erabiltzen zen hizkuntza guk ez genuen ezagutzen: euskara. Nahiz eta gu donostiarrak izan, gure etxeetan (nire ama Burgoskoa zen, eta Manoloren gurasoak Kantabriakoak) ez zen euskaraz hitz egiten; ezta gure eskoletan eta inguruan ere. Guretzako euskara ia-ia ez zen existitzen. Baina tira... “Ikasiko dugu”, pentsatu genuen. “Ez da hain zaila izango”.

*Hau behatza da...Hauek behatzak dira....*

Hauek izan ziren gure etxera astero pare bat aldiz etortzen zen irakaslearekin ikasi genituen lehendabiziko esaldiak. Mari Karmen Garmendia, Ormaiztegioko neska gazte bat, astean pare bat aldiz, iluntzean, etxera etortzen zen, eta Aita Altunak idatzitako liburuaen metodologia jarraituz hasi ginen buru-belarri liburu hori irakurtzen, eta, batez ere, ikasten eta praktikatzan.

Gure umearen andereñoarekin topo egiten genuenean, eta hori maiz gertatzen zen, saiatzen ginen zer edo zer euskaraz esaten: “Eguraldi ona, e”, edo “Eurria ari du”, edo “Agur” edo “Zer moduz”. Andereñoak irribarre txiki batekin onartzen zuen guk egindako ahalegina eta ziur nago bere baitan pentsatzen zuela: “Ufff! Zenbat izerdi bota beharko duten guraso hauek euskaraz ikasteko”.

Baina uda heldu baino lehen gure lagunek, Feli Etxeberriak eta Antton Etxeberriak, ideia on bat eduki zuten: “Uda honetan hilabete pasa behar duzue Amezetan, Donostian ikasitako gutzia praktikan jartzeko, eta ikusiko duzue nola aurreratuko duzuen”.

*Amezetara! Helduen euskal eskolara!*

Esan... eta egin. 1969ko abuztuaren 30ean, gure kotxea toperaino beteta eta gure 2 umeekin, Enkarni eta Manu, Amezetara heldu ginen. Eguna gris xamarra zen eta printzipioz, egia esan, leku tristea iruditu zitzaigun. Baina halako batean... gure alabatxoa izan zen lehendabizi konaturatu zena: “Aita, ama, begira, begira!”. Eta gure begien aurrean Erraldoi Zoragarri bat azaldu zen: TXINDOKI mendia. Segidan errekatxo bat, more kolorekoa, glu-glu egiten ikusi genuen.

Horrela geundela, etxe txiki batetik bikote zoragarri bat atera zen: Lontxo Amundarain eta Pepi Zubillaga. Euskal Herriko irakaslerik onenetakoak, eta ongi-etorri bero bat egin ziguten: “Aurrera, aurrera. Sartu gure etxera!”.

Pepi. Ezingo genuen andereño hoberik aurkitu. Jatorra eta alaia zen, euskaldun peto-petoa, eta POLIKI eta OSO ONDO ahoskatuz hitz egiten zuen. Esaldi bat ez bagenuen ulertzen, modu desberdinetan mila aldiz errepikatzen zuen guk ulertu arte. Eta gainera HIZTUNA zen. Ez zen hain erraz isiltzen Pepi, ez. Eguna bukatzerakoan gure burua hitzez beteta genuen. Lontxo, bere lanarengatik gutxiago ikusten genuen, baina beti zeukan bere ezpainetan irribarre bat guri animoak emateko.

*Goazen bertsolariak entzutera!*

Hori izan zen hurrengo igandean egin genuen plana. Ugartera joan ginen. Herriko plaza jendez beteta zegoen eta taula gainean 3 bertsolari euren lana egiten. Jendea barrez lehertzen zegoen, baina noski: Manolok eta biok ez genuen ezertxo ere ulertzen. Pepiri zerbait galdetu nahi nion, baina bera hor zegoen gozatzeko asmoz: “Ixo....ixo!”. Hura panorama!

*San Martin zelaia. Mintza praktika.*

Goizero Pepirekin etxeko lanak eta bazkaria prestatu ondoren, Manolo, ni eta gure umeak San Martingo zelaira joaten ginen burua deskantsatzera, haurrekin jolastera, euskarazko ipuin

erraz bat irakurtzera eta, posible bazen, mintza praktika egitera. Eta bai, beti norbait inguruzten zen eta hasten ginen elkarrizketa xeble bat egiten.

**Enkarni:** Egun on? Zer moduz zaude?

**Herriko andrea:** ni ondo, baina ikusten dituzue laino horiek? Laster euria hasiko du. Txindoki haserretzen denean, kontuz ibili behar da. ( Hori dena azkar-azkar. Guk, ordea, tutik ere ulertu gabe.)

**Enkarni:** Bai, bai, gu donostiarrak gara.

Eta horrela... Amezketako lagun horiek pentsatuko zuten: “Kanpotar hauek...! Burutik jota daude”. Baina laster enteratu ziren San Martingo zelaian bi umerekin egunero ibiltzen zen bikote hura donostiarra zela, eta Amezketara etorri zela euskara ikastera. Alajaina! Eta orduan hasi ziren hurbiltzen gurekin hitz egiteko.

**Lehenengo etapa menderatua.**

Bai, uda hura bukatu zen eta gure errutinara itzuli ginen. Une horretan baginen gauza gure umeekin esaldi batzuk esateko eta andereñoekin hobeto komunikatzeko. Ulertzen genuen ere zertara joaten zen Olentzero urtero mendira. Noski, ikatza egitera. Beraz, gure helburua lortuta zegoen. Bai? Ba... ez. Zeren une horretan konturatu ginen euskara ez zela soilik tresna bat gure umeekin hitz egiteko. Euskara, guri ukatu ziguten hizkuntza zoragarria zen eta gero eta gehiago ikastearen beharra sentitu genuen.

Beraz, berehala telefonoa hartu eta Pepiri deitu nion: “Pepi, datorren udan zuengana joango gara berriro. Txindoki gure zain baitago. Baina beste txoko txiki bat prestatu behar duzu. Haurdun nago eta”.

Bukatu baino lehenago, bizpahiru gauza gehiago esan nahi dut:

- Berriro itzuli ginen Amezketara, baina hurrengoan, Juan, gure txikiena ere eraman genuen. Gu San Martingo zelaira joaten ginen bitartean, Enkarni eta Manu, goizez, Amezketako ikastolara joaten ziren, andereño Koro eta andereño Joxepirekin, eta gustora gainera.
- 1971an Manolok eta nik Txotxongillo Taldea sortu genuen, gure hizkuntza eta kultura herriz herri zabaltzeko asmoz. Lehendabiziko panpinak San Martin zelaian sortu genituen: Otxo Bishente, Felipe trula-lai!, Nikolas tris-tras! Urte hartako apirilaren 4an, txotxongilo saio hunkigarri bat egin genuen Amezketako Ikastolan. Lan horretan jarraitzen dugu oraindik ere: ipuinak idazten eta argitaratzen, diskak editatzen, emanaldiak egiten, eta Tolosan dagoen TOPIC museoan modu desberdinetan laguntzen.
- 1981ean ikuskizun berri bat sortu genuen: “Behin batean Txindoki maldan”. Hor bildu genituen Fernando amezketarraren zenbait gertakari. Emanaldi bat, nola ez, Amezketako plazan egin genuen. Hor bildu ziren herriko biztanle guztiak eta denok disfrutatu genuen haientzat hain ezagunak ziren Pernandoren ibilerekkin.

Horregatik, lerro hauek aprobeztatzen ditut bihotz-bihotzez zera esateko:

**MILA ESKER AMEZKETA.**

**Enkarni Genua**

Laturuko Maritxu andreak lan handia egin zuen, eta hemendik eskertu nahi diogu euskararekiko beti azaldu zuen konpromisoa eta denbora zailtan ere egin zuen lana. Ez zen, gainera, dotrina irakaste hutsean gelditu. Bere etxeko ateak zabaldu zizkien euskaldundu nahi zutenei. Horrela, euskara ikasten ari ziren kanpotar asko iristen zen Amezketara eta Laturuko Maritxuk, ostatua ematearekin batera, etxekoekin etengabeko mintza-praktika egiteko aukera ematen zien.

### **“GU, USTEKABEAN, EUSKARA IRAKASLE”**

*Amezketan jaio nintzen eta bertan bizi izan nintzen 28urte arte. Familia euskalduna zen nirea. Aita bertsozalea zen eta niri ere gogoko zitzaidan abestea. Giro horretan, euskara maitatzen ikasi nuen.*

*Gurasoek Aralar paper-lantegian lan egiten zuten, eta ni oso garaiz hasi nintzen nire ofizioan: ume zaintzan eta etxeak eskatzen zituen beste lanetan. Gogoan dut, etxeoak Paper-lantegian lan eginda, nik ere izan nuela lantegi horretan lanean hasteko eskaintza, une hartan emakumeei zabaldu baitzitzaien horretarako bidea, baina amak moztu zidan aukera hori. Izan ere, bere ustez, ni sartuz gero, berak utzi egin beharko zuen lantegia, eta horrek ekonomikoki galera zekarren: antzinatasuna galtzea eta diru sarrera murriztea.*

*Nik, beste emakume askoren moduan, etxean gelditu behar izan nuen, ez zen hori nire anaien kasua izan. Nik nahi nuen, ordea, etxeoak gain beste zerbaiti heltzea. Horrela, OARGIren dinamika barruan, Felik bultzatu ninduen euskararen zabaltze bidean murgiltzera. Gure etxea eta familia euskara ikasteko eta mintza-praktika egiteko txoko bihurtu zen. Jende askok igaro ditu denboraldiak gure etxean. Gogoan ditut batzuk: Gunter Brescheneider, filologo alemana; Enkarni Genua, donostiarra eta bere familia; Mertxe, Gazteizkoa; Josune, botikaria; Maria Luisa Sologaitua eta denbora gutxiagokorako etortzen ziren beste batzuk.*

*Nire ustez, jende konprometitua eta oso saiatua zen. Ni ez nintzen euskararen irakaskuntzan eskolatua, baina saiatzen ginen etxekook mantso eta ondo ahoskatuz hitz egiten. Esperientzia oso polita izan zen. Ez dakit zenbat irakatsi genien, guk behintzat asko ikasi genuen eurengandik.*

*Geroago ere izan ditut harremanak, eta beraien esker ona jasotzeak ni ere poztu egiten nau.*

**Pepi Zubillaga**



Herrian bazen aipatu beharreko beste etxe bat ere: Pepi Zubillaga eta Lorentxo Amundarainena. Haiek diotenaren arabera, euskararen berpizte giro hartan eskua luzatu nahi izan zuten eta etxean hartu zituzten euskara ikasten ari ziren emakume, gizon eta haurrak. Beraz, aipatutako familia amezketar horiek laguntza eman zioten Euskal Herriko euskalduntze prozesuari, ikastolaren mugimendutik kanpora.

Euskalduntze bidean ziren beste persona batzuek izan zuten geroago baserri-etxeetan sartzeko aukera. Esaterako, Berantetxeberrian, Astamutiletan, Errementainen edota Jauregi Txikin.

#### 4.6\_Aralar Paper Lantegiaren eskola-eskaintza

Oterminek aipatu bezala, Aralar Paper Lantegiko Senen Amunarrizek 1948an adierazi zuen Amezketan neska eta mutilentzat eskola eraikitzeko asmoa, baina 1968 arte ez zen jarri martxan.

Aralar Paper Fabrikak eskainitako dokumentazioaren arabera, 1968ko urriaren 3a aipatzen da irekiera urte bezala. Honela diote: *“En el pueblo de Amezqueta se recordará con verdadero agradecimiento el 3 de Octubre de 1968, fecha en la que los propietarios de la PAPELERA DEL ARALAR construyeron e inauguraron un nuevo complejo escolar.”*

Senen Amunarrizek La Salletarren eskolan ikasi omen zuen eta haiekiko konfidantza handia zuenez, iturri berera jo zuen Amezketako bere eskola antolatzeko garaian. Haiek, ordea, ez omen zuten horretarako behar hainbat praile-irakaslerik eta La Salletar ohienagana jo zuten. Horrela dio Papelerako dokumentuak: *“Los profesores, tres jóvenes pedagogos, Javier García, Jose Antonio Nanclares y Jose Manuel Echaniz, llenos de inmensa inquietud y profundas ganas de trabajar se encargaron del proyecto escolar.”*

Eskola eskaintza berriak harrera ona edo oso ona izan zuen herrian: 62 ziren izena emandako ikasleak. Denak pozez gainezka zeuden: ikasleak, herritarrak eta eskolaren sortzaileak.

Urriaren 4an ikasleei oinarritzko azterketa pasa omen zitzaizen eta emaitzen arabera antolatu zituzten taldeak. Urriaren 5ean, igandean, eskolaren eta egoitza sozialaren bedein-kazio eguna izan zen. Bertan ziren sortzaileak eta euren senideak. Ikasleak ere han ziren euren gurasoekin. Herriak osoki erantzun zuen. Honela deskribatzen du unea aurrez aipaturiko dokumentuak: *“La estampa era magnífica. Los propietarios con sus familias y los productores con las suyas, formaban un todo unido y compacto. Se había hecho realidad otra aspiración más: ver en Amezqueta una obra educativa y social, modelo y piloto, digna de ser imitada por todas las entidades. Los productores a su vez tenían un rictus de pura satisfacción. Todo lo que veían era un sueño hace unos años. Hoy era realidad”*.

Papeleraren eskola-eskaintza OHO/EGBko 4. mailatik hasi eta 8. mailarekin bukatzen zen. Batxilerra, berriz, beranduxeago antolatu zen. Horrela, batxilerra egin nahi zuenak 4. maila egin eta batxilerraren bidea hartzen zuen. Amezketan batxilerraren bidea hartu zutenetatik, dezentek atzera egin zuen.

Papelerak indarrean jarritako eskola bertako langileen semeentzako zen. Beraz, langileen alabak eta langile ez zirenen seme-alabak eskaintza horretatik kanpo zeuden. Garaian garaiko joera izango zen, noski. Baina horrek kezka sortu zuen herrian eta hutsune hori ekiditeko Guraso Elkarte eta OARGI lanean hasi ziren. Horrela eta garai horretan, bitarteko aukera bezala, eskola nazionaletik zetozen neska eta mutilentzat batxilerra jarri zen eta klaseak OARGIn ematen ziren, eta Katalina (Kati) zen irakaslea.



Kati irakaslea.

Hurrengo ikasturterako, papelerareko batxiler eskaintzak ateak ireki zizkien neskei eta bertako langile ez zirenen seme-alabei. Hori dela-ta, OARGiko batxilerra bertan behera geratu zen.

Batxilerrerako eskaintzak lau urte iraun zuen bizirik. OHO/EGBkoak urte batzuk gehiago. Izan ere, Villar Palasi legeak goitik behera aldatu zuen eskola munduaren egituraketa. Horrek bultzatuta, eta Amezketan eskola bat izan zedin ikastola, eskola nazionala, Ugarteko ikasleak eta Abaltzisketakoak batu zirenerako Papeleraren eskaintzak bere bidea egina eta amaitua zuen.

Bukatzeko, esan Papelerak gauzatu zuen eskola-eskaintza hori oso-oso mesedegarria izan zela Amezketarentzat. Ordu-arte ikasteari garrantzi gutxi ematen bazitzaion ere, aukera berri horrek animatu zituen ikasle asko eta asko ikastera. Bejondeiola, beraz, Amezketako ARALAR Paper Lantegiari, eskola munduan eta heziketa alorrean egindako ahalegin probetxugarriak fruitu onak eman baitzituen Amezketan.



## BESTELAKOA NAHI ZEN ESKOLA BATEN BILA

*Feli Etxeberria*

*Inguruak ta barruak  
eskatzen zun aldaketa  
goitik ezartzen zenari  
eman nahi zitzaion buelta  
herriak bere hizkuntzan  
merezi zun heziketa  
Euskal Herria bezela  
bor-bor zegoen Amezketa.  
Informatu eta hausnartu  
ta autoantolaketa,  
kristalezko sabaia ez  
zen hormigoizko pareta  
halare buruarekin  
gogor hormari kolpeka  
orduko herriaren nahiak  
hala eskatzen zuen eta.*

*Dena zegoen egiteko  
dena zegoen prestatzeko  
jendea alfabetatu  
ta konbentzitu hasteko;  
ez babes, ez ziurtasun,  
ez diru ez bitarteko,  
auzolana, ilusioa,  
jarrera borondatezko...  
Herria euskeraz hezi nahi  
errespetuz ikasteko,  
hezkidetzan bizi eta  
erabakiak hartzeko...  
Ze lan ametsa herriari  
gauzatu ta emateko  
Euskal Herri euskaldun baten  
pertsona aske izateko.*

**Doinua:** Habanera

3

## 1 TESTUINGURUAREN EZAUGARRIAK

Ikastolaren sorrera eta ingurunea ezagutu nahi den lan honetan ezinbestekoa da jendearen memorian oinarritzea. Errealitatean gertatu zena eta, kasu honetan, hainbat urte geroago memoriaren bidez azalduko dena ez dira gauza bera izango, baina bidea urratuko dugu ikastolak euskarari eta hezkuntzari eman dion lekua hobeto ezagutzeko.


Elizak indar handia zuen garai hartan: botereak botere gehiago eskatzen du eta garai hartako giro politikoa Espainiako nazional katolizismoari lotuta zegoen. Horrek ez du adierazten garaiko apaiz askoren lana estimagarria izan ez zenik euskararen alorrean. Aipatzekoen artean ditugu: Aitzol, Lizardi, Orixe, Aita Donostia, Lekuona, Resurreccion Maria de Azkue, Lauaxeta eta beste asko.

Baina Euskal kulturaren zapalkuntza bizi bizirik zegoen; orduko eskolak ez zuen errespetatzen ez euskararik ez eta euskal kulturarik. Arrotza zitzairen eskola batean hezten ziren ikasleak. Bizi ziren ingurunetik urrun zegoen eskola hura. Amezketako eskolan ez zen ikasten Pernando Amezketarra nor zen, herriko erreka edo mendiak nolakoak ziren, ez eta baserria, artzaintza eta fabrika nolakoak ziren ere, bertako lanbide izanagatik.

Euskarak ez zuen lekurik, ikasleak euskal hiztunak izan arren; erregimen frankistaren mendeko erakundea zen eskola. Gerra ondoko maisu-maistra askoren euskararekiko jarrera agresiboa zen. Orokortzea zuzena ez bada ere, eskola umeak zigorrez tratatzen zituzten, kasu askotan, gaztelera ez jakiteak eragiten zizkien zailtasunengatik. Hala ere, argi berri bat piztu zen frankismoaren urte gogor haietan, klandestinitate gorrian lanean jardun ziren hainbeste gizarte mugimenduri esker. Horien artean ikastola agertu eta nabarmendu zen euskalduntasunaren oinarri eta eskola berri baten eredu gisara. Ikastola ez zen sortu boterea zuten erakundeetatik. Ikastolaren hedatze berria eta herrietara zabaltzea, batez ere, hirurogeiko hamarkadan gertatu zen. Aurretik, Andereño Elbira izan zen ikastolaren aitzindari.



Orixe



## 2 HASIERAKO IKASTOLA: ELBIRA ZIPITRIA ANDEREÑOIA

Donostian irakaskuntzan eman zuen bere bizia Elbira Zipitria andereñoak. Emakume hark ahalmen izugarria zuen zorroztasuna erakusteko. Hainbestearainokoa, maiz beldurra ere eragiten baitzuen: oso kritikaria izan zen euskararen munduan, politikan eta baita irakaskuntzan ere. Nire ustez, berak ere bere haragian bizi izan zuen beldurra. Zipitriak klandestinitatean

egin zuen lan asko eta 1936ko gerra garaian ihes egin behar izan zuenean Saran topatu zuen aterpea.

Jakin-min handia zuenez, Pedagogian sakontzeaz ere arduratu omen zen denboraldi horretan. Bere ahizpa moja Marsellan zegoen eta aukera izan zuen haren bidez Frantziako pedagogía aurrerakoien mugimendua ezagutzeko.

Gerraosteko ikastola bi etapatan bana daiteke. Lehen etapan, frankismoaren garai bete-betean, Zipitria andereñoa Donostiara etorri zen 1942an eta guraso batzuen etxeetan ikastola sortu zuen, klandestinitatean gogor lan eginez. Eta bigarren etapian, 1946an bere etxea ikastola bihurtu zuen. Han iluntzetan euskara irakasten zien pertsona helduei. Ikusirik haur asko zettorrela ikastolara, andereño berriak prestatzeari ekin zion. Hauek izan ziren Elbira Zipitria andereñoaren ikastola ereduaren lehen jarraitzaileak 60ko hamarkadaren aurretik:



*Elbira Zipitria andereñoa.*

- 1950.ean: Itziar Artzelusen etxean, Donostian.
- 1954.ean: Jone Forkada. Lehehengo helbidea: Donostian, kale Nagusiko 2. zenbakiko beheko solairua. Ondorengo helbidea: Kaiako San Pedro elizaren alboko etxean, lehenengo solairuan.
- 1955.ean: Karmele Esnal. Helbidea: Donostian, Artzai Onaren Plazan, 14. zenbakian, beheko solairuan.
- 1957.ean: Mari Karmen Mitxelena. Helbidea: Donostian, Kaiako San Pedro elizaren alboko etxean, lehenengo solairuan.
- 1957.ean: Mari Carmen Lasarte. Helbidea: Donostian, haren Aingeru kaleko etxean.
- 1957.ean: Faustina Carril. Helbidea: Donostian, Alde Zaharrean, haur txikiak hasi zen eta zenbait urtez bakarrik lan egin zuen bere ikastolan. 1965az geroztik, bere iloba Koro Egañaren laguntza izan zuen.

## 2.1\_Zer ikusten zen Elbiraren praktika pedagogikoan?



*Karmele Esnal andereñoa.*

Beti euskararen eta euskal hezkuntzaren alde jardun zen Zipitria. Modu laburrean bada ere, zertzelada bat emango dut haren pentsamoldearen azpian egon zitezkeen teoriak eta pedagogia ikusteko.

Ez zuen adierazi inoren eraginik zuenik bere irakasteko eran, ez eta ikasleen garapenari buruz zuen pentsamenduan ere. Argi zeukan Euskara Euskal Herriko hizkuntza zela eta hura ikasi eta erabili behar zela bai gizarte harremanetan, bai kognizioen arloan ere. Identitatearen oinarritzko elementu gisa tratatzen zuen euskara eta euskaldun senti zitezten saiatzen zen. Euskaldun jatorrez





Elbira Zipitria, "hala kinkirrinera" jolasten.

Zipitriaren bisita: gai askotaz mintzatzen zitzaigun, eta haurrei buruzko gertaeraren bat ekartzen zuen beti; behaketei buruzko oharrak ere egiten zituen. Irakasle izateaz gain iker-tzaile ere bazen eta oso interesatua zegoen logika erakusten zuten haurren erantzunetan.

Beti oso interesatua zegoen arrazoitzea eskatzen zuten haurren erantzunetan. Irakasle izateaz gain ikerketazalea ere bazen. Behar bada, Piageteren arrastoa zuen.

osatutako herri kristaua eratzea zen bere helburua. Beraz, erlijio gaietan nahiko estua zen Elbira, eta elizako ospakizunek bazuten lekua ikastolan.

Deigarria zen haren joera garbizalea hezkuntzaren alderdi batzuetan, eta baita euskararen kasuan ere. Halere, berritzailea zen irakaskuntzan, eta jakin-min handiko emakumea garai hartarako. Nik Mari Karmen Mitxelenarekin egin nituen urte beteko praktikak: oso gustukoa nuen. Ia egunero izaten genuen

### 3 PIAGETEN ARRASTORIK BAI ELBIRA ANDEREÑOAREN PRAKTIKA PEDAGOGIKOAN?


Ekintza pedagogikoaren prozesuan ikasleen erantzunak aztertzea gogoko zuen andereño Elbirak. Baina horretarako aztertzen zituen iturriei buruzko azalpenik ez zuen ematen. Haurren sena haien ekintza eremuan bilatzen zuen; haurrek zer eta nola pentsatzen zuten jakiteko irrika handia zuen. Behar bada, Piagetek utzitako arrastoa edo aztarna zen hori.



Mari Karmen Mitxelena andereñoa.

Deigarria zen guretzat haurren ezagutzari jartzen zion arreta. Ezagutzaren garapenari lotutako kontuak beti zituen ahotan. Bide horretatik ikus daiteke oinarriko kontzeptuak lantzeari jartzen zion atentzioa. Gogoan dut nola lehenik ahoz, gero marrazki bidez, edota idatziz lantzen zituen ikasgelako objektuen kokalekuak. Hala nola, espazioari dagozkionak: goi, behe, gain, azpi, barru, kanpo, aurre, atze, atzealde, alde bat, beste alde, etab. Modu berean, denborari dagozkionak: atzo, gaur, bihar. Edota kausari buruzkoak: "zergatik". Ikuspegi horretatik ezagutzaren garapenari garrantzi handia ematen zaio, garapen horrek ziurtatuko baitu hizkuntza erabiltzea. Baina garapenaren

oinarrian norbanakoaren ekintza dago. Era horretako hausnarketa egiten zuen Elbirak haurren erantzunak aztertzen zituenean. Funtsean, komunikaziorako bitarteko bat da hizkuntza, haurren sozializazio prozesuan garrantzi handia duena. Eta horrek errealitatea ezagutzea eskatzen du. Gure ustez, ikasleen arteko eta irakasle-ikasle arteko harremanek sustatzen dute ezagutzaren garapenera.



*Bigarren Errepublikara garaiko liburua.*

Horrela esplika daiteke haur kopuru txikia gelan izateak duen abantaila. Ildo beretik ikus daiteke haren praktika pedagogikoa; haurrentzat ikaskuntza esanahitsua eta jardueran oinarritutako irakaskuntza bilatzen zuen. Eguneroko egoera interaktiboetan irakaskuntza sostengatzeko edozein egoeraz baliatu behar du irakasleak.

Elbirak jaso zezakeen argibidea ez zetorkion Piagetengandik bakarrik. Orduko Pedagogia ekintzaile, bizi eta askatasunean oinarrituaren berri ere izango zuen noski.

### 3.1 Elbira andereñoaren praktika pedagogikoak ikusmira zabala zuen

Aitormenik ez dugun arren, eskola berriaren oinarri pedagogikoak eta beste zenbait pedagogoren teoria eta gogoetak ere ezagutuko zituen: hala nola, Decroly, Montessori, Freire edo beste batzuek. Adibidez, Maria Montessori psikiatra eta pedagogo zen. Joan den mendean oso ezaguna zen Montessori metodoa, gaur egun ere hezkuntzan erabilia. Hark defendatzen du haurrak derrigorrezkoa duela autonomia lortzea, arduran eta askatasunean hezia izatea, bere ikaskuntza prozesua

gauzatu ahal izateko. Hasieran ikasle ezinduekin lan egin zuen; geroago orokortu zuen metodoaren aplikazioa. Decroly (1871-1932) pedagogo, sendagilea eta psikologoa zen. Haren metodologia haurren interesetan oinarritzen da. Celestin Freinet (1896-1966) maisu eta pedagogoak pedagogi ekintzailearen praktika jarri zuen abian eta hain ezaguna zaigun tailer bidezko ikaskuntza antolatu zuen: eskolako inprimategia da horren lekuko. Ziur aski Espainiako Bigarren Errepublikara garaiko eskolaren pedagogiaren berri ere izango zuen. Argi dago Pedagogiaren oinarrian Hezkuntzaren Filosofia dagoela eta praktikak pentsamendutik ekintzara pasatzea eskatzen duela. Ikuspegi horretatik begirata, laudagarriak dira Zipitriaren kezka eta praktikan jarri zuen pedagogia mota.

Elbiraren inguruko andereñoekin praktikak egin genituenok garbi ikusten genuen haiek Elbiraren irakats eredu jarraitzen zutela, eta behar bada zentzu zuzenean jarraitu ere. Horrek garbi uzten du Elbiraren eredu pedagogikoarekiko zuten konbentzimendua eta Elbira berarekiko atxikimendua.

### 3.2 Eskola orduz kanpoko ekimena

Elbiraren ikastolara joaten ziren ikasle askoren gurasoek harengandik jaso zituzten euskarazko klaseak. Zipitriak sortutako etxe-eskolako gaueko saiora joaten ziren euskara ikastera. Beren seme-alabak ikasketak euskaraz egitea zen gurasoen helburua, baina ulertu zuten hurrek giro euskaldunaren premia zutela eta horretarako beharrezkoa zela familiak euskalduntzea.

Dudarik gabe, profesional handia zen. Ni, praktikak egin ondoren, Lazkaoko ikastolan hasi eta laister, iluntzetan antolatu zuen mintegi batera gonbidatu ninduen, zortez; han beste gauzer artean, laster ikasi nuen partaide izateko isilik egoten ere jakin behar nuela. Denetariko buruhaustea azaltzen zituen denbora luzez: ikastola zabaltzeaz zituen errezelo handiak, euskara batua onartu ezina, “H” letraren erabilpena E.T.A.rekin lotzea, erlijioari buruzko ikuspegiaren aldaketak sortzen zion izua etab. Ezin dugu baztertu Euskal Herriko balore tradizionalak oso kolokan jarri zirela, gazteak ideia sozialistak erlijioaren aurretik jartzeko joera azaltzen hasi ziren buru-belarri, eta eztabaida sutsuak nagusitu ziren ikastolaren inguruan ere. Bere-berea zen ikastola eredia galduko zen beldurra zuen. Horrek guztiak asko sufriarazten zion; batez ere, bere lagun izan ziren euskaltzaileen jarrerak edo haiei buruz zituen usteak mintzen zuten. Entzuleak behar zituen haiei bere kezka azaltzeko eta haien onarpena jasotzeko. Halere, mintegi saioaren azken ordu-laurdeneko hausnarketa benetan emankorra eta oso aberasgarria izaten zen niretzat.

#### 4 ANTOLAKETA ETA IKASBIDEAK

Elbirak sortu zuen ikastolak antolaketa berezia zuen. Egunean zehar bi orduko eskola zuen 8-10 ikasleko talde bakoitzak. Talde desberdinak zituen, neska-mutuez osatuak; gehienak euskaldunak eta guraso abertzaleen seme-alabak ziren. Ikasleak 5 urtetik 9-10 urtera arte egoten ziren eta ondoren, fraide eta mojen kolegiotara joaten ziren. Azken urtean gaztelania ikasten zuten. Deigarria da egunean bi orduko eskolatzea zuten ikasleek ikasten zutena. Batetik, talde txikia izateak asko errazten zuen haur bakoitzaren egoera ezagutzea, baina zer egiten zuten beste ordu libreetan? Garai hartan ama etxean gelditzen zen kasu askotan eta bera arduratzen zen seme-alabak zaintzeaz. Esan dezakegu gurasoen egoera ekonomikoa eroso zela orokorrean; eta salbuespenak kenduta, haur gehienak frantsesa, dantza, musika e.a. ikastera joaten zirela.

Bestetik, Pedagogia berria aukeratu zuen berak amesten zuen ikastolarentzat: bere esku zituen ikasleak euskaraz hezteko eta euskaldun jator bihurtzeko. Ikasgelan ez zegoen eserlekurik, ez aulki eta ez pupitrerik; beraz, lurlean borobilean eserita egiten ziren elkarrizketak



Lurrean matematika lantzen.

ta saioa, irakurketa eta ikasgaien azalpena. Matematikak ulertu eta ikasteko ere sistema berezia zuen: kanika bidezko jokoak egin ondoren, laneko blokean marraztu eta idazten zen ikasitakoa. Mahai luze baten inguruan zutik jarrita ere egiten ziren idazketa lanak. Irakaskuntzari bizia emateko abes-  
tiek, antzerkiek, marrazkiek eta olerkiek leku berezia zuten. Ikasitako gaia ahoz ere azaltzen zuten eta ekintza hori interesgarritzat jotzen zen, bai ondo memorizatzekeo gaitasuna lantzeko, bai hizketan trebatzeko. Komunikatzen

ikasteko estrategia bat zen. Ikusten da inplikatzeko modu desberdinak jartzen zituela jo-koan, haurren arreta erakartzeko. Zipitriak eta bere ondoko andereñoek Kristau Ikasbidea erakusten zuten asteko egun batean ikasgelan, eta baita Itun Zaharra eta Berria ere.

## 5 METODOLOGIA ETA MATERIALAK: PRAKTIKAK EGITERAKOAN JASOTAKOA

Nik praktikak Mari Karmen Mitxelenarekin egin nituen, lehen aipatu dudan bezala. Eta Mari Karmenek Elbiraren filosofia eta metodologia globalarekin lan egiten zuen, elkarrekin lotura handia zuten ekintzak bideratuz. Haurrengandik gertu zeuden bizipenetatik abiatu behar zen eta bide horretan Xabierto liburua ere asko erabiltzen zen. Bertan gai desberdinak azaltzen eta lantzen ziren: baserria, abereak, urtarook, eta moralari lotutako beste pasarte batzuk ere bai, hala nola gezurrik ez esatearena eta zintzo portatu beharrarena.

Kutsu eliztarra zuen ikastolak. Bertan ikasten ziren dotrina eta errezoak; hilaren lehen ostiraletan jaunartzea egiten zen; beste abesti batzuekin batera, elizakoak ere egunero abesten ziren ikasgelan. Garrantzitsua zen jaunartzea egiteko euskaraz prestatzea.

Zipitriaren irakats metodologia berezia zen ikasgai guztietan: matematikan, hizkuntzan, irakurketan, idazketan eta, batez ere, ikaskuntzarako egoera egokiak topatzen eta ikasleei biziartzten. Aipatzekoa da euskaraz irakaskuntza osoa egiteak euskal giroa sortzen zuela eta aukera ematen zuela euskal kulturaren sena pizten saiatzeko. Horrela ikastolan beti izan da ohitura euskal kulturarekin lotzen diren abesti, poesia e.a ikasteko. Zentzu horretan, gaiari edo eguneko ospakizunari zegokion abestia, olerkia edo ipuin kontaketa egiten zen, ahoz zein idatziz. Horretarako Lizardiren poemak, Manuel Lekuonak eta Xanti Onaindiak bildutako abestiak, Nemesio Etxanizenak, Azkuerenak e.a. erabiltzen ziren.



*Euskal identitatearen agiriak.*



IRAGAN FESTA BIHARAMUNEAN  
(LAU ANDREN FESTA)

*Iragan besta biharamunean  
berek dakiten txoko batean,  
lau andre, hiru mutxurdin, bat  
alarguna, jarririk itzalean,  
harri zabal bat belaunen gainean,  
ari ziren, ari ziren trukean.*

*Matematika, abestiaren bidez ikasten zuten:  
batekoak, hamarrekoak, ehunekoak, eta...*

Ez zen material handirik gelan: liburu banaka batzuk ( Martin Txilibitu, Lutelestia, Xabierto, Itun Zaharra eta Berria), blokak, bi koloretako arkatza (alde batetik urdina eta bestetik gorria), arkatz beltza idazteko, txotxak, arbela, eta igeltsua. Pottoka boltsatxo batzuk ere baziren. Aipagarria da asteen goiz batez mendirako irteera egiten zela. Jarduera hori natur arloarekin lotzen zen bereziki, baina ikasgelara itzultitakoan egiten zituzten beste eragiketa askorekin ere lotzen zen.



Jules Martin Moulier (Oxobi): Belea eta axeria

Nahiz eta pedagogia berrian oinarritua izan Zipitriaren irakaskuntza, esatekoa da, ikasleek ez zutela askatasun girorik bizi ikasgelan. Beharbada denbora gutxian asko egin nahi zelako. Bizi zuten irakaskuntza zuzendua zen oso: akatsek ez zuten han lekurik; borragoma funtsezkoa zuten bloketan jarduten zutenean; marrazkiak ere, ia beti, eredu jakin bati jarraituta egin behar zituzten. Ez zegoen sorkuntzarako denbora askorik. Halere, ikastolak eskertu beharrekoa du Elbirak eta haren ondoko andereñoek egin zuten lan bikain hura.

Baina Ikastola herrietara zabaltzeak Elbiraren eredu puskatu zuen, batez ere, antolakuntzaren ikuspegitik. Eskoletako ohiko ordutegia ezarri behar zen, nahiz eta pedagogia berriaren espiritua eta, neurri batean, Zipitriaren metodologia jarraitu; ordutegia luzatzeak antolaketa berria eskatzen zuen. Antolamendu berriak pedagogia berriaren ibilbidean beste elementu batzuk integratu

beharra ekarri zuen. Hala ere, aitortu behar da, ezagutu genuen hiriko etxe-ikastolen ikuspegi pedagogikoak eta haietan praktikan jarri zen metodologiak, zubi lana egin zutela ikastolek irekiko zuten norabide berrian.

**6\_HIRITIK HERRIETARA, IKASTOLAREN IBILBIDE BERRIA**

Ikastolaren sorrera ez zen izan bat-bateko fruitua. Euskararen eremuan jokabide desberdinak izan dira. Alde batetik, erlijio gaietara iristeko euskara erabili beharra sentitu zutenena; bestetik, euskara herriaren ardaztat hartu eta haren bizi-iraupenak kezkatzen zituenena. Ondorioz, euskararen irakaskuntzari ekin diotenak asko eta askotarikoak dira. Aipatzen hasita, Sabino Arana eta haren jarraitzaileek euskararen aldeko joera izateak zenbait ekimen bultzatu zuen garai hartan. Era berean, eragina izan zuten Resurrección Maria Azkuek Bilbon 1896-1897 aldera ireki zuen lehenengo ikastolak eta Donostian Migel Munoak 1914an ireki zuen Koruko Andre Mariaren ikastetxeak. Hain zuzen, azken ikastetxe horretan hasi zen irakasle lanetan Elbira Zipitria, 1926an. Aurrez esan den gisara, erbestetik itzultitakoan (1942an), lehenik, ikasleengurasoen etxeetan ireki zuen ikastola eta, geroago (1946an) Donostiako bere etxean.

Azkue herriz herri ibiltzen zen Euskal Herriko Jakintzaren datuak biltzen. Horretarako, Amezketan solaskide hauek zituen: Errazkiñeneko Maria Elena Galartza eta Amezketako Maria Ana Zirako.


Ikusi den moduan, lehendik ere zenbait emakume kementsu Elbira Zipitriaren inguruan ikastolak irekitzen joan ziren; Elbiraren moldekoak ziren, isilpean, etxe partikularretan eta egoera zailetan lan egiten zutenak. Baina 60ko hamarkadan herrietara heldu zen zabalkundea. Ikastolak hedatzearekin batera, normalkuntzaren bidean eraikitako proiektutzat hartu zuten euskaltzaleek herriko hezkuntza; ekintza arduratsu eta konplexutzat zuten, baina oraindik legezatu gabe zegoena. Egoera berri honek aldaketak egitea eskatzen zuen: ordutegi normalizatu egitea, herriko haur guztiei eskola eredu berria eskaintzea, eta orduko ikastolen pedagogia egoera berrira egokitzea.

Ikastola bat irekitzeak zama handia zekarren guraso eta herriko euskaltzaleen sorbaldetara. Baldintza askoren premia ikusarazi eta erantzukizun handia sortu zuen joera berri horrek; hala nola, irakasleriaren premia, guraso eta laguntzaileen inplikazioa, eta ekonomia arazoari aurre egin beharra.

Urte gutxiren buruan pauso berri asko eman beharrean gertatu zen ikastola, iraungo bazuen. Isilpekoak ziren ikastolak eta ikasleek ez zuten eskolatze agiririk. Hezkuntza Ministerioak ikasle guztiak eskolatze kartila izatera behartzen zituen Legea atera zuen 1968an. Ikastolek, klandestinoak izanik, ezin zuten legea bete. Arazo horri aurre egiteko beste ikastetxe batzuek eskua luzatu zuten, eta ikastolako ikasleak beren ikastetxeetara balira bezala jokatu zuten.




R.M. Azkue





Kontxita Beitia andereñoa.



Imanol Urbietak.

Gogoan izan behar da diktaduraren mendean bizi ginela. Ikas-geletako ikasleek bazekiten zer egin behar zuten bisitari ezezaguna bertaratzen zen kasuan, adibidez, guardia zibila edo ikuskaria agertzen zenean. Egoera horretan debekatuta zegoen bilerak egitea ere, eta leku estrategikoak bilatu behar ziren horretarako: parrokietako sakristiak, elizaren aretoak, hots, konfiantza osoko lekuak. 60ko hamarkadaren bukaeran (1969an), Konkordatuaz baliatuz, ikastola Parrokia-Eskola bihurtzearen bidea ireki zen lege-egoerak bultzatuta, eta urte berean Ikastolen Federazioa sortu zen.

Ikastolaren garapenerako ibilbidea ez da erraza izan. Elkar lanean jardun zuen bidegile asko izan da Euskal Herrian. Egoera zailetan ikusi da elkar lanean aritzearen indarra eta balioa. Ikastolaren inguruan laguntzaileak beti izan dira, ez bakarrik ekonomi arazoa konpontzeko, baizik baita baliabide ugari sortu eta haien erabilpena bultzatzeko ere. Adibidez, abesti, olerki, antzerki, ipuin, liburu, ikus-entzunezko, eta beste material-gintzetan esku-hartu dutenak. Ikusi besterik ez dago Imanol Urbietak musikagintzan sortu duen ondarea. Hark sortutako musika eta abesti goxo eta sarkorrei esker gozatzen ikusten ditugu haurrak eta hain haur ez direnak, bai ikastolan, bai eskolaz kanpoko jardueretan. Lehen aipatu den eran, euskara defendatu da eta euskaraz eginiko lanak erabili

dira irakaskuntzan, batez ere hasierako denboretan.

Bide batez, gogoan dut nola erabiltzen ziren gerra aurrean idatzitako Lizardiren poemak Elbiraren metodologian. Gure egunotan, euskal kantagintzari esker, Lete, Lertxundi eta Valverderen ahotik entzun izan ditugu Lizardiren poemak, adibide gisa, “Biotz begietan” liburuko olerkiak.



Jose Mari Agirre “Lizardi”.



Orixe oso gogoko zuen Elbira Zipitriak. Errepublika garaian Euskal Herriak bere poema nazionala behar zuela eta, hura idazteko eskaria egin zion “Euskaltzaleak” izeneko elkarteak eta bai egin ere “Euskaldunak” izeneko poema.

Ikastolan beti izan da ohitura euskal kulturarekin lotzen diren abestiak, poesiak e.a ikasteko. Gogoan dut abestearen alderdi onak aipatzen genituela, hasieran behintzat, eta adinaren arabera aukeratzen zirela abestiak. Garai hartako elkarlana aztertuz gero, ikusiko genuke euskal kulturaren inguruko materialak biltzen eta sortzen egin zen lana, Ikastolaren egoera hain eskasa zen garai hartan. Biltzaile eta sortzaile horien artean elizgizon batzuk aipatuko ditugu: Nemesio Etxaniz (1899-1982), apaiz euskaltzalea eta idazlea. Garai batean Elbira Zipitriaren laguna izan zen, baina nire ustez oso izaera desberdinekoak ziren eta ez ziren oso ondo konpontzen; Karmele Esnal andereñoarekin, berriz, ondo konpontzen zen. Nemesiok lan asko egin zuen ipuin eta abestiekkin.

Nik euskal abestiei buruz andereñoi emandako hitzaldi batean ezagutu nuen Nemesio Etxaniz. Haren antzerkiren bat ere ikusia genuen Donostian, Jarrai taldeak antzestuta. Erabat harriturik utzi ninduen haren portaera irekiak, apaiz izateko oso modernoa baitzen. Eta ikastolarako bidean gindoazela esan genionean, etxeko atea zabaldu zizkigun berak, gitarra jo eta abestiak erakutsiko zizkigula esatearekin batera. Esan eta egin! Han joan ginen taldetxo bat haren etxera; ondo pasa eta nahiko barre egin genuen denok harekin batera abesterakoan. Ordutik aurrera bera partaide zen ekintzetara joaten ginen eta asko lagundu zuen eskuartean material gutxi genuen denbora haietan. Hark egindako “Lur Berri Bila” liburutik jasotzen genituen olerkiak, antzerkiak eta abestiak ere. Adibide gisa: “Ollotxo Txuria”, “Perutxo Makur” eta abar.

Aita Onaindia Karmeldarrak (1948-2003), “Jolas-keta bilduma” egin zuen eta sailkapen bat eman zuen: abestiak, jolasak, ipuinak eta irakurgaiak. Andereñoen udako formazio saioetan parte hartzen zuen eta lanerako material erabilgarria eskuratzen zuen ikastolak.

Manuel Lekuona (1894-1987) Resurreccion Maria de Azkuerekin elkar lanean aritu zen “Euskaltzale”



*Aita Onaindia.*




*Nemesio Etxaniz.*



## LUR BEÑI - BILA

ETXANIZTAR NEMESIO








Jose Migel Barandiaran.



Manuel Lekuona.



aldizkarian. Ahozko literaturan aditua zen eta Ikastolako lanerako abesti eta olerkiak eskaini zituen. Horien artean, hainbeste haurrek abestu dituzten hauek: “Paradisuko Atean”, “Etxe Poxpola” e.a.

Ezinbestekoa da Jose Migel Barandiaranen aipamena egitea. Euskal kulturaren arrastoak berarengandik jaso genituen andereñoak prestatzeko lehen saioetan, 1965eko Eguberrikako oporretan, Lazkaoko Bordaxuri etxean.

## 7 IKASTOLA EUSKARA BERRINDARTZE PROZESUAN

Ikastolak zeregin handia izan du euskara zabaltzen, hezkuntza eredu berri bat antolatzen eta partaide izan da, neurri batean, gizartea aldatzeko prozesuan.

Euskarak arnasmune eta transmisio bide izan ditu familia, lagunartea, jai ospakizunak, elizako zenbait ekintza eta horrelakoak, beti ere, ahoz ahokoak. Eta ikastolak bide berri bat ireki zion euskarari, batez ere, esparru formaletako sarbidea. Luzaro, debekatua izan baitzen eskolan eta idatzizko sareetan. Aipagarria da 60ko hamarkadan ikastolaren mugimendu berriak euskara mantentzea, zabaltzea eta berreskuratzea bultzatu zuela. Helburu horrek berak eraman zuen haur erdaldunak euskalduntzera, eta heldu euskaldunak eta gazteleradunak euskaraz alfabetatzera ere.

Hizkuntza baten iraupena ezin da ahozkoaren esku bakarrik utzi; hori derrigorrezkoa izan arren, idatzizkoaren egitekoa ez da dudan jartzen. Bistan da, biziera berri modernoak aldaketa ugari ekarri zuela gure gizartean XX.mendean, eta horrek areagotu egin zuela gizarte bizitzaren arlo desberdinetara euskara egokitu beharra. Eragin soziala erabakigarria izan zen euskalduntze prozesuak abian jarri ziren denbora haietan. Are gehiago, begien bistan jarri zuen irakaskuntzak eragin positiboa izan dezakeela gizarteko elkarlanean. Elebitasunari buruzko ikerketen argitan agerian jarri zen, egoera sozialek eragin erabakigarria dutela hizkuntzan. (Wallace E.Lambert, 1976).

Baina eskolaren egitekoaz ari garela, ahaztu ezina da euskararen berreskuratze prozesuan eskolaren ahalbideak bere mugak dituela eta, ezinbesteko laguntza eskaintzen duen



Joshua A. Fishman.

arren, Joshua A. Fishmanek dionarekin bat gatoz: alegia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko eskolak duen zeregina garrantzitsua da, baina mugatua da, prozesu zabalagoko partaide delako.

Ikastolak euskarari atek zabaltzeak euskaldunen kontzientzia piztu zuen eta bere inguruan mugimendu sozial zabala irekitzen lagundu zuen: hala nola, euskaldun zaharren euskarazko alfabetatzea, euskaldun berriak egiteko programak gauzatzen laguntzea, euskararik ez zekiten haurren euskalduntze integratzailea ikastolan antolatzea e.a.

BEIN YOAN NINTZAN

*Bein yoan nintzan azokara,  
erosi neban txakur bat:  
txakurrak txau txau txau  
nik txitxi berari;  
ekarri neban etxera.*

Aldi berean, kezka larriak genituen haur erdaldunak euskara hutsean eskolatzearekin: euskara irakasteak haurren irakaskuntzaren bidea zailtzen zuela zioen iritzia aurre egin behar zitzaion. Bestetik, susmoak zeuden komunikazio bidea urritzen ote zen eta harremanak ahultzen ote ziren. Kezka guzien gainera, gurasoek tinko eutsi zioten ikastolan beren seme-alabak euskaldundu eta heztea nahi zuen helburuari. Euskaldunak eta erdaldunak gela berean ikastearen inguruan ere bazegoen beste galdera bat. Alegia, euskararen kalitatea eta erabilpena jaitxi egingo ote ziren. Garbi ikusi zen hizkuntza ikasteko komunikazioa lortzea oinarrizkoa zela. Horretarako funtsezkoa zen andereñoarekiko eta beste ikaskideekiko harremana lantzea eta taldeko elkarbizitzan haurra pozik sentitzea. Esatekoa da ikastolaren pedagogia eraginkorra izan zela ikaskuntza prozesu osoan. Hailere, euskara batuaren auziaren inguruan sortutako gatazka ederki nozitu zen ikastolaren eta euskaltzaleen ingurumarietan.

*Txilardegi eta Erramun Baxo: euskara batuaren eragileak.*



## 8 EUSKARA BATUAREN PREMIA NOLA SENTITU ZUEN IKASTOLAK

Esan behar handirik ez dago Ikastola lanean aritzeak euskara batuaren premia gogor azaldu zuela. Ulertezina gertatzen zen andereñoek hitz-egiteko erabiltzen zuten modu berberetan idaztea. Alde batetik, irakasleak alfabetatu beharra zegoen eta, bestetik, sortu beharreko materialek ere euskararen arautzea eta bateratzea eskatzen zuten. Jakina, hizkuntzaren batasuna ez da lortzen egun batetik bestera; luzeagoa da prozesua eta pausoka egiten da. Bide horretan zailtasunak sortu ziren, linguistikoak eta bestelakoak.

Euskal jendearen artean giro sutua piztu zuen euskarak bere biziraupenerako behar zuen estandarizazioaren gaiak. Gai horri buruzko buruhaustea gu jaio baino lehenagokoa da. Euskaltzaindiak horretaz zuen kezka hankaz gora jarri zuen 1936ko gerrak. Gai horri buruzko lehen batzarra askoz beranduago (1964an) egin zen Baionan, Txilardegik bultzatuta; ondoren, Euskaltzaindiak egin zuen euskararen batasunari buruzko batzarrerako deia eta Arantzazun ospatu zen batzarra 1968ko urrian. Hizkuntza gaietan hain jakintsua zen Koldo Mitxelena pisu handia izan zuen Euskaltzaindiak hartu beharreko erabakietan. Garai hartan praktikak egiten ari ginen andereñoek bagenuen euskararen batasunaren premiaren kontzientzia, eta landuko ziren proposamenen berri ere bai, Rikardo Arregiren hitzaldien bidez. Rikardok, batetik, ekarpen asko egin zituen euskara eguneratzearen norabidean; bestetik, garrantzitsutzat jo zituen hainbat eragilek berrikuntzaren bidean egindako ekarpenak, hala nola, kantagintzaren eta hezkuntzaren ekarpenak. Arlo horretan Jaxinto ere oso kezkatua zegoen. Beste askoren artean Jaxintok garbi zuen Euskara Batuaren aldeko konpromisoa landu behar genuela ikastolen munduan. Garbi zuen euskara batasunerako bidean sartzen ez bazen, euskararen aldeko apustua galduko zela.

Eztabaida handiak izan ziren ideologia desberdinekoen artean, baita Euskaltzaindiaren barnean ere. Batzuk



*Rikardo Arregi.*

kontserbatzaileagoak ziren, eta hizkuntzaren garbitasunaren bidetik jotzen zuten; beste batzuk, idazle gazteak batez ere, Batuaren aldekoak ziren. Eztabaida eta gatazka horiek guztiak konpontzeko eta Euskara Batuaren normalizazioa lortzen joateko denbora behar zen.

Badira berrogeita hamar urte Arantzazuko batzarra egin zenetik eta 2018ko urrian Arantzazun ospatu den urteurrenean, Euskaltzainak dei egin die belaunaldi berriei euskara batua bereganatu eta erabil dezaten: “guztion artean bultzatu behar dugu euskara batua, gure arteko zubia izan dadin, norik berea duen euskaratik abiatuta, baina euskaldun guztion arteko estekadurak erabat bermaturik”.

## 9 PRESTAKUNTZA, ANDEREÑOEN IBILBIDE PROFESIONALEAN

Ikastolan lan egiteko andereñoen prestakuntza derrigorrezkoa zen. Batetik, andereño tituludunen eskasia zegoen, eta, bestetik, andereño titulu gabeak aurkitu eta haur txikiekin lan egiteko prestatu behar ziren. Gabezia egoera zen hura. Ikastolan lan egin behar zuen irakasleak herri honen kulturaren alderdi hauetaz jabetu behar zuen: euskara, literatura, musika, pedagogia e.a. Eta ikastolaren funtzionamendua eta jarduerak ezagutzeko nahitaezkoa zen praktikak egitea. Horrek guztiak, 1964ean, andereñoen prestakuntzarako Joannes Etxeberria erresidentzia sortzea bultzatu zuen. Talde baten lana izan zen; eginkizun horretan elkartu ziren, besteak beste, Karlos Santamaria, Eugenio Agirretxe, Jose Migel Zumalabe, Joxe Murua eta Jaxinto Setien. Talde honen elkar lanak indar bizia eman zion ikastolaren mugimenduari. Erresidentziako formazioaren arduraduna Pakita Arregi izan zen. Hark lan handia egin zuen, prestakuntza programak antolatzen eta barne giroa sortzen. Etxe berean hainbeste gazterekin bizitzeak une gozoak eta gaziak ere eskainiko zizkion. Nire bizipena oso gogokoa dut; han ikasi genuen elkarrekin komunikatzen, pentsamenduak trukatzeko, errespetuan bizitzen eta abar. Aipatu den erresidentzia egoera desberdinetako andereño gaiak elkartu ziren: magisteritza titulua zutenak, batzuk eskolatan lanean jardunak, txikiekin lan egiteko prestatzen ari zirenak, eta magisteritza ikasketak egiten ari ziren bitartean ikastolako prestakuntza ere egin nahi zutenak.

Praktika jarduerak egiteari garrantzi handia ematen zitzaion. Ikasgelan egiten zena behatzea, jasotzea eta eztabaidatzea eskatzen zen. Lehenengo urteetan praktika-ardura Elbira Zipitriarekin prestatutako andereñoek zuten, hala nola, Mari Karmen Mitxelena, Karmele Esnal eta Kontxita Beitiak. Ondoren, 1965ean, erresidentziako prestakuntza jasotako andereñoek hartu behar izan zuten gai batzuk prestatzeko ardura, hala nola, Feli Etxeberria, Nekane Auzmendi eta Nekane Iturbek.



*Pakita Arregi.*



*N. Auzmendi.*

Gogoangarria da andereñoek ikasteko zuten motibazioa. Izan ere, andereñoen hezkuntza lanerako ez zen nahikoa euskara ondo jakitea. Lan horrek beste ezagutza batzuk ere eskatzen zituen. Ezagutzen zen eskola ereditik aparte gelditzen zen. Andereñoen lana ez zen amaitzen haurrekin egindako ordutegia amaitzean. Gainera, elkar lanean aritzea ezin bestekoa zen. Euskal Herriak behar zuen eskola egin nahi zen, eta helburu horren atzetik abiatu ziren gurasoak, guraso ez zirenak, andereñoak eta gazte asko.

Jaio berria zen ikastolako lan baldintzak ez ziren hain egokiak, baina haurrak pozik joaten ziren eta, andereñoak ere bai. Gazte izatearen indarra eta Ilusioa nagusi ziren, lane-rako talde zentzua zuten eta ikastolaren proiektua oso barneratua zeukaten. Ikastolak atea-k zabalik zituen eta kanpotik barrurantzko eta barnetik kanporantzko eragin dinami-ka in-teraktiboa sortzen zen. Hasieran ia irakasle denak emakumeak ziren; gizonezkoak askoz beranduago sartu ziren irakasle lanetan.

### **NIRE BIZIPENAK, NIRE IBILBIDEA**

*Auzo-Etxean jaio nintzen, 1948ko azaroaren 15ean. Aurrez, bikiak izan zituen amak baina, tamalez, osatu aurretik hil ziren. Ondoren, beste lau anai-arreba etorri ziren. Beraz, bost seme-alabetan neu naiz zaharrena.*

*Nire haurtzaroa nire izaerak markatu zuen. Lotsatia nintzen, zalantza-tia, ez oso ausarta, langilea eta familiari hertsiki lotua. Motxilan ezaugarri ho-riek nituela heldu nintzen eskolara. Amezketako eskola nazionalean aritu nintzen 6 urtetik 12 bete bitartean.*

*Nire lagunen asmoa, neskena behintzat, 14 urte arte Amezketako eskolan aritu eta gero paper-lantegira edo beste nonbaitera lan mundura bideratzea zen. Bai nirea ere, hasiera batean.*

*Nire kasuan, ordea, 12 urte betetzean, zerbait berezia gertatu zen, nire bizitzan infleksio puntua markatu zuena. Asko estimatzen dudan osaba batek planteatu eta animatu ninduen Batxilergoa egitera, eta horretarako Alegira jo behar nuen. Berriro, aldaketa proposamen honen harira, nire kezka, zalantza eta beldur guztiak azaleratu zitzaizkidan bat-batean. Ezin irten inolaz ere putzu ilun horretatik! Norbaiten edo zerbaiten bultzada indartsua behar nuen, eta zorionez laguntza hori gurasoengandik heldu zitzaidan: “Zu orain arte ere saiatua zea, eta merezi du zerbait gehiago ikasteda”. Bale, bada, Alegira joango naiz, erabaki nuen.*

*Alegian, “Fundación Franconi” eskolan egin nuen batxilerra. Ez ziren niretzat urte errazak izan. Orain atzera begirada luzatzen dudanean hotzikara nabari dut. Batetik asko ikasi behar zen, nik behintzat bai. Bestetik, lehen ikasturtean, Altzoko izeba-osabarenean egon nintzen. Eta, nahiz eta haiek eginahalak egin, nik ordea ezin etsi, ezin egon hainbeste denbora familia girotik at. Ondorengo ikasturteetan Amezketara biltzen nintzen, nire txokora. Etxe-mina gainditu nuen, baina garraio arazoak hor jarraitzen zuen. Bigarren ikasturtean bizikletaz egiten nuen joan etorria, pentsa. Eta azken biak autobusez, jada antolaturik baitzen. Baina orduak oso desegokiak niretzat. 7:30ean hartzen nuen Amezketan autobusa, eta klaseak 9:00etan hasten zirenez, maiz elizara joaten nintzen, eta han epelean ez dakit erreztatzeari edo klaseak prestatzeari ekiten nion, ez naiz oroitzen.*



Batxilerra amaitzerako, ikasle guztien modura, hasia nintzen geroko ikasketez pentsatzen. Lehen postuan erizaintza nuen, eta ondoren irakaskuntza. Berrero aukera egin beharra, eta berrero, nola ez, zalantzak, beldurrak, ezina... Ataka gaizto horretatik irten nahian nenbilela, "aingeru zaintzailea" azaldu zitzaidan ezustean, eta hori Feli Etxeberria zen. Feli saiatu zen ni irakaskuntzara bideratzen. Nik, ordea, erizaintza nuen buruan, eta hori adierazi nion Feliri. Hori dela-eta, garbi-garbi oroitzen naiz, Felik klinika batera eraman ninduen eta bere lagun baten laguntzaz erizainen lan-eremua ezagutu nuen eta erizainen egitekoak zein izan ohi ziren bertatik ikusi nituen. Hainbeste zauri, odol, tutu eta tresna ikustea nahiko izan zen erizaintza alboratu eta irakaskuntzara nire pausoak bideratzeko. Inoiz ez diot eskertuko behar hainbat Feliri eman zidan laguntza, zorioneko izan bainaiz irakaskuntzan.

Magisteritza ikasketak Donostian egin nituen "Escuela Normal de Magisterio" deituri-koan. Dagoeneko nire irakaskuntza ikastoletara bideratua zegoenez, magisteritzako hiru urteetan eta praktikei zuzendutako laugarrenean, andereñoen erresidentzian bizi izan nintzen. Liburu honetako hainbat ataletan azaltzen den modura, ikasketa osagarriak egin genituen bertan ( euskara, euskal kultura, euskal historia, pedagogia berriaren ardatza eta ildo ezberdinak...) Oso-oso emankorra eta lagungarria izan zen guztiontzat PRAKTIKETAKO URTEA. Ikastola ezberdinetan eta irakasle ezberdinekin ikasi nuen eurek praktikan jartzen zutena, hala nola, Agurtzane Mujikarekin ( Herreran), Karmele Esnalekin ( Santo Tomas Lizeoan) eta Feli Etxeberriarekin ( Donostiako Kai-Alden).

Hori eginda, Amezketako ikastolara bildu nintzen. Titulua eskuetan, Izaskun Zubeldia ordezkatu nuen, eta Amezketako ikastolari oinarriko lege-baldintza eskaini nion. Ilusioz gainezka, gogoko nuen irakaskuntzari lotua, eta Amezketan bertan gainera. Oraingo erretiro egoeratik begiratuta, ordea, izugarri harritzen naiz nire portaeraz eta galdetzen diot neure buruari nola izan nintzen gai tamaina horretako ardura gainean hartzeko, pozik aritzeko eta ez aztoratzeko. Nolako aldaketa eman nuen lotsati, beldurti eta izuti izateari utzi ( edo ezkutatu...) eta ausart eta era erabakigarrian jokatzeke.

Izan ere, ikasleekin lan egiteko materiala behar zen, beste ikastoletako irakasleekin bildu behar genuen maiz esperientziak trukatzeko, ikasturteko programak egiteko... Alor horretan ez genuen ezer, dena zegoen egiteko eta 24 orduak ez ziren nahikoak.

Ekonomikoki ere oso gaizki genbiltzan, mila ekintza egin behar ziren, eta horretan ere irakasleok partaide ginen. Herritar batzuk ikastolaren praktika gutxieteko ( ez dute ezer ikasten, euskaraz bakarrik, gero ez dute beste ezer ikasterik izango, ...) zabaltzen zituzten gezurrei aurre egin behar genien, lehen-lehenik ikastolako gurasoei gure praktikaren oinarria argi jarri eta gezurren nondik norakoak azalduz...

Koro zenak eta biok sendo heldu genion ikastolaren lemari eta arazoan aurrean, kexak eta etsipenak alboratuz, jakin genuen aurrera egiten. Bagenekien Euskal Eskolaren aitzindaritza ginela eta lurra prestatzen ari ginela egungo Euskal Eskolarentzat.

Pozegogoratzan dut ikastolaren ibilbidea, oso nekoso eta gogorra izan bazen ere. Izan ere, ibilbide horretan, bidean harri-txintzar askorekin aurkitu ginen, batzuk eskola orori dagozkionak, ohikoak; beste batzuk, ordea, espresuki jarriak, ikastolaren bidea zapuzteko asmoz. Hori mingarria zen.

Harro gaude egindakoaz eta ikasle ohiek ere horixe adierazi ziguten Koro, Joxepi eta Maritxuri egindako omenaldi goxoan.

**Joxepi Saralegi**



*Amezketako ikasleak, bi eskoletakoak elkartuta, Eguberrian abesten.*

Aztergai dugun Amezketako ikastolak ere hildo berari eutsi zion bere sorreran eta ibilbide osoan zehar. Gure oroitzapenetan leku berezia duen andereño Korok eman zion hasiera. Legeztatze arazoa sortu zenean, herriko andereño, tituluduna, Izaskun sartu zen. Izaskunek irekitako aldaketaren bidetik, andereño Joxepiren esku-hartzea etorri zen. Amezketak zorte handia izan zuen bertako bizilagun zirenak andereñotzat izanik. Joxepik oso gaztetatik sentitu zuen bere habia goxoa familian eta herrian zegoela. Irakasle titulua ateratzeaz gain, andereño lanetarako prestakuntzari gogor ekin zion eta etenik gabe jarraitu zion pedagogia berriaren hariari. Jakin du eskolaumeengana iristen eta bakoitzari bera-riazko bultzada ematen. Nabarmena zen Koru eta Joxepi andereñoen arteko koordinazioa. Talde lanean aritzeko gaitasuna zuten biek ere. Amezketako Ikastolaren erreferentea da Joxepi; benetan eskertzekoa da, bertakoa izanik, horrenbeste urtez, zailtasun guztien gainetik, ikastolaren aurrerabidean egin duen lana.

Bestalde, merezimendu handiko lana da Joxepik eta haren neurrikoa den bikotekideak egin dutena: ikastolaren eta eta herriko eskolaren ibilbideari buruzko hausnarketa lanari ekin, lehenak geroa argituko duen ustean oinarrituta.

Ikastolen ugalketaren ondorioz irakasleen kopurua handitzen joan zen. Bailaraka antolatzen ziren ikastaroak eta beste bilera asko. Talde lanean ekiten zitzairen andereñoek aurkezten zituzten gai eta kezkei. Horrela sortu zen Goierriko irakasle sarea. Ikastolaren funtzionamenduak zuen adarretako bat bailarako andereñoen prestakuntzari zegokiona zen: praktika saioak eta formazio plan batzuk ere bertan antolatzen ziren. Lazkaoko ikastolak parte zuzena hartu zuen horretan eta, besteak beste, Beasaingo ikastolaren areto batean biltzen zen andereño taldea 1965az geroztik. Antolaketa eta ikasgaiak garatzeko ardurua Feli Etxeberriarena izan zen lehen urteetan. Baina hor zegoen Jaxintoren ideia nagusia: bailarako irakasleen praktikak bertan egin behar ziren eta elkarrekiko harremana eta prestakuntza programa bailaran antolatu behar ziren.



## “GARAI ZAILEI, LANERAKO ILUSIOA”

*Herriko gazte mugimendutik, Oargitik, beste hainbat ekintzen artean ikastola sortzea ere beharrezko jotzen zela eta, egin zidaten lan honetarako proposamena; nik batere zalantzarik gabe baiezkoa eman eta pausoak banan banan ematen hasi ginen.*

*Legorretako ikastola 1965-66 ikasturtean, 66ko urtarrilean, hasi zen. Prestakuntza lanak Lazkaoko ikastolan ordurako han lanean ari zen Feli Etxeberriarekin egin nituen; hasi bitarteko lanak alegia. Gerora ere beti izan genuen Feliren itzalaren beharra; izan ere, bera zen Goierriko ikastola txikietan laguntzen zuena. Ikastolak hasieran eskola titulurik gabe hasi ohi ziren, ez zegoen eta behar zen adinako jende multzorik horretarako prestatuta.*

*Euskarari zegokionean ez ziren garai gozoak. Haurrak “Escuelas Nacionales Niños-Niñas” delakoan hasten ziren sei urtera iristean, dena gazteleraz, mutilak batean, neskak bestean; Ikastolan, berriz, hiru, lau eta bost urtekoak, neskak eta mutilak elkarrekin, euskaraz, familiariekin zuzeneko harremanak eta partaidetza tarteko zirelarik. Liburuak, Xabiartxo eta Martin Txilibitu. Ikastolak bere kaxkarrean eredu pedagogiko berri bat erabiltzeko ahalegin handia egin zuen. Txikiak elkarrekin, borobilean, naturarekiko harreman zuenenan (mendira irteerak), irakurketa eta idazketa hizki larriez eta txotxekin, eskulan ugari, ipuinak, kontakizunak, abestiak, olerkiak etab.*

*Ikastola ireki eta martxan jartzean begenekien hori hasiera besterik ez zela, eguneroko lana, eguneroko prestakuntza eta abilezia gehitu behar genizkiola eskola eredu berri hari. Batetik eta bestetik ari zen jendea antolatzen, hor Goierriko guraso eta irakasleen bilerak Urretxun Jaxinto F. Setien buru zelarik egiten zirenekoak, lehen udalekuak etab.*

*Goierri eta bertako beharrek eraginda, batik bat Jaxintok eta Feli Etxeberriak zuzenduta, Beasaingo ikastolak utzitako lokalean, andereñoentzat GAU ESKOLAK sortu ziren. Gutxienez astean hirutan, gure lana bukatu ondoren tren hartu eta hara joaten ginen. Han jaso nuen nik behintzat euskal gramatikaren lehen informazioa. Han ikusi nituen lehen aldiz euskal aditzaren paradigmak. Harriduraz eta kuriositatez beterik interesatu nintzen gai hartaz. Gero Euskal Historia, Literatura, Erljioa, Matematika Berria ( Felik emanda, eta gero ikastola guztietara zabaltzeko Gordailun argitaratuko zena) Pedagogia etab. lantzen eta ikasten saiatzen ginen. Bilgune hura, gure eguneroko esperientzien partekatze lana egiteko ere ezinbesteko jotzen genuen. Dena interesgarri jotzen genuen. Orduan, eta Feliri hain zuzen, entzun nizkion Maria Montessori, Decroly, Pestalozzi, Piaget eta horrelako erreferentziak.*

*Pixkanaka, Goierriko antolakuntza gorpuzten joan zen eta eguneroko lana arlo guztietan hobetzea ezinbestekoa zen. Lanerako material berezia behar genuen, euskara denean berdina izan zedin, arauak gureganatu eta erabiltzen hasi behar genuen. Horretarako eta beste hainbat arazo konpontzeko, Goierri, Donostia, Urola eta beste bailara batzuk elkartzen ginen Donostiako Aurrera tabernan, Gordailu sortu genuen arte, handik ekartzen genituen bai informazio eta bai eta euskararen normalizazioari begirako gramatika arauak ere; adibidez, demostratiboetan “h” a erabiltzea...*


*Garai hartan material bila Baionara ere joan izan ginen, gero Bartzelonara ere bai; izan ere, hemen ezer gutxi aurkitzen genuen; han aurkitzen genituen kartulina, fieltro, logikazko egurrezko material etab.*



Garaiek eta beharrek aurrera egitea eskatzen zuten, eta hor sortu zen Gordailu, Jaxintok zuzenduta batik bat. Niri bertan liberatu bezala egotea tokatu zitzaidan. Gero beste batzuk izan ziren liberatu. Haien artean Antton Amondarain bera ere bai. Gordailun, bailaretako eskakizunei erantzun nahiez. Ikastolek behar zuten materiala bertan biltzen ahalegintzen zen; hala nola, Pedagogiari buruzko lan berriak eta aldizkaria, ikastoletako ikastaroak, Feli Etxeberriak eta Koro Zumalabek egindako "Matematika Berria", Freineten liburutegia (teoría) eta liburuxkak (Bibliothèque de Travail)en harira egindagoak, euskara batuaren arauei jarraituz egindako hiztegi eta lanak, bailara guztietara zabaltzen zirenak, etab.

Lanean, ilusioa eta geneukan indar guztia jartzen genuenaren zalantzarik ez da. Badakigu inoiz ez dela nahikoa izango, baina saiatu ezaren erruz ez zen izan gure kasuan. Garai zailak baina politik haiek.

**Arantza Allur**



Gau eskola: matematikari buruzko ikas-saioa.

Jaxinto begi zorrotzeko gizona zen. Urrutira ikusten zituen gauzak, bazekien ondo asko guraso, sozio eta andereñoak nola inplikatu buruan zuen abentura bakoitzean. Estrategia berezia zerabilen pertsonak konbentzitzeko, konprometitzeko eta ardurak haien esku uzteko. Esatekoa da haren lidergoari esker ikastola asko zabaldu zela. Garbi zuen herriak egin behar zituela ikastolak, herri bakoitzaren indarretik sortu behar zutela ikastolek eta, neurri batean, ikastolen arteko laguntza-sarea antolatu behar zela. Zentzu horretan sortu zen Goierri bailarako irakasleen prestakuntzarako gau eskola. Gogoan ditut herriz herri ibili nintzeneko bidaiak (Legorreta, Ataun, Ormaiztegi, Idiazabal, Segura, Urretxu, Beasain...).

Lehenik, ikastolaren proiektua erakusteko, Jaxintorekin edo juntakideren batekin joan nintzen herri bakoitzeko kideekin elkartzera. Nik ikastoletako pedagogia eta praktika azaltzen nizkien, eta besteek ikastolen arteko antolaketa, andereñoen prestakuntza, ekonomia arazoa e.a. agertzen zizkieten. Garbi uzten zen arazo nagusiei elkar-lanean erantzun behar zitzaie. Planteamendu horrek bazuen azpi esanahi bat, alegia, ikastolak bailarako sarearekin konprometitzen zirela. Herritarrek eskatuta egiten genuen lan hori: informazioa eman eta ikastola irekitzeak zekarren konpromisoa azaldu. Ikastolak ireki ostean, nire lanetako bat haietara bisita egin eta andereñoekin harremana sortzea zen. Bertako egoerak gurasoekin biltzea eskatzen zuenetan, bilerak antolatzen genituen. Ikastolen arteko aspektu asko antzekoak ziren, baina bazegoen nortasun berezia markatzen zuen elementu bat edo beste ere. Asko ikasi nuen; aberatsa izan zen bizipen hura.



*Ezkerretik eskuinera: Pakita Arregi, Arantza Allur, Feli Etxeberria eta Nekane Auzmendi, Jaxintorekin.*



### “NIRE TESTIGANTZA LABURRA”

Feli Etxeberria, Lazkaoko lehen andereño tituludun eta amezketarrak eskaturik, hona nire testigantza, nire oroimenean soilik oinarrituta. Ez dut gorderik garai hartako inongo agiririk, baina bai ordea buruan eta nire baitan aspaldiko oroitzapen ahaztezinak.

1961ean apaiztu ninduen Font Andreu katalan gotzainak eta 1962an, 26 urte nituela, destinoa eman zidan Itxasoko parrokiako apaiz laguntzaile, egoitza Alegian nuelarik. Nire pastoralgintzan arlorik kuttunena, eginkizunik mimatuena eta buruhauste franko eman zidana gazteen kristau heziketa izan zen. Garai hartan, Donostiako elizbarrutian bazen JARC izeneko mugimendua, herrixketako neska-mutilak, gazte-helduak biltzen ziren. Guk Herri Gaztedi bilakatu genuen, mugimendu hartan apaizak eta sekularrak genbiltzan. Goierriko mugimenduan gazteak gehiago zebiltzan helduak baino, oro har 20 talde zeuden.

Hirurogeiko aipatutako hamarkan, nire bizitzan bi urrats nabarmen eman nituen, biak garrantzi handikoak: alde batetik, neure burua alfabetatu nuen eta, beste alde batetik, LetaG, Ormaiztegiko empresa batean esku lanean hasi nintzen, 1966an.


Bi ekimenetan bigarren personaia bat inplikaturik zebilen: Jaxinto Fernandorena. Hura 1959an apaiz egin eta Lazkaora joan berria zen. Eta gai izan zen herrian Ikastola sortu eta egundoko mugimendua jartzeko. Elkarrekin harreman sakonak mantendu genituen, Lazkaon urteetan etxe berean bizitzaerainokoak. Egun berean, 1966ko Pilarika bezperan, 11n, 3 apaiz: Beasaingo Karlos Lamikiz, “el cura yeyé” eta Jaxinto Fernandorena Idiazabalgo Anpo kooperatiban hasi ziren lanean eta ni Ormaiztegiko LetaG-en. Taldeko erabakia izan zen, sumatzen baitzen garai hartan nolabaiteko ezinegona.

Ondoren, Felik eskatuta, oroitzen naiz Jaxinto eta talde batek Beasaingo Anaitasuna Lizeoan garaiko andereñoen formakuntzaz arduratu ginela, talde giroan. Jaxinto euskal literaturaz arduratzen zen, ni euskal historiaren ikuspegi marxistaz, jadanik apaiz-langile ginen-eta.

**Pello Joxe Aranburu**

Bide horretatik Lazkaoko ikastolak praktika saioak bere gain hartu zituen. Horrela, inguruko Ikastolak zabaltzeko txikien geletarako andereñoak Lazkaora etortzen ziren. Eta prestakuntza saioak, esan den moduan, Beasainen antolatu zen gau eskolan egiten ziren. Bertan hainbat gai lantzen ziren: Euskara, Literatura, Historia, Psikologia, eta Pedagogiari lotutako gaiak.

Tarteka zenbait mintegi ere antolatu ziren hezkuntza praktikaren hausnarketa taldean egiteko. Garbi zegoen andereño titulu gabeek gaitasun osoa zutela beren lana egiteko, baina legeak andereño tituludunak eskatzen zituela eta, horretan oinarrituta, buru-belarri saiatzen ziren gurasoak eta andereñoak halakoak aurkitzen. Garai hartan titulua izanagatik andereño gaiak ez ziren euskaraz alfabetatuak, ez eta euskal kulturen jantziak ere. Beraz, ikastolan jardutearekin batera denok genituen ikasten aritzeko premiak.



Irakaskintza osoak eziketa arazoak hitzegitera behartzen gaitu.

#### Zer ulertzen degu heziketak:

- Asko jakitun izatea
- Asko ikasia
- Itxura onak gordetzea
- Gainetik duen edozein txintxo obeditzea.

#### Zer da benetan?

- Pertsonaren izate osoa bere heldutasun osora eramango duen zerbitzu.
- Azterketa sendo bat :
  - \* Persona bere behar nagusiekin : kezka, arazo eta abar.
  - \* Erantzun bideak aurkitzen lagunduko da.

#### Pertsona eta Kultura:

- Pertsonak nonbait eta edonortzuekin finkaturik, giro horretan itsasi behar du.
- Pentsakera molde bat, bizitankera batzuek, ekonomia, bizibideak bere erara antolatzen ditu.

#### Arazoak:

- \* Nor hau ezagutu (adineko beharrok, ahalatasunak, joerak..)
- \* Norasun oso errespetatua.

Saio bereziagoak udako ikastaldietan egiten ziren, eta baita Eguberritako opor eta Aste Santuko egun gutxi batzuetan ere. Beti ere, gutxieneko segurantzaren emango ziguten lekuak biltzen ziren: apaizen seminarioak, Herri-Gaztedikoak biltzen ziren aretoak e.a. Aldi berean, askotariko elkarguneetan biltzea atsegina zen, herriak ezagutzeko aukera ematen baitzuen. Go-goan ditut leku horietako batzuk: Amasa, Getaria, Zornotza, Donostia, Loliola, Iruñea e.a.

Kataluniako esperientziak eta Rosa Sensatek antolatutako irakasleen prestakuntza-planak ezagutzera joateko aukera izan nuen, ekimen pedagogiko eta didaktikoak bertatik miatzeko. Benetan eskertzekoa da katalanek emandako laguntza. Gu baino aurreratuagoak eta prestatuagoak zeuden. Haien esperientzia pedagogikoa sakona zen: asko lantzen zituzten Psikomotrizitatea, Hizkuntza, Literatura, Matematikak e.a. Marta Matak gurekiko zuen interesa handia zen; interesgarria zen, baita ere, Maria Antonia Canalesek haur emigranteekin barrakoi haietan egiten zuen lana. Haiengandik Pedagogia eta Didaktika asko ikasi genuen, eta talde dinamika kudeatzen ere bai.



Marta Mata: "Irakasten ausartzen denak, etengabe jarraitu behar du ikasten".



*Arantxa Idiazabal eta Antton Mendizabal.*



*Freinet, ikasle batzuekin.*

Bestalde, Celestin Freineten eskolak Frantzian antolatutako ikastaroetara ere joan izan ginen, Chamornixen antolatutakora adibidez. Orain arraroa badirudi ere Arantxa Idiazabal eta Antton Mendizabal ezkontza bidaian zebiltzala eta ni Antton senarrarekin nintzela, hara bertaratu ginen udako opor aldian ikastaroa egiteko. Gogoan dut egin ziguten harrera ona, eta zein argi ikusi genuen eskola maite zutela, edo hobeto esan da, garrantzi handia ematen ziotela eskolaumeak askatasunean eta elkarrenganako errespetuan hezteari. Eremu

teknikoa eta praktikoa eskolaren filosofian oinarritzen zuten. Benetan aberasgarria zen ekintza horiek zekarten arnasberritzea ikastolaren inguruan lanean genbiltzanontzat. Ikusten da Ikastola sortzeko izan diren erreferenteak, hasieratik, pedagogia tradizionalaren kritikoak izan direla, beti ere pedagogia aurreratu baten aldekoak. Ikastolaren eraikitzeak geldiunerik gabeko mugimendua eskatzen du eta horrek, kasu askotan, adostasunak eta ez adostasunak bere lekuan jartzera behartu du. Berrikuntza ez da pedagogia alorrekoa bakarrik izan; berrikuntza horretaz gain, hor dago elkarrekin, auzo-lanean funtzionatzeko egitura berriak sortzen lagundu duena ere.

## 10 ERA BERRIKO IKASTOLAK ELKAR LANEAN

Ikastolek, sortu eta biziko baziren, egile askoren beharra izan zuten. Bide horretatik denek zuten auzolanari ekin beharra, beren premiei erantzuna aurkitzeko. Jakina, Ikastola ekinarren poderioz eraman zen aurrera. Batetik, euskararen eragile izan zen eta, bestetik, hezikuntza sistema aldatzen eta eraldatzen jardun zen, erakundetua izan arte.

Esan behar da sare sozial handia sortu zela andereñoen eta ikastolen artean, elkarlanaren bidez. Ikastolek hasieratik ekin behar izan zioten elkarlanari: herriko talde eragilearen, herriaren eta bailararen artean sortzen ziren ekimenetan partaide zen. Aldi



sarrera nahikoa ez zenez ohiko bihurtu zen herriko jaietan tonbola, taberna eta zozketak antolatzea.

Ikusi da guraso, andereño, batzordekide, bazkide eta beste elkarlanean aritzearen ondorio izan zela ikastolaren arrakasta. Lan honen helburua ez da zehaztasunetan sartzea, baina esan behar da ideologia desberdinek eraginiko desadostasunak mingarri izatera iritsi izan direla. Kasurako, eztabaidagai garrantzitsuak izan ziren honako hauek: erlijioa ikastolan eman behar da ala ez; ikastolak laikoa izan behar du ala ez, nola uztartu behar dira askatasuna eta diziplina; zeintzuk behar dute izan irakats programen oinarri filosofiko eta metologikoak; nola antolatu behar da ideologia politikoen bizikidetzeta; zer nolako jarrera hartu euskara batuaren edo estandarizatuaren erabileraren aurrean. Eztabaida hauek ez ziren beti adeitasunez amaitu. Adibidez, euskara batuaren erabilera sutzuki kritikatu zuten hainbat ikastolatako gurasoek. Hasierako beldur nagusia klandestinitatean aritzeak zekarrrena izan zitekeen. Ikastolek beste dimentsio bat (abertzaletasunak eragindakoa) hartu zuten herrietara hedatu zirenean, baina Elizaren beharrak ere hor zeuden eta interes kontrajarriek elkarrekin talka egin zuten. Bestalde, garaiko mugimendu sozialak, aurrerakoiak eta borrokalariak ziren eta tabu asko apurtu zituzten. Egoera eraberritzaile eta gatazkatsu horren eragina zuzenki bizi izan zen ikastola askotan. Beraz, une gogorrek sufritu eta bizi izan ditugu gure arteko adostasunik ezaren edo/eta mesfidantzaren ondorioz.

## 11 PEDAGOGIA EREMUA

Euskara zen ikastolako hizkuntza, eta garbi zegoen ikastolak haurrei eman behar zien tratuak emankorra, beldurrik gabea, librea, arduratsua, parte hartzailea, harremanak zaintzen zekiena e.a. izan behar zuela.

Ikasleak ikaskuntza esanguratsua lortzea zen helburua eta horretara bideratzen genituen gure ahaleginak. Irakaskuntza biziarekin amesten genuen beti, hain zuzen ere, abesti, antzerki, ipuin, jolas eta lagun arteko giroaz kutsatutako irakaskuntzarekin. Horretarako, ikaslearen ingurua ezagutzea zen abiapuntua, eta ezagutza horretan oinarritu behar zen haurraren ikaskuntza. Astero kanpoko irteerak egitearen garrantzia horretan zetzan: baliagarriak ziren elkarrikeria, irakurketa eta idazketa lantzeko, edo Natur arloa, Gizarte arloa eta Matematikak lantzeko.

Ekintza bidezko ikaskuntzaren defentsa egiten zen: ikaskuntza mota horretan ikasleak beste pertsona batzuekin harremanean egon behar du edo jardun behar du ezinbestean. Elkarrikeria emankorra izan dadin, garrantzi handikoa da irakaslearen eta ikaslearen arteko harreman mota. Haurrak pentsatzeko eta pentsatzen duena adierazteko egiten dituen ahaleginak baloratu egin behar ditu irakasleak.

Harremani buruz ari garenez, gogoan izan behar da mintzatzeko moduak ere baduela eragina. Beraz, garrantzitsua da haurren hitz egiteko modua ez errefusatzea. Maiz planteatzen zen oso aberatsa zela haurrak talde handien aurrean hitz egitera bultzatzea. Bestalde, garrantzi handia ematen zitzaion ikastolan sortzen zen harreman giroari. Zaindu beharrekoak ziren irakasleen, ikasleen, andereño eta ikasleen eta irakasle eta gurasoen arteko harremanak.

LEHEN LOGIKA JOKUA

\*Kartonez eginiko lan hau hamar ataletan ematen dugu.

"Blok logikoez egin ahal diren lan erak antola ditzakegu lan-gai honen bidez. Atal bakoitzean esagugarri bat, bi hiru edo lau aurki daitezke .

Adibidez :

- a) Kolorez, tankeraz eta neurritz lantzekoa.
- b) Tankeraz eta kolorez lantzekoa.
- c) Kolorez eta neurritz lantzekoa.
- d) Tankeraz eta neurritz lantzekoa.
- e) Tankeraz, kolorez eta neurritz lantzekoa.
- f) Tankeraz, kolorez, neurritz eta atea hertsirik ala irekirik duen etab

Irakasleari lagungarri dakizkion, fitxetako buruzko azalpen batzuk ematen dira ondoan eta hauek irakurriz, irakaslearen esku geratzen da kartoin hauen erabilera bere ikasleei egokitzea.

Esan beharrik ez ariketa desberdin asko egin daitekeala : Multzook, menpeko multzook, ebaketak, ordenua, bilkura, konketa, multzoen zenbatekoa etab.

Lehenik material honen bidez ideiak lantzean, errazago gertatuko zaio haurrari fitxetako lana. Honak ez du esan nahi gero ere erabili behar ez duenik.

Hona hemen adibide batzuk : Leugarren ataleko elementuak tankera eta koloreari begira eginak dira eta ideia bat baino gehiago lan daiteke.


- 1. "Fruten multzoa" (fruta izateari bakarrik begiratuz)
- 2. "Menpeko multzook":
  - "Kolore gorriko fruten multzoa" (sagarra, melokotoia, arana)
  - "Kolore horiko fruten multzoa"
  - "Kolore berdeko fruten multzoa"
  - "Sagarren multzoa"
  - "Melokotoien multzoa"
  - "Aranen multzoa"
- 3. "Ebaketa multzook":
  - "Sagarren multzoa" eta "kolore gorriko" fruten multzook
  - "Melokotoien multzoa" eta "kolore gorriko" fruten multzooketab.

*Mintegi saioetan lantzen zena (1968).*

Parte hartze aktiboak zuen eragina ikasleen ikaskuntza kooperatiboarekin lotzen zen. Elkarlanean oinarritutako bide horrek ikaskuntza prozesuan partaide izatera bultzatzen zituen ikasleak. Taldekideen artean negoziatu beharra eta gaitasun sozialak, komunikaziorako gaitasunak, elkarlanerako jarrerak e.a. landu beharra sortzen zuen. Ikuspuntu horrek elkarrekiko gertutasuna eskatzen zuen eta nortasuna lantzeko egokiera ematen zuen.

Heziketaren inguruan landu eta eguneroko bizitzan kontuan hartu beharreko baloreak honakoak ziren: harremanak, errespetua, komunikazioa, hezkidetza eta askatasuna. Andereñoek barneraturik zituzten honako printzipio pedagogiko hauek: irakaskuntza bizia egitea, naturarekiko harremanean lan egitea, elkarlana bultzatzea, ikasleen interesak kontuan hartzea, eta haur bakoitzak egiten zuena baloratzen jakitea. Zentzu honetan gogoan dut, adibide gisa, ikastola batzuetako eta besteetako haurrak elkarrekin harremanean jartzen genituela, aktibitate zehatz batzuen bidez. Adibidez, Donostiako ikasgela bat Oinatiko batekin harremanean jartzen genuen. Nola? Elkar trukearen bidez. Ikasturtean zehar taldeek beren bizi giroan sortutako ipuinak, marrazkiak eta argazkiak elkarrekin trukatzeko zituzten. Jarduera horrek irakurketa eta idazketa oso motibagarri bihurtzen zituen. Harremanak landu ziren, eta bisitak antolatu ere bai.

Ekintza praktikoak antolatu eta bideratzeaz asko arduratzen ginen irakasleok. Gure bileretan azalpen asko ematen genituen eta asko eztabaidatzen genuen elkarrekin. Aipatu nahi ditut andereño Arantxa Mendizabalekin izandako hizketaldiak: hezkuntzak gehiago kezkatzen zuen hura didaktikak baino. Adibide gisa: zer suposatzen du gelako diziplinak haurraren askatasuna errespetatu nahi denean? Haur bakoitzak bere erritmoa badu ikaskuntza prozesuan, zergatik finkatu sei urte inguruan irakurtzen ikasten hasteko epea? Elkarlanak segurantza ematen zigun, suspertu egiten gintuen, eta andereño taldearen partaide sentiarazten.



*Matematika ariketa.*





Nekane Auzmendi ezkerrean.

euskara galduko zutela, haien ingurunea oso erdalduna baitzen. Behar horiei erantzun asmoz euskal udalekuak antolatzeari ekin zitzaion. Barriako udalekua 1965ean sortu zen; hura izan zen lehenengoa. Udaleku horren antolaketa andereñoen “Joannes Etxeberria” erresidentziatik bultzatu zen. Nekane Auzmendi izan zen udalekuaren zuzendari, eta antolaketarako eskua luzatu zuen jendeari esker egin zuen aurrera proiektu berriak. Udalekuaren helburua Nekane adierazitakoan dago:

**“Programaren oinarrian zegoen elkarbizitza sustatzea; euskara eta euskal kulturaren ezagutza aberastea”.** Horretarako ikastoletan egindako praktketan ikasi genituen joko, ipuin, abesti, olerki eta abarrez baliatu ginen. Udalekuko haurrei ardurak ematen genizkien, egin zitzaizkien lanak autonomiaz egiten ikas zezaten; haurren eskuera jartzen genituen: ingurua ezagutzeko jarduerak, ingurua errespetatzeko orientabideak eta hartaz gozatzeko aukera. Helburuen artean zegoen inguruko herrietako jendearekin harreman onak izatea; puntu honetan arreta berezia jarri genuen. Izan ere, Araban geunden, hizkuntza-eremu erdaldunetan, ia-ia inolako baimenik gabe, eta ikastolako ikasleak zein zaintzaileak parra-parra euskaraz. Hori guztia kontuan izanda, bertako partetik ikastolako haur eta zaintzaileen kontrako erreakziorik ez sortzea garrantzizkoa zen. Eta, zinez, hori lortu genuen. Oso harreman ona izan genuen inguruko jendearekin.

## 12 IRAKASLEAK GERO ETA GEHIAGO ZIRENEKO IRAKASLE ELKARTEA: GORDAILU

Andereñoen elkarlanak dinamika handia sortu zuen irakasleen sarean. Dinamika horrek, batetik, koordinazioa eskatzen zuen eta, bestetik, zegoen materiala biltzea eta berriak sortzea ere bai. Aldi berean, irakasleen prestakuntza iraunkorrak informazioa zabaltzea eta prestakuntza saioak antolatzea eskatzen zuen. Bide horretan Irakasle Elkarteak sortu zen (1968-69).



## “EUSKARAREN NORMALIZAZIOA, GURE HELBURUA”



Legorretan jaio nintzen 1950eko apirilaren 17an. Herriko eskolan lehen ikasturteak egin ondoren, Saturrarango seminariora joan nintzen apaizetarako ikasketak egitera. Urte haietan Legorretako nire adineko mutilek, ikasten jarraitu nahi bazuten, bi aukera zituzten: Etxezarreta paper-lantegiak ordainduta “Don Bosco” lanbide eskolara joan eta ofizio bat ikasi lan-munduan murgiltzeko, edota hainbat eta hainbat apaiz eta fraideen bisitak eskolan jaso ondoren, horietakoren batera bideratu pausoak. Nik, esan bezala, lagun min batekin seminariora jo nuen.

Saturraranen eta Donostian batxilergoa eta filosofia ikasi ondoren, 70eko hamarkadaren hasieran apaizetarako ikasketak uztea erabaki nuen. Seminarioko egonaldian indarra hartzen joan zen gure arteko batzuegan euskararen aldeko aldarria. Garrantzitsuena, agian, azterketak euskaraz egitearena zen. Eta horren harira zenbait asignaturatako apunteak euskaratzen saiatzen ginen. Eta horrek utzi zuen nigan arrastoa, gero hartuko nuen bidearen hautua erraztu zuena.

Seminarioa utzi ostean, maisu-ikasketei heldu nien eta Valladoliden egin nuen orduko errebalida. Berehala, Tolosako Laskorain ikastolan hasi nintzen lanean. Ikastolen sorkuntza prozesua bor-bor zegoen garaia zen, eta irakasle euskaldunen behar gorria zegoen. Niri, adibidez, ez naiz inoiz ahaztuko, zortzi ikastoletatik egin zidaten lan-eskaintza. Gaurko ikuspuntutik, sinesteak ere baditu bere lanak. Gizartea ere oso mugitua zebilen, izan ere Franco diktadorearen azken txanpa zen.

Bi ikasturte Laskorainen egin ondoren soldadutzara eraman ninduten, eta han nengoela Jaxinto Setienen gutuna jaso nuen. Nik ezagutzen nuen bera, baina ez dakit ni berak ezagutzen ote ninduen, zeharka ez bazen behintzat. Kontuak kontu, soldaduska amaitzen nuenerako bazuela niretzat lana adierazi zidan. Sortzen ari zen Ikastoletako Irakasleen Elkartean nahi ninduela. Geroago, berriro gutun bidez, okila mokoka bezala, jarraitu zuen niri idazten, eta argitu zidan batez ere testugintzarako nahi ninduela.

Martxo amaieran soldaduska amaitu eta berehala jarri nintzen berarekin harremanetan. Nik ez nuen oso garbi ikusten nire burua idazten. Baina gure Jaxintok halako gaitasuna zuen jendea konbentziko eta motibatzeke, bada, ni ez nintzen salbuespena izan, eta berehala han ikusi nuen nire burua Gordailun.

Pedagogia berriaren bidetik, Freineten filosofiari jarraiki, erabaki genuen liburuxkak idazten eta argitaratzen hasi behar genuela. Ikasleak gai bat lantzen ari zirenean euskaraz informazio nondik jasoa izan zezaten. Ideia oso polita iruditu zitzaidan. Beraz, helburua zen ikastola bakoitzak, informazio iturri modura, liburutegi ahalik eta zabalena izatea.

Hori zehazten eta programatzen ari ginela, beste behar batek hartu zuen lehentasuna: hiztegienak. Ni horretan hasterako argitaratua zegoen “Ikastola Hiztegia”. Geroago landu genuen “Idazketa Hiztegia”. Ondoren edo parean liburuxken lan-alorra zehaztu genuen eta lanean hasi ginen. Bide horretatik hainbat liburuxka argitaratu ziren.

Lan hori, ordea, guztiz konplexua zen. Bere zailean liburuxkak prestatzea zen errazena. Hori ordaintzeko dirutza behar zen, egindako liburuxkak saldu egin behar ziren eta

horretarako azpiegitura sendoa behar zen. Eta gu, horretan, esperientzia handirik gabekoak ginen. Oroitzen naiz nola joaten nintzen Jaxintorekin betiko euskaltzaleengana proiektua aurkeztera eta laguntza eskatzera.

Ikastolen munduan baziren eztabaidak, barne korronteak nabarmentzen ari ziren. Giroa, beraz, nahiko nahasia zen. Bestalde, urteak aurrera zihoazen heinean, uste dut ikastoletan ere beste era batera hasi zirela lanean eta liburuxken eskaera murrizten joan zen. Edozein eratarra, egindako lanak garai eta behar konkretuei erantzun zien, eta hori da garrantzizkoena. Ni behintzat horrekin geratzen naiz.

**Antton Amondarain**

Garai hartan egindako berrikuntza pedagogikoa ez zen eredu teorikoan eta ikuspegi teknikoetan oinarritzen, baizik eta, eguneroko praktikan, eztabaidan, lekuan lekuko beharretan eta elkarlanean. Jakina, euskara batuan egin zen dena. Batetik, euskarazko liburuak behar ziren, irakasleriaren prestakuntzak eskatzen zuenaren arabera eta, bestetik, ikasleen liburuak edo testuak behar ziren, bakoitzak bere gaitasunen arabera eta bere erritmoan

ikas zezan. Testugintza izan zen Gordailuren egitekorik nabarmena, eta Jaxinto haren bultzatzaile nagusia. Gordailun Jaxinto Setienek, eta Antton Amondarainek lan handia egin zuten liburugintzan. “Ikastola Hiztegia” argitaratu zuten 1969an eta “Idazketa Hiztegia”, 1974an. Lan horien bidez, irakaskuntzaren arloko zulo handi bat betetzeari ekin zioten eta hiztegia zabaldu eta aberasteko bitarteko egokia eskuratu zen. Pedagogia aktiboak eskatzen duen arabera, ikasgelan erabiliko zen liburuxka sorta bat egin zen, beti ere haurra bera izan zedin ikerlari. Irakurtzeko eta kontsultatzeko egokiak izan zitezkeen liburuak egin ziren. Adibidez, oso ezagunak ditugu lau sailetan banatutako lan monografikoak: Gizarte jakintza, Geografia, Historia, eta Natur Zientziak. Irakasleen liburutegirako ere argitaratu ziren zenbait liburu: Gizartearen Eskola, Freinet Teknikak Lilitegian, Matematika, Euskara, Gizarte e.a.



*Ikastola hiztegia.*



*Udalekuak.*

Ikastolak hedatzeko prozesuan kontraesan eta oztopoak ere jasan zituen irakasleen mugimenduak. Pedagogia ekintzailea eta kritikoa aldarrikatzen zen garai hartan zenbait eragileri “marxista” eta “komunista” etiketak jarri zitzaizkion. Gogora dezagun garai hartan ikastolak Elizaren babesa zutela; egoera soziopolitiko nahasi hartan Elizak emandako segurtasuna handia zen, baina haren alde ezkorra ere somatu izan zen, hain zuzen ere, kontrol ideologikoari zegokiona. Gogora dezagun, adibide gisara, Gordailuk irakasleen prestakuntzarako ikastaroak antolatzeko laguntza erakunde erlijiosoei eskatu zienekoa; 1971ko Udako Ikastaroa Iruñeako seminarioan antolatu zen eta Irakasle mordo handia bertan zela, elizgizon gipuzkoar batzuen eraginez, Nafarroako gobernadorearen debekua iritsi zitzaigun eta denok etxera itzuli behar izan genuen.

Begibistakoak dira hirietako etxe eskolen eta herrietara zabaldu ziren ikastolen arteko aldeak. Gure ustez, ikastolak legerik gabeak edo legez kanpokoak ziren garaitik legeztatuak izan ziren garaira bitartean ere aldaketa anitz gertatu ziren. Aldaketak, berriz, berak dakar askotan etena, eta konpondu beharra ere bai. Halere, une mingotsak pasatu zirenik ezin uka.

Zailtasun handi askoak ere izan ditu ikastolak sortu zenetik egin duen ibilbide luzean. Halere, harrigarria da izan duen zabalkundea. Benetan eskertzekoa da hainbeste andereño, guraso, bazkide eta herriko laguntzaile zintzok izan duten borondatea herriko eskola euskaldun baten alde lan egiteko.



*Mari Karmen Mitxelena, Pakita Arregi eta Feli Etxeberria telebistan solaskide.*

### AMESTU BADUZU, LOR DEZAKEZU

Esaldi hau erakusleihu batean ikusi nuenean deigarria iruditu zitzaidan. Mezuak adierazteko modu hark interes berezia sortu zuen nigan. Ametsa da, izan ere, gure barne orekari eta bizi-zari kolorea eta indarra ematen dizkiona. Amets baten arrastoa hanka arrastoa bezain irmoa eta sendoa da. Ametsaren eta amestutakoa lortzearen erdibidean guztion ondasun komuna den itxaropena omen dago.

Egoera berezi batean dagoen gizarteak ia lortu ezineko desira bat duenean, “ametsa” deitzen diogu. Amets hori lortzeko itxaropenari zintzo lan eginez erantzun izan diote gure herriko pertsonak eta, oro har, gizartearentzat premiazkoena dena egiten saiatu da gure herria. Hala nola, Ikastola. Hartan pentsatze hutsa ametsa zen; ezkutuan eta isilean ibili behar izaten genuen. Elkarlanean oztopoak gainditu eta amestutakoa lortu egin zen. Euskal Herrian Ikastola sortu zuten haiek ameslari eta ekintzaile bikainak izan ziren.

Amezketan dugu gaur oroimenean, San Bartolome ikastolako guraso, andereño eta laguntzaileek elkarlanean “ametsa” “egia” bihurtu baitzuten. Koro Zabala andereñoak 1966-1967 ikasturtean eman zion hasiera ikastolari, 12 haurrekin; gero Izaskun Zubeldia eta Joxepi Saralegi etorri ziren. Ikastolan hasi aurretik, bai Izaskun, bai Joxepi, Andereñoen “Joanes Etxeberri” Erresidentziako ikasle izan ziren. Irakasle-ikasketak egin ondoren, Erresidentzian hartu zituzten ikastolarako beharrezkoak ziren oinarriak: euskara, literatura, historia eta beste osagarri batzuk ikasi zituzten bertako klase eta hitzaldietan.

Andereñoen Joanes Etxeberri Erresidentzia Donostian sortu zen 1964an, Ikastolako andereñoak prestatzeko asmoz. Egitasmo hura garrantzi handiko ekimena izan zen. Andereño-gaien prestakuntzaz arduratzen zen zuzenean. Mundua nolakoa zen ezagutarazten eta mundu hobea lortzeko zer egin zitekeen irakasten saiatu ginen, Erresidentzia sortu zuen taldeari eta haren bidez ezagututako jendeari eta lanari esker. Erresidentzian, prestakuntza gaiak emateaz aparte, andereño-gaien hainbat elkarrizketa eta eztabaida sortzen ziren, pastoralak, kantaldiak, bertsolarien jardunaldiak eta antzeko gaiak ardatz hartuta.

Ikastolako metodologia zen andereño-gaiak ikasi behar zituzten gaien artean nagusiene-tako bat. Metodo hori sortu zuena Elbira Zipitria izan zen. European ibilia zen eta hezkuntzari buruzko aurrerapenen berri bazuen. Beraz, han ikasitakoa hona egokitu eta ikastolarako

metodologia berezia sortu zuen. Diktadura gorrian Donostiara etorri eta bere etxean hasi zen irakasten. Ikastola horren arrakasta ikusita, ikastola berri guztiek Elbira andereñoaren metodoa erabili behar zuten, ikastola izan nahi bazuten. Gipuzkoan, garai hartan behintzat, ezin zen pentsatu Elbiraren ereduaren ezagutzarik ez zuen ikastolarik egon zitekeenik.

Andereño Elbirak, ikastolaz aparte, irakasleak ere prestatu zituen. Haien artean, Karmele Esnal, Kontxita Beitia, Mari Karmen Mitxelena etab. izan ziren Erresidentziako andereño-gaien praktiketako lehen irakasleak. Andereño haiek beren ikastoletan hartzen zituzten erresidentziako ikasleak, ikastolako eredia ikas zezaten. Karmele Esnal izan zen “Joanes Etxeberri”-ko praktika arduraduna. Ardura hori bakarrik eraman ezin eta berehala izan zuen besteen laguntza.

Andereñoen Erresidentzia zortzi ikaslerekin hasi zen; horietatik hiru, irakasle-ikasketak bukatuak zituztenak. Ikastolarako prestatzeko asmoz, andereño batekin ikasturte osoan aritu ziren, haurrekin nola lan egin ikasten. Erresidentziatik atera ziren lehenengo andereñoak Feli Etxeberria, Nekane Auzmendi eta Nekane Iturbe izan ziren. Horiek Jaxinto Fernandorenaren bidez etorri ziren. Beste bost ikasle irakasle-ikasketak egitera etorri ziren eta horiengan pentsatuta antolatu zen Andereñoen Erresidentzia. Irakasle-ikasketak egiten ari ziren hiru urteetan zehar jasoko zuten ikastolarako behar zuten prestakuntza.

Arantxa Mendizabal Elbira Zipitriarekin prestatu zen eta Andereñoen Erresidentzian bizi izan ez bazen ere, hango klaseetara etortzen zen eta bera izan zen gidari, Elbira Zipitriaren eredia aztertzerakoan. Lanean hasi zenean ere, C. Freineten eredia aztertzerakoan, elkar-lanean aritu ziren bera, Nekane Auzmendi eta Paki Arregi. Metodo hori erabiltzen zuten zenbait talderekin harremana izan zuten. Castellonen egin zen jardunaldi bat eta, haren ondorioz, erabaki genuen guretzat egokiak ziren atalak lantzea eta erabiltzea, baina osagarri moduan soilik. Izan ere, ikastolak zuen ereduak etekin onak ematen baitzituen.

Andereñoen erresidentzia 1964an sortu zen eta 1973ra arte iraun zuen. Aipatu egoitzan 235 andereño-gai izan ziren, kanpotik klaseetara etortzen zirenak kontatu gabe.

Azkenik, gure esker ona Amezketako ikastola sortzeko zutabe nagusi izan zen guraso taldeari. Batetik, haiek beren gain hartu zutelako ikastolaren ardura politikoa egoera zail hartan eta, bestetik, beren seme-alaben bidez ikastola sortu eta garatu zutelako. Baita Koro Zabala, Izaskun Zubeldia eta Joxepi Saralegiri ere, ezagutza eta profesionaltasun osoz lehen pausoak eman zituztelako eta garai hartan izan ziren zenbait gabezia normaltasun osoz eramaten jakin izan zutelako. Aintzakotzat hartzekoak dira ikastolaren inguruan lanean aritu ziren beste gazte eta laguntzaileak ere, azkenean, amets izan genuen Ikastola egia bihurtu zen eta.

**Pakita Arregi**

Ikastolak egin duen ibilbidea ez da agortu; egoera berriek sortu dituzten premien araberatik segitzen du, eta gizartearekiko dituen ikusmoldeak ez dabaidan jartzea bidezkoa litzateke. Jakina da aldaketaren motorra izan dela eskolaren pedagogian, baina gaur egun bizi den aldaketak zer nolako heziketa eredia eskatzen ote du? Jakina da teknologiaren munduan ibili beharrak eskolan duen eragina; hain zuzen, ere informazio eta komunikazio bideek ez dute atzera egingo eta internet zein sare sozialak modu egokian erabiltzen ikasi beharko da.



## SAN BARTOLOME IKASTOLA, AMEZKETAKO IKASTOLA

*Joxepi eta Antton*

*Amezqueta euskalduna da  
herri euskaldunik bada  
baina euskaraz bizi ezinik  
urte asko pasea da,  
gerra ondorengo euskera  
borratzeko gurutzada  
hezurretaraino sartu  
ziena hitzei ikara...  
Gurtu dezagun ordea  
hirurogeiko hamarkada,  
euskerak berriz jo zuen  
kontzientzien aldaba,  
ta ausartenen laguntzaz  
zenbait seme ta alaba  
Amezketan ere joan  
zitezkeen ikastolara.*

*Iraganeko itzaletik  
begiratu geroari  
guraso, Guraso Elkarte,  
irakasle ta OARGI  
garai hartan izan ziren  
ausart, aurrerakoi, argi,  
aldaketaren sortzaile,  
gidari eta zaindari...  
Hezkuntzak ama-hizkuntza  
baitu aurreneko kabi,  
denen txikitasunetik  
guztiak eginez handi  
Ikastola bat eskaini  
zioten Amezketari  
jakintza euskeraz josteko  
herriko etorkizunari.*

**Doinua:** Habanera

# 4



## 1\_ AMEZKETA, 60KO HAMARKADAN

Hirietan sortu ziren lehenik ikastolak eta apurka-apurka hedatzen joan ziren herri txikietara. Amezketaoak, konkretuki, 1966-67 ikasturtean ireki zituen ateak. Beraz, euskararen aldeko bulkada zabalak, gehiago edo gutxiago Euskal Herri osoan hedatuak, eman zuen Amezketan ere fruitua. Eta, urte batzuk geroago, Villar Palasi (1970) legearen eskakizunek behartuta, 1978-79an batu zen Eskola Nazionalarekin. Horrela sortu zen egungo Zumadi Eskola, Euskal Eskola Publikoaren sarekoa. Bere ibilbidean, Amezketa herri txikia izaki, ikastola ere txikia izan zen, baina ez eskasa, Lazkao Txikik bere buruaz zioen moduan.

60ko hamarkada zen. Francoren diktadurapean urte asko generamatzan, herri modura zapalduarik geunden. Dena galarazita zegoen. Edozein gauzogatik edonor izan zitekeen atxilotua eta zigortua. Hala ere, ageri-agerian ez bazen ere, bazen mugimendurik sakon-sakonean, eta “legea nola, erantzuna hala” izan ohi denez, jendea ari zen antolatzen. Legeari aurre egiteko “Guraso Elkarte” izeneko antolaketak hasi ziren abian jartzen. Horiek, antza, onartzen zituzten. Goierrri aldean, bederen, zenbat ahalegin egin ote zen eta zenbat lorpen erdietsi ote ziren bide horretatik! Amezketan ere, hasiera-hasieran, antolaketa-eredu horri heldu zioten ikastolako sortzaile izan zirenek. Geroxeago, OARGI ere sortu zen eta gazteek bertatik ere ikastola jaio berriari eragin zioten.

*Amezketan, herri-gunea.*



Egun, ikastola aipatzean, irakaskuntza euskaraz eskaintzen duen, bere curriculumean euskal kultura sustatzen duen eta pedagogia alorrean ere berrikuntzak ekartzen dituen ikastetxe mota bat ulertzen da. Gogoeta edo definizioa zuzena bada ere, normaltzat hartzen ditugu irakaskuntza mota horren ezaugarriak, beti horrela izan balitz bezala, eta ahalegin berezirik gabe eskuratua izango zelakoan. Hau da, ikastola hitza aipatzean ez dugu maiz kontuan hartzen 60ko hamarkadan errealitate berri horrek bere gain hartu zuen erronka itzela eta esanguratsua. Izan ere, aurreko atalean Feli Etxeberriak garbi adierazi bezala, ikastolen hedapena Euskal Herrian historian zehar gertatu diren iraultzetako bat izan da.

### GOGOZ ETA POZIK....

“Euskara oi euskara  
zugan da gorderik  
mendez mende egoki  
euskaldun gogoia.  
Euskaldun jaiio nintzen  
Euskaldun hazi,  
euskara hutsik amak zidan irakatsi...”



Garai batean Amezetako ikastolako ikasle izan nintzen eta gaur egun Lasarte-Orian irakasle naiz. Nire ikasle nerabeek askotan galdetu izan didate ea nire txikitako ikastola hura nolakoa izan ote zen, eta nire erantzunak harridura besterik ez die sortzen. Galderaz betetzen dute ingurua. Ez zenutela mahairik? Aulkirik ere ez? Nola ikasten zenuten ba? Gogoz eta pozik, gauza askoren beharrik gabe, izaten da nire erantzuna. Eta inoiz ez zait burutik pasa ere egin komuna nolakoa genuen esatea, aulkirik ez zegoen ikastola batean egin beharrak egiteko esertzekorik ere ez genuen; turkiar erako komuna sekula ikusi ez duenari esplikatzea zaila, psikomotrizitatea lantzeko leku aparta, oinetakoak kaltetu gabe barruak lasaitzen ederki ikasi genuen gutako bakoitzak, orekaren eta apunteriaren zoria zen hura.

Mahairik eta aulkirik ez genuenok primeran pasatzen genuen ikastolan. Jolastuaz ikasten genuen, ez ginen kontziente ikasten ari ginenik; genekiena zen goizero eta arratsaldero lagunekin udaletxeko gela batean elkartzen ginela, andereño Kororen babesean.

Han zoru urdina zuen gela hartan borobilean eta apalatxo eserita kantuan aritzen ginen; ipuinak entzuten genituen; berez marrazketarako zen orri zuriko koaderno luzexka batean gure lehen letrak eta hitzak zirriborrazten genituen, bi mutur zituen kolore bikoitzeko arkatzetz, alde batean urdina eta beste aldean gorria zuen lapitz magikoaz; egurrezko koleretako bolatxoekin koilareak eta pultserak egiten genituen, eta egin bezala desegin, hurrengo egunerako ere behar baike nituen.

Ez genuen zorua, koaderno eta arkatza besterik lehen egun haietan, baina nahikoa eta soberan genuen, ez genuen beste ezeren beharrik. Bazuen gure andereño Korok nahikoa irudimen ezer gutxirekin lau horma haien artean gu lanean gustura edukitzeko. Eta arratsaldeko

bostak jotakoan ate aurrean ilaran jarririk “Aingeru zaintzaile” abestuz ematen genion amaiera eguneko jardunari.

Gerora gure koadernotxoari eta arkatzari liburuak gehitzen hasi ziren; a zer nolako letra festa! Alde batetik, “Martin Txilibitu” mutikote pottolo masail gorria; bestetik, ile horiko neskatila aterkidun bat; geroago “Xabiartxo”, inoiz ikusi dudana gain-azalik liluragarriena zuen liburua eta baguenen lurlean eserita ikasten genuen garai hartan beste liburu bat izena gogoan ez dudana, azalean periodiko paperez eginiko txalupa batean bi neska koxkor agertzen zirena. Azken liburu horretako testuetako batek honela zioen: Lurdes eta Nekane lagunak dira. Ai ene! Hantxe eta orduantxe deskubritu nuen liburuen magia: nola zekien egileak Nekane eta biok lagunak ginela? Ordutik dakit liburuek lilura sor dezaketela.

Eskola gutxik bezala jolasleku bikaina genuen, plaza, frontoia eta Mota izeneko muinoa. Nork nahiko luke gehiago?

Ikastola eta herria uztarturik zeuden. Gogoan ditut Domingoneko ezkaratzean herriarentzat prestatzen genituen antzerkiak. Horietako bat “Laratzean sua” izan zen, 1966an Joaquín Carrasquedo izeneko idazle batek idatzitako antzezlan; helduei zuzendutako antzerkia zen, herriko hainbat heldurekin batera ikastolako hainbat haurrek hartu genuen parte antzespeanean. Ondoren “Sagutxo kaskarina” haurrentzako obra antzeztu zen. Bi antzeppenak arrakastatsuak izan ziren. Antzeppen horiek lagundu zidaten gerora oholtza gainean jartzeari, jendaurrean aritzeari lotsa galtzen.

Antzerkiak soilik ez, Gabonetako eskea ere herritar haiekin egiten genuen, baita txangoren bat edo beste ere, Saturraranera kasu. Herria ikastolarekin, ikastola herriarekin.

Baina ez ziren dena kantuak eta jolasak izan. Egun gris eta lainotsu batean ikastolara amak lagundu ninduen. Zergatik zetorren denda bakarrik utzita nirekin ikastola etxe ondoan egonik? Egun hartan udaletxe aurrean ordu haietan ohikoa ez zen mugimendua zegoen. Ikastolako sarbidea genuen udaletxeko atea giltzaz itxita zegoen; haur guztiak kontzejupeko harri hotzeko hormaren kontra ilaran jarri ginen. Herriko alkatea bertan zen, baita erretorea ere. Zer gertatzen zen? Jendearen aurpegieta ez zegoen irribarrerik, aurpegi zurbilak ziren nagusi, ez genuen ezertxo ere ulertzen. Helduek elkarrekin hitz egiten zuten, batzuk alkatearengana hurbiltzen ziren, beste batzuk erretorearengana, urduritasuna zen nagusi, eta gu berriz horma hotzaren kontra, hotza eta beltza izango zen albistea jaso bitartean: IKASTOLA ITXI EGITEN DA.

Egun goibel hartan estankoko sukaldean amak magalean hartu, estu-estu besarkatu eta negar egiteari eman zion; egun hartan ikusi nuen lehen aldiz gure ama negar zotinka, malko gaziak botatzen. Latza behar zuen izan asuntok! Ez daukat ahazteko ez egun hura.

Gure etxean Joxek eta Dignak ez zituzten gauzak ezkututzen, agerian hitz egiten zuten eta ez naiz ahaztuko hau guztia gertatu baino hilabete batzuk lehenago gure herriko ikastolaren iraupenaren zioa gure etxeko sukaldean entzun izana. Gogoan dut baita ere, gure amak Donostiara egiten zuen bidaietako batetik marko batean sartuta ekarri zuen koadroa ere, bertan Jesusen irudi lagunkoi bat agertzen zen hurrez inguratutik. Hurrengo egunean non ikusiko irudi hura eta ikastolako horman zintzilik, Guraso Elkarteak erabiltzen zuen txokoan.

--Zergatik erosi duzu ikastolarako irudi hori ama?

--Herritar batzuek diote gure eskolan ez dela kristautasunaren arrastorik. Koadro honen bidez zuen lana Jesusek babesten duela erakutsi nahi da.

Horra hor ikastola ixteko erabilitako argudioetako bat.

Oporraldi derrigortua izan genuen, egun ilunak ziren haiek. Hainbat eta hainbat herritarren hainbeste lan, neke eta izerdi egun batetik bestera ezerezean eroriak. Ekintzaile haietako asko oraïndik ez ziren guraso, baina euskaraz eta itxaropenez betetako etorkizuna lantzen ari ziren haize bolada txar hura etorri zen arte. Baina ez izan makurtzekoak, eta berriro ere lanari ekin zioten. Handik puska batera berriro ere ikasteko lekua izan genuen, jolas-leku bera izango zuena eta eserlekudun komuna. Ikastola berria Laturun genuen. Maritxuk, Kaxparren amak, dotrina irakasten zigun solairu bereko gela batean.

Laturuko gelan mahaiak eta guzti genituen, sekulakoa! Mahaiak eta aulkia elkarri loturik zeuden. Niri hankak ez zitzaizkidan lurrera iristen, baina tira! Noizbait iritsiko zitzaizkidan. Laturuko lehen egun haietan zaharrenak andereño Izaskunekin goizez joaten ginen eta txikiak, berriz, andereño Kororekin arratsaldean. Ikastola itxi zutenei kontuak gaizki atera zitzaizkien ikastolak bizirik zirauen eta ez bizirik bakarrik, baizik eta bezeroz lepo.

Hurrengo pausoa etxeko txikiaren leku aldatzea izan zen, nora eta elizako sakristiara, txoko hau izan zuten beren lehen ipuin, marrazki eta letren lekuko.

Baina ez zen egoerarik egokiena, eta herriko jende askok lanean jarraitu zuen herrian ikastola duin bat izatearen ametsa lortzearen, eta baita lortu ere. Pentako lokalak eskuratu arte bilera eta lan franko egindako jende ugari dugu gure inguruan, haietako hainbatek sekula ez zuen seme-alabarik izan, baina garbi izan zuten belaunaldi berrientzako euskaraz eta euskaratik zetorren hezkuntza nahi eta desio zutela eta baita lortu ere! Bejondeiela eta eskerrik beroenak lanean aritu ziren guzti-guztiei.

**Lurdes Etxeberria**

Gaurko Hezkuntza Sistema ezin da ulertu Ikastolen mugimenduak berarekin ekarri zituen helburuak eta emaitzak kontuan hartu gabe. Ikastolak izan baitziren Lehen Euskal Eskolak eta zimendu horietan finkatzen da egungo Euskal Eskola ere, bai publikoa, bai kooperatibak ( ikastola gehienak) bai erlijiosoenak.

Utopikotzat ere har daiteke garai hartan euskararen biziraupenaren alde egindako jauzi itzela. Eredutzat edo idealtzat jotzen zena, hain urruti eta ia-ia ezinezko ikusten zena eskuratzen hastea, hau da, zailtasun guztiei aurre eginda, neska-mutilak euskaraz eskolatzen hastea, izugarria izan zen. Helburu utopikoak, oro har, batetik indar metatzaileak izaten dira, baina bestetik, aurkakotasuna edo etsaitasuna ere sortzen du. Bien arteko dinamika gogorrean gauzatu izan ohi da utopia. Ikastolek ere horixe sortarazi zuten. Batetik euskararen aldeko ziren eragileak ilusioz bete zituen eta borroka egiteko arrazoiez jantzi, nahiz eta jakin erronka oso zaila izango zela. Bestetik, ideologiaz euskararen aurkakoak zirenak, edota, besterik gabe, irakaskuntza euskaraz gauzatzea ezinezkotzat zutenak aurka jarri zituen, zeharka bederen asmo berri horiekiko ibilbidea oztapatuz. Hori gertatu zen Amezetan ere gehiago edo gutxiago.

Normalizat eman daitekeen aurkakotasun horri beste zerbait gaineratu zitzaion Amezketa kasuan. Izan ere, Amezketa 60ko hamarkadan herri euskalduna zen, bertako ikasle guztiak bazekiten euskaraz hitz egiten, eta gizarteko dinamikak bultzatuta, gaztelaren beharra modu gordinagoan bizi zuten. Horrek ere sendotu zuen guraso batzuen ikastolarekiko hotsasuna. Hala ere, Amezketa Guraso Elkartearen biltzen zirenek garrantzitsuztat jo zuten ikastola martxan jartzea, eta eginahalak eta bi egin ondoren, bide berria ireki zuten.

### **“DORTOKA” GURE ALTXORRA**

*Hiri eta herri handietakoek ez dituzten abantailak eskaintzen ditu herri txikiak eskolara. Bost urterekin, etxetik atera, plaza gurutzatu, eta baka- rrik iristen nintzen ikastolara. Ikastolatik irteetan, begi-bistan nuen etxea; horrek nolabaiteko segurtasuna ematen dio adin horretan edozein umeri.*

*Gogoan dut, askotan, ordua baino lehen egoten nintzela ikastolako atarian. Joxepi eta Koro ziren gure andereñoak. Hara zer nolako ikuskizuna andereño Koro bere “Mini Morris” zuriarekin iristen zenean, ia beti umeak barruan zituela. Haiek bai zortea! Mini Morris txurian handik hona!. Baina inoiz iritsi zen ordua, eta ni ere ibili nintzen ba kotxe erraldoi hartan... Sekulako esperientzia!*

*Ikastola barruan, pasillo ez oso luzea, eta pasillo hartan, bizpahiru ate ditut gogoan; azken atetik irteetan ginen lorategira edota jolaslekura. Nik gogoan dudana gelaren barruan, adin desberdineko umeak geundela esango nuke, eta nire begien parean mahai handi bat tresnaz bete. Han zebilen, besteak beste, gure ikasketetan bide lagun izaten zen “Xabierto”; harekin ikasi genuen hizkiak bereizi eta lotzen.*

*Bazuen garai hartako Ikastolak bukaerarako utzi dudana altxorra: dortoka bat. Eta ez txi- kia gainera, dena esaten hasita. Bere oskolaren gainean jartzen ginen zutik, hura gozamina! Gajoari jaten ematen genion, baita Ikastolako orduetatik kanpo ere, hesitik barrena sartuta.*

*Urte askoan bizi ohi dira dortokak, eta urte askoan bizi daitezela gure lehen Ikastolako oroitzapenak.*



**Ana Insausti**

## **2 AMEZKETA, LOZORROTIK ESNATZEN**

Urte asko zihozten Frankoren diktadura zorrotz eta beldurgarriaren menpean. 60ko hamarkadan, ordea, bi aldagai jarri ziren herri-mugimenduaren alde. Batetik, diktaduraren zurruntasunari zirrikituak agertu zitzaizkion, nekatzen arituko balitz bezala, eta bestetik, herioan arnas bila dabilenaren antzera herritarrak indarrak batzen eta antolatzen hasi ziren zirrikitu horietaz baliatuz; hau da, biltzeko, iritziak trukatzeko eta ahal zen neurrian ekintzak antolatzeko ahaleginetan murgildu ziren: hasieran erdi isilka, gerora ozenago eta indartsuago.

*Ugarteko festetan, bertso saio batean, bertsolariek Don Carlos aipatu zutela eta, kontu eske joan zitzaion Guardia Zibila Amezketako Udalean Ugarteko ordezkaria zen zinegotziari. “Nik ez dakit horretaz ezer erantzun zien. Gainera, segur aski, Don Carlos aipatu baidute herriko apaiza den Don Carlosez arituko ziren eta ez Juan Carlos erregeaz”.*

**Guraso batek**

Beraz, ona da gogoratzea 60ko hamarkadan bazela gure herrietan ia-ia ezkutuko mugimendua. Zarata handirik gabe, legea tentatuz eta irudimena zorroztuaz herri ekimenen eltzea irakitear zen. Baziren hitzaldiak, antolatzen ziren ekintzak, alfabetatze ikastaroak ... eta berotasun horren inguruan euskara, euskal kultura eta hezkuntza ziren ardatz.

Gurasoak izan ziren mugitzen lehenak, eta “Guraso Elkarte”ren izenean pausoak ematen hasi ziren. Legez onartua zen, bazituen bere estatutuak, eta bazuen nolabaiteko egoitza ere. Bide horretatik, barru-barruan zituzten ametsei irteera erraztu zieten eta gauzatzeko bidean jarri zituzten. Amezketako gurasoek EUSKARA eta IKASTOLA zituzten buruan eta horiei heldu zieten gartsuki.

Belaunaldi gazteak ere, gurasoek martxan jarritako dinamika berri horren harira, antolatzen hasi ziren. Horien ekimenez sortu zen OARGI taldea.

Herrigintzaren bi eragile nagusi bilakatu ziren Guraso Elkarte eta OARGI taldea. Bi erakundeen arteko elkarlanean, oreka eta adostasun onean, ekintzak antolatzen joan ziren eta saiatu ziren herritarren kontzientziak esnatzen. Udalaren aktak aztertuz gero, bien sinaduraz Udalari zuzendutako eskari asko ikus daitezke. Eta eskariak mota guztietakoak: argi instalazioa, tonbola, Inpernuerrekarako bidea, herriko festak antolatzen esku hartzea, diru laguntza Joxe Aierbe omentzeko...



*Ikastolako ikasleak, Eguberritan.*

OARGIk bazuen bere egoitza, baita jendea biltzeko taberna ere, eta bertan egiten ziren bilerak. Ekintza gosea zuten eta hainbeste urtetan frankismoak isilarazi zuena kanporatu egin nahi zuten, ahalik eta azkarren. Horrela, nahiko arrapaladan, hona hemen, adibide modura, abian jarritako ekimen batzuk: dantza taldea (16 mutil eta 16 neska), pilota partidak (herritarren artean, Amezketan pilotari asko baitziren eta onak), solfeoa (Mauduit herritarren eskutik), bilerak erdi ezkutuan gai politikoen inguruan, Euskal Festa eta herri bazkaria, mendi irteerak, antzerkiak...

Horrek guztiak, ordea, garaiko aginte-organoetako erradikalenengan-Elizan eta Udalean- ezinegona sortu zuen. Ez ahaztu Udala osatzen zutenen hautaketa ez zela egun guretzat ohikoa den bozketaz egiten, gehienetan ia-ia hatzez baizik, erregimenarekiko atxikimendua eta merituak beti ere kontuan hartuta. Horren aurka talka egin zuen berehala herri mugimenduak, eta borroka askoren ondoren lortu zuten, bi zinegotzi berri, bi guraso abertzale, udalean sartzea: Alberto Etxeberria eta Joxe Etxeberria. Kasu honetan ez zituzten hatzez hautatu, bozketa bidez baizik, nahiz eta ez izan ohiko bidea. Horretarako egin zen kanpaina oso indartsua izan omen zen, eta juxtu bazen ere, lortu zuten zinegotzi kargua. Herritarrek diotenez, ez zuten, antza, hori inolaz ere espero “mugimenduko ikuskariek”. Kolpe gogorra jaso omen zuten. Guraso Elkartekoak eta OARGIkoak berriz pozik, eurentzat hain urruti egon zen herri-erakunde gorenean handik aurrera partaide izango zirelako.

Bi guraso hautatu berri horiei (Guraso Elkartekoei) eginkizun asko pilatu zitzaizkien, OARGIk, Guraso Elkartek eta zenbait herritarrek eskari asko luzatu baitzizkieten. Hala ere, oso pauso eraginkorra izan zen bozketaz bi herritar eragile udaleko partaide izatea. Lorpen asko ekarri zuen horrek, besteak beste, Udala demokratizatzen hastea, zubi-lana egitea 1979an izango ziren lehen hauteskunde demokratikoen bidean. Horretan, herriko erakundeek zerikusi handia izan zuten.

### **IKASTOLA, ETXEAREN JARRAIPENA**

*Nire oroitzapenak ez dakit oso objektiboak izango diren, izan ere ikastola eta ikastolako lana eta dinamika nire etxean eguneroko ogi goxoa izan baitira.*

*Ni bi urte bete berritan hasi nintzen ikastolan. Adin horretako umeentzat, gehienetan, pauso gogorra izan ohi da eskolaratze goiztiar hori. Niretzat, ordea, goxoa izan zen, amarekin joaten bainintzen. Nire kideen gurasoak ate ondoan uzten zituzten euren seme-alabak, nire lagunak. Ni, berriz, barruraino amarekin eta berarekin geratzen nintzen. Zorionekoa ni!*

*Beraz, ikastola etxearen jarraipena zen, eta zenbaitetan jarraipen hobetua, ze nire jolaserako lagunak han baitzeuden eguna joan eta eguna etorri. Nik ez nuen besterik behar; batetik ama han nuen eta bestetik lagunak eta jostailuak nire zain. Bigarrenez, zorionekoa ni!*

*Beraz, abantailaz jokatu nuen bai, hori zeukan nire ama irakasle eta sortzaile izateak. Baita ere, Joxepi andereñoa han izateak, eskerrak berari ere bihotzez. Denen artean goxo-goxo tratatu ninduten.*



Gelako kontuez zehaztasun osoz oroitzen ez banaiz ere, buruan ditut jolasak, abestiak, irteerak, marrazkiak... Gero jakin dudanez, horiek guztiak ondo programaturiko estrategiak ziren helburu nagusiak lortzeko: sozializazioa bultzatzeko, psikomotrizitatea lantzeko, adierazpena hobetzeko, aurre-irakurketa pusoak emateko...

Baina oroitu-oroitu ederki oroitzen naiz nire orduko mahaikideez: Maite, Garin, Latu, Iñaki Berantetxeberrikoa eta ni. Mahai-buelta berezia zen, kuttuna eta jarraitzen du izaten. Gure aldameneko mahaietan eta gelan zeudenei, berriz, bagenien nolabaiteko miresmena, zaharragoak baitziren eta horregatik-edo guretzat ispilu. Xelebreak gu, izan ere zaharragoak izan nahi!

Adin haietan, normala den bezala, ez ginen ohartzen non geunden eta ikastola izateak zer suposatzen zuen, nola bada. Urte batzuetara, ordea, ikastola proiektuak izan zuen eta duen garrantzia, eta hori gauzatzeko ahaleginetan aritutakoen balentriaz ohartu naiz.

Bukatzeko, eskerrik beroenak guk hori bizi ahal izateko lan egin zuten guztiei eta nire kide guztiei nire muxurik potoloena. Bihotzez milesker.

**Haritz Saez de Nanclares Zabala**

Erakundeak eta Udalaren arteko lan eta harremanetan, segur aski, izango ziren eztabaidak eta ezin ulertuak. Belaunaldien arteko eztabaidek ere izango zuten lekua Amezketan ere. Horri gaineratzen badizkiogu ordurako agerian-edo ziren ikur ideologikoak, normalizat har daiteke pertsona mailako arazoak ere azaleratzen ikustea. Udal korporazioaren baitan ere izango ziren arazoak, nola ez.

### **“TXIKITAKOAK TXIKITA. HAUNDITAKOAK HANDITA”**

Amezketako ikastolan hasi nuen nik nire eskola ibilbidea. 6 urte arte ibili nintzen bertan. Izan ere, 7. ikasturtean Zumadi Herri Eskolan hasi bainintzen Amezketako beste ikasle guztiekin batera, ikastola eta eskola nazionala batuta sortu zen eskola berrian. Txikia nintzen beraz; halere, zenbait oroitzapen grabaturik ditut nire buruan. Oro har oroitzapen politikak eta goxoak dira, eta behar bada horregatik gogoratzen ditut hain ondo.

Esaterako, gogoan dut guztiok denok errepikatzen genuen leloa “Txikitakok txikita. Handitakoak haundita”. 12:00etan puntu-puntu Aralar papertegiko sirenak jotzen zenean, jolas-denbora amaitutzat ematen genuen eta bakoitza bere gelara bideratzerakoan ahots ozenez errepikatzen genuen denok: “TXIKITAKOAK TXIKITA. HAUNDITAKOAK HANDITA”.

Ikasgela erdibiturik zegoen gortina antzeko ate batez. Alde batean Haur Hezkuntzakoak eta bestean Lehen Hezkuntzakoak. Lanketa batzuk egiteko aurrez aipaturiko gortina bildu eta elkarrekin jarduten genuen. Horiek ere une bereziak izaten ziren, batez ere txikiak izaki helduagoekin biltzen ginenean.





Jolas garaia ere maite genuen. A zer saioak egiten genituen frontoiko petrilean “Txanogorritxo” antzezten!. Gustuko jolasa genuen nonbait, ze askotan oroitzen naiz horretaz.

Zerbait ezohikotzat, ia-ia abenturatzat hartzen nuen mediku azterketa egitera etortzen zen furgoneta edo kamioia. Bertara inguratu eta guztioi txanda-txandan ateratzen ziguten erradiografia. Niretzat oso une berezia zen hura ere. Ni oroitzen ez banaiz ere, nire ingurukoek diotenez, hasiera ez omen nuen oso alaia izan. Dirudienez amarengandik banantzea nahiko traumatiko egiten zitzaidan eta negarrez geratzen omen nintzen ikastolan. Aitona leiho atzean belarria jarrita egoten omen zen ea isildu nintzen ala ez jakin nahian. Hain estua izaki, antza, askotan botaka eta guzti egiten omen nuen. Hainbestearino ze, aita arotza zenez, plastikoan zerrautsa eramaten omen nuen nire estualdiaren ondorioak nolabait ezkutatu eta garbitzeko. Ikustekoa izango zen etorrera! Zorionez ez da horrelakorik geratu nire buruan.

**Iraitz Galartza**

Elizarekin ere izan ziren gora beherak. Aste Santua heltzean, ohikoa zen gogo-jardunak edo ejertzizioak antolatzea. Eta OARGI-ko gazteek apaiz gazte bat eskatu zuten horretarako. Erretoreak, ordea, ezetz, eta lehen ere Amezketan izana zen fraide bat ekarri zuen. Etorri zen eguna. Eliza muku ru beteta. Hasi da sermoia eta ustekabekoa: gazteak (80tik gora) eta zenbait heldu altxa eta kanpora. Ezusteko gogorra izan omen zen, erretoreak zuen boterea pitzatzerainokoa. Gerora, maiz, bere burua fededuntzat zuen hainbat Larraitzera joaten omen zen mezatarra. Portaera horrek familietan sortu omen zuen ezinegona eta eztabaida. Bestalde, Ugarte auzoko apaizarekin ere izan zen enkontru gogor bat edo beste. Horren guztiaren ondorioz, eliza ofizialaren eta gazteen artean etena sortu zen.


OARGI buru zela gazteek urratzen ari ziren bideak eragin zuten herritarren artean ere aurkakotzarik aski. Jendea bataren edo bestearen alde lerrokatzeak arin gertatzen ziren eta behala aldatzen ziren. Guraso batek dio, adibidez, igandeko meza sakratua zela, huts egin ezinekkoa. Fedez zihozenak elizaren aurrealdean kokatzen omen ziren. Konpromisoz zihozenak, berriz, korua eta eskailerak zituzten kokaleku eta tertulia-toki. Bada, eskaileratan kokatzen ziren horietako batzuek, berez ez baziren ere apaizen oso aldeko, elizaren alde jarri omen ziren gazteen ekimen zorrotz eta ustez apurtzaileek beldurtuta.





*Koro andereñoa, lehen ikasleekin.*

- 1\_Lukax Etxeberria
- 2\_Nekane Zubeldia
- 3\_Kristina Artola
- 4\_Kaxpar Larreta
- 5\_Joxe Mari Garin
- 6\_Joxe Urtaza (Etxetxo)
- 7\_Iñigo Zubeldia
- 8\_Jon Etxeberria
- 9\_Arantxa Sagastume
- 10\_Josune Larreta
- 11\_Koldo Alijostes
- 12\_Lurdes Etxeberria
- 13\_Koro Zabala (irakaslea)



Plaka tektonikoen mugimendu eta talken antzera, Amezketako gizataldeek ere horrela jokatzeko zuten, eta dena herri mugimenduak aldarrikatzen zuten ordena berriak bultzatuta.

Giro aldakor honen barnean kokatu behar da ikastolaren sorrera ere. Hamarkada horretan euskara debekatuta zegoen eta horren erabilera, eskolan behintzat, gehiago edo gutxiago zigortu egiten zen.

Diktadurapean sortutako Eskola Nazionalak oso autoritarioak ziren eta indarrean zuten esaldi famatu hura *“la letra con sangre entra”*. Gerra zibilaren ostean dena zen debeku, dena zen zigor, galtzaileen bandoan erori zirentzat behintzat. Harlauza astun hori euskal herrietako eragileentzat arbuia garria zen.

Esan dugu arestian Ikastolen mugimendua erronka handia izan zela. Baina erronka hori ez zen kasualitatez eta testuinguru batetik at sortu, ez zen bat-bateko lora izan; sortu zen, aurrez esan dudanez, herrigintzan emandako pausoez hori ahalbidetu zutelako. Amezketan lehen pausoak *“Gurasoen Elkarteak”* eman zituen. Bera izan zen Ikastola proiektuari heldu ziona. Nemesio Etxeberria oroitzen da Benta etxearen azpiko aretoan biltzen zirela eta, bilerez aparte, Koruak ere han egiten zituela bere saioak. Tabernatxo bat ere ba omen zen bertan. Demokrazia etorri eta finkatzen joan zen neurri berean joan ziren desagertzen Guraso Elkarte eta OARGI.

*Nik maisutza egin nuen eta 1969ko irailean hasi nintzen lanean. Amezketako Guraso Elkarte jarri zen nirekin harremanetan, eta haren bidez hasi nintzen lanean Amezketako San Bartolome ikastolan. Koro ikasle txikiekin eta ni Lehen Hezkuntzakoekin. Oraindik ere gogoan ditut ikasle haietako batzuen izenak: Kaspar Larreta, Jon Etxeberria, Koldo Alijostes, Lurdes Etxeberria, Arantxa Sagastume, Nekane Zubeldia, Lukas Etxeberria, Iñigo Zubeldia, Joxe M<sup>a</sup> Garin...*



**Izaskun Zubeldia**

### 3 IKASTOLAREN SORTZAILEEI, ESKERRONA ETA OHOREA

Lantxo honen bidez, Amezketako ikastolaren sortzaileei, laguntzaileei, gurasoei, irakasleei eta ikasleei horrelako proiektu apurtzaile eta aurrerakoi batean sartzeko izan zuten ausardia, borondatea eta lana aitortu nahi diegu. Gaurko begiez ikusita ez badu hainbestekoa ematen ere, garai hartako agintariak, legeak, eta herritar hainbat kontra izan arren, aurrez aipaturikoek bota zuten hordagoa eta urratu zuten bidea ez zen izan txantxetako. Eskola munduan eta euskararen alorrean inflexio puntua markatu zuten hizki garbiz. Handik aurrera beste garai bat hasi zen. Beraz, izan bedi lantxo hau horiei guztiei eskainitako eskerronezko omenaldia.

Ez ziren, noski, garai errazak. Jendearen ustez, diktaduraren azken ostikoak ziren eta hainbeste urtetan sufritutako zama ia ez zen jasagarria. Nabari zen barne kilima berezia eta ura errekan behera nola, halaxe joan zen ekintzaileen kopurua handitzen eta sendotzen.

Horrela bada, San Bartolome Ikastolaren historia loriatsua betirako gal ez zedin eta informazioa jasotze aldera, protagonista handi hauetako batzuekin hitz egin dugu: Alberto Etxeberria eta Mari Karmenekin, Nemesio Etxeberriarekin, Juanito Amundarain eta Joxeparekin, Mattin Amundarain eta Bittorirekin, Lontxo eta Pepirekin, Feli Etxeberriarekin... Tamalez, ordea, beste batzuekin ezin izan ditugu esperientzia handi eta esanguratsu horren nondik norako zuzenak partekatu: Estankoko Joxe eta Dignarekin, Gregorio Alijostesekin, Anita Etxeberria eta Maritxu Mugerzarekin, Batista Galartza eta Eladio Balerdirekin, Joxe Arandia eta Koro andereñoarekin..... Hala ere, ez ditugu ahortzi, eta guztiei adierazi nahi diegu bihotz-bihotzez eta ahots-ozenez gure eta herriaren eskerrona. Izan ere, zenbat bilera, zenbat kezka, zenbat ilusio ... eskola berri baten beharrak zehazten hasi eta apurka-apurka horiek garatzerakoan.

*Garai zailak ziren. Euskara eta euskal kultura oinarri izango zuen eskola berria nahi genuen. Baina eskuartean ez genuen tresna eta baliabide handirik. Indarra eta fedea genituen soberan, eta horri esker egin genuen aurrera.*



**Mª Karmen Zubeldia eta Alberto Etxeberria**

Euskalgintzaren barruan, konkretuki ikastola dela eta, 1965.urtean hasi ziren haren sortzaileak biltzen. Hilabete batzuk lan horri eskaini ondoren, lehen pauso modura, Ikastolaren aldeko Batzordea osatu zuten. Ikasleak behar zituzten, irakasleak behar zituzten, lokalak behar zituzten eta baliabide ekonomikoak behar zituzten. Behar asko eta potoloak herri txiki bateko eragile sutsu batzuentzat. Bestalde, bilerako gaiak eta erabakiak asko eta sendoak izan arren, bizi zituzten garaiak halakoak zirelako noski, ez zuten idatzita ezer jasotzen. Dena ezkutuan eta ahoz, badaezpada ere.

*Ikastola sortzea erabaki genuen. Gure barruak hori eskatzen zigun, eta zenbait herritan horretan ari zirenez, haien itzalpean jarri ginen. Ez genuen epe luzerako plangintzarik, ez genekien etorkizunak zertara eramango gintuen, eta eskerrak, ezen agian bestela ez ginen mundu horretan sartzera ausartuko.*



**Nemesio Etxeberria**

Herri handietako esperientzia baliagarria izan zitzairen, haiek izan baitziren lehenengoak ikastolak sortzen. Goierrri ere berehala jarri zen martxan eta Jaxinto Setien apaizaren eta beste batzuen laguntzaz eta bultzadaz hasi ziren pausoak ematen. Lehenik Lazkaon sortu eta finkatu zen ikastola. Aterkipe horretan babestuta joan ziren Goierrri aldean sortzen besteak, eta horien babesean Amezketakoa. Jaxintoren aholkuak eta bultzadak ezin bestekoak izan ziren Amezketan ere.



Soldaduska amaitzean Jaxinto Setienek deitu ninduen eta Gordailun nahi ninduela adierazi zidan. Orduko Irakasleen Elkartearen Gordailu. Ni tes-tugintzan aritu nintzen eta Jaxintoren gidaritzapean zenbait liburuxka argitaratu genituen. Lana Rosa Sensat-ek Freinetengandik jasotako filosofia-ren haritik zihoan.

Bestalde, Jaxintok bazekien norantz jo behar zen, iparra oso garbi zuen eta bazekien inguruan lankideak biltzen eta motibatzen. Modu berean, langile sutsua zen, nekazina, eta talde-lana bultzatzen eta elikatzen zekiena. Ikastolek asko zor diote Jaxintori.

**Antton Amondarainek Jaxintoz adierazia.**

Eragile horien ilusioak zenbait guraso ere suspertu zituen. Horiek barru-barruan bai baitzuten euskara eta eskola berriaren aldeko nahia, lozorroan agian, baina bizirik, erne eta gauzatzeko giro egokiaren zain. Beste batzuk, ordea, ezkortasunez eta kopetilun hartu zuten ikastola sortzeko proposamena. Garaiko askoren politika-joerak eragin zuen horretan. Era berean, euskararen eta euskal kulturaren aldeko aldarriak aurrez aurre talka egin zuen askoren ustearekin: **“amezketarrok badakigu euskara, guk gaztelera behar dugu eta ez euskara”**. Hauek, une horretan, ez zuten ulertu ikastolaren mezu eraldatzailea.

### ESTANKOKO ANI, JOXE ETA DIGNA

Hitzez eta ekintzez zerbait jaso badut nire guraso eta izeba Anirengandik, herri-  
rengatik eta herriarentzat lan egitearen garrantzia da. Eta hori

ikusi dut ikastolaren kasuan, buru belarri aritu baitziren horretan. Izeba Anik, adibidez, txukun eta ordenaturik jaso zituen dokumentuei esker dakizkigu hainbat kontu: Guraso Elkartearen sorrera eta lanak, hitzaldiak, tonbolaren antolaketa, diru kontuak...

Garai hartako amezketarrak ez ziren makalak izan; egungo gazteen ikasketak izan balituzte auskalo zer egingo zuten. Bejondeiela guztiei!

**Ana Etxeberria**



Ani



Joxe



Digna

Hala ere, aipaturiko eragileen borondatea trinkoa zen eta lanean jarraitu zuten. Taldean ardurak banatu ondoren, batzuk lokal bila hasi ziren eta beste batzuk, gurasoekin hizketan, haien seme-alabak ikastolara bidera zituzten. Pentsatzen al duzue zer izango zen hori? Lehengo Eskola Nazionalera ez eramateko eskatzen zitzairen eta oraindik osatu gabe, eta legearen aurka zegoenera bideratzeko. Benetan, itzela. Hausketa horri muin egiteko auserdia behar zen eta etorriko zitzaizkien kritikei aurre egiteko ideia argiak. Ekonomiak ere buruhaustek ematen zizkien.

*Urteak eraman genituen sufritzen eta sufritzen. Eskolako irakasleek, hasierako urteetan behintzat, ez zekiten euskaraz eta gainera euskararen aurka-koak ziren. Zenbat zigor eta burla euskaraz eginez gero! Egun ere Amezketan oso fresko eta errotuta daude zenbait irakasleren zigor eta belarrondokoen inguruko istorioak.*



**Batistek lagunartean askotan esanak.**

Irakasleen gaia zen benetan kezagarriena. Euskara ongi jakiteaz gain, euskal kulturari jantzia behar zuen, arlo pedagogikoan ere ildo edo bide berrietatik zihoana nahi zen. Izan ere, euskara eta euskal kulturarekin batera ikastolen ezaugarritzat nahi zen pedagogia berritzailea.

Ikastolek, Amezketakoak barne, lehen esan dudanez, euskara eta euskal kultura sustatzeaz gain, arlo pedagogikoan ere jauzi handia eman zuten. Garaiko Amezketako Eskola Nazionalan indarrean zen “25 Años de Paz” leloaren araberrako pentsaera edo filosofia, hau da, ikaslea ikusteko era eta irakasteko era guztiz zaharkituz eta kaltegarritzat jo zituzten eta bide berriak urratzeko prestakuntzari heldu zioten. Prestakuntza hori garaiko maisu-eskolak ez zuen eskaintzen. Horrezaz gain, beste zerbait behar zen. Horrela sortu zen Donostian ikastoletarako “Andereñoen Erresidentzia” izeneko egoitza. Han prestatzen ziren irakasleak eta trebatze horrek euskara, euskal kultura eta pedagogia berria zituen ardatz. Bertatik bideratzen ziren era berean irakasle horientzako praktikak, martxan ziren hainbat ikastolatan.

*60ko hamarkadan bizi genuen esnatze-prozesuaren barruan, Ikastola bihurtu zen aldarrir nagusia. Pentsatzen genuen ikastola zela euskara berreskuratzeko bide eraginkorra. Horrela lortuko zela euskarak galdu zuen estatusa berreskuratzea.*

**Mattin Amundarain eta Bittori Etxeberria**



Izan ere, pedagogia berria esateak ez zuen adierazi nahi soilik matematika eta gizarte arloko gaiak irakasteko bide ezberdina. Askoz ere sakonagoa zen kontzeptua. Elbira Zipitria irakasle aitzindariak markatu zuen bidea: ikaslea zen ardatza, ikaslea zen protagonista eta praktika oro haren askatasunean eta nortasunean oinarritzen zen. Eta hori ez zen Eskola Nazionalaren hezibidea.

*Hauxe entzuten zen maiz ikastolaren sorrera onartu ez zutenen artean: “Hauen portaerak ez zekarrek gauza onik, gerra zekarrek, bazirudik orain bizi dugun bakea ez dutela gogoko. Gainera, zer eta euskara indartzeko, ez al zekitek hauek euskarak Erreka Txikitik behera ez duela ezer balio?”*

**Juan Amundarain**



#### 4\_ AMEZKETAKO IKASTOLAREN SORRERA: 1966-1967 IKASTURTEA

Amezketako historian santu seinalatua da San Bartolome. Elizak ere izen hori du eta herriko festak ere San Bartolome egunaren biran ospatzen dira. Horrela bada, Ikastolari “San Bartolome” izena jarri zioten, izan ere nahiko zuten antolatzaileek San Bartolomek, Amezketako patroia izanik, Ikastola ere babes zezala.

*Ikastolaren sorkuntzan eta ondorengo martxan ere oso inplikaturik egon zen Gregorio, gure aita. Herrian egin ziren hasierako bileretan parte hartu zuen, eta ikastola martxan jartzeko Ordizia, Tolosa, Billabona eta Andoaingo ikastolekin egin ziren bileretan ere parteide izan zen. Ondoren ere lan ugari egin zuen ikastola aurrera joan zedin. Adibidez, ‘eskola garraioa’ egiten: bere seisziéntosarekin Ugarteko umeak eraman eta eka- rri egiten zituen. Seisziéntosean 8 ume sartuta, haiek ziren garaiak haiek!*



**Koldo Alijostesek aitari entzuna**

60ko hamarkada, besteak beste, ikastolen ugaltze gerazinak markatu zuen. Arrapaladan ari ziren sortzen. Bazen Euskal Herrian, urtetan lozorroan bai baina hilda egon ez zen indarra eta nahia, euskara eta ikastolarekin identifikatzen zena. Ikastolarekiko karga afektiboa handia zen. Handia zen mugimendua, indartsua, oztopo eta kontrako ziren kanpo eragileei behar hainbat begiratzen ez ziena. Euskara zuten ardatz, karakter herrikoia zuten, aldeko zuen korrante afektiboak elikatzen zuen, laguntza ekonomikorik ez zuen, berrikuntzak zekartzan pedagogia alorrean, irakasleen berariazko formakuntza bultzatzen zuen... Azken batean, frankismoak ezarritako gizarte ereduari aurre egin zion.


Amezketako guraso batzuek abertzaletasuna barru-barruan zuten. Horrekiko loturak barne bulkada indartsua ematen zien eta Euskal Herrian indarrean zen giroak bultzatuta ikastola sortzea erabaki zuten. Gehienek behintzat ez zekiten zer legek arautzen zuten Estatuko Hezkuntza Sistema. Ez zuten indarrean zen Moyano Legearen berririk. Ez zekiten zer baldintza bete behar ziren ikasgelak legezatzeko. Eurena mundu ezezagunera jauzi bat izan zen, ia-ia fede jauzia. Euren filosofia hau zen: hasiera emango diogu, eta gero geroakoak. Eta geroakoak berehala izan zituzten, hasi eta berehala, eta nolakoak.

Horrela bada, ikastola ireki aurreko hilabeteetan serio demonio heldu zioten irakasle bat bilatzeari. Irakasle gehienak gazteleraz edo frantsesez alfabetatuak ziren. Horiek ez ziren behar, horiek Eskola Nazionalean ari ziren. Amezketako gurasoek, besteak beste, Koro Zabalarekin hitz egin zuten. Hau Donostian ari zen lanean. Eta honek onartu egin zuen proposamena. Korok ez zuen irakasle titulurik hasiera horretan, beste ikastola askotako lehen irakasleak bezala. Titulua geroago atera zuen. Amezketako ikastolak prezazkoa zuen Kororen esku-hartzea; hala ere, Donostiako ikastoletan hiru hilabeteko praktikak egin zituen eta han jasotako oinarriarekin ekin zion lanari 1967ko urtarrilean. Lehen ikasleak 3-4 urtekoak ziren eta guztira 7 izan ziren. Beraz, berari zor dio Amezketako ikastolak lehen irakaslea izatearen ohorea, eta zazpi horiei lehen ikasleak izatearena.



*Hondartzara irtenaldia.*

- 1\_Martina Etxeberria
- 2\_Lurdes Etxeberria
- 3\_Koro Zabala (irakaslea)
- 4\_Sebastian Elosegi
- 5\_Lukax Etxeberria
- 6\_Jon Etxeberria
- 7\_Gurutzne Etxeberria
- 8\_Nekane Zubeldia





Ikasleak eskolatzea legez 6 urterekin hasten zen. Ikastola horretan ere aitzindaria izan zen eta 2-3 urtekoekin hasi zen lanean. Ia-ia esan daiteke administrazioarentzat ez zegoela eskolarik, hau da, ikastola ez zela eskola. Umeak biltzen zituzten, baina ez zen eskola, ez zuten eskaintzen irakaskuntza arautua: jolasgunea zen, eta eskola orduez at, kristau dotrina irakasteko txokoa, ez besterik.

Ikastola sortzeak eta abian jartzeak izugarritzko poza eragin zien sortzaileei eta euren ingurukoei. Eta, noski, pozarekin batera, etengabeko arazoak. Bazirudien, ordea, arazoak motibazio sortzaile zirela, arazo bat gainditzen zuten bakoitzean barne indarraren hobia sendotu egiten zela. Eta horrela joan ziren bidea egiten.

Lehen ikasgelak Udaletxean antolatu zituzten, Eskola Nazionaleko mutilek erabilitako ikasgeletan. Udalari eskatu zizkioten. Eskaera egiterakoan ez ziren bigunkerietan ibiltzen Guraso Elkartekoak eta OARGIkoak:



*“Alkate jauna: gela bat behar dugu ikastola martxan jartzeko. Udaletxean gela hori badagoenez, eman egin beharko diguzue, gu ere herritarrak gara eta”.*

Ibilbide garrantzitsu horri irteera ematean, bide urratzaile ausart horien barne-muinetan gogoia, ilusioa eta beharra ziren eragile nagusiak. Garai horretan, lehen aipatu dudanez, Espainia-ko Hezkuntza munduan, Moya-

no Legea zen indarrean. Horrek arautzen zuen hezkuntza sistema, gurea barne. Adibidez, 1965ean “Eskola Libreta” eskatu zitzaion ikasle bakoitzari. Bertan jasoko ziren ikaslearen emaitza akademikoak eta beharrezko agiri bilakatu zen ikaslearentzat eskola batetik bestera aldatzeko edota batxilergoan izena emateko. Eta hori eskuratzeko eskolak ere legeztatua egon behar zuen. Segur aski, ordea, Amezketako bide urratzaileek ez zuten horren berri zehatzik izango. Beraz, hastea zaila izan bazen, ondorengo bidea ez zitzaien errazago egin.

Ohartu behar dugu denok, esandakoaren harira, inongo lege babesik gabe eta diru laguntzarik gabe jarri zela abian ikastolaren proiektua. Gero, ezinbestean, Elizaren babesa izan zuen, beste herri askotan bezala.

Amezketako ikastola oso era berezian gobernatzen zen. Gurasoek, irakasleek eta laguntzaileek zeramaten aginte lema. Horiek arduratzen ziren lan guztiez: umeak eskolatu, baliabide ekonomikoak bilatu, arlo pedagogikoan emandako pausoen berri gurasoei eman, ikasgelak bilatu eta atondu, lege arazoei irtenbidea bilatu... Eragile horien guztien artean, asanblada medio, hautatzen zen batzorde edo junta deituriko organoa eta hori arduratzen zen kudeaketaz. Lan egiteko modu hori berria zen, ez zen ezagutzen inongo Eskola Nazional zein Erljiosoetan.

Bide horretatik, Korok bi ikasturte egin zituen Udaletxean atondutako gelan. Jarraian, 1968-1969an Izaskun Zubeldia amezketarra hasi zen lanean. Izan ere, Lehen Hezkuntza-koak eskolatzeko irakasle tituluduna behar zen eta hori herritarra izatea aurrerapauso handia zen.

Korok oso gustukoak zituen haurrak eta ikastolako lana. Zoriontsu zen hautatutako lanarekin. Indar handiz bizi zuen guztia, 24 orduak ere ez ziren nahikoak. Askotan, etxeko lanak eta ardurak bigarren mailan geratzen ziren.

**Joxean, Kororen senarra.**



Lotura handia izan zuen ikastolarekin. Udaletxean ziren ikasgelak itxiaztean, bere familiak etxebizitza utzi zuen Lehen Hezkuntzakoak han koka zitezten, eta ikastolak jarrai zezan. Maritxuk dotrina ere ematen zien nahi zuten ikasleei eskola orduz kanpo.

**Maritxu Mugertza**



Guk eskolan bizi izandakoa ez genuen nahi gure seme-alabentzat. “No hablaré más en vascuence” entzuten genuen maiz, eta euskaraz hitz egiten harrapatuz gero, esaldi hori idatzi behar izaten genuen 100 aldiz. Zigorra-ekin lortuko zutelakoan guk gazteleraz hitz egitea! Bestalde, egurra dela medio irakasteak balio zuela pentsatzen zuten irakasle batzuek. Belarrondoka hartzen gintuzten, eta etxean ezer esaterik ezer; izan ere, jo egin gintuztela esaten bagenuen “zerbaitegatik izango huen” esanez bigarrena jasoko genuen. Hura bazen komeria!

**Arantxa Otamendik Batisteri entzuna**



*Maritxuk prestatutako Jaunartze taldea.*

## 5 IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ikastoletan urratu nahi zen bideak irakasle prestatuak behar zituen: euskaraz alfabetatuak, euskal kulturaren berri zutenak eta irakasteko teknika berrien jabe zirenak. Hori ere, hasieran behintzat, ametsa zen. Baina gure historiak irakatsi digu lana dela medio ametsak errealitatera ekar ditzakegula. Horrela, behar hori asetzeko, Donostian sortu zen 1964an “Joanes Echeberry” izeneko andereñoen erresidentzia, ikastoletara bideratutako andereñoentzat formazio gunea. Bultzatzaileen artean zegoen Jaxinto F. Setien.

Irakasle Eskola Ofizialak irakasle titulua ematen zuen, baina ikastoletan aritzeko askoz ere gehiago behar zen. Izan ere, maisu-maistra eskola ofiziala gaztelera hutsean zen eta bertan irakasten zen eduki osoa ez zegoen euskal herriari begira, Espainiako kulturaren eta guda irabazi zutenen filosofia zegoen txertatuta. Horrela, ikastolan lanean hasi aurretik, presaka bazen ere, ikastolaren batean praktikak egitera bultzatzen zituzten irakasle-gaiak. Eta lanean hasi ondoren ere elkarlana behar-beharrezkoa zen irakasleentzat: landu eta gauzatu nahi zuten pedagogia berriak ezinbesteko egiten zuen biltzea, esperientziak trukatzea, ikasleen ezaugarriak ondo ezagutzera eta ikasmateriala sortzea. Garai horretan “XABIERTXO” eta “MARTIN TXILIBITU” ziren euskaraz idatzitako liburu bakarretakoak.



*Andereñoak, Erresidentzian.*



### IKASTOLA, OROITZAPEN GOXOEN ITURRI

Amezketako ikastolaren hasiera nire bizitzako lehen oroitzapenekin lotu beharra daukat ezinbestean. Umetako garaiak gizakiaren garai politeneta-koak izaten omen dira eta nire kasuan ere horrelaxe da. Umetako oroitzapen on horiek izatearen erru handia ikastolak du, bai horixe! Baina egia esan, ez naiz zehaztasunez gogoratzen garai horietaz. Halako zoriontasun kutsuko lurrun bat dut buruan garai haiek gogoratzean. Beraz, nire memoriak ahalbidetzen didan neurriko gogoeta orokor batzuk azalduko ditut.

1966-67ko ikasturtean jaio zen ikastola, eta harekin batera nire ikasle ibilbidea hasi zen, lau urte beteak nituela. Ikastola jaio zen garaiak garai latzak ziren, frankismo garaian geunden bete betean, baina aldi berean itxaropentsuak.

XX. mendeko hirurogeiko hamarkada munduko leku askotan aldaketa, berrikuntza eta iraultza txikien bolada izan zen. Frantziako 68ko maiatzaren atarian geunden. Eta Amezketan ere iraultza txiki bat aurrera eraman zen: ikastola sortu zen. Herritar talde adoretzu eta auserik batek, eskola publiko euskaldunik ez zegoela ikusita, proiektu propio bat sortzea erabaki



zuen. Gaur egun, ez gara jabetzen ikastolaren sorrerak suposatu zuena garai hartan. Gaur egun, gure haurrak, neskak eta mutilak nahasian, euskaraz ikastea ohikoa eta arrunta da, baina garai haietan ez. Orduan, herrian ‘eskola nazionala’ bakarrik zegoen: eskola frankista (Frankoren argazkia presente izaten zen beti), gaztelera hutsean, euskara debekatua, neskak eta mutilak banatuta eta irakasle arrotzekin. Nire anaia nagusia, Mattin, eskola nazionalan zebilen eta hark kontatzen zizkidanak ikusita, pedagogia aldetik ere ‘beldurgarri’ xamarra bazen. Askotan etortzen zitzaidan anaia esanez: ... **“maisuk Axintxio bi belarritatik heldu eta leihotik zintzilik eduki dik edo Joxemieli makilekin kristonak eman zizkiok...”**

Gure bizipenak guztiz bestelakoak izan ziren ikastolan. Andereñoak herriko neska gazteak ziren, euskaldunak, euskaltzaleak, aurrerakoiak eta maitagarriak benetan! Aurrena Kororekin hasi ginen, gero tarte motz batean Ixaxkun ere egon zen, eta gero Joxepirekin. Gu ere, umeak ginen; eta bihurrieriak edo okerkeriak egingo genituen, baina ez ziguten eskurik altxa sekula. Ikasi ikasten genuen, baina marrazkiak egin, ipuinak kontatu eta antzerkiak egin ere bai, beste irakaskuntza mota bat zen; eta niri bestelako gauza horiek egitea gustatzen zitzaidan. Orain dela urte batzuk, Joxepik esan zidan txikiagoei ipuinak kontatzen aritzen nintzela. Bai, horrela ibiltzen ginen, handiak txikiei erakusten. Gaur egun, punta puntako metodologia da hori, elkar-lana eta elkar-ikasketa, eta guk garai hartan bagenuen. Hori pagotxa hori!

Ikastolan antzerkiak egiten genituela esan dut, baina ez ikastolan bakarrik, Amezketan bazegoen antzerki talde bat (gaur egun ez dakit egongo den). Garai ekimentsuak ziren eta bazegoen herrian kultur giroa, eta gazteek antzerki talde bat sortu zuten. Gogoratzen naiz, ni ume koxkorra nintzela, antzerkia gustatzen zitzaidala eta, antzerkian ume papera egiteko hartu ninduten gazteek. Eta oso gogoan dut, nola egin genuen funtzio bat Errezilgo elizan. Haiek garaiak, Amezketako gazteen antzerki taldea ‘de gira’ eliza sakratu batean antzerkia egiten!

Ikastola udaletxeko gela batean hasi zen, baina ez dakit bertan ikasturtea osorik egin genuen, gero Latuko mandioan zegoen gela batean egon baikinen. Aldaketa hau halabeharrez izan zen, esku beltz batek eragin zuen. Garbiago hitz eginda, uniforme berdekoak Land Robe- rrean etorri ziren, eta udaletxean geneukan ikastola itxi ziguten. Oroitzapen oso onak ditut Latun egin genituen garai haietaz. Maritxu han ibiltzen zen guri lagundu nahian. Gainera, ni papelerako plazako etxeetan bizi nintzen eta bertatik bertara neukan. Gero, lokal berrira joan ginen eta han egin nituen gainontzeko ikasturteak.

Lokal berria modernoa zen guretzat: bi zatitan banatuta zegoen gortina moduko batekin; bi gela zeuden (txikiena eta handiena) eta nahi izanez gero bateratu egiten ziren. Mahaiak eta aulkiak ere berriak ziren.

Gogoratzen naiz behin, inspektorea zetorrela eta, gelako hormetan geuk margotutako ikur- rrinak kentzen ibili ginela korrika eta presaka. Artean ikurrina debekatuta zegoen, baina guk pozik margotu eta zintzilikatzen genituen gure ikastolan.

‘Haundia’ egin nintzenez, Ordiziako ikastolara joan nintzen ikastera. Hau beste kontu bat da, baina, Ordiziara joateko egunero, Jon, Kaxpar eta ni Abaltzisketara oinez joan eta etortzen ginen, goizean goiz, gauez ala egunez, euripean ala eguzkitan...

*Garai hartan gure gurasoek izango zuten kezka, ea ikasketak jarraitzeko behar bezala prestatuta ote geunden ala ez. Ikastolako lehen belaunaldia ginen eta gudan ikusiko zen ikastolan egindako lana egokia izan ote zen. Kezkak uxatu ziren! Ikasketekin ondo jarraitu nuen orduan eta ondoren ere urte luzetan ikasten jarraitu nuen. Beraz, ikastola txiki haren proiektuak eta izan genituen primerako andereño horiek ikasteko jakin-mina ondo asko transmititu ziguten, eta pertsona hobea izaten ere irakatsi ziguten.*

**Koldo Alijostes**

Horrela, eguneroko lan dinamika edukiz ongi bete ahal izateko, irakasleen arteko koordinazioak garrantzi handia hartu zuen. Esperientziak trukatzeari, sortutako eta idatzitako materiala batak besteari eskaintzea... ezinbesteko tresna bilakatu ziren. Bilgune nagusienak hauek ziren: Ordizian (Jakintza ikastolan), Beasainen (bailara txiki eta handiko irakasleak, Elkartasuna Lizeoan), Tolosan (Laskorain ikastolan)...

*Ikastolan ikasmaterial gutxi geneukan eta sormenari ateak irekiz eta lanaren poderioz betetzen genituen hutsuneak. Jolas garaietan Laturuko mandiotik atera eta Mota aldera joaten ginen. Eta han bildutako objektuak-txotxak, harriak, hostoak, fruta aleak...- ziren gelan erabiltzen genituen ikasmaterial osagarriak. Bestalde, ikasturte horretan, Beasainen elkar-tzen hasi ginen Goierriko irakasleak: esperientziak trukatzeko, ikasmaterial berriak sortzeko, kanpotik zetozen berriak ezagutzeko... Niretzat ikasturtea bizia eta aberatsa izan zen.*

**Izaskun Zubeldia**

Hala ere, aurrez aipaturiko koordinazioa eguneroko lan-dinamikarako oso mesegarri eta elikagarria gertatzen bazen ere, pedagogia korronteen oinarritzko filosofia eta praktika ezagutzeko beharrak udako ikastaroak erabiltzera eraman zituen. Uda zen horretarako aproposa eta ikastoletako irakasleak Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo antolatzen ziren ikastaroetara jotzen zuten tropelka.

Euskal Herrian ere Elbira Zipitriaren testigantza eta aurrekariak baliagarriak izan ziren. Horretaz gain, harreman trinkoena Kataluniako Rosa Sensat mugimenduarekin lortu zuen. Era berean, Freinet (Frantzia) eta Montesori (Italian), Ovide Decroly (Belgika) eta Lev Vygotsky (Bielorrusia) formazio iturri izan ziren.

Jaxintok eragin zuen ikastola, bailara, eta eskualdeko esperientziak elkarrekin trukatu eta irakasleen mugimendua gorpuztea. Hori gauzatu ahala eta aldi berean, Rosa Sensat institutura jo zuen eta hango kideekin jarri zen harremanetan. Ikastoletako irakasleek Rosa Sensatekin izandako lehen harreman ofiziala Getarian gauzatu zen 1966. urtean.

### ROSA SENSAT I VILA (1873)

Bartzelonako eskola publikoan lan egin zuen XX mendeko lehen hamarkadan. Magisteritza ikasi ondoren “Pedagogia Aurrerakoa” mugimenduan lerratu zen eta han egin zuen lan. Europatik zetozen pedagogiakorrante berrietatik edan zuen. Horrek eraginda asko bidaiatu zuen Europan zehar, bide berri horietaz informazioa jasotzen eta metodo berrietan trebatzen. Jean Piaget ere lagun izan zuen. Bere pedagogia berrian hauxe proposatzen zuen: naturarekiko hurbiltasunean eta esperimentazioan oinarritu behar zela heziketa. Gerora, Marta Mata lagunak sortu zuen irakasle-eskola. Berak urrututako bidetik eskola mugimenduak asko jaso zuen.



### CELESTIN FREINET (1896)

Frantsesa. Maisua eta pedagogian aditua. Hari esker txertatu ziren eskola praktikan inprimategia, testu librea eta irakurketa-idazketa naturalaren proposamenak. Haren biografoek diote Freneti dagokiola pedagogiaren eremuan arazoziaren eta bihotzaren bidea lehenestea.




Freinetek ere eragin handia izan zuen ikastoletan. Andereñoen Egoitzan ematen zen prestakuntzan nabari zen Freineten eskola esperientziekiko ukitua. Hain zen erakargarria haren praktika pedagogikoa, ezen irakasle talde bat joan omen zen haren eskola bat zuzenean ezagutzera.

Decrolyk ere izan zuen eragina. Haurra zen berarentzat ardatz eta haurraren interesak ziren pedagogiaren oinarri. Eta hori zen ikastoletan gorpuzten ari zen pedagogia berriaren ikuspuntua.

### OVIDE DECROLY (1871-1932)

Belgikarra. Pedagogoa, psikologoa, sendagilea eta irakaslea. Irakurketa eta idazketarako metodo globala sustatu zuen Decrolyk. Elite batengana zuzendua zegoen irakaskuntza tradizionalari aurre egin zion eta haur guztiengana egokitutako eskola bat garatzen saiatu zen; arazo bereziak zituzten haurrengana egokitua ere bai. Haurra behatu eta osotasunean hartzen zuen. Ikaskuntza haurraren interesetan eta ingurunean oinarritzen zuen. Haurraren ikaskuntza bermatuko zuen gida zen irakaslea. Haurrak bere bizipenak, ekintzak, entseguak eta aurkikuntzak egiteko laborategi bat zen ikasgela.



Nola, ordea, utzi aipatu gabe Jean Piaget.

### JEAN PIAGET (1896-1980)

Suizar psikologoa, biologoa eta epistemologoa. Haurtzaroan ematen den garapen psikologikoa aztertu zuen, eta adimenaren garapena adierazteko Konstruktibismoaren teoria esanguratsua landu zuen.

Aprendizaiaren teoria konstruktibistaren harira, ikaslearen akribitateari ematen zion lehentasuna, ezagutzaren prozesuan. Norberaren jabetza-prozesua azpimarratzen du.

Bere lanek eragin handia izan zuten ikastolako irakasleengan eta irakaskuntzan.



Aipaturikoez gain, Montessorik eta Freirek ere izan zuten lotura eta eragina irakasleen prestakuntzan eta ikastoletako eguneroko praktikan.

### MARIA MONTESSORI (1870-1952)

Italiarra zen. Aurreko mendeak eman duen pedagogorik eraginkorrenetakoa. Zientziaren alor anitzetan espezializatu zen: ingeniariaritz, biología, medikuntza, antropología, filosofia...Bazterturik zeuden ikasleekin hasi zen lanean, ezinduekin eta arrisku sozial gorrian zeudenekin, eta horiekin lorturiko emaitzak ikusita, bere proposamenak ikasle guztientzat egokiak izango zirela pentsatu zuen. Montessoriren ustez umeez gaitasun izugarria dute ikasteko, eta hori gauzatzeko ikasleari lehen urteetatik eskaini behar zaio ingurune egokia; ingurune horrek ahalbidetuko dio ekimenez jokatzeko eta alternatiba ezberdinen artean hautatzeko askatasuna, eta autodiziplana lantzeko aukera. Itxaropen handia zuen horrela hezitakoengan eta ziur zegoen helduaroan gaitasun handia izango zutela bizitzako arazoei aurre egin eta aurrera jotzeko.



### PAULO FREIRE

1921ean jaio zen Brasilen. Pobrezia gordina jasan zuen eta beharbada horrek bultzatu zuen bere heziketa praktikan behartsuez kezkatu eta arduratzea. Legegintza, Filosofia eta Hizkuntzaren Psikologia ikasi zituen. Hezkuntza alorrean hau aldarrikatzen zuen: ikasketa eta ikasleak bizi duen errealitate soziala ezin dira banandu. Brasilgo Hezkuntza Ministerioa izatera heldu zen.





Atzerriko jakintza iturriak aipatu ditugu. Garaia da, beraz, etxekoei ere leku esanguratsua hemen eman diezaiegun. Lehenik, labur bederen, azpimarra dezagun Elbira Zipitria.

### **ELBIRA ZIPITRIA**

Zumaian jaio zen 1906.urtean. Donostian magisteritza ikasi eta euskaraz 6 urtera arteko neska-mutilak eskolatzen hasi zen. Irakaskuntzarekin batera kultura eta politika alorrean ere eragile sutsua izan zen. Guda Zibila heltzean desterrura jo zuen eta zenbait urtez Ipar Euskal Herrian bizi izan zen. Urte horietan saiatu zen Europa aldean indarrean ziren aurrerapen pedagogikoak bereganatzen. Gerra amaitzean Hego Euskal Herrira itzuli eta bere ohiko ardurei heldu zien. Ikastolen sortzailatzat har daiteke. Eta horrezaz gain, hari zor zaio ikastoletan garrantzi handia izan duen ikuspegi pedagogiko berria lantzea eta ikastoletako irakasle berriei helaraztea. Adibidez, adonez defendatu zuen memoriaz ikastearen tradizioa bere neurrira ekarri eta Montessoriren lanketa intuitibora hurbildu beharra. Matematikaren irakaskuntzan ere elementu errealekin hasten zen irakasten, apurka-apurka abstrakzioa heltzeko. Adibidez, batuketa eta kenketa ikasteko gaztainak edo hurrak edo intxaurrak erabiltzen zituen. Gero, puxtariak erabiltzen zituen: buztinezkoek unitatea adierazten zuten eta kristalezkoek hamarrekoa. Horrela, bederatzi urteko ikasleak barneratuak zituen batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, sistema metriko hamartarra eta zatikiak. Erdal ikastetxeetako irakasleek ere aitortu zuten ikastoletako ikasleek lortutako maila.



Eta herritarra delako eta ikastolen eta heziketaren alde hainbeste lan egin duelako, gogoz aipatuko dugu atal honetan, labur bederen, Jauregi Txikiko Feli Etxeberria.

### **FELI ETXEBERRIA**

Amezketan jaio zen 1944ko otsailean. Gazte garaian Amezketako OARGIn lan egin zuen eta sustatzaile eraginkorra izan zen Amezketako eta beste zenbait herritako ikastolen sorkuntza prozesuan.

Elbira ezagutu zuen eta garai hartako beste lankide batzuekin praktika pedagogiko berriak lantzen eta ikastoletako jardunean txertatzen aritu zen. Baita ikastoletako irakasleen praktikak bideratzen ere. Liburu bat ere argitaratu zuen “MATEMATIKAREN HASTAPENAK” izenekoa.

Eguneroko irakaskuntza-lanak dakartzan beharrei bide berrietatik erantzun nahiak eraman zuen Kataluniako eta Europako esperientzia berriak ikustera eta ikastera. Mundu horrek liluratuta Pedagogian lizentziatu, doktoregoa egin eta goi-mailako irakaskuntzara zuzendu zituen pausoak. Euskal Unibertsitatean egin ditu urte luzeak eta egin duen lanaren emaitza ederki islatzen da haren liburu eta artikuluetan.



Eta Amezketako ikastolarekin zuzen-zuzeneko harremanik izan ez bazuen ere, orain aipatzera goazen Juliana Agirrezabalak, bere garaian lan asko egin zuen irakaskuntzan, gazteleraz noski.

### JULIANA AGIRREZABALA PAGOLA (1854-1912)

Gaur egun Kultur-Etxea esaten zaio, baina historian zehar Juanlopezenea deituraz ezaguna izan den etxean jaio zen Juliana Agirrezabala Pagola, 1854an. Seguru asko, Amezketak eman zuen lehen maistra. Bere familia Bilbora joan eta han egin zituen Magisteritzako Ikasketak Juliana argiak. Toledoko Bargas herrian egin zituen lehenbiziko eskola lanak, 1891n; denbora laburrez, ordea. Hurrengo urtean Bilbon bertan ikusiko dugu eskola ematen. 1902tik aurrera eskola emateaz gainera, zuzendaritza zereginetan murgildurik ikusiko dugu. Irakaskuntzari eskaini zizkion bere ahaleginik sakonena. Eta alor horretan errekonozimendu handiak aitortu zitzaizkion. Euskara oso barne-barnean sartuta zeukan, eta idazle bikaina izan zen Juliana. Ipuin-kontalari atsegina, bestalde. Lan mordoska polita utzi zigun 1912ko irailaren 4an zendu zen Julianak. Bilboko Magisteritza zentroan, geletako batek “Juliana Agirrezabala” amezketarraren izena darama gaur egun.



Eta denboran gugandik askoz gertuago, Euskal Herriko Unibertsitatean lan franko egindako Pello Aierbe ere aipatu nahi dugu. Lan horiek hezkuntzako gaiak zituzten aztergai oro har, eta batzuk bereziki oso loturik daude ikastoletako dinamika eta gaiekin. Hona berari buruzko zertzelada batzuk:

### PELLO AIERBE ( 1948-2014)

Irakasle izan zen Lizeo Barandiaranen eta Elizako Magisteritza Eskolan. Jarraian, amezketar ezagun eta ospetsu honek Euskal Herriko Unibertsitatean garatu zuen bere lana. DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA SAILEKO KATEDRADUNA izan zen. Bere doktorego-tesia **“Irakurketa faktoreak haur elebidunengan”** izan zen. Irakaskuntza izan zen bere lana. Horrezaz gain, hezkuntza alorreko ikerketa ugari gauzatu zituen. Egindako ikerketa anitzen adierazpen dira idatzitako liburak eta artikulak, baita zuzendu eta gidatutako tesiak ere. Batzuk aipatzekotan eta ikastolei gertuagotik lotuak: “Haurtxoa proiektua” tesia; “Kalitatea Hezkuntzan” ikerketaren ondorioak; “Ikastetxearen kalitatearen ebaluazioa”; Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua” eta beste hainbat eta hainbat lan.



## 6 FELI ETXEBERRIA, IKASTOLEN SUSTATZAILE

Aurreko atalean, era laburrean, Feliren berri eman badugu ere, berriro hurbildu nahi dugu berarengana, berak egindako guztiak ondo merezi du-eta trataera zabalxeagoa.

Lantxo honen barnean, Jaxinto Setien aurkeztu dugu ikastolen sustatzaile nagusi modura. Era berean adierazi dugu bere ezaugarrien artean zegoela lankide egoki eta balio-tsuz inguratzeko trebetasuna. Lankide horietatik esanguratsuenetakoa, esanguratsuenena ez bada, Feli Etxeberria herritarra izan zen. Ikus dezagun xehetasun gehiagoz bere ibilbide emankorra.

### 6.1\_Amezketatik Donostiara maistra ikasketak egitera

Amezketan jaio zen, Jauregi-Txiki baserrian, hamabi anai-arrebek osatzen zuten familia batean. Senideen arteko zaharrena izanik, Felik hainbatetan hartuko zuen bere bizkar amaren egitekoa ere. A zer nolako mahaikada! Sukalde hartan ez zen ogi-apur askorik galduko.

Eskolako ibilaldian berehala nabarmendu zen haren ikasteko grina eta interesa. Gauza bera katekesian ere. Eta handitan zer izan nahi zuen galdetzen ziotenean, baserriko umeen irakasle nahi zuela izan esaten omen zuen ahots ozenez eta inolako zalantzarik gabe. Eta hori ezinezko bazen, familiak ezin zuelako-edo, tonu apalagoan, jostun izan nahi zuela adierazten zuen. Emakumearen ohiko rolen bidetik zihoazen bere desioak.

Irratia, Felik dioenez, oso berandu heldu zen bere etxera. Ordurako bazen bat Estanko izeneko dendan, Eta bera oso gustura joaten zen mandatuak egitera eta, bidenabar, irratia entzutera. Liluratu egiten zuten tresna txiki hartatik ateratako ahots eta musikak, oilo haragia ateratzeraino liluratu ere. Gozamina zen hura beretzat eta hartaz gogoeta egitean, esatariak non ote zeuden galdetzen omen zion bere buruari. Bestalde, garai hartan ba omen zen Amezketan “Acción Católica” deituriko aretoa eta han herritarrek egiten zituzten antzerkiak oso gogoko zituenez, amaren gonei tiraka joaten omen zen emanaldietara.



Feli Etxeberria.

Itxuraz letretarako joera edo erraztasuna zuela zirudien arren, bazuen zientziatarako interesa ere. Matematikak ere oso gogoko zituen. Baserrikoa izaki, noizbehinka aitak basoa ateratzen zuen eta egurra saldu, noski. Jose Etarte zen zenbat estereo egur zegoen neurtzen zuena. Feliren aitak buruz ateratzen zituen kontuak, baina ziurtasun osoa izateko, aitak Feliri eskatzen zion jasoko zuten diru-ordainen kalkulu zehatza. Ganadua saltzerakoan ere han izaten zen Feli aitaren ondoan, tratuan eta diru-kontuak ateratzen.

Mandatuak egiteko orduan amak eta amonak gomendatzen zioten paperean ez idazteko, buruz hartzeko, memoria ere landu egin behar zelata eta. Eta zerbait ahazten bazitzaion, joango zela berriro, horrela kirola ere egingo zuela eta.

Beraz, ohiko eskolaz gain, etxea eskolaren osagarria zen Felirentzat, matematika eta memoria lantzeko gunea.

Hain nabarmen islatzen zituen interesez eta gaitasunez ohartuta, erretoreak eta irakasleak maistra- ikasketak egiteko aholkatu zioten. Poza hedatu zen bere barne-errietan, baina kontzientzia-karga ere bai. Izan ere, familiak onartuz gero Felix ikasketa horiek egin behar zituela, beste kezka batek ziztatuko baitzuen haren barrena: nola erantzungo zien familiak beste anaia-arreba guztien ikasketei. Aita nekazaria izanik eta ama etxeko eta baratzeko lanen arduradun, oso mugatuak ziren etxeko diru-sarrerak. Beraz, nola erantzun ekonomikoki eskari horiei guztiei? Hitz egin zuten etxean, eta bere kezkek uxatze aldera, baietz erabaki zuten, “gero ere izango zela zerbait eta”.

Arestian aipatu dugun jakiteko grina, hau da, ez zekiena bereganatzeko bulkada, haren bizitzako ardatz izan da gero ere. Zerbait lortzen zuenean, ez zen hartan denbora luzez errotzen. Lorturikoa lantzen eta sakontzen zihoan heinean, beste helburu nagusiagoren bat sortzen zitzaion eta hura lortu arteko atsedetik ez zuen izaten.

Beraz, garaia heltzean, Amezketako eskola utzi eta Donostiara joan zen irakasle-eskolara maistra ikasketak egitera. Eskolako zuzendariak, Tuduri andereak, gogoeta batekin hasten zuen goizeroko lana eta “Las escuelas del Padre Manjon”-en orientabideei jarraiki, irakasle izatearen garrantzia azpimarratzen zuen. Eta Feli, noski, oso-oso gustura. Ikasketen-ibilbidean, era naturalean, nekazal giroko herrixketako ikasleak elkar-tu ziren eta nekazal ingurune batean lan egiteko ideia gorpuztu eta helburutzat hartu zuten.

## 6.2\_Lehen lana, Altzolan

Maistra ikasketak amaitu, eta berriro ere buruhaustekak. Donostialdeko “señoriteak” oposaketak prestatzea erabaki zuten eta Iruñera joan ziren Teresatarren ikastetxera, horrek lan-ziurtasuna zekarrela-eta. Felix, ordea, ez nuen bere familia berriro estutu nahi eta Elgoibarko Altzola auzoko mojen eskola batera joan zen lagun batekin. Batxilergoan ematen zituzten klaseak goizeko 8:00etatik arratsaldeko 14:00etara. Altzola nekazal giroko ingurunea zen, baina Elgoibar gertu zegoenez, hiriko giroa ere ezagutu zuten. Oso espezializazio polita eta aberasgarria izan omen zitzaion.

Oposaketen gaia atzeratu bazuen ere, ez zuen inoiz ahaztu, ez zuen betirako alboratu. Horrela, Ikaztegietako Nekane Iturbek eta biek ikasteari heldu zioten. Bazuen beste erronka bat aurrean, eta erronkek piztu eta indartu egiten zuten Feli. Eta, zer, eta oposaketak gainditu! Hura zen hura poza!

## 6.3\_Oposaketak gaindituta, Errezilera

Pena handiz Altzolako eskola utzi eta Errezilgo Erdoizta- auzora abiatu zen Feli, ilusioz eta lanerako gogoz beteta eta oposaketak ateratako agiri ofizialarekin. Aspaldiko ametsa zen nekazal giroko ikasleekin lan egitea. Ikasleak ere sanoak ziren guztiz. Zenbaitetan, bere harridurarako, bizkarrean aizkora eta besapean, ikasle batzuen artean, enborrak ziztuztela eskolaratzen zitzaizkion. Eta zertarako zituzten galdetzean, harriturik noski, jolas-denboran aizkora apustua egiteko zirela esaten zioten. Paraje bakartu hartan oso maitatua sentitu zen. Han saiatu zen pedagogiaz ikasitakoa praktikan jartzen, teoria horiek frogatzen eta berariazko gogotez bere altxor pedagogikoa osatzen.

#### 6.4\_Jaxintoren gutuna, infleksio puntua

Errezilen zegoela, Jaxinto Setien apaiz euskaltzalearen gutuna jaso zuen. Bilera batera gonbidatzen zuen. Felik bazekien Jaxinto Goierri aldean zebilela ikastolen mundua hauspoztzen. Baina deialdia ez zuen horrelako ezerekin lotu.

Lazkaon elkartu ziren Jaxintorekin inguruko irakasle batzuk. Gozo-gozo eta ohikoa zuen diplomaziaz azalduko zien esku-artean zuten proiektua: Euskal Herriak behar zuela euskal eskola eta horretarako irakasle gazte euskaldunak behar zirela. Eta horretarako haiekin kontatzen zuela. Bat-bateko eta ezusteko proposamena izan omen zen.

Feliri oso gogorra egiten zitzaion hainbeste kostata oposaketez lortutako plaza albora utzi eta berriro eskolaz aldatzea. Gainera, Jaxintok adierazi zien, irakasle-eskolan jasotako prestakuntza ez zela ikastolarako egokia eta prestakuntza gehigarria emateko Donostian bazela ordurako “Joannes Etcheberry” izeneko erresidentzia eta han egin behar zirela urtebetez ikasketak eta inguruko ikastoletan praktikak. Felik, erabakia hartu aurretik, berriro, familian aipatu zuen gaia. Eta, nahiko ezustekoa izan zen han jasotako erantzuna:” **Neska, gauza berriak probatzea ere ez dun txarra; gainera, euskara bultzatzeko proiektua dun**”. Batiste lagunari ere aipatu zion, eta hark, noski, uzteko Errezil eta joateko ikastolen mundura. Erdoizta uztea, ordea, gogorra egin zitzaion, bere gaztetako ametsa baitzen hura.

#### 6.5\_Murgil, ikastolen munduan

Joannes Etcheberry erresidentzia abertzale talde batek sortu zuen. Horien artean zeuden Carlos Santamaria, Zumalabe, Murua, Jaxinto, Aita Agirretxe... Arduraduna Pakita Arregi zen eta proiektu oso-oso baliagarria gauzatu zuen. Ikastoletara bideratutako irakasle gaiek, alde batetik, formazio saio trinkoak jaso behar zituzten ( euskara ikastaroak, euskal kultura, historia, geografia, pedagogia...), eta, bestetik, ikastoletan praktikak egin behar zituzten.

Feli ere han aritu zen lanean. Urtebeteko prestaketa egin ostean, Jaxintok Lazkaoko ikastolara bideratu zuen Feli. Eta eskatu zion Lazkaon jar zedila bizitzen. Izan ere, herriak sortua izanik, ikastolak ere herriarekin batera egin behar zuen bidea eta horretarako irakasleek ere herriko dinamikan txertatzea zen egokiena.



*Feli, Legorretako ikastolaz ere arduratzen zen.*

### • **Lehen ikasturtea:**

Hiru ikasturte egin zituen Felik Lazkaon eta asko ikasi zuen esperientzia horretatik ere. Lehen ikasturtean oso-osorik irakaskuntzaz arduratu zen. Eta horrezaz gain egokitu zitzaion euskara irakastea, katekesia ematea, koruan ere esku hartzea...

Eguneroko lanaz egiten zuen gogoeta etengabekoa zen. Horrek sortzen zion esperientzia berriak ezagutzeko grina. Horrela, "Rosa Sensat" eskolara joan zen Bartzelonara eta Marta Matarekin lan egin zuen. Oso egonaldi aberatsa izan zen. Barnean zituen zenbait kezka argitu zituen, kanpotar ikasleak nola euskaldundu zirriboratu zuen bere buruan, eta nola ez, kezka berriak ere sortu zitzaizkion, hurrengo erronkarako abiapuntu izango zirenak.



*Feli, Lazkaoko ikastolako irakasle eta ikasleekin.*

### • **Bigarren ikasturtea:**

Bigarren ikasturtean, lan-plangintza berria izan zuen. Egun erdia zuen ikasleekin lan egiteko eta beste erdia abiadura handiz sortzen ari ziren ikastolak sustatzeko erabili zuen. Egun erdi horretan herri txikietako ikastoletara joaten zen eta elkarrekin beren praktika pedagogikoa aztertzen zuten. Astean behin bisitatzeko zituen Felik eta haien kezkei erantzuteaz gain, bere proposamen berriak egiten zizkien eta astebeterako lan-plangintza egiten zuten elkarrekin. Iluntzetan, berriz, herriz herri hitzaldiak izaten zituen: sortu ziren ikastoletako gurasoei indar-guneak agerian jartzeko, zalantzak argitzeko, ikastola berriak sortzeko asmotan zabiltzanak animatzeko, suspertzeko eta laguntzeko.

Bigarren ikasturtean egindako lanak eskatuta, aurrerapausoak eman zituzten prestakuntza plangintzan. Ikastoletan lanean hasi behar zuten irakasle titulu-gabeak praktikak egiteko Lazkaoko ikastolara bideratzen zituzten, eta iluntzetan Beasainen zuten denek GAU ESKOLA.

Egoitza horretan Felik “Ekintza Pedagogikoa” lantzen zuen; Jaxintok, “Euskal Literatura”; Joxe Mari Aranburuk, “Euskara”; Pello Aranburuk, “Euskal Historia”; Martin Garinek, “Filosofia”,...

### • Hirugarren ikasturtea:

Feli ezkondu eta Donostiara joan zen bizitzera, eta Santo Tomas Lizeoan hasi zen lanean. Hala ere, ez zuen osoki eten Lazkaon eta Goierrin egindako plangintzarekin. Hau da, iluntzetan Beasainera jotzen zuen Gau Eskolako bere ardurak betetzera. Maila apalagoan bazen ere, jarraitzen zuen herriz herri ikastolari buruzko hitzaldiak ematen, predikari moduan.

Bada azpimarratzeko zerbait Feliren bizitzan, inoiz ahaztu behar ez dena eta bere lan-ibilbidean eragina izan zuena: Euskal Herrian batetik bestera ibili arren, leku askotan lan egin arren, asteburu gehienetan Feli bere herrira, Amezketara, itzultzen zen. Gogoko eta beharrezko zuen bera partaide zen OARGIra joan eta bertako dinamikan parte hartu ere bai. Inoiz ez zuen galdu bere jaioterriarekiko lotura. Horrek, ordea, izan zuen bere alde ezkorra ere. Norbaitek edota norbaitzuek ez zuten begi onez ikusten Felik Amezketan egiten zuen lana. Antza, Frankoren akolitoek arriskutsutzat zuten Feli eta hura eta haren lana gutxietsi edo despregiatzeko orduan ohikoa zen bidea hautatu zuten: Feli ez zela kristaua eta erlijioaren aurkako militantea zela aldarrikatzea. Horrek, agian, Amezketan ez zuen eragin nabarmenik izan, baina bai Felik Euskal Herrian zehar egindako ibilbidean.

*Ezkontza egunean amezketar umeez inguratuta.*





## 6.6\_Donostia bizileku eta lantoki

Santo Tomas Lizeoan ez zuen berak ikasitakoa eta berak buruan zuen pedagogia askatzailea praktikan jartzerik izan. Horrela, frantziskotarrak etorri zitzaizkionean galdezka ea Donostiako Alde Zaharrean ireki nahi zuten ikastola berria zuzenduko zuen, berehala eman zien baietza. Kai Alde zuen izena. Zerbait erakargarria zen. Aukera izango zuen haurra ardatz hartuta, haren interesetatik abiatuta, eta ikasle bakoitzaren bilakaera errespetatuz, hura askatasunean eta erresponsabilitatean hezteko eta pedagogia berria indarrean jartzeko. Baina, denborarekin, fraideen artean barreiatu zen erlijioak hotz uzten zuela; ondorioz, eguneroko lana ez zioten erraztu, eta ikastola utzi beharrean aurkitu zen.

Ondoren, Antiguoko Jakintza ikastolatik dei egin zioten. Oso herri giroko ikastola zen. Garai horretan hasi zen Pedagogia ikasten. Donostian egin zituen lehen bi ikasturteak. Eta ondorengo ikasturteak Valentziako Unibertsitatean egin zituen.

Karrera amaitzean, Ikasbide ikastolan jardun zuen ORIENTAZIOKO arduradun gisara. Ikastaroak ematen jarraitzen zuen, baita matematikakoak ere.

## 6.7\_Unibertsitatea

Ondorengo urteetan Euskal Herriko Unibertsitatean jardun zuen lanean. Eta klaseak ematez gain, ikerketa askotan hartu du parte, hitzaldiak eman ditu, Kongresuak antolatu ditu, aldizkarietan artikulua zientifikoak idatzi ditu, aldizkariaren erredakzio kontseiluetan lan egin du, liburuak argitaratu ditu, doktorego tesiak gidatu eta zuzendu ditu...

Beraz, esandakoak esan, Ohore handia da amezketarrentzat Feli euskaltzale fina eta ikerlari ospetsua herritarra eta lankidea izatea.

## 6.8\_Amezketako irakasleengan eragin zuen

Amezketako irakasleek ere iturri horietatik guztietatik edan zuten. Eklektikoak ziren, denetatik hartzen zuten interesgarri iruditzen zitzaiena. Joxepi, adibidez, Magisteritza ikasketak burutzen zituen bitartean eta urtebeteko praktikak egiten ari zenean, Donostiako Andereñoen Egoitza horretan bizi izan zen eta han jaso zuen lanean hasteko beharrezko zuen oinarrizko prestakuntza. Horrela, Amezketan lanean hasi aurretik, praktikak egin zituen Karmele Esnalekin ( Santo Tomas Lizeoan, Feli Etxeberriarekin ( KAI ALDE ikastolan) eta Agurtzane Mujikarekin ( Herrerako ikastolan).

## 7 PEDAGOGIA BERRIAREN MUINA

Irakasteko modu berritzaile horretan **HAURRA** zen ardatza, haurraren garapena bultzatu nahi zen eta hori bere askatasuna eta nortasuna errespetatuz egiten zen, ez belarrondoka eta zigorren bidez.

Bestalde, ikaskuntza **INGURU HURBILEAN** txertatu behar zen eta handik abiatuta eraiki behar zen ikasketa prozesua. Horrela, herria eta natura ezagutzea zen eman nahi zen heziketaren abiapuntua. Haurra ezin baitzen inguru horretatik atera eta bakartu. Beraz, ingurua ezagutzea eta natura ezagutzea ikasketa prozesuarekin bat zetozen. Natur zientzien

atalean ohikoa zen intxaurreak, hurrak, ezkurak, hostoak, haziak... biltzea eta horiek gero ikasgelan lantzea. Horrela, haurraren inguruko eragile orok, gurasoek eta irakasleek, norabide berean eragin zezaten bilatzen zen.

Irakurketak, hain garrantzizkoa izanik, aurre lanketa eskatzen zuen eta hori egiten zen lehen ikasturtetan. Ez zen beharrezkoa horretan espresuki azkar hastea. Gaitasun mekanikoa lor zitekeen, baina ez ulermenezkoa. Aurre lanketa horretan marrazkiak, jolasak... adierazpen bideak ziren eta



*Koro, Ugarteko Asierrekin.*

bakoitzaren heldutasunak adieraziko zuen irakurketa esanguratsua noiz hasi. Irakurketa lantzeko prozesuan garrantzizkoak ziren testu-libreak. Horrela deitzen zitzaien ikasle bakoitzak bere barru-barrutik zetorkion mezua islatzean sortzen zituen marrazki eta testuei.


Testu-libreen lanketak, ordea, ezinbesteko zuen egindako lanak ikasleen artean truketzea eta horretarako kopiak atera behar ziren. Nola, ordea? Egindako idatzi edo marrazkien kopiak ateratzeko ez zegoen baliabiderik. Hau da, ez zegoen multikopistarik eta gutxiago fotokopiagailurik. Hasierako urteetan, beraz, irakasleen neurrigabeko lanak bete zuen kopiagailuen hutsunea. Irakaslea zen kopiagailua, hau da, ikasle bakoitzarentzat materiala prestatzen zuena. Ariketa bat egin nahi izanez gero ikasleekin, irakasleari zegokion ikasle hainbat kopia ateratzea. Eta hori eguna joan eta eguna etorri.

Geroago, eta hutsune hori nolabait betetzeko Kataluniako Rosa Sensat mugimendutik ekarri zen MEMBRILLO/IRASAGAR deituriko inpresio teknika. Hori irakasleek prestatzen zuten, eta artisauen erara kopiak egiten zituzten. Hona osagaien zerrenda eta egiteko prozedura:

Barregarria badirudi ere, bere garaian irasagar-teknikak zerbitzu itzela eman zuen. Bazen beste teknika bat VIETNAMITA izenekoa. Puntzoi batekin eskuz idatzi klizean eta jarraian tintaz betetako rodillo edo arrabol baten bidez kopia batzuk atera zitezkeen. Gero, berriro prestatu behar zen delako *membrilloa*. Zenbat kopia atera ote genituen artisau tresna horietan!

Jolasari ere balio hezitzailea ematen zitzaion: sozializazioa garatzeko, harremanetako barne arauak errespetatzen ikasteko... Horren harira, eta gure ustez Rosa Sensat mugimendu horren kariatara, Gordailuk (Irakasleen hasierako Elkartek) jostailu denda ireki zuen Donostian, HAURRIDE izenekoa. Hortik ere baliabide asko lortu genuen: liburuak, ipuinak, musikarako gailuak, jostailu pedagogiko deiturikoak.

Pedagogia aktiboa zen mugimenduaren ardatza: hark elkartzen zituen teoria berriak eta praktika. Horren barruan leku berezia hartu zuten eskolaz kanpo egiten ziren irteerak. Horiek, ordea, Ikastolaren kontrakoentzat lanari iskin egiteko estrategiak besterik ez ziren. Ikastolako irakasleentzat, berriz, pedagogia aktiboa haurraren jardueretan eta interesguneetan oinarritu behar zen. Helburu didaktikoa zen guztiaren gidari. Irteeretan biltzen zituzten xomorroak, hostoak, harri bereziak eta beste materialak matematika, natura eta beste arloak lantzeko tresna edo gai bihurtzen ziren. Irteera horietako batzuek, festa girokoak bereziki, gurasoen partaidetza ere izaten zuten. Izan ere, ikastolako komunitatean gurasoak ezinbestekoak ziren.



Kopiak egiteko  
"irrasagar-teknika".

**Osagaiak hauek dira:** 500 gr glizerina, 100 gr gelatina edo "cola de pescado", 400 gr ur, 250 gr azukre eta kalkoa ( ikatz papera).

**Prozedura:** Osagai guztiak ontziratu eta bertan utzi ordu batzuk. Ondoren, su txikian irakiten eduki 30 minutuz. Sortutako pasta edo orea poliki-poliki erretilura pasa, burbuilak eta aparra saihestuz.

Prestatu klixea. Hartu kalkoa eta, jarri bi orri zuriren artean. Goiko orrian idatzi edo marraztu ondo zapalduz eta azpiko orrian islatzen dena erabiliko da klixee modura.

Erretiluan dugun pasta busti belaki/esponja batekin eta lehortzen utzi. Ondoren, klixea pastaren gainean jarri, xuabe-xuabe igurtziz. Minutu bat-edo irtagatean, kendu klixea. Honezkero "negatiboa" txertatuta dago pastan.

Azkenik, orri zuriak banan-banan jarri orearen gainean, emeki-emeki zapaldu eta kopia eginda dago. Horrela nahi adina kopia atera ditzakegu.

Maiz erabili ondoren, pasta arrastoz bete denez, berriro berotzea komeni da ( irakin gabe). Gero, hoztu eta berriz erabiltzeko prest dago.

Garai horretakoak dira, baita ere, noski, "txotxak" eta "pottokak". Haurren hainbat gaitasun lantzeko material eskuraerazak eta erabilerrazak ziren. Horrela, "txotxak" hizkiak ikasteko erabiltzen ziren; "pottokak" (bolatxoak) logika, kalkulua eta matematika lantzeko; "hegaztiak" eta "animaliak" natur arloa ikasteko; "habiak" txorien ugalketa lantzeko; "txorien kantak" soinuen eta musikaren arloa lantzeko.

Pedagogia korrante berrien eraginez, eskolan ordua arte ohikoak ez ziren alorrak lantzen hasi ziren ikastolan, bai eskola barruan, eta bai eskolaz kanpo ere.

Eskola barruan antzerkiaz gain, plastika, musika, dantza, natur arloko eta gizarte arloko berrikuntzek curriculum osatu zuten. Horiek guztiak, batzuentzat, ez ziren eskolaren berezko langaiak. Gure irakasleentzat, ordea, heziketa osoa bermatzeko ezinbesteko langai edo bitartekoak ziren.


Eskolaz kanpo ere curriculumeko atalak lantzen hasi ziren. Horrela, irtenaldiak egiten ziren, lehen esan bezala, herrian bertan. Gero txangoak ere egiten hasi ziren: kobazuloak ezagutzeko, gu lehorrekoak ginenez itsasaldea ezagutzeko, iparraldean ere bazela Euskal Herriaren zati bat jakiteko... Gogoan dute irakasleek zer nolako inpresioa jaso zuten ikastolako ikasleek Donostian barkua hartu eta itsasoan zehar itzuli bat eman zutenean. Harri-durazko aurpegia ez zitzaien galdu puskatean.

Ohartu behar dugu garai horretan ez zela ohikoa oporretara irtetea eta eskola mundu zaharrean ikasteko gelaz kanpo ibiltzea ere ez zela inoiz burutik pasatu ere egiten. Hori dela-eta, ikastola irteerak programatzen hasi zenean, herritarren harrera ezin hobea izan zen. Umeei laguntzeko asmotan gurasoak ere gogoz animatzen ziren. Geroxeago guraso ez zirenak ere izena ematen zuten, autobus baten ordez bigarrena ere antolatzeraino. Gainera, pertsona helduak behintzat, aipatutako irteeretara joateko igandetako mezetarako edo festarako moduan jantzen ziren, onenetik onenera. Behin, Santimamiñera joan ziren eta emakume bat, takoi eta guzti joan zenez, koba barruan takokia trabatu eta ia-ia zapata han utzi beharrean aurkitu zen.



*Joxepi, ikasleekin.*

- 1\_Arantxa Sagastume
- 2\_Inigo Zubeldia
- 3\_Joxe Mari Garin
- 4\_Rosarito Mujika
- 5\_Kaxpar Larreta
- 6\_Joxepi Saralegi (irakaslea)
- 7\_M<sup>a</sup> Pilar Ruiz
- 8\_Nekane Zubeldia
- 9\_Lukax Etxeberria
- 10\_koldo Alijostes
- 11\_Josune Larreta
- 12\_Jon Etxeberria
- 13\_Maitere Otermin
- 14\_Sebastian Elosegi



Teoria berritzaile horiek praktikan jartzeko ahaleginetan azpimarratzekoa da irakasleen artean gertatu zen ELKARREKINTZA. Kontzeptu eta praktika garrantzizkoa bilakatu zen. Dinamika oso eraginkorra, eraikitzailea eta biderkatzailea izan zen. Irakasle bakoitzak egiten zituen saiakerak eta haien balorazioa lehenik ikastola mailan balioesten zen, eta gero bailara mailan aztertzen ziren, beste ikastoletako irakasleen aurrean. Hainbeste irakasle sustatzaileen ekarpenez proposamen ugari jartzen zen mahai gainean, eta eskualdeko irakasleen prestakuntza eskola bilakatu zen. Han aztertu, baloratu eta nolabaiteko sistematizazioa ematen zitzaion, beste irakasleentzat ere ekimen gida osatuz.

Ikastola mailakoa lehenik eta bailara mailakoa geroago, mugimendu eta lanketa eredu emankorra zela ohartuta, hedatzen joan zen astiro-astiro. Hurrengo pausoa irakasleen mugimendu antolatura heltzea izan zen, eta ikastaroak eskaintzea. Bide horretatik, askotariko lan esperientziak elkartrukatu ziren eta apurka-apurka indarrean zen eskola eredu zaharkituaren parean eskola mota berri eta aurrerakoiago baten oinarriak jartzen hasi ziren. Dinamika horrek ekarri zuen baita ere eskola material berrien beharra eta gauzatzea.

Etxe barruko dinamika eraikitzaile horren lan-eremua astiro-astiro zabaltzen joan zen eta berehala jo zen beharrezkotzat Euskal Herriaz kanpo garatutako esperientziak ezagutzeta eta elkartrukatzea. Jaxintoren eraginez Katalunian eta Frantzian jarri ziren begiak. Mezu hori iritsi zen Amezketako ikastolara ere, eta Joxepi andereñoa uda batzuetan Rosa Sensat Institutuak antolatutako Escola d'estiu ikastaroetan partaide izan zen.

Ikastoletako irakasle guztiak, salbuespenak salbuespen, olatu berritzaile horretan murgildu ziren. Profesional osoaren profila zizelkatu zuten kolpez kolpe. Hau da, irakaskuntza maite zuten, ikasleekin lan egitea gogoko zuten eta horrek eraginda bere egin zuten etengabeko prestakuntza. Garaian garaiko errealitatea da hemen islatzen duguna, baina gaur egun ere eredutzat har daitekeena.

Garai horretakoa da OLENTZERO ere. Gerora indartsu finkatu den pertsonaiak eta festak ahalbidetu zuen ikasleak jasotako opariekin jostatuz oporraldian gozatzeko aukera.

Udalekuak ere garai horretako antolamendu pedagogikoaren zati dira, nahiz eta Amezketako umeak ez baliatu eskaintza horretaz. Garai horretan hasi ziren udalekuak antolatzen; benetan saiatzen ziren ikasleak aisialdian eta jolasaldietan euskara berena egin zezaten. Badira Amezketan ere begirale modura han eta hemen ibilitakoak. Zenbait herritako gurasoek ere esku-hartze garrantzitsua izan zuten udaleku horien kudeaketan. Barria, Aitzin, Bernedo, Saturraran... udaleku goitzak izan ziren.

*Eguberritan abesten.*



*Gurasoak eta ikasleak Iparraldera egindako ibilaldian.*



Bestalde, ohikoa izan da ikastolan abestiak ikasi eta abestea. Hori ere, ordea, kritikagarrri bilakatu zen ikastola begi onez ikusten ez zutenentzat. Ez zekiten asko musikaren eta abestearen garrantziaz. Hona jarraian, Estankoko Anak, ikastola garaian ikasle eta gerora Zumadiko irakasle izan zenak gai horretaz egiten duen gogoeta eta ematen duen azalpena:



*Saturrarango udalekuak. Begiraleen artean, Koldo Saralegi.*

### **ESKOLAN ETA BIZITZAN, MUSIKAREN GARRANTZIA**

*Txiki txikitatik bizi izan dut musika. Bai etxean eta bai ikastolan. Etxean nire gurasoek eta izebak lau ahotsetara abesten zuten. Edozein ospakizunetan edota autoko bidaietan abestu egiten genuen eta ikastolan gozatu egiten genuen abesten. Zenbat abesti ikasi nuen!*

*Nire senak esaten zidan musika edonoren heziketarako garrantzitsua zela. Nire sena eta zaletasunari jarraituz nire ogibide bilakatzeko aukera izan nuen pedagogia eta musika ikasketak uztartuz. Eta hori gutxi ez bada, familiako aginduari jarraituz herriarentzako eta herriarengatik, nire lehen lana Zumadi Euskal Eskola Publikoan izan zen, ikastolako nire irakasle izan ziren Koro eta Joxepirekin batera. Ni musikako irakasle gisa, noski.*



Hurrengo urtean berriz, familiako aginduari jarraituz “herriarentzako eta herriarengatik”, hainbat gurasoren laguntzarekin Amezketako Musika Eskola sortu genuen. Nire nahia zen herrian TXARANGA bat sortzea, baina nire desioa handiegia zenez, ametsean geratu zen.

Kantatze hutsarekin gauza asko landu genituen ikastolan: sozializazioa, integrazioa, auto-estima, erlaxazioa, oroimena, hiztegia, ahoskera, egitura linguistikoa...

Musika giza historian zehar botere handiko tresna izan da. Grezian, Txinan, eta Indian aurreko gizaldietan musika “giza balio” baten gisara ulertu zuten. Zoritxarrez aurreko gizaldiko hamarkada askotan musikak eskola gehienetan paper garrantzitsu hori galdu egin zuen eta adimen intelektualari utzi zion lekua. Baina, zorionez, H. Gardner-ek eta beste batzuek “adimen anizkoitzen” inguruan egindako lanak eta ekarpenak oso lagungarri suertatu zaizkigu, musikari berez duen garrantzia berriro itzultzeko, nahiz eta oraindik gure eskoletan behar duen tokirik lortu ez duen.

Musika irakasteak “pertonaren garapen osoa” lortzen laguntzen du, gainerako irakasgaien ikaskuntza-irakaskuntza prozesua erraztuz. Frogaturik dago musikak ondorengo gaitasunak garatzen laguntzen duela: abstrakzioa, arrazoizko logika, adimen korporal-zinetesikoa, persona barneko eta persona arteko adimena, zentzu kritikoa, sormena eta adimen musikala bera, bere osagai guztiekin.

Musika era askotako gaitasunak garatzeko tresna bikaina da eta baita gure afektibitatearen lengoaia ere, ez baitago gizakiongandik kanpora, baizik eta gure barne-barnean.

Akordeoa nire bizitzan zehar neure bide lagun bilakatu da. Soinu-tresna bat ikasten egon naizen bitartean eguneroko bizitzako hainbat eremutan baliagarri izan zaizkidan hainbat gaitasun eta balio nireganatu ditut: eguneroko lana, borondatea, zailtasunen aurrean ez etsitzea, autosuperazioa, emaitza onak lortzeko ahalegintzen eta saiatzen ikastea... Eta balio horietaz guztiez gain, azken urte hauetan musikaren ezagutza oso lagungarri suertatu zait nire ongizaterako, ez ongi pasatzeko eta gozamenerako bakarrik, baita nire estrés aldi eta momentu triste eta larrietarako ere. Gure adimen emozionalean eragin zuzena du eta gure emozioak kudeatzeko tresna paregabea dela esan nezake.

Musikak gizakion izate osoan eragiten du: biologikoan, fisikoan, neurologikoan, psikologikoan, sozialean eta espiritualean, eta gainera bat-batean eragin lezake.

Musika ez da ezagutza bat gehiago bakarrik, ez, zerbait gehiago da. Gure bizipen emozionalekin zuzenki lotua dago, gure emozioen eta sentimentuen adierazpide da. Gure ongizaterako erabili genezakeen beste tresna bat gehiago da; gure emozioak kudeaketarako tresna, bai haurrentzat bai helduontzat. Haur eta nerabeek euskarri emozional bat behar dutenez, beharrezkotzat jotzen dut curriculumeko beste edukiez gain, bai musikan edo beste edozein arlotan, gure haur eta gazteen sentikortasuna eta bizitza emozionala hezteko. Hein batean, horren mendean baitago euren etorkizuneko zoriontasuna eta bizitzako arrakasta ere.

Jakin badakit Zumadi eskolan abesteari eta musikari garrantzia ematen zaiola, eta badaikit baita ere Amezketan badela “Amezketari” izeneko proposamena eta iaz ere noizbehinka atera zirela kalera kantari. Hori da bidea, jarraitu abesten, jarraitu euskal kultura ezagutzen eta aberasten, eta jarraitu musikaz gozatzen.

**Ana Etxeberria**

**8 BURUHAUSTEAK, EKONOMIA ALORREAN**

Eraiki eta sendotu nahi zen bide berriak baliabide ekonomikoak eskatzen zituen eta asko. Baina nondik eta nola lortu? Estutasun gorriak eta buruhauste lazgarriak.

Harrigarritzat jo daiteke administrazioetik sosik ere jaso gabe nola iraun zuen bizirik urtez urte Amezketako ikastolak. Izan ere, San Bartolome ikastolak bazuen oinarrizko legezapena, baina inoiz ez zen osoki legezatu. Izan zuen Elizaren babes eta geroago Ikastolen Elkartearena, baina ez zituen bete ez Moyano legearen eskakizun guztiak, ezta Villar Palasi legearenak ere, ezin zituelako bete noski. Eta ondorioz ez zuen kontzertaziorik lortu, hau da, osoki legezatatutako ikasgela bakoitzarengatik administrazioak ematen duen diru-laguntza ez zuen lortu. Eta hori, jakin denez, legearen baldintza estuak ezin zituelako bete. Eta, noski, ezin zen guztia gurasoen gain utzi. Horrela bada herriak (gurasoek, laguntzailuek eta eragileek ...) hartu zuen bizkarrean ardura hori. Zenbat buruhauste eta zenbat ekintza! Legeak jarritako trabak nahikoa ez eta proiektuak eskatzen zuen sostengu ekonomikoa herriak bilatu behar. Beraz, garbi ikusten da ikastola herriak sortu zuela eta herriak mantendu zuela, eta emandako fruituak herriarentzat izan zirela. **Ez dago eskolarik hain gutxiarekin hainbeste egin duenik.**

Hona hemen garai haietako aurrekontu batzuk. Nahiaren eta ezinaren arteko borroka nabaria da.

IKASTOLA DE AMEZKETA		Ayuda en metálico recibida durante el curso 67-68	
<u>Gastos del curso escolar 1.967-1.968</u>		<u>Asistencia a la Ikastola 28 niños. Cada alumno abona 75 pts mensuales. Si son 2 hermanos los que asisten de una familia abonan 62,50 pts mensuales.</u>	
Sueldo anual de la andorriño,....	42.000 pts	Lo que se percibe de los niños anualmente:	
RETRIBUCIONES,.....	7.000 "	20 niños a 75 pts por mes	anual...18.000 pts
Mobiliario escolar,.....	12.000 "	8 " " 62,50 pts por mes	" ... 6.000 "
Materiales escolares,.....	5.000 "	Donación concedida por la Caja de Ahorro Provincial.....	5.000 "
Calentamiento,.....	800 "	Donación concedida por el Ayuntamiento.....	2.500 "
		Donación concedida por la Papelera del Aralar,.....	2.000 "
<b>Total de gastos</b>	<b>66.800 pts</b>	<b>Total,.....</b>	<b>33.500 pts</b>
		<b>Déficit de 33.300 pts</b>	

Ikastola sortu eta hurrengo urtean Amezketako Udalak 2500 pezetako diru-laguntza eman zion euskal eskolari. Bazen zerbait, jarraipenik izan balu, noski. Laguntza emateko Udalak egindako gogoetak eta hartutako erabakiak etena izan zuen, eta horren zergatiak ez ditugu ezagutzen, tamalez, 1969ko ekainaren 14ko aktan dioena izan ezik. Suposatzen dugu goi-aginduren batek itxiarazi zuela ikastolaren laguntzaile trinkoena izan behar zuen laguntza-iturria.



Garai haietan baziren anaia-arreba askoko familiak. Horientzat esfortzu handia batzuetan eta handiegia besteetan izango zen hileroko kuota ordaintzea. Ikastolak indarra hartzeko arazo gehigarria hori ere.

Beste adibide bat 1968-1969 urtekoa da. Hona:

BALANCE ECONOMICO DEL CURSO ESCOLAR			
I.968-I.969			
	DEBE	HABER	SALDO
	Pts.	Pts.	Pts.
Asisten a la Ikastola 36 niños, abonam: mensualmente 100 pts. en diez meses de escolaridad .....		36.000	
Donación de la Caja de Ahorros Provincial.....		5.000	
Donación de la Papelera del Aralar .....		2.000	
Un bienchor .....		5.000	
Cuotas de los Socios .....		14.000	
Sueldos de 2 andereños .....	150.000		
Seguros Sociales.....	12.000		
Mobiliario escolar .....	9.500		
Material escolar .....	3.400		
Calefacción.....	750		
Gastos de legalización .....	3.000		
	178.650	62.000	116.650

Amezketeta Mayo de I.970

Ikusten denez, diru-kontuak adierazteko era edo modua ez da oso zehatza eta argia. Adibidez, begi-bistan dugun balantze ekonomikoan ez da ageri aurreko ikasturteko zorra. Nahiz eta ez azaldu hor, ordea, inork ez zuen hori kitatuko eta 1968-1969ko zuloa handitu besterik ez zuen egingo. Nola irauan daiteke horrelako zorrarekin? Bada, batez ere, irakasleen soldatak gerorako eta gerorako utziz eta ahal zenean ordainduz.

IKASTOLA de Amezketa			
BALANCE ECONOMICO DEL CURSO ESCOLAR			
I.970 - 1971			
	DEBE Pts.	HABER pts.	SALI
Aportación de los niños			
27 niños entre 3-6 años, 100 pts por mes			
20 niños entre 6-9 años, 150 pts por mes			
Por 10 meses de escolaridad,.....		57.000	
Donación de la Caja de Ahorros Provincial		5.000	
Donación de la Papelera del Aralar,...		5.000	
Donación de Talleres Burnizko,.....		5.000	
Dos Bienechore,.....		10.000	
Cuotas de los Socios,.....		16.320	
Sueldos de 2 andereños,.....	150.000		
Seguros,.....	12.000		
Transporte escolar entre Ugarte-Amezket	20.352		
Material escolar,.....	4.800		
Mobiliario escolar,.....	9.300		
Calefacción,.....	1.600		
	198.052	98.320	

Ikasturte honetan soilik, aurrekoetako emaitza kontuan hartu gabe, ia 100.000 pezetako zorra gaineratu zuen Ikastolak. Eta, beste behin, udalaren laguntzarik gabe.

1971-1972ko kontuek diotenez, berriz, sarrerak inoiz baino esanguratsuagoak izan arren, 35.852 pezetako zorra izan zuen. Azpimarratzekoa da OARGIk egindako ekarpena: 30.000 pezeta. Bejondiezaiela!!

Adibide modura agerian jarritako emaitza ekonomikoek adierazten duten larritasuna gordina da. Hona laburpena:

**1966-1967 ikasturtea**  
 .....ez dugu agiririk.  
**1967-1968 ikasturtea**  
 .....-33.300 pezeta  
**1968-1969 ikasturtea**  
 .....-116.650 pezeta

**1969-1970 ikasturtea**  
 .....ez dugu agiririk  
**1970-1971 ikasturtea**  
 .....-99.732 pezeta  
**1971-1972 ikasturtea**  
 .....-35.852 pezeta

Eta Udalak jarraitzen zuen diru-laguntza eskaerei uko egiten. Horrela, hona Guraso Elkarteak 1969an egindako laguntza eskaerari ekainaren 14ko aktan ageri den erantzuna:

*“En relación al escrito que eleva la comisión de la Ikastola de esta villa, solicitando la concesión de subvención económica para hacer frente a los gastos de sostenimiento de la misma y considerando que dicho centro educativo se halla en trámite de legalización, la Corporación Municipal acuerda por unanimidad contestar a la mencionada comunicación en el sentido de que hasta tanto el expediente de legalización no se falle favorablemente el Ayuntamiento se ve imposibilitado de conceder ayuda económica a dicho fin y, en su día, autorizado el funcionamiento de la escuela, se podrá conceder a esta, mediante tramitación de expediente de modificación de créditos, la subvención que se crea conveniente”.*

IKASTOLA de Amezketá  
=====

BALANCE ECONOMICO DEL CURSO ESCOLAR  
I.971 - I.972

	DEBEpts	HABER Pts	SALDO Pts
30 niños entre 3-6 años, 100 Pts por mes			
26 niños entre 6-9 años, 150 Pts por mes			
por 10 meses de escolaridad,.....		69.000	
Donación de la Caja de Ahorros Provincial,.....		5.000	
Donación de la Caja Laboral Popular,.....		5.000	
Donación de la Papelera del Aralar,.....		5.000	
Donación de Talleres Burnizko,.....		5.000	
Cuotas de los Socios,.....		13.500	
Oargui de Amezketá,.....		30.000	
Partido de Fútbol,.....		22.000	
Sueldo de 2 andoreños,.....	150.000		
Seguros,.....	12.000		
Transporte Escolar Ugarte-Amezketá,.....	20.352		
Material escolar,.....	5.200		
Calefacción,.....	1.000		
	189.352	154.500	34.852

Amezketá 14 de Julio de 1.972

Beraz, urtez urte zorrak gora. Hala ere, antolatzaileak eta sustatzaileak aurrera. Antza, hauen goiburu edo lema zen: **“Zorrak zor, lepoa lodi ala mehe, gu beti aurrera”**.

Kezkagarria zen sortzaile eta laguntzaileentzat ikastolak eta ikastolako guraso zein laguntzaileek jasaten zuten injustizia. Ikastolara zihoazen ikasleak herritarrak ziren eta euren familiak zergak ordaintzen zituzten beste herritar guztiak bezala. Halere, euren hezkuntza finantzatzeko ez zegoen dirurik; ez zuten merezi, antza. Ondorioz, guraso zein laguntzaileek bigarren eta hirugarren zergekin zigortu zituzten.

Buruhauste horiez gain, eta arazo horien ondorioz, bazen arduradunak bereziki kezkatzen zituen ezina: irakasleen soldata garaiz eta duintasunez ordaintzeko zailtasuna. Hilabe-teak pasatzen zituzten soldata jaso gabe.

*Ez genuen hilero jasotzen, nola ba! Guk bagenekien dirurik ez zegoela eta ia-ia normaltzat hartzen genuen berandu eta zatika soldata jasotzea. Izan ere, irakasleok, ikasleekin lan egiteaz gain, juntako edo zuzendaritzako partaide ere baginen eta han ikusten genituen diru premiak ikusita, normaltzat genuen ahal zenean kobratzea.*

*Beste garai batzuk ziren eta gu ere garai horretako errealitatera egokituak geunden. Gaurko ikuspegitik zail egiten da hura ulertzea. Bazen gudan barne indar berezia proiektuarekin lotzen gintuena.*



**Joxepi Saralegi**

Ordiziako Ikastolarekin Bailara Txikia antolatu zenean, lana handitu egin zitzaigun, baina diru iturriak ere bai. Eremu horretan aipatzekoak dira diru iturri hauek: gurasoen kuotak, laguntzaileen kuotak, taberna eta tonbola herriko jaietan, zozketak, mota guztieta-ko jaialdi eta ekitaldiak (dantzaldiak Egan edo Akelarre taldearekin), Mafre aseguru etxea-ekin akordioa...

Amezketarren diru-ekarpena eta lan-ekarpena ezinbestekoa izan zen. Eskerrak eman behar zaizkio, zeharka bederen, gizarteak bizi zuen ekonomia egoerari. Lana bazen eta hori medio oinarrizko beharrak ere aseta zeuden oro har. Bestela nola izan ikastolarekiko hain esku zabala?

Hala ere, soka lepoan gero eta estuago.

*Joxe ere, hasierako urte haietan, buru-belarri saiatu zen San Bartolome Ikastola martxan jartzen eta indartzen. Ikasgela berriak behar zirela-eta, bera ere bazkide izan zen. Beraz, Joxe Arandia ere loturik geratu da betirako San Bartolome Ikastolaren proiektu garrantzitsuan.*



**Joxe Arandia**

## 9\_GURASOEN ETA IKASLEEN GARRANTZIA

Ikastolara zihoazen ikasleen kopurua Nazionaletara zihoazenena baino nabarmenki txikiagoa zen. Eskola Nazionalera zihoazenak kopuruz eta herri-babesez indartsuagoak ziren eta ikastolako ikasleek ere nabari zuten presio hori, zenbaitetan batzuk beldurra sentitzearaino. Iseka egiten zieten preposizioak buruz ez zekizkitelako (a, ante, bajo, cabe...) edota Espainiako ibaien izenak errenkan esaten ez zekitelako. Euren ez jakin arren eta zenbait iseka eta mesprezu jaso arren, garrantzizkoak izan ziren, Euskal Eskola berriaren ernamuin izan baitziren.

Eta berdin gurasoak. Ikastola bere seme-alabentzat hautatu zuten gurasoek ere apustu handia egin zuten. Benetako ausardia izan zuten indarrean zen sistemak bere-berea zuen Eskola Nazionala utzi eta garbi nora joko zuen ez zekiten eskaintza berri baten alde jartzeko. Herrian, ikastola martxan jartzean sortu zen arrakala edo zatiketa handia izan zen, eta larrutik ordaindu zuten ikastolaren aldeko hautua egin zuten gurasoek zein ikasleek. Hauei ere zor zaie beraz, Euskal Eskola berriaren bide urratzaile izatea. Zorionak zuei guztioi.

*Herriko guraso batzuentzat behintzat, ikastolara seme-alabak bidaltzeko aukeraz baliatu ginenok, batetik inozoak, aingeruak eta axolagabeak ginen. Eta bestetik, erreboltariak, gobernuari aurka egitera ausartzen ginenak. Izan ere, eurek ziotenez, legez kontrako eskola euskaldun batera nola bidali daitezke seme-alabak? Begiradetan eta esamesetan zenbaitek oso nabarmen epaitzen gintuen.*

**Guraso batek**

Gurasoak ziren ikastolaren oinarria eta muina. Euren nahi eta erabakiz sortu zen, eurek biltzen zuten dirua, erosten gelak ikasgela bihurtzeko, atontzen gelak eta aurre egiten arazoek. Kezkak izan zituzten, noski, baina gehienek aurrera egin zuten, nahiz eta batzuek bidean atzera egin. Guraso horiek era zuzenean hartzen zuten parte ikastolako martxa edo prozesu osoan. Hori, tamalez, ez zen gertatzen garaiko Eskola Nazionalan.

Amezketako ikastolara Ugarteko ume batzuk ere etortzen ziren. Eta autobusik ez zegoenez irakasleak eta gurasoak aritu ziren txandaka eskolaumeak garraiatzen. Dena boluntario modura noski. Arduradunek diotenez, lehenengotakoa izan zen Koro irakaslea, bera joaten baitzen ikasleen bila bere “*mini*” ezagunean.

Lana garrantzizkoa eta ardura handikoa zen. Boluntarioak izateaz gain, arrisku handikoa zen egiten ari zirena, zerbait gertatuz gero legearen babesik gabea. Hori bazekiten. Hala ere, ikasleak ekarri egin behar ziren eta ekarri egiten zituzten.



Ugarte auzoa.

Guraso asko aritu zen lan horretan. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago. Hona ohi-koak ziren horietako batzuk: Gregorio, Koro, Batiste, Arantxa, Joxe Sagastume, Juan Amundarain etab. Eta noizbehinka, berriz, zerrenda luze bat. Konpromiso handiko garraioa zen. Batetik, ume gehiegi garraiatzen zen eta egunero lau bidai. Horiek guztiek merezi dute aipamen berezia. Hona guraso horietako batzuen argazkiak:



**Koro  
Zabala**



**Batiste  
Galartza**



**Nemesio  
Etxeberria**



**Alberto  
Etxeberria**



**Joxe  
Sagastume**



**Juan  
Amundarain**



**Gregorio  
Alijostas**



**Mikel  
Amundarain**



**Eladio  
Balerdi**



Behin, ordea, Korok istripua izan zuen. Horrela kontatu digu Koro zenaren senarrak Korori gertatua:

*Behin, Ugarteko ikasleak zekartzala, istripua izan zuen. Ikasle bat, konkretuki Erramun Etxeberria, harrapatu zuen. Une gogorak izan ziren. Horren ondoren, Korok ez zuen bere kotxea gehiago erabili ikasleen garraiorako.*

Ikasleak ere benetan aztoratu eta tristatu zituen istripuak. Hona horren testigantza:

### ISTRIPUAK DENOK TRISTATU GINTUEN

Amezketako ikastolan ibili nintzen garaiko bizipenak kontatuz lerro batzuk idazteko eskaera egin zidatenean, garai hartako argazki bila hasi nintzen, baina ez nuen gauza handirik aurkitu; ordukoak beste garai batzuk ziren, ez genuen hainbeste argazki ateratzen, eta gutxiago bideoan grabatu; hortaz, buruari eragitea besterik ez zait geratu.

Nire oroitzapenak arakatur, hara non topatu dudan haietako bat bideo formatuan. Zer ikusiko bideoan eta Ugartetik Amezketarako joan-etorriak!!! Zenbat joan-etorri egin ote ziztuzten txandaka andereño Koro, Olako Joxe, Batiste Galarza eta gure aita Mikelek?

Bat-batean, joan-etorri horietako batean gertatutakoaz oroitu naiz: andereño Kororekin gindoazen eta Jauregi Txiki inguruan, ez dakit nola gertatu zen, baina gure ikaskidea zen Ramon Etxeberria kotxearekin harrapatu genuen. Garrasika eta negarrez hasi ginen, okerrera pentsatu baikeuen, eta ez ginen lasaitu hurrena Jauregi Txikira gure lagun Ramon bisitatze-  
ra joan eta hanka igeltsatuta sukaldean irribarretsu ikusi genuen arte.

Argazki formatuko oroitzapen bat ere aurkitu dut. Hortxe gure ikastola barrutik nolakoa zen ikusten da: pasilloaren ezkerretara andereño Koro eta andereño Joxepiren gelak; eskuin aldean, komunak; eta pasilloaren bukaeran, ikastolako atzealdean hesiz itxitako espazio batera zeraman atea. Ez dut gogoan nondik eta nolatan iritsi zen ikastolara, baina nor ez da gogoratuko hantxe izaten genuen dortokaz?

Audio formatuko oroitzapen bat ere entzun dut: sirena hotsa. Paper fabrikako sirena hotsa!!!! Hori entzunda jolas-garaiez oroitu naiz: ze gustura ibiltzen nintzen futbolearen eta nola sartzen ginen korrika ikastolara paper fabrikako sirena hotsa entzun bezain pronto.

Eta azkenik hainbat oroitzapenez osatutako collage bat ikusi dut: herri inguruan egindako irteera, ikasturte bukaerako txangoa, tonbola, Olentzero, Gabon eskean ateratako talde handia, Xabiertxo liburua, Larraitzen egindako jaialdia...

Gure guraso, irakasle eta herritar askoren nahia hortxe ikusten da: ikastola euskalduna, herritarra eta euskal kultura sustatzen zuena, maila pedagogikoan ere berrikuntzak sartzeko irekia. Elkarlanean, guztien ahalegin eta ilusioarekin, oztopo ugari gaindituz lortu zutena. Eta, noski, nire bizitzaren norabidea neurri handi batean markatu duena.

**Maite Amundarain**





*Ikasleak ibilaldi batean.*



- 1\_ Aitziber Ruiz
- 2\_ Axier Amundarain
- 3\_ Jose Ramon Garzia
- 4\_ Gloria Otaegi (gurasoa)
- 5\_ Lenengo Telletxea
- 6\_ Juan M<sup>a</sup> Ruiz
- 7\_ Leire Eizmendi
- 8\_ Joxepi Saralegi (irakaslea)
- 9\_ Aitziber Karrera
- 10\_ Amagoia Etxeberria
- 11\_ Izaro Galartza
- 12\_ Mikel Gurrutxaga
- 13\_ Luis M<sup>a</sup> Larreta

- 14\_ Mikel Solis
- 15\_ Albert Etxeberria
- 16\_ Andoni Belaunzaran
- 17\_ Iraitz Galartza

- 18\_ Xabier Saizar
- 19\_ .....
- 20\_ Eneko Karrera
- 21\_ Edu Etxeberria





*Irakasleei eta Maritxuri omenaldia.*

Lege arazoak nahikoa ez eta herrian baziren kritikak ere. Ikastolaren lanketa kritikatzan zutenek hauxe zioten: **“ez dute ezer ikasten, marrazkiak egiten eta ipuinak kontaktzen pasatzen dute denbora, irakurtzen eta idazten ikasi ordez”**. Eta egia zen marrazkiak egiten zituztela, ipuinak kontatu eta asmatzen zituztela, bai, baina ez denbora galtzeko, dena baitzegoen irakurketa prozesua ondo garatzera bideratuta. Hori guztia gurasoek jasaten zuten batez ere. Eta hainbeste arazo eta kritikek guraso batzuegan ere izan zuen eragina.

Beraz, baziren kezkek. Irakasleak saiatzan ziren oinarririk gabeko kritika horiek indargabetzen, egiten zen guztia zergatik eta zertarako egiten zen azaltzen. Dena dela, ozenki esan behar da ikastolaren aldeko propaganda onena ikasleek eurek egiten zutela, eta eurek lortu zutela gehienbat kezkek eta zalantzak uxatzea. Gerora ere garbi ikusi da bide zuzenetik jo zuela San Bartolome ikastolak. Galdetu bestela ikasle ohiei!

Egia da berrikuntza orok dakarrela ausardia eta konfiantza beharra. Aurreko pedagogia sistema zaharrak zekarren jantzi zaharkitua utzi eta berria hartzeko, noski, hautatutako bidean fede sendoa behar da. Eta zalantzi dagoenari ingurukoek ere esaten badiote jolastea, ipuinak entzutea eta marraztea zela nagusi ikastolan eta irakurtzen ikasteari ez zitzaiola garrantzirik ematen, ezta gatzelera ikasteari ere, erlijioa alboratu egiten zutela, bada kezkatu egin behar. Gainera, ikastolaren aurka zeudenek, ezjakintasunez edota maleziaz, mezu hori indar handiz zabaltzen bazuten herrian, oraindik larriago.

Garai zailak izan ziren. Dena dela, gaurko ikuspegitik, inongo zalantzarik gabe esan eta ziurta daiteke hautatutako bidea egokia izan zela eta gaur egun erabiltzen denaren oinarri izan zela. Beraz, jakizue guztiok aitzindari izan zinetela, bide berriaren urratzaile. Zuei guztioi dagokizue meritua eta ohorea.

Ikasle ohiak ere aho zapore onarekin oroitzen dute ikastolan eginiko bidea eta irakasleen eurekiko jarrera eta portaera. Horren lekuko modura, gogoan dute irakasle zein ikasle ohiek 2009an eginiko elkarretaratzea eta bazkaria. Ekimena ikasle ohiek antolatu zuten eta euren asmoa zen irakasle ohiak eta katekista omentzea. Hona, egun horretan, eskerronez, irakasleek ikasle ohiei banatutako eskerronezko agiria:

**IKASLE OHI ETA LAGUN ZARETENOI, AGUR:**

1966an sortu, eta ondorengo 14 urteetan Amezketako ikastolan elkarrekin bizitako oroitzapenak gogoraturaz, oso onak ia denak, elkartu gara gaurko honetan orduko ikasle, katekista eta irakasleak,

Polita da, benetan, ikasle txiki haiek gaur benetako gizon-emakume bihurturik ikustea, haietako batzuen seme-alabak gure ikasle izatea, eta hunkigarria, zinez, oraindik ere zuek gutaz gogoratzea.

Beraz, milaka esker eman nahi dizkizuegu gaur hemen elkartzeko, zuek guztiok, era batera edo bestera, egin duzuen ahalegin bereziagatik, ziur baikaude gaurko eguna betirako gogoan izango dugula.

Gogoan izango ditugu baita ere gaur hemen gurekin elkartu ez diren, baina gure IKASTOLA aurrera ateratzeko parte oso garrantzitsua izan zuten zuen gurasoak. Bihoazkie haiei ere, zuen bidez, gure eskerrik beroenak, denon ahaleginik gabe ez baitzen hura guztia posible izango.

Hori dela eta, mila esker guztioi, bihotz- bihotzez.

Maritxu, Koro eta Joxepi

Amezketan, 2009ko otsailaren 1ean

## 10 IRAKASLEAK, MOTIBAZIOZ BLAI!

Sortzaileak, laguntzaileak, gurasoak eta ikasleak Euskal Eskola berriaren eragile izan ziren bezalaxe, eta goraiatu ditugun bezalaxe, goraiatu behar dugu irakasleen lana, iraunkortasuna eta portaera. Euskararen aldeko, euskal kulturaren aldeko eta pedagogia berriaren aldeko langile sutsuak ziren. Benetako militanteak izan ziren.

Nahiz eta soldata eskasa izan eta ahal zenean jaso, lanari profesionaltasun osoz heltzen zioten. Askotan ez zegoen ordu finkorik, behar zen denbora hartzen zuten, alor guztietan gabezia baitzen nagusi: ez zegoen oinarrizko materialik, ez zegoen euskarazko testurik.. Ikustekoa zen irakasleen dinamika. Zeuden gabeziak arintzeko, materiala sortzeko, esperientziak trukatzeko elkarlana zuten baliabide nagusia eta Ordizian, Beasainen, Tolosan... biltzen ziren. Etengabeko prestakuntza oinarrizko printzipio bilakatu zen ikastolen hezkuntza prozesuan.


Ikastoletan ere izan dira pedagogia berriaren aitzindariak. Aurrez aipatu dugunez, ezin ditugu ahaztu Elbira Zipitria, Feli Etxeberria etab. Horien lanak eta esperientziak hurbil-hurbileko eskola bihurtu ziren ikastoletako irakasleentzat. Horrezaz gain, korronte pedagogiko berriak ezagutzeko gogo bizia zen garai hartan eta maiz joaten ziren kanpora ere. Horrela ezagutu zituzten Rosa Sensat eskola mugimendua (Kataluniakoa) eta Freinet metodologia, besteak beste.

*Ikasleak jolasean Motan.*





- 1\_ Andoni Aiestaran
- 2\_ Aitor Amundarain
- 3\_ Ramon Etxeberria
- 4\_ Joxe M<sup>a</sup> Amundarain
- 5\_ Iñaki Etxeberria
- 6\_ Asier Etxeberria
- 7\_ Andoni Belaunzarán ??
- 8\_ Mikel Gotzon Amundarain
- 9\_ Joseba Karrera



## 11\_VILLAR PALASI LEGEA ETA ONDORIOAK (1970)

Ordura arte Moyano Legeak izan zuen lekua Villar Palasi izenez ezagutzen den legeak hartu zuen. Espainiako Estatuan irakaskuntza hobeto eta zehatzago arautzea zuen helburu. Legea 1970. onartu zen eta 1971an hasi ziren aplikatzen. Oso lege garrantzitsua izan zen eta Eskolaurretik hasi eta Unibertsitaterainoko bidea arautu eta zehaztu zuen. Horrek eskakizun handiak ekarri zizkien ikastolei eta kezka iturri bilakatu zen, egokitzapen berriak egin behar baitziren.

Legearen eskakizun edo betebeharrak horiek ikastola txikientzat oso zailak ziren eta go-riak pasa zituen San Bartolome ikastolak hasiera-hasieratik itxieratik libratzeko. Ordu-arte Amezketa ikastola oso egoera prekarioan zegoen: ikasgela eskasak, batean eta bestean barreiatuta ( udaletxean, Elizako sakristian, Laturun, eta ikasgela berrietan). Hori guztia hobetu behar zen. Eta horrek berriro ere, laburbilduz, zailtasun ekonomikoak areagotu zituen.

Oraingo talaiatik begiratuta, ordea, esan behar ekarpen positiboa ere bazekarrela berarekin. Eskola guztientzat, noski, ikastola barne dela, 1970eko legeak derrigorrezko eskolatze garaia zehaztu zuen: 6 urterekin hasi eta 14 urte arte luzatzen zen. Beraz, inprobisazioaren sokan aurrera zihoan ikastolari bere ibilbidea zehaztu zion. Hori bai, baldintzak oso garbi jarritz.

Ikastetxeak derrigorrez legeztatu egin behar ziren, beste gainontzean itxiera zetorren. Eskola Publikoek gain, eskola Pribatuak ere izan zitezkeela zehazten zuen. Legeztatze hona zenbait eskakizun:

- Ikasgela bakoitzak ikasleko 1,5 metro koadro izan behar zuen. Beraz, ikasgela berriak behar genituen.
- Irakasleek tituludunak izan behar zuten.
- Irakasleen soldatak eguneratu behar ziren.
- Ikasgela legeztatze ikasle-kopuru jakina ziurtatu behar zen.
- Curriculuma Espainiar Administrazioak zioenera egokitu behar zen.

Beraz, **ahulak ahulezia** esaten da eta hori gertatu zen Amezketa ikastolan ere. Horren harira, zorigaitzoko egun batean herriko erretorea aurkeztu zen ikastolak udaletxean okupatutako geletan eta irakasleei adierazi zien itxiera agindua zekarrela.

Gertaera horren nondik norakoaz iritzi ezberdinak jaso ditugu. Batzuek diotenez, agintariak, ikastolak euren ustez zeraman bidez izututa, erretorea bidali zuten itxiera agindua-ekin, segur aski bera zelako arduraduna. Beste batzuek diote Guardia Zibila etorri zela Amezketa agindua-ekin. Bigarren hau da argibiderik ziurrena: erretoreari eman ziotela aginduaren berri, eta hark eman ziela ikastolakoei ixteko agindua.

Osasun baldintzak ez betetzea izan zen ageriko arrazoia, ez ordea benetako. Herrian, gerra ostean, agintean zeudenek eta haien jarraitzaileek ez zuten batere gogoko ikastolak zeraman bidea: euskara, euskal kultura, gizarte berri bat...

Maritxu eta haren senar Gaxparren borondate onari esker ikastolako ikasleak Laturuko etxebizitzara eraman zituzten. Gainera ikastolako dinamikan zuzen-zuzenean hartu zuen parte Maritxu Mugerzak, erlijioa ematen baitzuen. Beti inguruan, beti prest ikastolari laguntzeko.

**Gaxpar Larreta**



Itxiera aginduak ezinegona sortarazi zuen herrian, batez ere ikastolaren bidea onartzen zutenen artean. Buruan du Bittori Etxeberriak, gertaera hori zela eta, nola ekin zion bere amak erretoreari: **erretore jauna, ba al dakizu zer egin diguzun? Ikastola itxi?** Guraso askoren negarrak eta kezkek aipatzen dituzte ikasle ohiek.

Udaletzeko aretoan hasi nintzen klaseak ematen, baina bi edo hiru hilabetera itxiarazi egin ziguten. Herritarren eraginez, ordea, Laturu baserriko etxebizitza batera aldatu ginen Lehen Hezkuntzakoak. Ez genuen denbora askorik galdu.

**Izaskun Zubeldia**

Gertaera horrek zenbait gurasorengan, lehenaz gain, larria eta kezka areagotu zituen. Ikastolaren aurkakoek egoeraz baliatzen jarraitu zuten presio itzela sortarazten eta pedagogia zein metodologia alorrean urratutako bidea gutxiesten: ikastolan ez zela ezer ikasten, jolas besterik ez zutela egiten, irakurtzen ere berandu hasten zirela... Horri gaineratzen badiogu itxiera, hau da, legez kontra zegoenaren adierazpena, bada, gauza serioa zen. Hori dela eta, zenbait gurasok Eskola Nazionalera eraman zituzten seme-alabak. Horrek ere min eman eta egin zion ikastolari.

*Albert Etxeberria, Amagoia Etxeberria, Juan Mari Amundarain, Aitor Amundarain, Asier Amundarain eta Andoni Belaunzarán.*



Dakigunez, berehala eman zitzaion itxierari behin-behineko konponbidea. Izan ere, Ikastolaren aldekoek ez zuten amorerik eman eta erretorearengana jo zuten esanez: “**Erretore jauna, ixteko agindua ekarri duzu, baina guk ez dugu amorerik emango. Eta gela berri eta egoki batzuk elkarrekin aurkitu behar ditugu. Gu ere herritarrek gara eta beste eskubide berberak ditugu**”.

Elkarrizketa eta tentsiozko harreman horietan erretoreak sakristiaren aukera jarri zuen mahai gainean. Horrela, besterik ezean eta behin-behinekotasunarekin, Eskolaurrekoak elizako sakristian kokatu eta eskolatu zituzten eta Lehen Hezkuntzakoak Laturu etxeke etxebizitzan. Hau guztia 4. ikasturtean gertatu zen.

### **IKASTOLA, KALEAREN LUZAPENA**

Oso atzean gelditu zaizkit ikastolako oroitzapenak. Udaletxeko garaia oso lauso gogoratzen dut; sakristiakoa, Kororekin egon ginenekoa, garbiago dakusat; eta plazakoa, Joxepirekin, oroitzen dut garbiena.

Amezketan igarotako nire haurtzaroko sentipen eta oroitzapen gehienak onak dira. Haur zorionsua nintzen, kalekumea, Amezketako plaza eta frontoian makina bat jolas egindakoa. Ikastola kalearen luzapen bat zen, eta nire jakinmina han asetzen zen: jolastuz, abestuz... lagun artean.

Komuna zen guretzat paraje misteriotsua. Nahiz eta sakristian ongi pasatzen genuen eguneroko lanetan eta jolasean, armairuan apaizaren sotanen artean gordez, beldurra ere pasatzen genuen, nola ez. Izugarritzko beldurra genion komunera joateri. Sakristian bertan, trenkaz isten zen ate handi sendo bat zegoen eta horrek pasabide luze beldurgarri batera eramaten zuen; gainera, batzuetan saguak ibiltzen ziren han, eta pasiloaren bukaeran, beste ate baten ondoren, komuna aurkitzen zen, harrizko edo adreiluzko koskarekin, goraino hel gintezen. Gehienetan nahigo izaten genuen pixari eutsi komun harretara joan baino.

Komunerako bide horretatik pasatzen ginen bakoitzean jasotzen genuen petrolio edo galipot arrastoren bat. Gero etxean jasotzen genuen sermoia ere ez zen txantxetako izaten. Izan ere, zer nolako garbiketa lanak eramaten genituen etxera!

Ikastolaren hastapenak ez ziren errazak izan gure gurasoentzat, Amezketan iritzi ezberdinak zeuden, batzuk ikastolaren alde eta beste batzuk kontra. Pentsa, niri oraindik umea izanik, horrelako esaldiak entzuteak min ematen zidan: “Ikastolako umek eztue ezer ikasten, jolasa besteik eztue itten”. Zorionez guztiok edo gehienok goi mailako ikasketak egin ditugu.

Gurasoen arteko iritzi kontrajarriak ere garbi ikusten ziren haurron arteko harremanetan, plazara jolastea ateratzen ginenean, alde batetik ikastolakoak eta bestetik eskola nazionaltakoak ibiltzen ginen. Zorionez egoera horrek garai hartako haurrak ez gintuen markatu, lagun izanez amaitu baitugu.

**Ana Etxeberria**

Egia da, bestalde, ikastolen mugimenduan, ikastola handiak hobeto egokitu zirela lege berri horretara txikiak baino. Hau da, ikastola txikientzat itolarria zekarren soka estuegia bazen ere, ikastolei, orokorrean, norabidea argitu zien. Adibidez, Moyano Legearen garaian, eta Elbira Zipitriaren lana garai horretan kokatzen da, hezkuntza arautua 9 urtera arte luzatzen zen. Beraz, han bukatzen zen ikastola. Orain, ordea, arauak betez gero, aurrera jarraitzeko aukera zuten. Norabide jakin eta zehatzik ez zuen sortzaileen ausardia, bere bidea egiten hasi zen.

Oraingo begirada garai hartara luzatuz gero, galdetu daiteke ea Villar-Palasi legea bete ezean itxiera ote zen aukera bakarra. Oraingo talaiaitik begiratuta, agian ez. Izan ere, bazen beste bide bat: Eskola Munizipalak edo Foru Aldundiarenak sortzea eta titularitatea haien esku uztea. Horrelako zerbait da egun ere indarrean zenbait herrialdetan: Finlandian, Kanadan, Danimarkan, Singapurren... Hauetan, udalak hautatzen ditu irakasleak eta lau urte igaro ondoren irakasleen lana ere ebaluatu egiten da. Beraz, ikasleez gain, irakasleak ere ebaluatu egiten dira. Hori dela eta, etengabeko prestakuntza jaso behar dute, euren lana guztiz garrantzizkoa baita, prestigio handikoa, oso ondo ordaindua eta ikasleen prestakuntza ona da dinamika horren ondorio zuzena. Ez da, noski, kasualitatea Pisa ebaluazioetan herrialde horiek izatea hobekien baloratuak. Baina hori guztia beste kuku baten abestia da.

Beraz, aurrera pausoak eman ahala, beste arazo batzuk sortzen joan ziren; etengabekoa zen presioa; horren lekuko, itxiera agindua. Urratutako dinamikatik ondorioztatuak ziren

arazo batzuk, normalak edo ohikoak. Beste batzuk, tamalez, Espainiako Gobernuak ezarriak ziren, baina hala ere, gairidigarriak ziren eta, buruhausteak buruhauste, erakundeari heldutasuna eta trinkotasuna ere ematen zioten.

Amezketako ikastola ere, egoera berri-  
ra egokitzeko eta behin behineko egoeratik irteteko, gela berrien bila hasi zen. Horrela, Benta Etxea egiten ari zen kontratistak etxearen azpialdea eskaini zion Ikastolari. Lehen sozio eta berme-emaileak hauek izan ziren: Nemesio Etxeberria, Alberto Etxeberria, Joxe Etxeberria, Eladio Balerdi eta Gregorio Alijostes. Geroago bazkide kopurua handitu egin zen eta 50 pertsona inguru bihurtu ziren bazkide. Honela kontaktzen du gertaera Alberto Etxeberriak:

*Behin, sagardotegitik gentozela, ezagutzen genuen Orbe kontratistak lokalak eskaini zizkigun. "Ikastolarako direnez, nik prezio onean emango dizkizuet, baina baldintza batekin: ez dezazuela lokal hori negozioa egiteko erabili."*



*Ikasgela berrien kokapena.*



Lokal horietan bi ikasgela eder antolatu zituzten, materiala gordetzeko gela txiki bat eta komunak. Oinarrizkoa eginda zegoen, eta legeak eskatzen zuena osatuta. Kokapena ere egokia zen, ikasleek jolas egiteko ere bazuten eremu egokia: herriko plaza eta frontoia.

Izaskun Zubeldia, bere ikasgela legezatu eta urtebetez lan egin ondoren, Amezketako ikastola utzi eta Oiartzungo Haurtzaro ikastolara joan zen lanera. Haren ordeztu Joxepi Saralegik hartu zuen Lehen Hezkuntzako ardura. Joxepik Donostian egin zituen hiru urteko ikasketak. Ikasturte horietan ikastoletara bideratuko ziren irakasleentzat prestatutako erresidentzian egon zen. Erresidentziako arduradunek bazekiten ikastolako helburuak betetzeko ez zela nahikoa irakasle-eskola ofizialean ikastea eta titulua ateratzea. Beharrezko baldintzak zirela: euskara hobetzea, euskal kultura eta historia ezagutzea, pedagogia berriaren lan ildoetara jabetzea... Gainera, irakasle-eskolako ikasketak amaitu ondoren, urtebetez jarduten zuten ikastoletan praktikak egiten, hau da, esperientzia praktikoa jasotzen eta ezagutzen. Horiek guztiak egin ondoren etorri zen Joxepi Amezketara.

Horrela osatu zen irakasleen koadroa: Korok, Haur Hezkuntzakoak zituen bere ardurapean eta Joxepik, Lehen Hezkuntzakoak.

## 12 IKASTOLA ETA ELIZA

Garaiko testuingurua ezin dugu ahaztu. Garai horretan, Elizak eta Gobernuak osatutako elkarteak eragin zorrotza izan zuen gizarteko eremu guztietan. Diktaduraren hasierako urteetan oso-oso gogorra, bai Elizarena eta bai Gobernuarena; urteak aurrera joan ahala, noski, malgugaria. Beraz, hasiera horretan, erlijio gaietan oso ikuspegi zaharkitua eta zurruna zen eurena, eta muga horietatik ateratzen zena publikoki iraintzen eta madarikatzen zuten. Horren lekuko dira dantza lotuaren, ezkontza aurreko sexu harremanen eta herriko mugimenduen aurkako neurriak gaineko errezelo ezkorrak. Pentsaera hori zuten zenbait irakasle ere. Amezketako Eskola Nazionaleko ikasle ohi askori entzun diegu, buruan grabaturik baitute irakasle batek, Amezketako egoeraz kezkatutik, maiztasunez errepikatzen ziena. Hauxe dio Mikel Etxeberriak:



*“Dios será más compasivo con Sodoma y Gomorra, que con Amezqueta” Guk, eskolan ikasita, bagenuen Sodoma eta Gomorraren berri, axaletik bederen, Historia Sagrada irakasten baitziguten. Baina, hain zuzen, esaldi izugarri horrek ez zuen guran dardara berezirik sortzen, ez baikinengatik gaituzten gertatzen ari zenaren eta Historia Sagradak zioenaren arteko lotura ulertzeko gaituzten, eta eskerrak, noski.*

Garbi dago, beraz, Guraso Elkarteak eta OARGIk Amezketan irekitako bidea ez zutela batere gogoko Elizaren eta Gobernuaren ordezkari zaharrek. Herritarrek, berriz, bide berriak jo nahian, elkartu eta antolatu beharra zuten. Baina hori galarazita zegoen, frankisten mugimendu nazionalaren ildotik edota Elizaren erakundearen babesean izan ezik. Amezketarrek, Goierriko beste herrietan bezala, Elizaren babesa hautatu zuten. Bai, berez Elizarenak ziren “Guraso Elkarte” eta “OARGI” erakundeak, Elizak jarri zituen abian, kristau elkarrekin modura. Elizaren helburu nagusia kristauen taldeak antolatzea bazen ere, herritarrek beste egiteko batzuetarako ere erabili zituzten. Horrela, erakunde horietatik at elkartzea galarazita egon arren, Elizaren antolamenduetan elkartzeko aukera izan zuten eta babestuago sentitu ziren gobernuko ikuskari eta polizia indarretatik.

## AMEZKETAKO GURASO ELKARTEA



Amezketak ere, Goierriko ereduari jarraiki, izan zuen bere Guraso Elkarte. Lekukoek diotenez, 1963-1964rako abian jarri bazen ere, 1966ko urriaren 20an eratu zen formalki, eta 1974ko otsailaren 28an egin zen hura legez desegiteko batzarra.

Elizaren babesean antolatu zenez, hauxe zen haren izen ofiziala: “Amezketako Parrokiko Guraso Katolikoan Elkarte”, eta elkartearen helburuez hauxe zioten estatutuek: “Itz bitan esanda, aur ta gurasoen gogo-gorputz bizitzarako ta Amezketara erriko pamilientzako on eta onuragarri litekeen guzia, kristautasunaren ikuspegitik”.

Hasieran indar handia izan zuen, 60tik gora bazkide izateraino. Lan handia eta dinamika bizia izan zuen. Saiatu zen kristau bizitza hobetzeko ikastaroak antolatzen, herriko beharrak orokorrak asetzen, udalari eskaerak egiten, herritarrek heziketa maila hobea izan zezaten hitzaldiak, bilerak eta eskolak sortzen eta antolatzen. Irakaskuntza eta heziketa alorrean, Amezketarentzat oso garrantzizkoak izan ziren bi erabaki hartu eta praktikara eramane zituen Guraso Elkarteak. Bi eremutan garatu ziren proposamenak.

Batetik, eskola nazionalean zenbiltzan haurren guraso batzuek kezkatuta hurbildu zitzaizkien esanez Amezketan ikasten jarraitu nahi zuten ikasleentzat ez zegoela batxilerra egiteko aukerarik, eta hori arazoa eta muga handia zela. Bestetik, Aralar Paper Lantegia martxan jartzera zihoan batxiler eskaintzak ez zituen onartzen langileen alabak eta bertako langile ez zirenen seme-alabak. Hari horri jarraiki, komeria asko eta lan itzela egin ondoren lortu zuten Amezketan batxilerra jartzea. Komeriak eta bi ikusi zituzten bidean. Irakasle nagusia Abaltzisketako Katalina zen. Eta gaztelera indartzeko kanpotik ekarri zuten beste irakasle bat. Emakumea zen irakaslea, baina ez zen Amezketara egokitu eta ikasturtea amaitzean lana utzi zuen.


Abaltzisketako Katalina izan zuten irakasle printzipala. Garai hartako ikasleek eskerrona besterik ez dute adierazten Katalinaz hitz egitean. Hura bai irakaslea, noski, diote. Ikasketak gaztelera izan arren, norbaitek ulertzen ez bazuen, borondate on guztiz argitzen zizkien zantzak euskaraz. Amezketak eta amezketarrek asko zor diote Katalinari.

Bestetik, eurek izan ziren Amezketako San Bartolome Ikastolaz pentsatzen hasi, lehen pausoak eman eta martxan jartzeaz arduratu zirenak. Gero, OARGIrekin batera pausoz pauso jarraitu zuten ikastolaren ibilbidea.

Guraso Elkarte, urte batzuk igaro ondoren, desegin zenean, zituen diru apurrak, konkretuki 5.136 pezeta, eta egoitzan zituen altzariak ikastolari eman zizkion, Gotzainaren eta Gobernadore Zibilaren baimenez. Elkartearen ibilbidea 1974an amaitu zen, bazkideen interes faltak eraginda.



69ko Eguberriak.



- 1\_Joxe M<sup>a</sup> Arandia
- 2\_Bittori Galartza
- 3\_Lurdes Galartza
- 4\_Maribel Lizaso ??
- 5\_Eba Garmendia
- 6\_.....
- 7\_.....
- 8\_Anparo Garmendia

## 12.1\_Goi mailako eliz erakundearen esku hartzea

Behin baino gehiagotan adierazi badugu ere, ikastolek inongo baimen edo lizentziarik gabe sortu ziren. Legeak ez zituen babesten; hala ere, lehen urtetan nola edo hala aurrera egin zuten. 70. urtean, ordea, mugarri izan zen, eta ikastolak nonbaiteko babes bila saiatu ziren.

Hasiera-hasierako egoera larria neurritz gain larriagotu eta areagotu zuen Villar Palasi legeak. Egoera horri aurre egiteko, hau da, arau berrietara egokitzeko, arestian aipatu dugunez, Euskal Herriko zenbait abertzale eta intelektual esanguratsu mugitu ziren eta Elizari eskatu zioten babesa, haiek bai baitzuten Konkordatuaren berri eta bai baitzekiten Elizak legeztaz zitzakeela babesik gabe zeuden ikastolak. Eta Elizak babesa eskaini zion. Honela osatu zen urtetan aurrera egingo zuen IKASTOLEN ELKARTE BATZA.

Ikastola gehienek positibotzat hartu zuten Elizako goi organoak, hau da, gotzaingoak emandako babesa. Haren aterkipean legeak etengabe jartzen zituen trabei aurre egin zieziaiketen denboraldi batean. Izan ere, Gobernuak Elizaren erakunde eta eskolei kontra egiteko erreparo gehiago izaten zuen.

Eskolak legeztatzeko ahalmena Elizak nondik nora zuen argitzearren, jauzi egin behar da Espainiako Estatuak Erromako Elizaren “Egoitza Santua” deritzon organoarekin sinatutako dokumentu garrantzitsura, hau da, KONKORDATURA. Akordio horri esker Elizak bere egiten zuen eskolak sortzeko ahalmena. Horren harira sortu ziren han eta hemen eskola erlijiosoak. Eta, noski, bide horretatik Eliza saiatu zen kristautasuna hedatzen.

Horrela, Euskal Herriko Elizak hartu zuen bere gain ikastolen titularitza. Herriko erretorea zen ikastolako arduraduna. Garbi dago, noski, erretorea zela ageriko burua, bera zela legearen aurrean zuzendaria, baina azpi-azpian lurralde bakoitzeko gotzaina zela herrietako erretoreei aginduak ematen zizkiena. Herri batzuetako erretoreek, euskaltzaleak zirenak, gogoz hartu zuten ardura. Beste batzuei buruz, ordea, ezin esan gauza bera. Zerbait egitera heldu baziren ere, ez zen izan euren borondate hutsez, herriak eta herritarrek egindako presioagatik baizik. Halere, titularitza berea izan arren, Elizak ez zuen bere gain hartu aginte osoa. Noski, dotrina emango zuten agian, baina irakasleak hautatzea eta kontratatzea, diru iturriak bilatzea, eremu pedagogikoa... guraso eta laguntzaileen esku egon zen beti.

Eta Elizaren babesa jasotze horretan, lehen aipatutako eragileez gain, lan eta ahalgin berezia eta eskertzekoa egin zuen baita ere Jaxinto Setienek. Apaiza zen orduan eta Goierriko ikastolak sortzeko prozesuan gogor egin zuen lan. Apaiza izanik, bazekien, ondo jakin ere, Elizak bazuela lege-ahalmena eskolak sortzeko eta bere babesean ikastola legeztatzeko. Horretara bideratu nahi zuen Amezketa erretorea ere. Askotan bildu zen berarekin. Hori lortzearren, behin bilerara deitu zuten erretorea eta kontzejupean bildu ziren. Antolatzaileek pentsatu zuten eraginkorrako izango zela bilera horretako gidaritza emakumeek izatea. Horrela, emakumeak soilik bildu ziren Don Emigdiorekin. Beraz, garbi dago, ikastolaren bizi iraupenean ere emakumeen jarduna emankorra eta eraginkorra izan zela.

Hurrengo pausoa, ikastola Elizaren eskola bihurtzeko, dokumentazioa prestatzea izan zen eta erretoreak sinatzea. Amezketan, lanak pilatu ziren, antza, eta horretarako epe-muga ustekabean gainera etorri zitzairen. Ohartzerako egun bat zuten soilik horretarako eta Nemesio Etxeberriak horrela kontatzen du erretorearekiko harremana:

*“Hartu dokumentazioa eta, egun bateko epea genuenez, juxtu-juxtu, erretorearen etxera joan ginen presaka. Hura, ordea, ez zegoen etxean; ehizan zela jakin genuen, Altzomendin. Bertara abiatu ginen, baina han berriz etxera itzulia zela adierazi ziguten. Berriz etxera. Han aurkitu genuen eta han sinatu zigun dokumentazioa”.*

Elizaren babesa, uste dugunez, ez baitugu horri buruzko agiri ofizialik, hasiera-hasieratik ez bazen ere, nahiko azkar ziurtatuko zen; 1968-69ko ikasturterako bai, ziur aski. Beraz, Amezketako San Bartolome ikastola Gipuzkoako Eliz-Barrutiko eskola izan zen. Zehatzago esanda, San Bartolome Elizakoa. Eta horrela iraun zuen 1979 arte, hau da. Amezketako ikastolaren amaiera arte. Erretorea izan zen ikastolaren arduraduna.

IKASTOLEN ELKARTE BATZA izeneko elkarteak bazituen bere estatutuak. Agiri edo dokumentu zaharrek diotenez, Elizako ordezkariak bazituzten harremanak Gobernuarekin, konkretuki “Ministerio del Interior, Dirección General de Política Interior” delakoarekin. Bere bidez legezatu ziren GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTE-BATZAREN estatutuak. Hona, jarraian estatutu horien puntu esanguratsu batzuk:

### AMEZKETAKO OARGI ELKARTEA

Eliza ohartu zen Euskal Herriko gazteek ordu asko lanean egin ondoren geratzen zitzaizkien aisialdirako ordu gehienak tabernan edota herri kirolean igarotzen zituztela, euren dirua erraz xahutuz. Hutsune horri aurre egiteko, Espainian indarrean zen OAR (Obra Atlético Recreativa Nacional) erakundearen adar gisara sortu zen Gipuzkoan “Organización Atlético Recreativa de Guipúzcoa” (OARGUI). 1950ean zenbait herritan OARGIko talde batzuk antolatu ziren “Parrokiko Gazteen” esku hartzearekin.


Erakundeak hasiera-hasieratik oso garbi zuen helburua: “kristau ikuspegitik aisialdi osasuntsu eta hezitzailea eskaintzea, ukitu politiko orotik at”. Horrela, mendi irteerak, herri kirolak, euskal erromeriak, euskarazko klaseak, euskal dantzak, hitzaldiak, antzerkiak... antolatzen hasi ziren, eta kristau ikuspegia alboratuta geratu zen. Laburtuz esan daiteke Elizak euskal kutsuko ekimenei lehentasuna emanez, gazteria erakarri nahi izan zuela; bestalde, abertzaletasuna azpiegitura horretaz baliatu zela urak bere errotara eramateko.

Amezketan eta Goierri osoan horixe gertatu zen. Herriaren alde lan egiteko berariaz egin dako elkarte izan zen OARGI. Ibilbide horretan, kontraesankorra badirudi ere, maiz egin zuen talka Elizarekin. Segur aski, Guraso Elkartearen garai bertsuan antolatu zen Amezketan OARGI. Eta elkarrekin lan egin zuten.



*Koro ikasleekin mendian.*

- 1\_ Arantxa Sagastume
- 2\_ Kaxpar Larreta
- 3\_ Jon Etxeberria
- 4\_ Lurdes Etxeberria
- 5\_ Lukax Etxeberria
- 6\_ Koldo Alijostes
- 7\_ Nekane Zubeldia
- 8\_ M<sup>a</sup> Kruz Otermin
- 9\_ Lenengo Telletxea
- 10\_ Josune Larreta
- 11\_ Ana Etxeberria
- 12\_ Koro Zabala (andereñoa)



I. lehenengo izenburua: Izaera, Elburu ta Etxe Nagusia

1'go araua. Gipuzkoan Ikastolen Elkarte-Batza sortzen da. Honek, Gipuzkoa barruan lan egingo du, ta bere ekina, izendatzen diren jomuga ta asmoei dagozkien egitekoak aizatzen ta elkar lotzen erabiliko da, diru irabaziari batere begiratu gabe.

2'gn araua. Elkarte-batz hau, legeri zor zaion begirapenez lan egitera dator. Horregaitik, gaurko giroa ikusita, eragikorrago ta egokiago izango dela uste dugu, gure ikastolak Gipuzkoako Eliz-Barrutiaren babesean jartzea. Horrela bada, gure lana, ondoren jartzen ditugun arauen esanera lotuko dugu. Hauek bait dira Eliz Barrutiko ordezkariak oinarritzat izendatu dizkigun legeak:

- a) Elizak bere eginbehar nagusia bezala ezagutzen duela ikastola aipatuari dagokion eskubide zenbait AGERTU, ZAINDU ta AURRERATZEA.
- b) Umeen eziera ezin litekeala ez osoa ta ez betea izan erlijioiko ikasbidea ta asiera eman gabe ta gure ikastoletan kristau-eziera eman gabe.
- d) Kristau erlijioan umeak ezitzea esku-eskutik eta bat batera joan behar duela edozein erlijioari buruz azken kontzilioak agertu ta ontzat eman digun askatasunarekin.
- e) Gai honetan lehenengo ta azkenengo erantzuna pena Elizaren ta gurasoen gain doala.

3'gn araua. Elkarte-Batz honen elburuak hauek dira

- a) Euskal Irakaskintza eragitea
- b) Ditugun ikastolak indartzea ta ikastola hoiiek di-

tuzten asmo ta irakaskintza ta jakintza-bideetan, gure laguntza eskaintzea.

- d) Ikastola berriak sortzea
- e) Bai maixu, ta bai andereñoak ugaltzeko ahaleginak egitea.
- f) Euskal irakaskintza daramaten Eralguntzei, bai erdi-irakaskintzakoei ta bai goieneko irakaskintzakoei laguntza eskaintzea.
- g) Beste eskualdeetan diren honen antzeko eralguntze-kiko harremanak indartzea ta elkarrekin lan egitea.

4'gn araua. Arau hauek, gure herriak antzinatik duen "zentzu demokratiku" giroan mortuak dira. Hau ageri geldituko da.

- a) Ikastolen buru jabetasunari izango zaion begirapenean.
- b) Ordezkari guziak izendatzerokotan.
- d) Elkarte-Batzaren eta lan-sail guzien jokaeran.
- e) Elburu hoiei dagozkien erabakiak hartzerakoan.

5'gn araua. Elkarte hau, politika-aizerik gabea izango da ta bere irakaskintza, jakintza asmoz bakarrik eramana.

6'gn araua. Elkarte Batzaren etxe nagusia .....  
.....izango da.

Azpimarratzekoa eta eskertzekoa da Elizak jokatu zuen egiteko nagusia: nortasun juridikoz ikastolak jaztea. Babes horri esker sortu eta sendotu ziren ikastolak. Garrantzi horren isla dira estatutuetan ageri diren esaldi hauek: .....**gaurko giroa ikusita, eragin-korrigo ta egokiago izango dela.....gure ikastolak Gipuzkoako Elizaren babesean jartzea.** Bere helburuen artean hauek aipatzen ditu: **umeen heziera osoa eta betea ezin litekeela izan kristau-eziera eman gabe, euskal irakaskintza eragitea, ditugun ikastolak indartzea ta ikastola hoiek dituzten egitekoetan laguntzea, ikastola berriak sortzea, bai maixu, ta bai andereñoak ugaltzeko ahaleginak egitea...**



Aipaturiko babesak, hala ere, ez zekarren berarekin finantziazorik. Izan ere, horretarako beharrezko ziren baldintzak (gutxieneko ikasle kopurua, horientzako ikasgela egokiak, irakasle tituludunak... ) ez ziren betetzen, eta tamalez ez ziren bete ikastolak iraun zuen bitartean.

Egun ezagutzen dugun Ikastolen Elkarte 1969an hasi zen lanean. Ikastolak garai horretan Elizaren babesean zeuden. Ikastolen Elkartearantz ere Elizaren esku hartzea eroso zen; hau da, dokumentazio mailako lanak izaten ziren, baina lehen esan dudanez, Eliza ez zen pedagogia alorrean sartzan, ezta barne-funtzionamenduan ere. Bestalde, hezkuntzako arduradunek, legea aplikatzeko garaian, ez ziren oso zorrotzak Elizarekiko, malgutasunez jokatzan zuten.

Urteen joanean gizartea aldatzen joan zen, abiadura handian gainera. Sekularizazio mugimendua indartsu ari zen gorpuzten. Eta horretaz oharturik zen Eliza. Horren harira aipatzekoa da Jose M<sup>a</sup> Setien gotzainak, 1978ko urriaren 8ko IKASTOLEN ELKARTE BATZAREN bileran egin zuen proposamena:

*“Federazioaren nortasuna Elizaren babesean egon da orain arte; hala ere, Elizari oso egoki deritzaio Federazioa inongo loturarik gabe bere buruaren jabe izatea. Eta gizarte eta inguru pluralista batetan lan egin behar duenez Ikastolen Federakuntzak, oso bidezkoa deritzaio Elizari konfesional izateari eta Eliz Barrutiko babespeari utzi eta joera ezberdinetako ikastolei ondo erantzungo dien nortasun juridikoa hartzea.”*



**J. M. Setien (Gipuzkoako Gotzain ohia)**

Goraipatzekoa da, gure ustez eta kasu honetan, Gipuzkoako Elizaren jarrera, konkretuki Setienena. Ikastolek behar zutenean inongo arazo eta trabarik jarri gabe babestu zituzten inolako lege-bermerik gabe zeuden ikastolak. Eta gizartearen aldaketa aurreikusiz, etorkizuna nondik norakoa izango zen sumatuz, eurek proposatu zieten ikastolei, nahi izanez gero, beste babes juridiko baten altxora jotzeko.

Aldaketaren atea ireki ondoren, eztabaidak ikastolen mundura ere hurbildu ziren. Horrela, batzuek Elizaren babesetik ateratzeko beharra edo nahia azaldu zuten. Beste batzuek, ordea, ez zuten Elizaren babes eroso horretatik aldendu nahi. Eztabaida askoren ondoren, 1979. urtean, egoera politiko berrira egokitzeko asmoz, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak araudia aldatzea erabaki zuen eta Elizarengandik autonomia lortu zuen.

*Nire aita, herrigintzan partaide izan zen, eta bere arrastoa utzi zuen. Elizako atea egiteaz gain ikastolari ere lotua egon zen. Horren lekuko garbia da gu anai-arrebok ikastolara bideratu gintuela. Ikastola itxi eta behin-behingo sakristiara eta Laturura bazterreratu gintuztenean, lokal egoki batzuen bila buru-belarri aritu izana eta lortu izana aipatzen zuen.*



**Amaia Balerdi**

## DONOSTIAKO GOTZAITEGIAK ETA GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTE BATZAK ELKAR HARTURIK EGINDAKO TXOSTENA

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza 1969 sortu zen ikastolen behar nagusi batzuei erantzuna ematearren. Egoera politikosozial hartan babesaren beharra izan zuen nolabaiteko askatasun giroan lan egin zezan. Eliz Barrutiari eskatu zitzaion babeseta honen oniritziari esker lan bat egin ahal izan du, «Eliz Barrutiko Ikastolen Elkarte Batza» bezala legearen oztupoak gaintutuz.

Orainaldian egoera politikoa aldatu dago eta erakundearen izakera gizarte egoera berriari egokitu nahiaz Ikastolen Batzar Nagusiak araudia aldatzea erabaki zuen bere nortasun juridikoa artuaz. Honek esan nahi du erakundearen nortasun juridiko aldetik ezberdintasun gabe eraldatze bat dagoela, eta eraldatze onuragarria gainera, «Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzari» sorzaion berezko autonomia bete betean aitortzeko, eta herri-mailako eta erlijio-mailako erakundeen jokabideak argi gelditzeko.

Donostiako Elizbarrutiak gogo onez onartu du eraldatze hau, uste bait du ikastolei, eta bereiziki Elkarte Batzari, berak orain arte egin dien zerbitzuak hauxen eskatzen duela: eliz izakerearen uztea. Berak, hala ere, Elkarte Batzari eskatu dio begirunez joka dezala, ikastola bokoitzak, bere Araudiaren neurrian hartu nahi duen dotrinazko eta ideologiazko bidearekin; eta behar bezala errespetu dezala umeen eta hezkuntz arduradunen, batez ere gurasoen kontzientzia. Eskabide hau Erakunde honen tradizioa jarraiturik Araudi berriari finkaturik dago, ikastola bakoitzaren autonomia osorik gordeaz eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzak emango dituen zerbitzuen neutraltasuna gordeaz.

Bai Elizbarrutiak, eta bai Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzak aditzera eman nahi dute beren artean elkar-lanerako giroa eta harreman onak eduki dituztela. Elkarte Batzak sortu zenetik orain arterainokoa, eta gerora ere nahi luketela izpiritua berak zuzendu eta indartu ditzan beren arteko harremanak. Eta elkar-lanerako bai bata eta bai besteak duten borondate onaren ezaguerri, Elizbarrutiak legezko iraupena segurtatuko dio Ikastolen Elkarte Batzari, nortasun juridiko berria lortu arte.

Donostia, 1979, urria, 26.

Donostiako Elizbarrutiaren  
izenean  
**J. A. Pagola**

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte  
Batzaren izenean  
**Iñaki Oliveri**

## 12.2\_Amezketako apaizak, eliztarrak eta ikastola

Amezketako erretorea, Don Emigdio, diotenez, ez zen agerian behintzat euskaltzale purrukatua, baina ezta kontrako sutsua ere. Erlijioa zen harentzat oinarria, garai hartan ulertzen zen modura noski, eta haren ustez horren kontra zihoan guztia (dantza lotuan ibiltzea, politikan ezkerrekoa izatea...) baztertu beharrekoa zen.

Eliztarrek ere indarrean zen kristautasunaren mezua oso barneraturik zuten eta horren harira epaitzen zuten guztia. Ikastolaren kontrako aldarrietan pisu handia zuen ikastolan erlijioa baztertzen zutelako ustea. Modu berean, Ikastolaren aldeko lanetan zebiltzanen artean norbaitek Elizari uko egin ziola (Elizara joan ez, Elizaz ez ezkondu, seme-alabak ez bataiatu...) ikustea nahikoa zen seme-alabak ikastolara ez bideratzeko. Hainbestearainokoa baitzen Elizarekiko atxikimendua!

Bestalde, herri guztietan bezalaxe, Amezketan ere ba omen ziren Frankok ezarritako ideologia eta gizarte eredia sutsuki defendatzen zutenak. Euren ardura zen estatus hori mantentzea eta esparru horretatik inor atera ez zedin arduratzea. Hori horrela izanik, ikastolaren sorrera kezka iturri bilakatu zen “**mugimenduaren**” ikuskarientzat. Atezuan jarri ziren. Eurek balio positibotzat zuten gizarte eredia, Frankok ezarria, herritar batzuek zailantzan jartzea onartezina zitzaien.

Tentsio egoera horretan igaro ziren 1966-67 eta 1967-68 ikasturteak. Ikastolaren aldekoak arazo ugariaren zamapean, baina pozik. Kontrakoak zirenak, berriz, ikastolaren praktika gutxietsiz eta gaitzetsiz. Ikastolaren inguruan lortu zen indar metaketak benetan kezkatu zituen arestian aipatutako “mugimenduzaleak”. Horrela, 1968-69 ikasturteko zorigaiztoko egun batean, osasun baldintzak ez zituela betetzen argudiatuz, ikastola ixteko aginduarekin etorri zen erretorea ikastolara. Alkatea ere han omen zen. Eta badira Guardia Zibila ere ez zela urruti diotenak. Gehiago oraindik, gehienek diote Guardia Zibilak ekarri ziola ixteko agindua erretoreari, eta guztiaren abiapuntua denuntzia bat izan zela.

Horrela gogoratzen du Iñigo Zubeldiak une gogor hura:

*Ni ikasgelara sartu nintzenean, aldameneko gelan ikusi nuen erretorea eskuan maletatxo bat zuela. Irakasleekin hitz egiten ari zen. Alkatea ere han zen. Ondoren, erretorea guregana hurbildu eta esan zigun: “Benga, segi etxera, oporrak dituzue”. Gertaturikoa guretzat ulergaitza bazen ere, opor hitzak irribarrea sortu eta etxera abiatu ginen.*

Kolpe gogorra jaso zuen Amezketako ikastolak. Ez zuten horrelakorik espero. Hitzik gabe geratu ziren, oinak lurrari iltzatuta eta burua lausotuta. Ikastolaren aurkakoak, ordea, pozik. Itxieraren eragile eta gauzatzailleak gustura geratu ziren, euren ardura **sakratua** bete zutelakoan.

Herritarren barne indarra berehala azaleratu zen berriro. Eta, aldi berean, erretoreari buruhausteak ugaritu zitzaizkion. Izan ere, berak inoiz espero ez bezala oilartu zitzaizkion eliztarrak, bere eliztar finenak, itxieraren eragilea bera zelakoan. Gurasoak, irakasleak, laguntzailak... mugitu ziren. Bilerak etengabe egiten zituzten, ez baitzuten klase egun askorik galdu nahi. Bilerak horietako batean, ez dakigu erretoreak proposatuta edota herritarrek eskatuta, behin behinekoan, ikasleak sakristian eskolatzea erabaki zen. Bizitzaren gorabeherak! Udal ikasgela ez zen, antza, egokia, baina sakristia bai. Beraz, erretoreak, itxiera agindua ekarri

zuen berberak, handik egun gutxitara, zer eta sakristia utzi zien ikasle txikienak eskolatu ahal izateko.

Hori guztia agerian jartzen da ikastolako guraso eta laguntzailei banatutako ondorengo informazio orrian. Bertan egoeraren larritasuna azpimarratzen da, eta horiei aurre egiteko eragileek zuten kemena, ez etsitzeko kuraia.

A d i s k i d e h o r i :

Une larrian gabiltz, bada, oraintxe ere, baina... halere aurrera mutilak!!

Txikien ikastolei buruz zer dagoen? -Udan, Seminarioan egin zen ikastalditik ezer ez. Beraz, jokabidea hauxe da: Parrokiko Katekesi edo Kristau-Ikasbide bihurtzea. Hortarako,

1/Atalburuan edo atearen gainean idazki bat ongi agerian ezarri behar da: "Kristau-Ikasbidea".

~(Katequesis Parroquial).

2/Atean josirik lehenengo idazkia: "De acuerdo con el Delegado.."

3/Gauza bi hauen aurretik berriz, guraso batzuek izenpeturik, bigarren idazki hori herriko parroari zuzendu behar zaio.

Eta gauza hauek egiñik, nahi bada, aste honetatik bertatik hasi liteke txikien ikastola. Lehen mailakoak berriz, hau da, sei urtetik gorakoek ba dakizute lehendik ere zer bide daraman.

“Une larrian gabiltza” dio testuak, eta benetan larria zen. Arduradunek, hau da, ikastolaren aldeko sustatzaile nagusiek hau badiote, zer pentsatuko ote zuten garai hartan ikastolan zebiltzan ikasleen gurasoek? Eta zer mezu baikor eskainiko ote zitzairen ikastolara bideratu nahi zituzten gurasoei?

(Atean ezarri behar dena)

De acuerdo con el Delegado Diocesano de la Enseñanza Privada Oficial de la Iglesia, Certifico que en este Centro se imparte Catequesis y Cultura infantil a niños exentos de escolaridad obligatoria entre los 3 y 6 años, satisfaciendo de este modo la demanda formal de un nutrido grupo de padres de familia de la Parroquia, y siendo Director del mismo.... (Ipiní parrokiako Kristau-Ikaskidearen zuzendari den apaizaren izena).

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

(Gurasoak parrokoari zuzendu behar dioten idazkia).

Teniendo en cuenta la decisiva importancia educacional de la edad infantil comprendida entre los 3 y 6 años, y velando sobre su futura educación religiosa y humana integral al amparo y bajo auspicios de la Iglesia, los abajo firmantes padres de familia solicitan al Sr. Párroco se erija un centro donde se imparta Catequesis y Cultura infantil para nuestros niños en la edad mencionada arriba: exenta de toda obligatoriedad escolar.

(Guraso batzorde baten firmatzea).

Beraz, Haur Eskola itxi eta handik hamabost egunetara-edo, sakristian hasi zen Koro bere ikasleekin. Gurasoek, ordea, ez ziren Guardia Zibilaz asko fio eta zainketa lanak egitea erabaki zuten. Ikus zer dioen ondorengo testigantzak:

Gure umetxoak sakristiara bideratu genituen. Pozik geunden, ezen udaletxekoa itxi eta handik egun gutxira lortu genuen berriro gure seme-alabak eskolatzea. Baina ez geunden batere ziur. Beldur ginen berriro Guardia Zibila etorriko ote zen. Ez genuen nahi gure umeak aurrez aurre Guardia Zibilarekin topatzerik. Hori gerta ez zedin, gurasoak, txandaka, Eliza inguruan ibiltzen ginen, zerbait somatuz gero umeak mendira-edo bideratzeko. Ederrak gu gotorlekua babesteko!



**Pepi Zubillaga**

Ez da ohikoa Elizaren sakristia ikasgela bihurtzea. Bada, Amezketako eskolaurreko ikasleak, ikasle txikienak, Elizako aldameneko atetik sartu eta aldarera igoz sartzen ziren behin-behinean ikasgela bihurtutako sakristiara. Lanak izango zituen irakasleak, Korok, Elizako banku artean ikasleek jolas egin ez zezaten. Sakristia bera iluna zen eta da, umetxoak alaitzeko ez oso aproposa. Segur aski, Korok apaingarriz hornituko zuen, ahal zuen neurrian behintzat.

Jolasgunea, zimitorioan zuten, bere aterpetxoarekin. Edonola, euritik erdizka babesten baziren ere, hotzetik babesteko beharko zuten estalki bat baino gehiago, Amezketako Eliza herriaren kaskoan baitago.

*Sakristia, HHkoen ikasgela.*



Behin behinekoa zenez erabilia eta eskola-kokapena, lanean jarraitu zuten behin betiko erantzuna emateko. Ondorengo dokumentuak dioenetik ondoriozta dezakegu erretoreak eskola berria irekitzeko baimena eskatu ziola Udalari. Hona, erantzuna:



Zimiterioa, HHkoen jolastokia.

#### INFORME DE LA JUNTA MUNICIPAL DE ENSEÑANZA PRIMARIA

La Junta Municipal de Enseñanza Primaria de esta villa de Amézqueta, tiene el honor de informar sobre la petición formulada por D. Emigdio Lizarza Lizarríbar, Cura-Párroco de la Iglesia de esta villa para la apertura de una Escuela de Enseñanza Primaria, San Bartolomé, en esta localidad.

El local que se destina a Enseñanza Primaria, sito en la Casa Consistorial, ofrece buenas condiciones para el fin al que se destina, según opinión unánime de los expertos que han visitado el mismo.

Dicho local se ajusta exactamente a los planos que figuran en el expediente, conforme a la certificación acreditativa expedida por el Arquitecto D. Armando Roca García.

La conducta pública y privada de la Sra. Maestra que ha de regentar la Escuela, según certificaciones que se unen al expediente, es buena en todos sus aspectos.

La Comisión Municipal de Enseñanza Primaria de esta villa, presta su apoyo y considera de interés para esta localidad de Amézqueta, que se conceda la autorización de apertura de este nuevo Centro de Enseñanza Primaria, San Bartolomé, de la Iglesia parroquial.

Y para que así conste, suscribo en presente como Alcalde-Presidente de dicha Junta, en Amézqueta a doce de septiembre de mil novecientos sesenta y ocho.

Gertatuak gertatu, erretorearen portaera, agerian behintzat, ez zen izan euskararen eta ikastolaren kontrakoa. Eliz agintariena izan ez zen bezala. Berak itxiera adieraztearen arrazoia izan zitekeen ordurako ikastola Elizaren babesean zegoelako edota izateko bidean zegoelako, besterik gabe. Izan ere, euskararen eta ikastolaren benetako arerioa izan balitz, Udaletxeko ikasgelak itxi eta 15 egunetara ez zuen elizako sakristia horretarako utziko, nahiz eta herritar batzuen presioa nabaria izan. Bestalde esplikagaitza izango litzateke, 1968an berean, itxieraren urtean alegia, Udalari egin zion eskaera, hau da, San Bartolome eskola berria irekitzeko baimena.

Ziur aski, sakristian eta Laturun behin-behineko desterru-aldia igaro ondoren eta ikasgela berrietara behin-betikoz joan aurretik, egin zuen eskaria erretoreak, eta Udalak onartu. Gero, ordea, Udaletxeko gela utzi eta herritarren artean erositako ikasgela berrietara bideratu zen ikastola.



*Laturu, LHkoen eskola.*

Haxe izan da Amezketako ikastolako ikasleen IBILBIDEA: hasieran denak Udaletxeko ikasgeletan; geroago txikienak sakristiara eta Lehen Hezkuntzakoak Laturura. Eta Amezketan, azkenik, Penta etxean erositako ikasgeletan normalizatu eta amaitu zen ikastolaren egoitza egoitzarako ibilbidea.



### 13 IKASTOLA ETA AMEZKETAKO UDALA

Gerra ostean, udalak izan dira ezarritako gizarte ereduaren sostengatzaile. Lehen urteetan oso gogor eta zurrun, eta azken urteetan malguago. Amezketako udala ere ez da izan salbuespena. Hori horrela izanik, lehentxeago edo geroxeago talka egin behar zuen ikastolaren filosofiarekin. Izan ere, euskararen eta gizarte eredu berri bateko aldarriak eta oihuak ezin dira bat etorri Frankoren ordezkariak defendatzen zutenarekin. Hona zinegotzi kargua hartzean egin ohi zuten adierazpena:

*“Juro servir a España con absoluta lealtad al Jefe del Estado, estricta fidelidad a los principios básicos del Movimiento Nacional y demás leyes fundamentales del Reino, poniendo el máximo celo y voluntad en el cumplimiento de las obligaciones del cargo de concejal del ayuntamiento para el que ha sido nombrado, a lo que el Sr. Alcalde contestó a cada uno, “Si así lo haceis, Dios y España os lo premien, y si no, os lo demanden”.*

Ez dugu ahaztu behar, lehenago esan dugunez, alkatea eta zinegotziak ez zirela inolaz ere demokrazia osoz hautatzen, gaur egun esaten dugun orenen bozkatzez. Diktadura garaian, agintean zeudenek, aginteak denbora luzez iraun zezan, hautaketa sistema berezia asmatu eta abian jarri zuten. Zinegotzien heren bat herriko familiaburuen artetik hautatzen zen. Beste heren bat herriko erakunde sindikaletik eta azken herena herriko kultura, ekonomia eta profesionalen artetik. Hori guztia 1952ko legeak arautzen zuen.

Familia buruetatik, oro har, azken urteetan izan ezik, erregimenaren aldekoek zuten udalean lekua. Sindikatu arloan, beste aukera guztiak legez kanpo zeudenez, gobernuak antolatutako sindikatu bertikalekoak izaten ziren. Eta, azkenik, kultura, ekonomia eta profesionalen arteko herena Gobernadoreak zuzenean izendatutako hautagaien artetik hautatzen zuen. Beraz, Udala ez zen antolatzen herritar orenen bozak edo botoak jasoz, eta hautagaitzat herritar guztiak hartuz.



*Ikasleak Aierbeneko atarian.*

Ordezkarri horietako batzuentzat, segur aski, ikastolaren aldeko mugimendua eta filosofia buruhauste iturri bilakatu zen. 1966-67 ikasturteak markatu zuen garai berria. Ordu-arte herriaren eskariak gutxi ziren ( leiho berria ireki, bide berria egin, argiteria hobetu ...) eta ez zuten kultura eta politika arloarekin zerikusirik. Ikastola zela-eta, ordea, eskariak batzuetan kezkarriak izaten ziren eta horiek lortzeko egiten zen presioa azkenaldian inoiz ikusi gabea.



*Ikasleak eskolaz kanpo, ikasten.*

Bestalde, Udal ordezkariak, salbuespenak salbuespen, ez ziren izaten eskolatuak. Eta Amezketan ere izan da salbuespenik, noski. Garai horretan “sekretario” izenez ezagutzen zen idazkariak gidatzen zuen batez ere udala eta bere ardura zen bere gaintik zeuden agintariek ziotena tentuz eta zuzen betetzea eta betearaztea.

Esandakoak esanda, gure ustez NAHIAREN eta EZINAREN arteko dinamikaren oreka edo soka irris-takorrean mugitu zen Udala Guraso Elkartearekin, OARGIrekin eta Ikastolarekin. Guraso Elkarteak, OARGIk edota Ikastolak zerbait eskatzen zuenean Udala bere gogoz ezezko borobila emango bazion ere, herriaren presioa ikusita, amore ematen zuen, bere burua makurtu eta baietza ematen zien. Edota, baietza emango bazion ere, zenbaitetan, goitik zetorkien agindua bete beharrean aurkitzen ziren. Horrela ulertzen dira kontrajarriak diruditen ondorengo erabakiak: udaletxean ikasgela uztea, geroxeago ixteko aginduan ere partaide izatea, erretoreak eskola berria irekitzeko egindako eskaria onartzea, lehen ikasturtean diru-laguntza ematea eta ondorengo urteetan ukatzea...

Diktadura lehen urtetan Udalaren eta Gobernua-ren asmoak eta filosofia inongo zirrikitu eta arrakalarik gabe mantentzea lortu zuten. Denborarekin, ordea, antolaketa malgutzen joan zen, eta horretan eragin handia izan zuen herriak egindako presioak. Zenbait alkatek, baita ere, burutsuenak noski, diktaduraren gainbehera igarriz, herritarren eskaerekin ere nahiko bat etorri ohi zen. Bestalde, lege eta egoera guztiekin gertatzen zen eta den modura, denborarekin bilatzen zaizkio legeari zirriztuak. Horrela gertatu zen Frankoren garaiko aginduekin. Adibidez, familia buruen alorrean lortu zen azkenaldian oposizioa egingo zuten ordezkariak sartzea. Eta berdin arlo sindikalean.

Hori gertatu zen Amezketan ere. Urtetan Udala kolore berekoa izan zen. Baina Amezketan ere Guraso Elkarteak eta OARGIk lan eta presio handia egin zuten Udala demokratizatzeke. Hori guztia hasi zen gauzatzen Amezketan 1970eko udal hauteskundeetan. Horren adibide modura ikus dezagun zer gertatu zen gure herrian.



*Haritz eta Iraitz, arbelean lanean.*

## **1970ko UDAL HAUTESKUNDEAK**

Hasteko, esan hauteskunde deialdietan ez zela Udala osoki aldatzen. Soilik legealdia bukatu edota beste zerbaitegatik utzitakoen lekua betetzen zen. Hiru bidetatik hautatzen zela adierazi dugu aurrez. Bide horietatik, herritarren bozka soilik familia buruen ordezkariak hautatzeko ematen zen. Bozka zuzena bai, baina unibertsala ez. Izan ere, gizonezko familia buruek, emakume ezkonduak eta alarguntsak eman zezaketen bozka.

## **FAMILIA BURUEN ETA EMAKUME EZKONDUEN ORDEZKARIAK:**

Amezketan, 1970eko hauteskundeetan, inoiz izan ez bezalako esku-hartzea eman zen. Izan ere, OARGIK eta Guraso Elkarteak bultzatuta bi hautagai aurkeztea eta hautatzea lortu zen. Hautagaiak izendatzea zinegotziei zegokien eta konkretuki Alberto Etxeberria Galarza eta Jose Etxeberria Etxeberria ondoko hauek proposatu zituzten: Jose Carrera Loidik, Andres Goñi Zubeldiak, Jose A. Zubeldia Arsuagak eta Jose Artola Muruak. Hori diote Udal aktek.

Horietaz gain, beste bide batetik, Ignacio Maria Altuna Artola eta Ignacio San Martin Moriones izan ziren hautagai modura izendatuak. Beraz, lau ziren guztira hautagaiak.

Eta guk herritarrengandik jasotako iritziei jaramon egiten badiegu serio-demonio egin omen zen kanpaina. Horrela, bada, 378 boza jaso ziren eta hona emaitza:

- Jose Etxeberria Etxeberriak.....190 boza
- Alberto Etxeberria Galarzak.....188 “ ”
- Ignacio M<sup>a</sup> Altunak.....179 “ ”
- Ignacio San Martin Morionesek.....175 boza

Juxtu izan bazen ere, Jose Etxeberriak eta Alberto Etxeberriak osatu zuten familia buruen ordezkariak Udal berrian.

## **KULTURA, EKONOMIA eta PROFESIOALEN ORDEZKARIAK**

Gobernadore Zibilak hautagai hauek proposatu zituen zinegotzi postu bat betetzeko: Artano Ulacia Ignacio Maria, Elizalde Vera Juan Bautista eta San Martin Moriones Ignacio. Prozedurari jarraituz, udal zinegotziak bildu eta bakoitzak bere boza eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

- Ignacio San Martin Moriones.....2
- Ignacio M<sup>a</sup> Artano Ulacia.....2
- Juan Bautista Elizalde Vera.....0

Horietatik, Ignacio San Martin Moriones hautatu zen.

## SINDIKAL ALORREKO ORDEZKARIAK

Mugimenduko sindikatuan afiliatuta edo izena emanda egon behar zuen hautagai izateko. Aldez aurretik hautatutako konpromisarioen arduraz hautagaien artetik udal ordezkariak hautatzea. 1970ko hauteskundeetako konpromisario hauek izendatu ziren bozketaz:

N.	NOMBRE Y APELLIDOS	DOMICILIO	CAT. PROF. SINDIC.
1	Jose Altuna Labayen	Panaderia	Económico
2	Senen Amunarriz Aseguiolasa	Papelera	Económico
3	Demetrio Larrea Manterola	S. Bartolomé	Tecnico
4	Jose Ramos Ibañez	S. Bartolome	Social
5	Juan Elizalde Vera	S. Bartolome	Social
6	Manuel Ayerbe Galarza	Cº Echaisbarrena	Social
7	Dionisio Artola Zubeldia	Cº Zabalbarrena	Labrador
8	Atanasio Aguirre Zubeldia	Cº Irariregui	Labrador
9	Mariano Ulacia Artano	Cº Loyola	Labrador
10	Federico Aguirrebarrena Aguirrezabala	Cº Aguerre	Labrador

Hautagaiak, berriz, hauek ziren: Eladio Balerdi Saralegui, José Echeberria Bengoechea, Ciriaco Tolosa Jauregi, Ignacio M<sup>a</sup> Altuna Artola eta Ignacio San Martin Moriones.

Horrela bada, aipatu konpromisario bakoitzak horretarako espresuki jarritako boto-kutxetan boza eman ondoren, emaitza hau jaso zen:

- Ciriaco Tolosa Jauregui..... 10
- Eladio Balerdi Saralegui.....0
- Jose Echeberria Bengoechea .....0

Adostasun handiz, beraz, Ciriaco Tolosa Jauregui hautatu zuten.

Hauteskunde berezi horien ondoren, horrela geratu zen osatua Amezketako Udala:

- Udalean jarraitzen duten zinegotziak: Andres Goñi eta Martin Esnaola.
- Udala uzten duten zinegotziak: Jose Ig. Bernaras, Jose Artola, Asensio Carrera eta Jose Altuna.
- Zinegotzi berriak: Jose Etxeberria, Alberto Etxeberria, Ciriaco Tolosa eta Ignazio San Martin.



Alberto Etxeberria

Joxe Etxeberria

Jose Etxeberria eta Alberto Etxeberria sartu ziren Guraso Elkartearen eta OARGIren izenean. Herria era ez-ohikoan mugitu omen zen hautaketa garai horretan eta lortu zuen aurrez aipaturiko bi hautagaiak, familia buruen tertzio edo herenetik, udal zinegotzi izatea. Ondorengo urteetan galtza bete lan izan zuten eta seriodemonio lan egin zuten egoera demokratiko osorako trantsizio lana gauzatzen.

Herriak hautatutako bi zinegotzi horiek orpoz orpo egin zuten lan beste udal-kideekin, batez ere Patxi Ordozgoiti alkatearekin. Euren arteko harreman onak, ordea, izan zuen eraginik bai alkatearengan, eta baita ere bi zinegotzi abertzale horiengan. Alkatearen jarrera hori begi txarrez ikusi zuten “mugimenduko ikuskariek” eta alkateak izan zituen arazoak horiekin eta OARGIko zenbaitekin. Bestalde, bi zinegotzi abertzaleak ere ez ziren libratu kritiketarik, zenbaiti bigunegia iruditzen baitzitzaion horien udal-jokaera.

Joxe eta Alberto hautatu aurretik, konkretuki 1967. urtean, Euskararen alorrean ere bitxia izan zen Udalaren eta Guraso Elkartearen portaera. Guraso Elkarteak eta Udal ordezkariak, salbuespenak salbuespen, ia ez zekiten gaztelera formalean idazten. Hala ere, Guraso Elkarteak eskariak egitean gaztelera hutsean idazten zituzten, nahiz eta euren filosofiarekin bat ez etorri. Udal ordezkariak ere ozta-ozta ulertzen zituzten eskariak eta idazkaria zen eskariaren muina aztertzen zuena eta erabakiaren berri ematen zuena. Gerorako, ordea, Guraso Elkarteak, nahiz eta gehienak alfabetatu gabeak izan, euskaraz idazten hasi ziren, denentzat ulerkorragoa zen hizkuntzan, euren aldarrikapenekin bat zetorren portaera gauzatuz. Baina hori idazkariak ez zuten onartu, eta segur aski zinegotziek ere ez, erabakia “por unanimidad” izan baitzen. Erantzuna berehalakoa izan zen:

Testua nahiko ulergaitza denez, hona garbiago jarrita:

“El Ayuntamiento, teniendo en cuenta que se han presentado comunicaciones en lengua euskara, acuerda por unanimidad que los escritos que se dirijan al mismo deben ser redactados en lengua castellana, si bien el interesado podrá acompañar otro escrito traducido al vascuence”.



**14\_ BESTE ARAZO BAT: EZIN GAUZATU AMEZKETAN LEHEN HEZKUNTZA OSOA**

Villar-Palasi legea gauzatzen ari zen emeki-emeki eta Amezketako ikastola ezinean zebilen. Ikastolaren errealtateak-ume kopuru eskasak, arazo ekonomikoak, ikasgela gehiago behar izateak- behartu zuen Amezketako ikastola erabaki gogorra hartzea: Lehen Hezkuntzako 4. maila Amezketan ez ematea eta ikasleak Ordiziako Jakintza ikastolara bideratzea. Horrelaxe jokatu zuten beste herri txikiak ere: Legorretak, Itsasondok eta Zaldibiak. Hau ere kolpe handia izan zen. Horren adierazle da, berriro, zenbait gurasok euren seme-alabak Ordiziara bidali ordez, ikastola utzi eta Eskola Nazionalera bideratzea.

Amezketako zenbait ikasle 4. maila egitera Ordiziara bideratzea, gaurko ikuspegitik begiratuta, harrigarria dirudi. Izan ere, Amezketak joera naturala izan du Tolosaldera jozteko, asteazkenetako Ordiziako feriaren salbuespenarekin. Baina Amezketako Guraso Elkartek harreman estua izan zuen Goierriko Guraso Elkarteekin. Ekimen bateratu horren bidez egiten zitzairen aurre ikastolen ibilbidean sortzen ziren arazoei. Horrela, Amezketako ikasleek, Legorretakoek, Itsasondokoek, Ikaztegiako zenbaitek eta Zaldibiakoek Ordiziako Jakintza ikastolan aurkitu zuten babesak. Babesa handia zen: lege babesak, babes ekonomikoa eta babes pedagogikoa. Eta babesak, noski, aurrera egiteko indarra ematen zuen, elkarrekin partekatuz arindu egiten baitira zamak.

Bestalde, ordea, arazoak ere ekarri zituen, batez ere ikasleentzat. Hona ikasle horietako baten testigantza:

**«DKV ZAHARREAN SARTU ETA ORDIZIARA GOAZ ZALDIBIATIK BARRENA»**

*Amezketan, 1973ko negua. Nik 9 urte.*


*“Joon, benga munitu ordua data!!..”-amak, goizean goiz, oso goiz.*

*Jantzi, gosaldu, maleta prestatu (ez zegoen gaurko motxilarik), hamaikak sekula ikusiko ez dituzten “Chiquilín” gailetak hartu eta banoa. Oso ilun dago kalean. Zubeldianeko garaje aurrean zain egongo dira Koldo, Kaxpar...*

*Abiatu gara oinez ilunpetan maldan gora, mendiz, Abaltzisketara, Ordiziako Jakintza Ikastolara eramango gaituen DKV furgoneta zaharra hartzera. Amezketara eta Abaltzisketara artean oraindik ez dago errepiderik. Hotza, euria, elur bustia edo zer edo zer gehixeago eta belaunetik behera busti-busti eginda baina garaiz iritsi gara.*

*Abaltzisketako udaletxe atarian gaude, gure garraioa noiz etorriko zain. Urrutitik entzuten da zarata. “Hemen zetorrek!!!”-dio norbaitek. DKV zaharrea sartu eta Ordiziara goaz, Zaldibiatik barrena. “Hau motor hotsa!!!” Karbono monoxidoarekin bigarren gosaria, baina barruan ateri.*

*Goizeko bederatziak arrimatzen eta hemen dira ordiziarrak, jaiki eta gosaldu berriak. Legorreta eta Itsasondokoak ere badatoz, Alegikoren bat ere bai, agian. Hauek Nazional batetik etorri omen dira, gu bestetik, eskola nazionaletik (ordukotik) ihes.*



*Klaseak, jolas-orduetako futbol partidak, klaseak, Ritaren bazkaria, Antonioren pazientzia, zaintzarik gabeko bazkal ondorenak, Arana futbol zelaian, Beti-Alai frontoi irekian eta egunen batean Belen Maiza irakaslearen etxean ere bai. Gero, buelta ikastolara, klaseak eta etxera, etorritako bide berberetik.*

*Abaltzisketan utzi gaitu DKVak, iluntzen hasia da eta maldan behera korrika etxera gatoz. Arratsalde motzak dira hauek.*

*Sukaldeko mahaian etxeko lanak egiten eta ikasten nago eltzeko porru-pataten lurrin usaina eta ez dakit Segura edo Loiola Irratikoa den arrosario santua lagun ditudala. Afaldu dut eta leher eginda nago. Ondo loin. Bihar arte.*

**Jon Etxeberria Etxeberria**

## 15 BAILARA TXIKIAREN OSAKETA

Legeak, oro har, estualdiak eta mugak ezartzen zizkion ikastolari. Gelak legeztatzeko ikasle kopuru zehatza behar, tituludun irakasleak, horientzat ikasgelak eta beste hainbat baliabide; azkenean, baliabide ekonomiko ugari, eta herri txikietako ikastolek ezin baldintza horiek denak bete. Beraz, San Bartolomek ere bi aukera zituen: 4. mailatik aurrera ikastolako atek hertsia, edota ikasle horiek Ordiziako Jakintza ikastolara bideratu eta elkarrekin gauzatu OHO osoa. Ordiziara jotzea hautatu zen, horrela ikastola izaten jarraituko baikenuen.

Bide horretatik, Ordiziako ikastolak, Zaldibiakoak, Amezketaoak, Legorretakoak eta Itsasondokoak elkartu eta BAILARA TXIKIA deiturikoa osatu zuten. Horren funtzionamendua ziurtatzeko oinarrizko arau hauek finkatu zituzten:

- Herri txiki bakoitzak bere ikastolari eutsiko zion 3. maila arte. Beraz, Eskolaurrea eta OHOk 1. Zikloa herri txikiak kudeatuko zuen eta behar zituzten irakasleak hautatu eta kontratatuko zituzten.
- 4. mailatik aurrerako guztia Bailara Txikiak kudeatuko zuen eta hor herri txikiak ere partaide izango ziren. Horretan saiatuko ziren herrietako ordezkariak ere.
- Amezketatik bi ordezkari hautatu ziren Ordiziako bileretarako: Joxepi andereñoa eta Batiste Galartza.
- Aipaturiko herrietako irakasle guztiek osatuko zuten Bailara Txikiko Klaustroa eta denek lan-ordutegi bera izango zuten.
- Zuzendari Pedagogikoa Jakintzako zuzendaria izango zen.
- Idazkariak bilera guztietako aktak jasoko zituen eta herri guztietara helaraziko zituen.
- Batzarrak hamabostean behin egingo ziren eta ikastola bakoitzak hor azalduko zituen bere arazo eta kezak.
- Ikasturte hasieran ikastola bakoitzak dirua biltzeko urteko plangintza egin eta onartu ondoren, Bailara Txikian azalduko zuen, han ere onartua izan zedin.
- Irakasleen soldatak eta Gizarte Segurantzaren Ordiziako ikastolaren bidez ordainduko ziren. Eta hilero, noski, kantitate horiek Ordiziako Jakintzari itzuliko zitzaizkion.

Bide emankorra izan zen. Bailara Txikiaren antolamenduak, alde batetik, herri txiki-tako ikastolen bizi-iraupena ziurtatu zuen. Bestetik, hainbeste ikastolatako guraso eta irakasleen arteko harremanak auzolana sustatu eta lan-antolamendua sendotu zuen, egunerokoari ziurtasuna emanez.

Ikasleen arteko harremanetan Amezketako eta herri txiki-tako ikasleek eragin baikorra izan zuten Ordiziako enuskararen aldeko jarreraren eta hizkuntza ohituretan. Amezketarren harremanetarako hizkuntza euskara zen eta horrek Ordiziara biltzean hizkuntza ohituretan positiboki eragin zuen. Izan ere, Ordizian gaztelera zen nagusi. Horrela bada, Amezketa-koekin sortzen ziren harreman sareek euskarara jotzen zuten, euskararen ikurra zeramaten. Beraz, zergatik ez esan, Ikastolen helburu orokorrak lortzeko ahaleginetan-euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea- eraginkorra izan zen Amezketa-ko ikastolaren esku-hartzea.

Aipaturiko Bailara Txiki-az gain, bazen Goierriko Ikastolen munduan, Bailara Handia deituriko antolamendua, Goierri Behealdeko ikastolekin lankidetzara bilatzen zuena. Beasainen zuten egoitza eta bertan biltzen ziren ikastola bakoitzeko ordezkariak. Zertarako? Bada, elkarlanean arazo ekonomiko eta legezko-oi aurre egin eta esperientziak trukatzeko. Gipuzkoako Ikastolen Federazioa sortu zen eta abian jartzean, 1971n hain zuzen, Bailara Handiaren egitekoak bilgune berriaren esku geratu ziren.

Edozein eratara, hainbat eta hainbat arazori aurre egin beharrak, lan-dinamika astunak eta batez ere ekonomia alorreko ezinegonak ikastolaren luzaroko bidea nolabait ixtea eta murriztea ekarri zuen. Dena dela, ikastolaren hazia ereinda zegoen, eta horrek izango zizuten eragin baikorrak etorkizuneko Euskal Eskolan. Gainera, gizartean gertatzen ari ziren aldaketei eta aldarriei esker lehengo Eskola Nazionala ez zen hain atzerakoia eta zurruna. Ez da ahaztu behar gainera, herri txiki-tako haur kopuru eskasak ez zuela ahalbidetzen bi eskola legezko baldintza guztiak betez mantentzea.



*Bi belaunaldietako irakasleak: Joxepi Saralegi, Koldo Alijostes, Ana Etxeberria eta Koro Zabala.*



## 16\_ AMEZKETA, ESKOLA GALTZEAR

1978an, notizia erasokor batek astindu zuen Amezketeta. Ugarteko eskolatik etorri zen berria, bertara bisita egin zuen ikuskariak zabaldua: hau da, Amezketako eskola galtzear zegoela, ez zuela behar hainbat ikasle eta eskola osoa ez bazen ere goi mailakoek Alegira joan beharko zutela. Berria ez zuen jaso Amezketako Eskola Nazionalak, ezta Udalak ere, eta hori ere prozeduraz bederen kritikagarria zen.

Garai horretan, eta gaur ere bai, herri txikitako indar eragileek jakin badakite eskola sendo bat gabeko herria ez dela benetako herria. Amezketan ere hori bururatu zitzaien bertako indar biziei eta hori gerta ez zedin SOS deia zabaldu zuten herrian.

Horrela bada, eskoletako ordezkariak, gurasoek, udal ordezkari batzuek ( besteek neurri berriaren alde baitzeuden)... ESKOLAREN ALDEKO BATZORDEA osatu zuten, eta lanean hasi ziren.

### LEHENAK ERAIKITZEN DU ORAINA

*Ikastolako garaiei buruz zerbait idazteko esan zaidanean begiak itxita jarri naiz. Ea zer etortzen zaidan burura. Hainbat irudi etorri zaizkit flash edo argazki moduan: sakristiako komuna ikusi dut (zigortu ninduten egun batean han pasatako goiza oroitu eta sentitu nuen beldurra berritu dira niregan), Pentako ikastolako “atea” ikusi dut, bi gelak banatzen zituen atea, gelako zutabeen buruan orratza zutelarik genituen pinpilinpauak ere ikusi ditut. Baina, irudiez gain sentazio eta sentipenak biziberritu ditut, txikitako kideak etorri zaizkit gogora eta sentipen guztien artean andereñoekiko lotura eta haiengandik jasotako hurbiltasun eta goxotasuna nabarmendu zaizkit.*

*Ez dut gauza berririk esango Ikastolaren lehen urte haiek gure bizitzetako lehen urteak ere bazirela eta garai haiek gaur garenaren oinarri zein funtsa izanik gure izaera eta lanbidea ere bideratu zutela. Zenbatek ez genuen amestu eta erabaki andereño eta maixu izango ginela!!! Askok!!! Zerbaitegatik izango da!!*

*Anekdotak bat kontatuko dizuet:*

*Ikastola atzean genuen “lorategitxo”an dortoka handi bat genuen. Ez naiz oroitzen izenik bazuen edo ez baina, oraintxe bertan ere hantxe irudikatzen dut, txokoan, sarearen kontra. Bada, goiz batean ikastolara sartu eta dortoka falta zen. Andereñoek dortokak ihes egin zuela esan ziguten. Sarea altxatua zegoen eta zulo bat ikusten zen. Zulo hartatik aterata ihes egin zuela esan ziguten eta guk halaxe izan zela pentsatu, nik behintzat bai. San Martin aldera eta joaten ginenean dortoka non topatuko bazter guztietara begira ibiltzen nintzen.*

*Duela urte batzuk, ez asko, andereño Koro Mexikora etorri zen abesbatza batekin batera bidaia batean. Bi-hiru egunetan elkarrekin egoteko aukera izan genuen eta garai haietako kontuak izan genituen hizpide sarritan. Dortokaren kontua atera zen eta hara non esaten didan dortoka hil egin zela! Pena ez emateko ihes egin zuela esan zigutela! Benetan, izugarriko atsekabea sentitu nuen, ezin nuen sinestu... eta andereñoek gezurra esan ziguten!! Ez zen*





*Gurutzne Kororekin, Mexikoko Euskal Etxean.*

Iaz, irakaslearen egunean, maiatzaren hamabostean ospatzen da Mexikon, ikasleek kuadro bat oparitu zidaten, bertan idatzirik esaldi hauxe: “Enseñar es dejar una huella en la vida de las personas”. Ondo baino hobeto adierazten du esaldi horrek ikastolako andereñoak omenduz aitortu nahi diedana. Txikitán jaso nuenak izan du orain emaitza.

Beraz, pasadizo xume batzuk baino indar sakonagoek lotzen dute txikitako lehena eta orain garen funtsa, orduko eta betiko andereñoek esker.

*Eskerrik asko*

**Gurutzne Etxeberria**

nire buruan sartzen eta minutu batzuk pasa ziren guztia barneratzeko. Sinestezina egiten zitzaidan eta aldi berean pentsatu... nola sinestu genuen ihesarena...!!

Pasadizo horrekin egin nahi izan dut lehenaldi eta ia orain gutxi goraien arteko lotura.

Irakaskuntzan jarduten dut, ikasleekiko harremanak asko betetzen nau eta harreman berezia dugula esango nuke, txikitán andereñoekin izandako eta haiengandik jasotakoaren pareko eta heredatutakoa.

Batzordeak bilera asko egin zituen; batzuk, Amezketa herriarrekin eta beste batzuk Hezkuntzako arduradunekin. Hezkuntzako ordezkariak zioten legeak zorrotzen ari zirela eta ikasturteko 25 ikasle eskatzen zirela. Eta, noski, Amezketa ez zituela. Hori dela eta 8 irakasle behar ziren eta noski euskaraz zekitenak. Hari beretik joanda ikasgelak, jangela...

Batzordeak, Ikastola eta Eskola Nazionala batzeaz gain, ikasle kopuru horretara inguratzeko Ugartera jo zuen eta Abaltzisketara. Ugarterkoek auzo berean zuten eskola, baina Abaltzisketako ikasleak Alegira jaisten ziren. Kalkuluak atera eta ohartu ziren Hezkuntzak eskatutako zenbakira inguratzen zirela. Hori ikusita buru-belarri jo zuten horiek Amezketa hurbiltzeko proposamenak egitera. Antza denez, nahiz eta batzuentzat nahiko traumatikoa izan, azkenean erabaki zuten Amezketa biltzea.

Kezka, bilera, eta borroka askoren ondoren, herritarrek lortu zuten arazo larriari iskin egin eta arazotik indartuta ateratzea. Lorpena: eskola nazionalekoek, gehi ikastolakoek, Ugarterkoek eta Abaltzisketakoek Herri Eskola berria osatu zuten, geroago Zumadi Herri Eskola izango zena. Garraioa ere lortu zen herri-gunetik at bizi zirenak hurbiltzeko, ikasgela hobeak zituzten (papelerakoak)... Beraz, estutasun larria bai, baina azkenean egoera bideratu zen eta hobekuntza nabariak lortu ere bai.

## 17 IKASTOLA ETA ESKOLA NAZIONALAK BATERATZEAREN NONDIK NORAKOAK

Ikastolaren sortze prozesua korapilatsua eta konplexua izan bazen, elkartzearena ere hala-ze izan zen. Errezelo eta horma asko apurtu behar izan zen bateratze prozesua gauzatzeko.

Batetik, ikastolaren sortzaile izan zirenek ere, nahiz eta elkartu beharra ulertu, ez ziren fidatzen Eskola Nazional izandako eskola markatu haren aldaketaz. Eta bestetik, urtetako tentsiozko harremanaren ondoren, Eskola Nazionalekoek ere bazituzten susmoak.

Susmo, errezelo eta iritzi oker horien argitze prozesuan, Amezketako eragileek diote-nez, laguntza estima-ezina izan zuten Eusko Jaurlaritza bihurtuko zen Euskal Kontseilu Nagusia deituriko behin-behineko erakundearen eskutik.

Lantxo honetan maiz aipatu dugu nolako eragina izan zuen Herriak Ikastolen sorkun-tzan. Eta hainbatetan azpimarratu dugu ikastolarena ez zela izan ezusteko perretxiko ba-kana. Ez, herri mugimendua izan zen eta mugimendu horrek gizarte eredu berri bat nahi zuen eta gizarte horretan euskarak eta euskal kulturak izan behar zuen ardatz. Eta ho-rretarako euskal eskola beharrezko zen. Diktadorearen heriotza eta demokraziaren indar-tzeak ekarri zituen aldaketak Euskal Herriko gobernu mailan ere. Horren helburuetako bat Euskal Herriko Eskolak euskararen ildora ekartzea izan zen eta eskola oro Euskal Eskola bihurtzea eta euskararen normalizazioan eragingo zuen zutabe bilakatzea. Hori guztia gi-zartearen ekimenez eman zen.

Beraz, Euskal Herriak bazuen, behin behinekoa bazen ere, egiturazko eragilea eta ho-rren ekiteko nagusia zen ezinean zebiltzan ikastolak eta Eskola Nazionalak batu eta eus-kal eskola bihurtzea. Asmo horiek zentzuzkoak eta aurrerakoiak baziren ere, gauzatu egin behar ziren eta arestian esan bezala errezeloz eta susmoz beteriko herritarren motxilak hustu eta eduki berriez bete behar ziren. Horretan Euskal Kontseilu Nagusiko arduradun batzuk izan genituen bidelagun.

Pauso berria emateko bidea lautze horretan ezin ahaztu M<sup>a</sup> Karmen Altzueta eta Lontxo Oiartzabal. Euskaldunak ziren eta euskaltzaleak. Euren hitzek eta mezuak beste tonu bat zuten. Ez ziren ikastolakoen ordezkariak, ezta Eskola Nazionalekoak ere, herriak lortutako egitura politiko berriko ordezkariak ziren eta euskaldunak. Euren mezua, beraz, ez zegoen kutsatua, ez zen interesatua. Ikastolakoei ziurtatu zien eurek baldintza oso txarretan egin-dako lan estima-ezinak jarraipena izango zuela eskola berrian. Alegia eskola berria Euskal Eskola izango zela, hau da, euskara eta euskal kultura izango zirela ardatz. Eta eskola na-zionalekoei, berriz, dagoeneko Franko eta bere mezua ahaztu beharreko historia zirela, eta eskola berriaren ibilbidea Euskal Gobernuaren bedeinkazio guztiak izango zituela, ez zela legez kontrakoa izango. Gainera, batasun berriak herriari euren harremanak normaliza-tzen eta kohesionatzen lagunduko ziola.

Ordurako antolaturik zen baita ere Ikastolen Elkarte. Horrek ere bere oniritzia eman zion bateratzeari. Bultzada hori ere erabakigarria izan zen oraindik zalantzak zituzten ikastola-kideentzat.

Bide luzea eta unetan korapilatsua egin ondoren heldu zen garaia bi eskolen batzeari baiezkoa edo ezezkoa emateko. Hori asanblada orokorrean erabaki zen eta gehiengoz ba-tzea erabaki zen.



- 1\_ Iñaki Balerdi
- 2\_ Joseba Gorostidi
- 3\_ Joxemiel Hermina
- 4\_ Joxe Mari Sarasola
- 5\_ Albert Etxeberria
- 6\_ Jakobe Zubeldia





## GU, LATURUKO UNIBERTSITATERA

*Ez zen toki txarra. Gela zabal eta argitsua. Bi andereño eta taldeetan lanean gu. Komuna ere bai: gela barruan, iskina batean. Udaletxean ginen.*

*Espazio edo txoko ezberdinetan lan egiten genuen, horietako bat nuen gogoko. Entziklopedia itxurako liburu handi eta iruditsuak zeuden bertan, orriak pasa eta irudi haiei begira gustura egoten nintzen, jakin-mina pizten zitzaidan. Oso gogoan dut bat, non askotariko aeroplanoak, pilotuak, eta pertsonak hegoekin hegan egin nahian agertzen ziren; gizakiaren grina hegaldatzeko, abiazioaren hastapenak eta bere bila-kaera kontatzen zituen, inondik inora, 6oko hamarkadara arte noski.*

*Herriko Etxean, ordea, gutxi irauin genuen. Itxi egin ziguten ikastola. Gobernu Zibiletik zetorren agindua, garaiko erregimenarentzat arriskutsuak ziren ikastolak, hortxe utziko dugu.*

*Egun horretako oroitzapen oso lauso eta urrunekoak dauzkat: goiza, plaza, Udaletxe aurrea, jende asko bertan eta haien artean Koro andereñoa, triste, negarrez... Asko eragin zidan horrek. Eta, ondorengo egunetan ikastolarik ez. Beti pentsatu izan dut urteren bat egon gine-la eskolarik gabe... Bi aste izan zirela, jakin dut duela gutxi.*

*Ondoren, ikasle txikiak elizako sakristian kokatu zituzten, eta gu, nagusienak, Laturuko Unibertsitatean. Goialdean gela bi utzi zizkiguten. Laukizuzen formako gela bat zen gurea, eskola-mahaiez bete buelta osoan. Eskailera ilun haiek hamaika aldiz igo eta jaitsi genituen, eta ez bakarka, badaezpada ere.*

*Tokia ez ezik, garai berezia izan zen Laturukoa. Udaletxeko aldiari, erreferentea Koro andereñoa izan zen bezala, hemen, Joxepi andereñoa izango zen gure erreferentea.*

*Ez daukat liburu eta ikasgaien inguruko oroitzapenik; han aske, libre eta zoriontsu ginenaren ustea daukat. Taldea ez zen handia izango eta gure artean harreman estua genuela uste dut. Handik gutxitan jaisten ginen plazara jolastera. Etxeko baratzera ateratzen ginen erre-kreora: han ibiltzen ginen baratzako bidezidorretan barrena korrika, harrapaketan, erreketan, ezkutaketan (papioloketan). Porru eta letxugaren bat zapalduko genuen noski, baina, ez dut gogoan inork errietarik egin izana.*

*Jolastorduari “baratza” esaten genion, Euskal Herriko beste hainbat txokotan bezalaxe. Gasteizko ikastola guztietan ere 8oko hamarkadaren bukaera arte “baratza” deitu izan zaio jolastorduari.*

*Laturuko aldia ederra izan zen, baina baldintzak ez zirenez egokienak egoitza berria prestatu ziguten.*

*Penta azpian, etxape osoa hartzen zuen ikastola berria estreinatu genuen. Ikasle kopuru ugaria bildu ginen bertan. Gela handi bat, erdibitzaile bat, istean bi gela sortzen zituelarik, eskola-mahai txukunak, biltegi moduko bat ertzean, eta atzealdean hesiz inguratutako lur zatia. Pozik eta harro geunden gure ikastolarekin.*

*Gu nagusienak izanik, protagonismo berezia geneukan: ardurak genituen, autonomoak ginen, txikienez ere ginen. Hauentzat, ipuin kontaketa, abesti eta antzerki emanaldiak*

prestatzen genituen, ariketa matematikoak egiten laguntzen genien, eta guztiok batera irteera ugari egiten genituen inguruetara.

Jolastorduan plazara ateratzen ginen, futbolearen aritzeko edo pilotan, kontzejupean. Beste eskoletako ikasleekin harreman gehiago genuen eta pixkanaka handitzen ari ginen.

#### AMEZKETAN, IKASTOLA?

Aurten gertatu zait. Ikastolan ibili nintzela esan eta harridurazko galdera: Amezketan ikastola zeneukaten?

Bai ba, Amezketan bazegoen Ikastola, eta ez nolana hiko gainera!

Aurretik, ikastolaren aitzakian oroitzapenei astinalditxo bat eman diot, jarraian ikastolak nolako ezaugarriak zituen deskribatzen saiatuko naiz.

Ezer baino lehen, aitortu behar dut zorte ederra izan zela ikastolan ibili izana. Zorteko, ikastolan euskaraz irakasteaz gain, gure kultura aldarrikatzen genuelako. Ingurune sozialak emana zigun euskaldun izaera kulturala, ikastolak onetsi, landu eta sustatu egiten zuelako.

Gelako liburu apurak euskaraz ziren; ipuin eta olerkiak euskaraz entzun, kontatu, edo erreztatzen genituen; euskaraz abesten genuen; gure nortasuna euskaraz eta euskaratik erakitzen joan ginen. Garai haietan ezohikoa zen eta gaur egun ere ez da beti hala izaten.

Zorteko izan ginen ikastolan jaso genituen baloreengatik ere. Naturarekiko errespetua eta interesa praktikan jartzen genuen. Horrela, animaliak izaten genituen zaintzeko, esaterako, dortoka bat dut gogoan. Mendialdera oso maiz joaten ginen, bertan jolasteaz gain, behaketa lanak egin, idatziz jaso, eta ingurua marrazten genuen; begi-bistan izanez gero Jauregi-Txiki, gure baserria, marraztu gabe ez nintzen itzuliko!

Egunerokoan, ikaskideen arteko harremanak elkar-laguntzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritzen ziren. Elkar asko laguntzen genuen eta harrokeriazko jarrerak bazterten ziren.

Nik ez dut gogoan buruz ezer ikasten genuenik: olerkiak, abestiak, ipuin kontaketa, antzerkia, kaseteen entzunez edo kideen aurrean antzeztuz barneratzen genituen.

Irakurketa-idazketa, ez dut gogoan nola ikasi genuen. Nire ustez bakoitzaren erritmoak kontuan hartzen ziren, bakoitzak bere heldutasunaren arabera garatzen zituen gaitasunak.

Ingurune gaia, ikerketa eta behaketaren bidez lantzen genuen, liburuak nahiz ingurua bera baliabide hartuta.

Arazoak denon iritziak aintzat hartuz eta errespetatuz gaingitzen genituen. Horrelakoa zen gure ikastola: euskalduna, gizartearen txertatua, gaitasun eta erritmo guztiak aintzat hartzen zituena, metodologia eta pedagogia aldetik oso aurrerakoa, berritzailea...

Hainbestera ote zen? Ez da ahaztu behar Ikastolen proiektua 60ko hamarkadan sortu zela, zeinetan ilusioa borborka zegoen, aldaketa gogoa nonahi, Euskal Herria eraikitzeko eta gizarte berri bat sortzeko irrika... Horrek guztiak emaitzak eman zituen eta emaitzetako bat Ikastolen sorrera izan zen Euskal Herri osoan; eta zorionez, ikastola hauetako bat Amezketako Ikastola izan zen.

**Lukax Etxeberria**

18 IKASTOLA ETA ESKOLA NAZIONALAK BATZETIK ESKOLA BERRIA SORTU ZEN, GERO ZUMADI HERRI ESKOLA (EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA) IZANGO ZENA

Franco diktadorea hil ondoren hausnarketa giroa hedatu zen gure herrietan. Bertan parte hartu zuten ikastola txikietakoko ordezkariak, udalek, Eusko Jaurlaritzaz izateko zubi-lana egiten ari zen Eusko Kontseilu Nagusiak eta Ikastolen Federazioek.

Amezketan, beste herri txiki askotan bezala, indarrean ziren bi eskola: bat ikastola eta bestea nazionala. Bakoitzak bere aldetik ez zuen behar hainbat ikasle, eta horrek galarazten zion sare bakoitzari eskolatze osoa Amezketan ematea.

San Bartolome ikastolak, urtetako bidean, nahiz eta lan itzela egin, ez zuen lortu Amezketako ikasleen gehiengoa bere altzora erakartzea. Lege arazoek, behar hainbateko ikasle kopurua ez izateak, nekazal inguruko herria izanik euskarari eta euskal kulturari zein pedagogia berriari behar hainbateko garrantzia ez emateak, ekonomia arazo handiak... egoera jasanezinera eraman zuten ikastola. Herrian ere bazen bi eskolen arteko lehia kaltegarria, inori inolako mesederik egiten ez ziona eta gizartearen nolabaiteko arrakala sortzen zuena.

Bi eskoletatik, Ikastola euskaraz, euskal Kulturaren alde eta pedagogia berritzailearen bitartek. Eskola Nazionala, berriz, gazteleraz eta mugimenduaren traje zaharra edo zama ezkorra gainetik kendu ezinik. Herri txikietakoko ikasle kopurua, ordea, ez zen nahikoa bi eskolak

elikatzeko. Bestalde, urtetan urratutako bideak, zenbait herritan bederen, sortu zuen halako zatiketa, gizarte alorrean guztiz desagokia zena.

Ordurako Euskal Herrian beste garai bat bizi zen, demokraziaren etorrerarekin egituratze marko berria ari zen diseinatzen. Horrela, 1977ko abenduaren 30ean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomiaren lehen testua onartu zuen Espainiako Ministro Kontseiluak, Nafarroa kanpoan utzirik. 1978ko otsailean, berriz, beste organo bat sortu zen, Eusko Kontseilu Nagusia, Ramon Rubial (PSOE) buru zela. 1980 urtean, berriz, diktadura ondorengo lehen Eusko Jaurlaritzaz eratu zen eta Karlos Garaikoetxea (EAJ) izendatu zuten lehendakari. Horrela, Euskal Kontseilu Nagusia bertan behera geratu zen. Dena abiada bizian zetorren. Urte bereko irailean, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza eskuduntzak bere gain hartu zituen, eta ordura arteko estatuaren eskolak (nazionalak edo publikoak) transferitutako eskola bihurtu zituen.



Koro, Guadalupe eta Joxepi Eguberritan.

Beraz, ordurako Eusko Jaurlaritzak bazuen hezkuntza alorrean eskuduntza, eta horretan lanean hasi zen. Baina, tamalez, ez zuten hezkuntzarako proiektu propiorik. Eta zeri heldu zioten? Bada, errazena zenari, herri txikietako ikastolak itxi eta zegoen sare publikoan sartzeari. Hori bai, sare hori euskalduntzeko asmo garbiarekin. Honetaz haxe dio Paulo Agirrek, garai hartako Ikastolen Elkarteko idazkariak:

*Ikastolen ikuspegitik, gure asmoa zen, argi eta garbi, herri txikietako bi eskolak IKASTOLA bihurtzea, eta kitto! Baina horrek arazoak zekartzan Publikoko irakasleekin. Izan ere, ikastolara pasatuz gero, jada ez ziren funtzionario izango, eta, noski, profesionalki galtzaille ateratzen ziren. Jaurlaritza horretaz ohartuta, eta beste proiekturik ez zuenez, alderantzizko erabakia hartu zuen: irakasleak, ikasleak eta gurasoak Publikora bideratzea.*

Horrela, 1979-80 ikasturtean hasi eta 1983ra bitartean hamabost ikastolatik gora eta beste horrenbeste eskola publiko fusionatu ziren, tartean Amezketakoa. San Bartolome Ikastola eta Eskola Publikoa batu ziren 1979-80 ikasturtean eta geroago ZUMADI izeneko euskal eskola publikoa osatu zuten. Ikastolako irakasleek oposaketa restringituak edo mugatuak prestatu eta gainditu zituzten eta funtzionario izatera pasa ziren. Bestalde, fusioa egin zenetik aurrera, Euskal Eskola zenez, euskarazko eta euskal kulturaren aldeko ikaste-txe bilakatu zen.

Norbaitek zilegitasun osoz galde dezake ea Jaurlaritzak zergatik ez zuen alderantzizko erabakia hartu; hau da, zergatik ez zen oinarritzat hartu euskararen sustraitutako hezkuntza arautua zuena, ikastolena alegia; zergatik ez zuen lehenetsi euskal kultura ardatz zuena eta pedagogia berriaren aldeko lanean bide luzea egindakoa eta zergatik ez zuen bertara bideratu ezaugarri horietatik urrun xamar zen orduko eskola publikoa.

Kezka bera islatzen du J. Iñaki Etxezarretak, garai hartako Ikastolen Elkarteko ardura-dunak, Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiaz:

*“Gobernuak errazegi jokatu zuen. Gaurko ikuspuntutik begiratuta, nabarmen dago Jaurlaritzako garai hartako agintariek ez zutelako oinarritzat hartu ikastola, ezarrita zegoen eskola publikoa baizik. Izan ere, euskal abertzaletasuna berariazko hezkuntza proiekturik gabe iritsi zen agintera. Horrela, estatuaaren eskola eurena egitea erabaki zuten.”*

Erabakiak azkar hartu baziren ere, prozesuak luze jo zuen. Amezketan, adibidez, urte batzuk behar izan ziren irakasleen klaustroa erabat euskalduntzeko eta euskal curriculuma finkatzeko. Oro har, ordea, prozesuak aukera eman zuen herri txikietako tirabirak arintzeko eta hezkuntza euskalduna hedatzeko.

Amezketan, jakin badakigu, izan zirela irakasleak, bi eskolatakoak, eta gurasoak aurretik zegoen tentsioa arintze aldera, ekintza komunak antolatzen fusio aurretik ere saiatu zirenak. Adibidez, Eguberrietan elkarrekin abestera ateratzea lortu zuten. Behin bateratzea gauzatuz gero ere Eskola Publikoan lanean ari zen Guadalupe irakasleak zubi lan garrantzizkoa burutu zuen. Eskerronez aipatzen dute Guadaluperen jarduna San Bartolome ikastolatik Zumadira pasa ziren irakasleek.





## AMEZKETA, NIRE AITAREN JAIOTERRIA

Ni, Usurbilgo eskola publikoa utzi, eta Amezketara etorri nintzen, bertan eman baitzidaten plaza. Pozik, gainera, nire aitaren jaioterrria baitzen. Hori 1973-74 ikasturtean izan zen. Izen hau zuen eskolak: “Escuelas Graduadas 25 años de paz”. Bertan aurrez ziren irakasleetatik ( Prudentzio, Carmen eta Maika Del Rio) inork ez zekien euskaraz. Oroitzen naiz nola adierazi zion ume batek bere amari: “Ama, irakasle batek nik bezala hitz egiten du”.

Banekien ikastola bazegoela, baina ez zen nabari euskararen eta ikastolaren aurkako girorik; nik behintzat ez nuen nabari.

Nik garbi nuen gazteleraz irakastea zela nire lana, izan ere gurasoek ere hori nahi zuten. Beti pentsatu dut gurasoek askatasun osoa zutela eta izan behar dutela euren seme-alaben ikastetxea hautatzeko. Gurasoekin harreman ona neukan. Nire bizitzako ibilbide nagusia hauxe zen: eskolatik etxera eta elizara. Gogoko izan dut beti nire ikasleen gurasoak ezagutzea eta eurekin harremana izatea. Zenbait baserritara joateko Batiste Galartzari eskatu ohi nion laguntza eta berak eraman ohi ninduen.

Ikastolako irakasleekin beti izan dut harreman ona. Oroitzen naiz Korok Oihana izan zuenean Maika lankidea eta biok, nola joan gintzaizkion etxera bisitan.

Gogoan dut baita ere, lehen ikasturtean, arratsalde batean, guraso batzuk etorri zitzaizkidala ea Eguberritan Eskola Nazionalakoak eta Ikastolakoak batera atera ote gintezkeen proposatzera. Proposamena ezin hobea iruditu zitzaidan. Entseguak ikastolan egiten genituen, zorua egurrezkoa baitzuen, eta handiagoa ere bai baitzen. Gogoan dudanez, euskaraz eta gazteleraz abesten genuen. Etxeren batean berriki hildako norbait bazegoen, abestu orde zaita gurea errezatzen genuen. Ateratzen genuen dirua erdi banatu egiten zen eta bakoitzak bere eskolako beharretarako erabiltzen zuen.

Nik ezagutu nuen Amezketako Eskola Nazionallean, axaletik behintzat, ez zen Frankismoaren aztarna nabarmenik, beharbada azken urteak zirelako. Ikasleei azalpenak emate-rakoan, hobeto uler zezaten, euskaraz ere azaltzen nizekin. Ikasten genituen abestiak ere gazteleraz eta euskaraz izaten ziren.

Bestalde, garai hartan Erljioa apaizak ematen zuen eskolan bertan. Erljio askatasuna indarrean jarri zenean, herriko apaizarekin adostuta, erabaki zen Erljioa elizan emango zela. Horrela, D.Emigdio, D.Martin eta nire artean ematen hasi ginen.

Amezketan bi eskolen arteko bateratze prozesua martxan jarri zenean, zenbait bilera egin ziren. Eusko Kontseilu Nagusiko M<sup>a</sup> Karmen Altzuetaz eta Lontxo Oiartzabalez oroitzen naiz. Bilera erabakigarria Udaletxean izan zen eta gehiengo handiz bateratzeari BAIETZ eman zitzaion. Izugarrizko poza hartu nuen. Kezka bakarra izan nuen: nire euskara maila ez zela oso maila jasokoa. Izan ere, gauza bat da ahoz hitz egiteko gai izatea eta bestea gaiak euskaraz emateko trebetasuna izatea.

Horren harira ikuskariak eskatu zidan euskarazko titulua ateratzeko, beharrezko izango nuela eta. Horrela, Donostiako Oñatibia Euskaltegira joan nintzen eta bi urte barru EGA eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko tituluak atera nituen.

*Ikastolatik etorritako irakasleekin oso harreman ona izan nuen eta denon borondate onez nahiko ondo gauzatu zen uztarketa. Gero jakin genuen, arduradunen batek esanda, Amezketa bateratzea oso era onean gauzatu zela.*

*Ondorengo urteetan, oro har, elkarlana emankorra izan zen: guraso arduradun taldea osatu zen, eskolako irteerak antolatzen genituen, berrikuntzak aurrera eramateko prest geunden denok; Nemiroskiren filosofia hautatu genuen irakurketa idazketa lantzeko; Amara Berriko antolaketa ezagutu eta martxan jarri genuen; matematika lantzeko Ikastolen Elkar-teak argitaratutako Baga-Biga materiala erabiltzen genuen; euskal kulturarekin lotura zuten festak ospatzen hasi ginen: Olentzero, Inauteriak, Danborradak, antzerki saioak...*

**Guadalupe Altuna**

Bateratze prozesu horretan azken erabakia Eusko Jaurlaritzak hartu bazuen ere, izan ziren eragile gehiago. Herri txikietako udalek ere nolabaiteko konponbidea eskatzen zuten, Ikastolen Elkar-teak ere, gertatu zen urtean gertatu zelako eta Elkar-tea ere oraindik ahul zegoelako, baietza eman zion fusioari, Gobernuari egindako kontzesio modura, noski.


Esanak esan, San Bartolome ikastola Zumadi Euskal Eskola Publikoa bilakatzea ez zen, inolaz ere, ikastolaren porrota izan. Alderantziz gertatu izan balitz ere, hau da, eskola publikoa ikastola bihurtu izan balitz ere euren porrota izango ez zen bezala. Elkar-teak herriari begira hobekuntzak ekarri zituen. Apurka-apurka ikastolaren ardatzean zeuden hiru hankak, euskara, euskal kultura eta pedagogia berritzailea, Zumadi Euskal Eskola Publikoaren oinarri bihurtu ziren. Beraz, ikastola izena desagertu zen, baina haren ezaugarri guztiak Zumadin txertatu ziren.



*Ezkerretik eskuinera: Joxepi, Guadalupe, Lurdes eta Koro.*



Koro, ikasle talde batekin.



- 1\_ Josune Larreta
- 2\_ Arantxa Zubeldia
- 3\_ Inigo Zubeldia
- 4\_ Jon Etxeberria
- 5\_ Gurutzne Etxeberria
- 6\_ Koldo Alijostes
- 7\_ Nekane Zubeldia
- 8\_ Arantxa Iturbe
- 9\_ Kaxpar Larreta
- 10\_ Kristina Artola
- 11\_ Garbiñe Balerdi
- 12\_ .....
- 13\_ Kostan Zubeldia
- 14\_ Maitere Otermin
- 15\_ Sebastian Elozegi

- 16\_ Koro Zabala ( irakaslea)
- 17\_ Migel Anjel Aiestaran
- 18\_ Rosarito Mujika
- 19\_ Joxe Urtaza ( Etxetxo)
- 20\_ Joxe Mari Garin

- 21\_ Garbiñe Telletxea
- 22\_ Aitor Zubeldia
- 23\_ Joan Ander Amundarain
- 24\_ .....
- 25\_ Lenengo Telletxea

**19 IKASTOLAK ESKOLA BERRIAREN ESKU JARRITAKO ONDAREA**

Ikastolak bateratze horretara eraman zuen bere dotea, ez zen esku hutsik joan. Urtetan, larre motzean arituz, herri aurreratua goetatik jasotako ekarpenekin osatutako praktika pedagogikoa berarekin eraman zuen eta eskola berriari eskaini zion. Pozik gainezka gainera. Ekarpene horietako batzuk aipatzearen, hona esanguratsuenak:

Indarrean jarri zuten praktika pedagogikoak berarekin zeraman giro lasaia eta alai. Hori islatzen da ikasleentzako testigantzetan. Ikasgela ez zen euren bizitzatik kanpo zegoen eremu arrotza. Andereñoa maite zuten eta harekin ikasgelan egiten zituzten jolasen bidez eta eskolatik kanpora egiten zituzten bisita, hosto biltze, xomorro biltze eta arakatzeko bidez ikasten zuten. Beraz, ikaslea zen ardatza eta inguru hurbileko errealitatea ezagutzeko lortzen zuten ikastea. Beraz, Pedagogia berriaren aztarnak eskola horretan txertatu ziren hasiera-hasieratik. Ez dugu ahaztu behar horri guztiari egun ere garrantzi handia ematen zaiola.

Bestalde, garai hartan ez zen ohikoa hiru urterekin eskolan hasia. Hori ikastolaren ekarpena izan zen. Neska eta mutilak elkarrekin. Amezketan ere, ikastolak bidea urratu ondoren, Eskola Nazionalak bere Haur Eskola antolatu zuen.

Eta, ez da ahaztu behar, azpimarragarria baita, gurasoen esku hartzea. Seme-alabak ikasgelara eramateaz gain eta horien heziketaz arduratzearekin batera, ikastolaren funtzionamenduz ere arduratzen ziren. Han ibiltzen ziren bat egin eta bestea egin, batekin bildu eta besteekin bildu. Beti ikastola buruan. Askotan entzun dugu nola joaten ziren gurasoak asteburuan leihoak konpontzera edo kristalak jartzera. Auzolana zen nagusi. Ikastolako gelak eta bertako funtzionamendua ikasleena, irakasleena eta gurasoena zen. Hori, noski, zerbait berria zen. Ez zen horrelakorik gertatzen eskola nazionalan eta erlijiosoetan.

Badira ikasle ohien artean, egun irakasle direnak eta sare ezberdinetan dabilzanak. Horiek guztiak azpimarratzen dute ikastolaren ereduak orduko eskola mundua demokratizatu zuela, irauli zuela, eskola ulertzeko modu berri bat jarri zuela praktikan. Eskola nazionalak estatuarenak ziren, eta erlijiosoak elizarenak. Baina ikastolak gurasoenak ziren, edota herriarenak. Herriak sortuak eta herriarentzat zihardutenak. Hori aurrerapauso handia izan zen.


Horretaz guztiaz gain, ezin ahaztu euskarari eta euskal kulturari emandako lehentasuna. Ordura-arte indarrean zegoen eskola-praktika eta indarrean zen ideologiaren aurkako ekimena izan zen. Euskara sukaldian eta jolasean ibiltzeko hizkuntza izateaz gain, ikasketa-hizkuntza ere bazela frogatu zuen, hau da, eremu formalean ere erabil zitekeela. Euskararekin batera, euskal kultura ere ezagutu genuen: euskal mitologia, Olentzero, Santa Ageda... Zenbat ekimen berri martxan! Gaur ezagutzen dugun Euskal Herria ezin da ulertu ikastolek egindako lan eskergarik gabe.

Eguno eleaniztasunaren gogoeta teorikoa eta praktikoa ezin da ulertu ikastolek indarrean jarri zuten elebitasuna baloratu gabe. Euskara oinarritzat harturik jo zen eleaniztasunera. Ingelesaren irakaskuntza goiztiarrean ere, geroago noski, ikastolak izan ziren aitzindariak eta egun Euskal Eskola orok bere Hezkuntza eta Hizkuntz Proiektuan txertatua du eleaniztasuna. Kontzeptu horiek ezezagunak ziren eskola nazionalak eta erlijiosoetako hezkuntza praktikan.



Guadalupe, bere ikas-taldearekin.

- 1\_Albert Etxeberria
- 2\_Iñaki Balerdi
- 3\_Maxux Agirrezabala
- 4\_Guadalupe Altuna
- 5\_Garbiñe Gorostidi
- 6\_Arantxa Agirrebarrena
- 7\_Manuel Garmendia
- 8\_Joxe Mari Garmendia
- 9\_Joxe Jabier Insausti
- 10\_Inazio Artola,
- 11\_Arantxa Zuriarrain
- 12\_Ainhoa Altuna
- 13\_Arantxa Etxeberria
- 14\_Alazne Artola
- 15\_M<sup>a</sup> Anjeles Mujika
- 16\_Nekane Mujika
- 17\_Aitziber Karrera
- 18\_Larraitz Iztueta
- 19\_Joxe Mari Altuna



- 20\_Juan Joxe Lopetegui
- 21\_Joxe Jabier Altuna
- 22\_Andres Gorostidi
- 23\_Gregorio Ugartemendia
- 24\_Iñaki Altuna
- 25\_Jon Esnaola

**20\_HERRI ESKOLAREN IZENA ETA IZANA**

Euskal Eskola berriaren izena, hots, “ZUMADI” izena, M<sup>a</sup> Karmen Zubeldiak proposatu zuen, geroago noski, paraje horretan zumadia baitzen nagusi. Berari dagokio izena asmatzearen ohorea. Bejondeizula M<sup>a</sup> Karmen! Eta eskola publiko berriari HERRI ESKOLA deitu zitzaion. Gehigarri horrek ematen dizkio Amezketako ZUMADI euskal eskola publikoari ezaugarri azpimarragarriak.

Lantxo honetan, ideia azpimarratze aldera, maiz errepikatu dugu San Bartolome Ikastola herriak sortu zuela eta herriarentzat lanean aritu zela. Bada, gauza bera esango dugu Zumadi Herri Eskolaz ere. Izan ere, herriaren nahi, borroka eta lan askoren ondoren gauzatu baitzen proiektu berria, hau da, Zumadi Herri Eskola. Beraz, Zumadi ere Amezketako herriaren emaitza da eta Zumadiri dagokio bere lana herriari begira gauzatzea, egun egiten duen bezala. Zumadiko zuzendaritzaren ardura da irakasle berriei historia osoa gogoraraztea eta oinarri horretan erroak botata, proiektuaren partaide aktibo izan daitezen laguntzea. Ideia nagusi hau ahaztuko balitz, bere genetan erroturik den ezaugarri nagusia alboratzea lekarke, identitatea galtzea alegia. Ikus dezagun zehatzago Zumadiren sortze prozesua.

**20.1\_Zumadi herri eskola, amezketarren lorpena**

Amezketak eskola eskaintza anitza izan du zenbait garaitan. 1978. urtea, arazoak arazo, infleksio puntutzat har dezakegu. Urte horretan herriak jaso zuen berriak, hots, eskolaren eragin eremua murriztu behar zela zioenak, lurrikara sortu zuen Amezketako jendartean. Historikoki herri txikietan hain sustraitua egon den auzo-lanerako jarrera nagusitu zen berriro, eta herriko ordezkariak, eskolatakoeak, elkarteetakoak, gurasoak, gazteak... ESKOLAREN ALDEKO BATZORDEA osatu zuten eta lanari ekin zioten, gutxitan ikusten den borondate eta grinaz.

Horrela, lehenik, zeharka jakindako berri kezagarriaren nondik norako zehatzen jakitun egin ziren Hezkuntza Ordezkaritzan, eta herria informatzeari ekin zioten. Ondoren, egoerak behartuta eta irtenbideak aurkitu nahian etengabeko bilera arrosarioa gauzatu zen. Arazoa zen, lege berrien eskariz ikasgelako 25 ikasle eskatzen zituztela, eta Amezketako kopuru horietatik urrun zegoenez, besterik gabe, herriko ikasleak Alegira bidaltzeko asmoak zituztela.

Gaiari jirabira asko eman ondoren ohartu ziren Amezketako ikasleei ( Eskola Nasionalekoei eta Ikastolakoei) Ugartekoak gehituz gero eta Alegira bideratzen ziren Abaltzisketako ikasleak Amezketara bideratuz gero, Hezkuntza Ordezkaritzaren oinarriko baldintza betetzen zela. Horri, noski, gaineratu behar zitzaizkion behar ziren ikasgelak, maisuentzako etxebizitzak, jangela...

*Zumadiko irakasleak mozorrotuta.*

Hori jakinda, azken txanpari ekin zitzaion, ez noski arinenari. Beste bilera ugari egin ziren Ugartekoak eta Abaltzisketakoak animatzeko, konbentzitzeko eta proiektu berriaren ildora bideratzeko. Lan batzuek eta erronka batzuek ez dute izaten maiz desiratutako emaitzarik. Horrek, ordea, bai. Herriak nahi zuelako, ideiak garbi zituelako eta horren alde borroka egin zuelako lortu zen Amezketan eskola berria.

## 20.2\_Zumadi herriarentzat sortua

Eskola berri horrek ikastolak sortze unetik beretik aldarrikatu eta gauzatzen ahalegindu zen Euskal Eskolaren izaera onartu zuen berarentzat ere. Euskara eta Euskal Kultura oinarritzat harturik eleaniztasunera joko zuena, hori baitzen herriak nahi zuena. Hau da, euskararen leihotik irekiko zen mundu zabalera, pedagogia irizpide berriek hartuko zuten eredu zaharren lekua, eta gorpuztu nahi zen jendarte eredu berrirako ikasleak prestatzeaz arduratuko zen.

Horretarako, lehen pauso modura, euskaraz ongi zekiten irakasleak behar ziren. Bat-batean ezin bazen ere pausoz pauso, baina pauso sendoz. Eta horrezaz gain, hau da, euskara ego-kia eta aberatsaren jabe izateaz gain, euskararen erabilera sustatzeko borondatea lehenetsiko zen Hizkuntz Proiektuan. Izan ere, euskal eskolako irakasleek, Euskal Eskolako profesionalak badira, hau da profesional osoak badira, titulua izateaz gain, akademikoki gaitegia irakasteko gai izateaz gain, aipaturiko profesionaltasunaren muinean eraman behar dute euskararen aldeko jarrera ekintzailea eta baikorra.

Bestalde, Zumadi Herri Eskolak Amezketan txertatuta egon behar du. Zumadik bere curriculumean kontuan hartu behar ditu Amezketaren ezaugarriak: hizkuntzazkoak, egoera sozio-ekonomikoa, herri tradizioak, kultur mugimenduak, Amezketara datozen kanpotarren egoera...

Egungo Zumadik altxor hori du oinarrian eta hor finkatuta eraikirik du bere Hezkuntza Proiektua eta Hizkuntz Proiektua.

## 20.3\_Lehen pausoak, zalantziak

Poza zen nagusi Amezketan. Arnasa sakon eta lasai hartzeko moduan ziren Zumadiren sor-kuntzan ibilitako eragileek. Halere, askotan bezala, usteak erdi ustel. Ikasturte berriaren hasieran ezustekoa izan zen nagusi. Zer eta bertaratu ziren irakasle batzuk ez zekiten euskaraz. Beraz, Euskal Eskolaren oinarritzko baldintzak, hasiera hasieratik, huts egin zuen.

Berriro haserreak, bilerak...**azkarregi egin dugu bateratzea...Hezkuntza Ordezkaritzak ez du bere hitza bete...** Guraso batzuentzat, non eta Amezketan, ondo zegoen gatzeleradun irakasle batzuk izatea; beste batzuentzat nabarmen atzera egitea zen.

Denborarekin urak bere ildora biltzen hasi ziren. Hezkuntza Ordezkaritzak aitortu zigun Funtzio Publikoaren Legea zutela mugatzen eta ez zutela aukerarik eta denborarik izan emandako hitza bere osotasunean betetzeko. Baina ahalik eta azkarren saiaturiko zirela hori guztia bideratzen. Eta guk pazientzia izateko ze apurka bederen joango zirela hutsune horiek betetzen.

Egia esan, nahiz eta Hezkuntzaren argibideak ulergarriak izan, ez ziren urte errazak izan. Irakasle berri batzuen profila ez zen Amezketara egokitzen. Ez zuten Amezketa ezagutzen eta euren jardunak deserrotua zirudien. Ez ziren talde-lanera ohituak eta Euskal Eskola finkatze-ko ahaleginetan zebilen eskolarentzat eta irakasleentzat balazta eta traba izan ziren.

Urte batzuen buruan, ordea, eurek ere ohartu ziren horretaz guztiaz eta Hezkuntza Ordezkaritzaren laguntzaz Amezketa utzi zuten. Horien ordezkoen jarrera bestelakoa izan zen, eta denbora gutxi barru Amezketako ZUMADI Herri Eskolak bere benetako bideari heldu zion eta Ipar horrek darama geroztik aurrera eta aurrera.

21 IKASTOLAKO IKASLE OHIAK  
AMEZKETAKO LEHEN EUSKAL IKASLEAK

1962an  
jaiotakoak



«  
**Gaxpar  
Larreta**



«  
**Arantxa  
Sagastume**



«  
**Koldo  
Alijostes**



«  
**Lurdes  
Etxeberria**



«  
**Arantxa  
Sagastume**



«  
**Lukas  
Etxeberria**

1963an  
jaiotakoak



«  
**Nekane  
Zubeldia**



«  
**Jose Joakin  
Urtaza**



«  
**Jon  
Etxeberria**



«  
**Kristina  
Artola**



«  
**Rosarito  
Mujika**



## 1964an jaiotakoak



«  
**Jose Inazio  
Zabala**



«  
**Jose Mari  
Garin**



«  
**Maitere  
Otermin**



«  
**Iñigo  
Zubeldia**



«  
**Sebastian  
Elosegí**

## 1965ean jaiotakoak



«  
**Ana  
Etxeberria**



«  
**Aitor  
Zubeldia**



«  
**Arantxa  
Zubeldia**



«  
**Iñaki  
Etxeberria**



«  
**Lurdes  
San Martín**



«  
**Lenengo  
Telletxea**

1965ean  
jaiotakoak



«  
**Josune  
Larreta**



«  
**Migel Mari  
Beain**



«  
**Mari Kruz  
Otermin**



«  
**Paxkual  
Lekuona**



«  
**Miren Garbiñe  
Balerdi**

1966an  
jaiotakoak



«  
**Ana  
Insausti**



«  
**Jon Ander  
Amundarain**



«  
**Arantxa  
Iturbe**



«  
**Jose Luis  
Beain**



«  
**Arantxa  
Zubeldia**



«  
**Jose Antonio  
Arandia**

1966an  
jaiotakoak



«  
**Gurutzne  
Etxeberria**




«  
**Jose Migel  
Elozegi**



«  
**Garbiñe  
Telletxea**



«  
**Kostan  
Zubeldia**



«  
**Karmele  
Zubeldia**



«  
**Juan Mari  
Ruiz**



«  
**Nekane  
Hermina**



«  
**Mañu  
Otermin**



«  
**Maite  
Amundarain**



«  
**Migel Anjel  
Aiestaran**



«  
**Maria Rosario  
Sagastume**



«  
**Mari Jose  
Hermina**



«  
**Patxi  
Agirrebarrena**



«  
**Jasone  
Etxeberria**



«  
**Joxe Mari  
Amundarain**



«  
**Mirari  
Zubeldia**



«  
**Iñaki  
Beain**



«  
**Edurne  
Garin**



«  
**Ramon  
Etxeberria**

## 1968an jaiotakoak



«  
**Aitziber  
Sagastume**



«  
**Mikel Gotzon  
Amundarain**



«  
**Idoia  
Zubeldia**



«  
**Joseba  
Karrera**



«  
**M<sup>a</sup> Victoria  
Amaia Balerdi**



«  
**Joseba  
Zubeldia**

## 1969ean jaiotakoak



«  
**Andoni  
Aiestaran**



«  
**Itxaso  
Telletxea**




«  
**Juan Mari  
Amundarain**



«  
**Aitor  
Amundarain**



«  
**Bingen  
Zubeldia**



«  
**Asier  
Etxeberria**

1970ean  
jaiotakoak



«  
**Ainhoa**  
**Etxeberria**



«  
**Aitor**  
**Iturbe**

1971n  
jaiotakoak



«  
**Aitziber**  
**Karrera**



«  
**Alberto**  
**Etxeberria**



«  
**Nekane**  
**Mujika**



«  
**M<sup>a</sup> Karmen**  
**Regillaga**



«  
**Jon**  
**Balerdi**



«  
**Andoni**  
**Belaunzaran**

1972an  
jaiotakoak



«  
**Joxe Ramon  
Garzia**



«  
**Eneko  
Karrera**



«  
**Asier  
Regillaga**




«  
**Ana  
Amonarriz**



«  
**Mikel  
Gurrutxaga**



«  
**Iraitz  
Galartza**



«  
**Asier  
Amundarain**

1973an  
jaiotakoak



«  
**Jon  
Garin**




«  
**Maite  
Tolosa**



«  
**Luis Mari  
Larreta**



«  
**Amagoia  
Etxeberria**



«  
**Haritz  
Saez**

1974an  
jaiotakoak



«  
**Iker**  
**Karrera**



«  
**Migel Angel**  
**Garzia**



«  
**Aitziber**  
**Ruiz**

1975ean  
jaiotakoak



«  
**Marta**  
**Amonarriz**



«  
**Xabier**  
**Saizar**



«  
**Izaro**  
**Galartza**



«  
**Ana**  
**Goitia**



«  
**Iban**  
**Artola**



«  
**Eider**  
**Amundarain**



«  
**Anartz**  
**Etxebarria**



«  
**Leire**  
**Eizmendi**



«  
**Eneko**  
**Galartza**



«  
**Oihana**  
**Saez**



«  
**Iban**  
**Gurrutxaga**







## BIZIA ETA INDARTSUA: ZUMADI ESKOLA (2018-2019 ikasturtea)

*Zumadiko irakasle, guraso eta ikasleak*

*Bizitza da proiektu bat  
pertsona den bezain handi  
iraupen luzeko froga  
urtetako korrikaldi...  
Horregatik entrenatzen  
egunero behar ari,  
etxea, herria, eskola  
mundura lotzeko hari...  
Istorio historiko  
martxa eta geldialdi  
bidean ikasitako  
harriz egin zen Zumadi  
lagun dezaiogun denok  
bultza eta zaindu adi  
herria hezten segi dezan  
belaunaldiz belaunaldi.*

**Doinua:** Habanera

# 5

## 1 ZUMADI: AMEZKETAKO EUSKAL HERRI ESKOLA PUBLIKOA

Zumadi eskola publikoa, 1979an sortu zen Amezketa herrian zeuden “Escuela Nacional” delakoaren, Ikastolaren, Ugarte auzoko eskolaren, Aralar papelerak zuen eskola pribatuaren eta Abaltzisketako ikasleen bateratze-prozesuaren ondorioz. Orduan, eta herriko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz, “D” ereduaren ezarri zuten bertan.

Hasiera batean, Amezketako haurrez gain, Abaltzisketakoak eta Bedaiokoak ere etortzen ziren. Abaltzisketako eskola, Amezketako eskolaren parte zen. 2005ean Abaltzisketako bere eskola sortu zuen eta geroztik haur abaltzisketar gehienak bertan gelditzen dira. Bedaiokoek Amezketa etortzen jarraitzen dute.

Zumadi ikastetxea publikoa da, D ereduakoa eta herrian bakarra. Guztion eskola da, herriko haur guztiak hartzen dituena. Irekia da, gurasoengandik eta herriko erakundeetatik edo taldeetatik datozen proposamenak jasotzeko prest dagoena.

Bestalde, herriko zenbait ohitura mantentzeko ere ahaleginak egiten ditu; hala nola, Gabonetan, Inauterietan, ikasturte amaieran, Korrikan... herrian murgiltzen da.

Herrian sortzen diren zenbait beharri erantzuteko ere irekia dago eta erabilgarriak diren neurrian, bertako instalazioak eskaintzen ditu.



Ikastetxearen Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuaren ardatza euskara izanik, pertsona eleaniztunak formatu nahi ditu. Euskara ardatza izanik, gaztelania eta ingelesean nahikotasun maila lortzea du helburu.

Kulturartekotasunaren aurrean jarrera irekia dugu Zumadi Eskolan eta gure euskal nortasunaren ezaugarrietatik abiatuz, euskaraz hitz egiten ez duten ikasleek lehenbailehen gure hizkuntza bereganatzea nahi dugu. Kultur aniztasunaren ERRESPETUA izango da muina.

Eskola osoan “proiektuak” lantzen ditugu. Proiektuen ardatza ingurune eta gizarte zientzietako gaiak dira. Horietatik abiatuz lantzen ditugu baita ere hizkuntzak lantzeko proiektuak.

Zumadi izena hartu zuenetik (1979 urtetik) eskolaren orain arteko ibilbidea, jarraian doazen testigantzetan laburbilduko dugu.

2 IRAKASLEAK, IKASLEAK ETA GURASOAK: ZUMADIKO EUSKARRI NAGUSIAK



2018-2019 ikasturteko irakasleak.



Mariaje tutorea eta HH2ko ikasleak.



Nekane tutorea eta HH3-4ko ikasleak.



Malu tutorea eta HH5 eta LH1eko ikasleak.



Mari Jose tutorea eta LH4ko ikasleak.



Amaia tutorea eta LH3ko ikasleak.



Leire tutorea eta LH2ko ikasleak.



Izaro tutorea eta LH5eko ikasleak.



Agustin tutorea eta LH6ko ikasleak.

### 3 JOXEPI SARALEGI ETA LURDES LARRETA, ZUMADIKO IRAKASLE ERRETIRATUEN TESTIGANTZA

#### OROITZAPENEN MUNDURA JAUZIA

*Ikastolatik Zumadira egin genuen jauzia. Hau da, Euskal Eskola klandestino eta legez kanpoko izatetik Herri Eskola euskaldun eta legez tatura. Eta begirada hor kokatzean, arrapaladan eta era nahasian ate joka hasten zaizkigu burutapen eta sentsazioak, bata bestearengandik nabarmendu nahian.*

*Batetik, eta batez ere, POZA, LASAITASUNA, ERAKUNDEEN BABESA... Bestetik, ordea, nolabaiteko KEZKA. Xehe ditzagun pozaren eta kezka iturriak.*

*Poza, izan ere, urritasun egoeratik, ia-ia miseria gorritik, une oro legeari iskin egin behar izatetik, eta presio gune aniztatetik aske izatera heldu baikinen. Sinestea ere ez zen erraza guretzat. Baina, nola ez, abiapuntu hori positiboki baloratzen genuen; urteak baikeneramatzan irakaskuntzaz gain eremu horietaz ere arduratzen. Horrek aukera emango zigun irakaskuntza eremuan, berariaz gurea zen lanean ekimenak eta eginahalak finkatzeko.*

*Poza, baita ere, Euskal Herriko Ikastolek, Amezketakoak barne, urratu zuten bidera biltzera zihozelako Amezketako ikasle guztiak. Eskola berria denon artean osatzean, ez ziren Amezketan bi eskola izango- bat euskal eskola eta bestea erdal eskola-, bakarra baizik, eta hori Euskal Eskola, Herri Eskola zen.*

*Poz izugarria, gure Herri Eskolan gauzatuko zelako Ikastolak urtez urte eta egunetik egunera aldarrikatu eta praktikan jarri zuena: euskararen irakaskuntza eta euskarazko heziketa. Hori, segur aski, ez zaigu hainbestekoa irudituko, gaurko talaiatik begiratuta. Baina, benetan, iraultza zen. Ikastoletan ematen zen euskal hezkuntza eskola publiko guztietara hedatuko zen eta hori pauso itzela zen Euskal Herriaren euskalduntzea helburutzat genuen guztiontzat.*

*Herriaren eraginez sortu ziren ikastolak, herriaren bultzadaz osatu zen lehenik Euskal Kontseilu Orokorra eta geroago Eusko Jaurlaritza, eta erakunde horien babesean sortu zen Eskola Berria, geroago Zumadi izenez izendatuko zen Euskal Eskola. Hau da, Hezkuntza alorreko eskuduntzak gure gobernuaren esku zeuden eta ez Madrilekoarenean. Eta hori babes handia zen. Dagoeneko Amezketako Eskola ez zen klandestino, legezkoa zen eta Eusko Jaurlaritzaren babesa genuen.*

*Pedagogiaren alorrean ere, eskola zaharraren filosofia (garaian garaikoa) eta ohitura zaharrak aldatzen joateko aukera eskaintzen zitzaigun, eta munduan zehar indarrean ziren pedagogía-korrante berrietara apurka-apurka moldatzen eta egokitzen joateko aukera. Hori ere pozgarria zen, aurrerapena zelako, erregimen zaharraren jantzi zaharkituak baztertuko genituelako.*

*Azken finean, hain kolore diferentetako bi eskola izateak, herri txikietan batez ere, sortzen zuen zatiketa alboratuko genuen. Beti esaten da denborak zauriak sendatzen dituela. Guk horri zera gaineratuko genioke: "denborak lan egiten duela pentsaerak ere garatzen". Eta hori gertatu zen Amezketan ere. Alegia, ikastola sortu zenean proiektu berri eta aitzindari*



**Joxepi Saralegi eta Lurdes Larreta**

horretara biltzeko presaturik ez zeudenak, urte batzuk beranduago, aldiz, amezketarren gehiengoa behintzat, prest azaldu zen Euskal Eskolaren partaide izateko.

Hori guztia, ordea, hirtzetan hain dotorea, polita eta aurrerapauso itzela zena, hitza zen soilik artean. Hori gauzatu egin behar zen, eta zartagina sutan frogatzen den bezala, hitz horien garapena ikusteke zegoen. Eta horrek sortzen zuen gugan KEZKA.

Hainbeste gorabehera bizi izan genituen ikastola garaian, hainbeste belarrondoko jaso, hainbeste sasi-promesa irentsi behar izan genituen, ezen oraingoan ere KEZKEK kuku egiten ziguten gure garuneko zirriztaren batetik.

Egia da Euskal Kontseilu Orokorrekoek guk aurrez esandako guztia ziurtatu zigutela, eta gu euren intentzio onez fidatzen ginen. Karmele Alzueta eta Lontxo Oiartzabal ezagunak genituen, euskaltzaleak ziren, eskolaren aldaketa aldarrikatzen zuten sutsuki... Beraz, nola jarri zalantzan euren asmoak, promesak eta hitzak? Bestalde, ordea, haienak ere asmoak ziren eta erakundeen gupil herdoilduak mugitzen hasten zirenean gai izango ote ziren guri agindutako guztia betetzeko? Hortik gure kezka. Eta hortik, eratzten ari zen eskola berriaren txanponak bi alde izatea: alde pozgarria, batetik, eta alde kezkarria, bestetik.

Eta, neurri batean, hala gertatu zen. Asko kostatu zen antzinako tresneriari herdoila kendu eta makineria berria erritmo bizian jartzea. Gaur egun dena izatera heltzeko, hori guztia jasan zuen Zumadik ere. Lehen urteetan izan genituen arazoak.

Alde batetik, euskaraz ez zekiten irakasleak izendatu zizkiguten. Horrela, hainbat egoera “xelebre” sortu ziren. Haur Eskola eta Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailetakako tutoreak euskaldunak ziren. Ondo. Baina, tamalez, beste mailetan hori ezinezkoa izan zen. Administrazioak ez zuen bermatu guk nahi genuena, aurrez eskatu genuena eta eurek baieztatu zigutena: irakasle guztiak euskaldunak izango zirela. Beraz, ordu arte euskara hutsean ikasten aritu ziren ikasleek ( ikastolatik zetozenek) gazteleraz landu behar izan zituzten ikasgai gehienak. Urte askoan, irakasleon arteko bilerak ere gazteleraz egin behar izan genituen, nahiz eta irakasle bakarra izan erdalduna. Denborarekin, ordea, irakasleen arteko harremanetan eta gainerako funtzioetan euskara nagusitu zen eta normaltasunez aritu ginen.

Bestetik, funtzionamendua, pedagogia eta ikasmaterialen inguruko adostasunak lortzeko ere ahalegin handiak egin behar izan genituen. Baina, urte gutxiren buruan antolaketa eremuan oinarritzeko kohesioa lortu zen, eta adostutakoa eguneroko praktikan islatzen joan ginen.


Esanak esan, beraz, Amezketan hezkuntza alorrean iraultza gauzatzen joan zen apurka-apurka. Eta gaur, Zumadi izeneko trena arin-arin doa, eta, nola ez, euskara arnasten da zirriztuz gurtietatik.





*Joxepi irakaslea, ikasle talde batekin.*

- 1\_Neritz Karrera
- 2\_Nerea Zubeldia
- 3\_Andoni Altuna
- 4\_Arantxa Tolosa
- 5\_Larraitx Zubizarreta
- 6\_Ibon Tolosa
- 7\_Lander Sarasola
- 8\_Joxepi Saralegi (irakaslea)
- 9\_Iban Altuna
- 10\_Garikoitz Artola
- 11\_Garikoitz Aranburu
- 12\_Leire Saizar
- 13\_Argitxu Zabala
- 14\_Mikel Goikoetxea
- 15\_Eider Telletxea





#### 4 EGUNGO IRAKASLEEN TESTIGANTZAK

### NIRE BIZIPENAK ZUMADI ESKOLAN

1980-81 ikasturtean iritsi nintzen Amezketako eskolara. Ikastolaren eta garaiko naizionalaren arteko fusioa egin berria zen.

Zer topatu nuen? Zalantzarik gabe proiektu berri eta komun baten aldeko konpromisoa era bizi-bizian barneraturik zuen jendea topatu nuen. Eskola EUSKALDUNA ETA HERRIKOIA eraiki nahi zuten, Herri Eskola euskalduna.

Ahalegin horretan bat egin zuten udaletxeko ordezkariak, gurasoak eta irakasleak.

Gogoan daukat lehenengo “junta” (gaurko Eskolako Organo Gorena, alegia, eskolaren eragile guztiak ordezkatzeko dituen batzarra). Gurasoen ordezkari gehienak gizonezkoak (aitak) ziren eta bakoitzak bere lana zeukanez, eskolako bilerak gaueko 10:00etan egin behar izaten genituen. Gainera garai haietan erretzea debekaturik ez zegoenez, etxean ondo afaldu eta gero, han azaltzen ziren batzuk beren puru eta guzti.

Hori ordu pila, sartzen genuena!! Baina, denok!! Udaleko ordezkariak, gurasoak eta irakasleak, noski!!

Eztabaida sutsuak izaten genituen, baina horretatik ez dut behin ere haserrealdirik eza-gutu; alderantziz. Zenbat afari egin genuen! Eta beti kantari eta txiste kontari bukatzen genituen!


Lan asko egin zen. Euskalduntasunean beti aitzindari izan gara eta gure ikasleak beste ikastetxetara joan direnean, beti izan dira eredu.

Publikotasunaren ardatzean ere, erakunde publikoen babesean egonik, Zumadi Eskola herritar guztiei irekita ezagutu dut. Herriko eragileen parte hartzea bideratu dugu beti, eta erakunde publikoek jartzen zituzten muga barruan zer nolako eskola nahi izan dugun denon artean erabakitzea bultzatu da beti.

Askotan konforme ginen. Baina hainbatetan, eskaintzen zigutena justua ez iruditu eta han joaten ginen Donostiara, autobusak antolatu eta geurea eskatzera: guraso, haur, irakasle eta aiton-amonak ere bai, behar izanez gero!!

Lan asko egiten dugu, eta giro atsegin eta alaia ezagutu dut gehienetan Zumadi Eskolan.

**Nekane Bautista**



**KEZKAK UXATUZ**

Hasiko naiz ala ez antzerkia proposatzen eta lantzen? Gustatuko zaie ala ez? Horra, Zumadira hurbiltzean nituen kezkek. Badakit ondo egingo dutela, badakit antzerkia entseatzeko gustura jardungo direla; badakit nire ikasleak saio polit bat eskaintzeko gai direla, baina...

Beldurrak alboan utzi eta ekin genion lanari. Bete dira 23 urte, erraz esaten da. Gidoiko pertsonaiak banatu eta berehala ikasi zuten paperean zioena; baita deklamazio dotorez eta keinu ausartez apaindu ere. Eta emaitza? Ba, nik nahi bezalakoa: ordu-erdiko saio polit bat eta algara ugari.

Zalantza berberak nituen halere: nahiz eta nire gustukoa izan, zer irudituko zitzaien nire lankide nahiz gurasoei? Laster uxatu ziren nire kezkek. Hitz goxoak pilatu ziren nire inguruan; begirada alaiek kolpatu zituzten nire begiak, lausotzeraino, agian.

Eta ondorioa? Sinestezina. Nork esango zidan orduan 150 antzerkitik gora eskainiko zirela hurrengo 22 urteetan?

Esker ona, saiatzen ari denari ondo ari dela esatea, garaipenak ozen eta akatsak belarrira; hori jaso nuen nire lehen ikasturtean, eta joera berberak dirau, maldak arinduz, gailurra gertu ikusten dudan honetan.

**Agustin Amiano**





## GUSTURA ARITUKO OTE NAIZ?

2004an iritsi nintzen Zumadi ikastetxera, duela 14 urte. Eskola txiki-txiki batetik, bi ikasgela zituen eskolatik, 8 ikasgela zituen honetara. Txikitik ertainera egin nuen aldaketa.

Ikasturte bukaeran lehenengo kontaktua Koro Zabala irakaslearekin egin nuen, telefonoz. Oraindik plaza berria aukeratzeko nengoen eta galdetu nion:

Zure ustez gustura egongo naiz zuen eskolan?

Berak, ziurtasun handiz, bere ahots goxo harekin eta denborarik galdu gabe:

Bai, hemen oso gustura egongo zara, etorri lasai.

Ekaineko azkeneko astean eskolan azaldu nintzen lehenengo inpresioa jasotzera eta egun hartarako antolatua zegoen irakasleen bilera batean egoteko “baimena” jaso nuen zuzendararen partetik.

Hurrengo ikasturtea antolatzeko zen bilera hura eta ikastalde bati buruz erabaki garrantzitsu bat hartu behar zen. Kasualitatez nik “hartu” behar nuen ikastaldea zen eta, noski, interes berezia piztu zitzaidan berehala.

Berehala bertan zeudenak eztabidan hasi ziren, egokiena zer izango zen aztertzen. Eta hasi orduko gauza batez ohartu nintzen: “eskola honetan eztabaidatzeko beldurrik ez dago, bakoitzak pentsatzen duena lasai adierazten du, denek denena errespetuz entzuten dute”.

Eta batez ere: “eskola honetan ikasleen hobe beharrari begira eztabaidatzen da, ikasleak haintzat hartuta eztabaidatzen eta hausnartzen da.


Pentsamendu horietan murgildurik, nire erabakia sendotu egin zen: ZUMADI IKASTETXEAN LAN EGIN NAHI DUT. Eta izugarri eskertu nuen erabaki hura hartu izana. Gaur egun, oraindik, poztu besterik ez naiz egiten “nire/ gure” eskola honetan lan egiteko aukera izategatik.

**Malu Agirretxe**



*Koro Irakaslea, ikasle taldearekin.*

- 1\_ Eneko Galartza
- 2\_ Nagore San Martin
- 3\_ Iker Sarasola
- 4\_ Ana Goitia
- 5\_ Koro Zabala (irakaslea)
- 6\_ Irantzu Zabala
- 7\_ Leire Sarasola
- 8\_ Garikoitz Altuna
- 9\_ Iزار Galartza
- 10\_ Andoni Altuna
- 11\_ Edurne Zuriarrain
- 12\_ Jaione Goikoetxea
- 13\_ Mikel Goikoetxea
- 14\_ Leire Saizar
- 15\_ Iban Altuna
- 16\_ Eider Telletxea
- 17\_ Ibon Altuna
- 18\_ Aitziber Esnaola
- 19\_ Nerea Zubeldia
- 20\_ Iban Artola



- 21\_ Joan Ander Goñi
- 24\_ Kepa Gorostidi
- 22\_ Anartz Etxeberria
- 25\_ Jon Ander Altuna
- 23\_ Lander Sarasola
- 26\_ Xabier Solis



## ESKERTZEN DA GURASOEKIKO GERTUTASUNA

Amezketako eskolarekin eduki nuen nire lehenengo harremana Abaltzisketako eskola sortu zenean izan zen. Garai hartan, Abaltzisketako eskola Amezketako eskolaren menpe zegoen eta irakasleon bilerak Amezketan egiten genituen.

Eskola txiki batean lan egiten nuen lehenengo aldia izan zen eta eskola honetan nabaritu nituen gurasoengandiko gertutasuna eta irakasleen laguntasuna eta babesa aipatzekoak dira. Horretaz gain, talde kopuru txikitlan lan egiteak ikasleengana ailegatzeko, ezagutzeko eta haien beharrak asetzeko aukera nabaritu nuen.

Ordezkoa nintzenez, beste eskola batzuetan lan egitea suertatu zitzaidan, baina oposaketak gaitutakoan, gure gustuko eskolak lehentasunez aukeratzeko agindu eta gero, lehenabizikoa Amezketakoa aukeratu nuen eta ZORIONEZ eman egin zidaten.

Geroztik, 10 urte pasa dira eta espero dut ZUMADIn jarraitzea erretiratu arte.

**Mariaje Pizarro**



Gurasoak mozorrotuta.

**HORMAK MARGOTUZ, PAISAIA ALAITU**

Duela 15 urte etorri nintzen Zumadi eskolara. Eskolatik ikus zitezkeen zelai eta paisaiak zoragarriak baziren ere, eskola barrua tristea zen eta beheko solairua iluna bezain umela.

Laster ahaztu zitzaizkidan, ordea, eskolako lehen impresio ezkorrak bertako irakasle nahiz ikasleek egindako harrerarekin.

Gogoz eta ilusioz ekin nion lanari. Musika eta tailerrak nituen garai hartan esku artean eta tailerretan ikasleekin batera eskolako paretak margotu genituen ipuinetako pertsonaia ezagunak gogora ekarriz.

Musika saioak, berriz, dantza librea eginez bukatzen genituen. Gaztetxoia izanik, garaian garaiko musika “modernoak” jartzen nizkien ikasleei eta “hori ez zela musika” esanez, Kupela taldearekin fandango, arin-arin eta kalejira eginez bukatzen genituen saioak, zenbaitek txotx egiten zuen bitartean.

**Eider Amonarraiz**





## IKASLEEN ETORRIA ETA GRAZIA, APARTEKOA!

Ni 2003an iritsi nintzen Zumadira eta gogoan ditudan hainbat gauzen artean ikasleen urtebetetze egunari dagokiona dago. Izan ere, ikasleren batek urteak betetzen zituen egunean, irakasleak haren izenarekin batera marrazki polit bat jartzen zuen bere gelako horma inguruan, eta jolasera irten aurretik eskolako kide guztiak bertan elkartzen ginen. Ikaslea bere marrazkiaren parean zutik zegoen bitartean “Zorionak” abesten genion hiru hizkuntzatan eta txalo zaparrada ederra jasota pozik joaten zen gelara bizkotxo banatzera.

Beste gertaera oso atsegina 6. mailakoek prestatzen zituzten antzerki emanaldiena izaten zen; orain ere bada, baina hasiera hartako ikasleen berezko etorria eta grazia arreta ipintzeko modukoak ziren.

Ni etorritako lehenengo urtean “Hariz-ari” prestatu zuten eta behin baino gehiagotan ikustea egokitu zitzaidan. Debara ere joan ginen urte hartan. Ekitaldia ikusten nuen aldiro ateraldi berriak botatzen zituzten ikasleek eta ikuslegoa animatuta ikusten bazuten, “hazi” egiten ziren eta sekulako aktore lanak egiten zituzten, ikaragarriak! Apartak ziren haien keinu eta ateraldiak!

Izan zen emanaldira benetako txakur eta guzti etorri zenik ere.

**Nerea Etxezarreta**





## IKASLEAK, KUXINEN GAINEAN?

2009-10 ikasturtean iritsi nintzen Zumadi eskolara. Ikasteko eta irakas- teko ilusio handiz etorri nintzen. Nafarroan urte gutxi batzuk egin ostean etxera gerturatu nahiak ekarri ninduen hona. Zein herritara joan aukeratu egin behar nuen eta sindikatutik, “jarri Amezketa, primeran egongo zara eta!” esan zidaten... Nik ez nien kasurik egin, baina hemen bukatu nuen, eta bai, arrazoi zuten.

Iritsi eta berehala ikusi nuen, eskola hau ez zela nik ezagututako besteak bezalakoa... Gelan lurrean eserita, irakurtzen edo hizketan egoteko, kuxinak zituzten! Baina horrela ikas- ten al da ba?

Eta aldaketa nabarmena, hizkuntzarena... haur erdaldunei “vascuence” erakustetik nen- torren eta hemen berriz, alderantziz, euskaraz esapide dotoreak erabiltzen zituzten ikasleei gaztelera erakutsi behar nien nire “nafar azentuarekin”.

Ia 10 urte pasa dira eta zenbait irakasle aldatu ere bai, ikasle batzuk joan eta berriak datoz, baina gauzak ez dira gehiegi aldatu... lanerako gogoia eta ilusioa oraindik badago eta noski... kuxinak gelan jarraitzen dute! Horrela ere ikasten dela ikasi dut!

**Begoña Altuna**





## ZORIONTSU NAIZ ZUMADIN

Duela bederatzi ikasturte etorri nintzen Zumadira. Eskola handi batetik nentoren eta ez nekien zer aurkituko nuen Amezketan. Ekainean etorri nintzen eskola ezagutzera, eta oso arraro sentitu nintzen lehenengo bisitan. Kontraste izugarria topatu nuen bi eskolen artean.

Uda pasa zen eta baita azkar asko iritsi ere iraila! Irakasleak ezagutu nituen, umeak, eta baita gurasoak ere. Egun asko pasa baino lehenago antzeman nuen, bete-betean asmatu nuela Amezketara etortzearekin. Gaur egun ez nuke ezergatik aldatuko Amezketako eskola!

**Mari Jose Ezama**



**ZUMADI, ESKOLA GUSTAGARRIA!**

Lehenengo aldiz, 3 hilabeteko ordezkapen bat egitera etorri nintzen Zumadira, 2005. urtean. Eskola handietan ibilia nintzen ordurarte. Hau beste mundu bat zela segituan konturatu nintzen. Gelan 10 bat ikasle nituen. Ikaragarri gustura aritu nintzen, etxean bezala. Egun batean, elur asko egin zuen batean, baserrietako haurrak ez ziren etorri, eta etxeko zapatillak jantzi-ta kartetan nola aritu ginen daukat gogoan.

Orain dela 9 ikasturte eman zidaten hemen plaza finkoa. Ikaragarri poztu nintzen berriro hona etortzeaz: lankideekin harremana erraza da, gurasoekin ere bai eta ikasleekin zer esanik ez!

**Nerea Martinez**

*Pello Añorga, ipuin kontalaria, ikasleekin.*



## **BAI, BAI, LANA EGIN DAITEKE, GUSTURA GAINERA**

*Eskola zahar eta heze batean hain gustura egotea posible ote?*

*Badira 8 ikasturte Zumadira iritsi nintzela, etxetik gertu ikasturte bat igarotzeko asmoz eta behin betiko plaza auskalo non emango ote zidaten kezkarakin.*

*Irailaren lehen egun hura gogoan izango dut beti: Zuzendaritza talde zoragarriaren ongi etorria, lankide guztien goxotasun eta alaitasuna...*

*Ikasleak hasi zirenean, ikasturtea oraindik ere hobea izango zela sentitu nuen eta ez nenen-batere oker: 1. mailako hamalaukotea zoragarria zen benetan!*

*Loteria tokatu eta ikasturte bakarrerako?*

*Ikasturtea bukatzeaz zela jakin nuen behin betiko lanpostua ZUMADIn eman zidatela. Loteria betirako!!!! Zoragarria izan zen niretzat talde berezi harekin 2 ikasturte igarotzea eta, ondorenen izan ditudan beste taldeekin ere aukera bera izatea.*

*Igaro diren 8 ikasturte horietan erronka berri askorekin egin dugu topo: hainbat proiektu martxan jartzea, zuzendaritza taldeko partaide izatea. Baina lankide, ikasle eta familiekin etxean bezala sentitzen zarenean, gustura eta ilusioz heltzen zaio edozein erronkari.*

*Eskola zahar eta heze batean hain gustura egotea posible ote?*

*Jada badakizue galdera honen erantzuna zein den, baina eskola berria lortuko bagenu askoz hobea.*

**Leire Lizuain**





## GURASOAK GERTUKOAK, IKASLEAK JATORRAK

Zumadi eskolan egin nuen lehenengo ordezkapenean jakin nuen bertan gelditu nahi nuela betirako lan egiten. Ordura arte hainbat eskolatan ibilita nengoen, baina Zumadin topatu nituen nik hainbeste baloratzen ditudan osagaiak: giro goxoa, irakasleen lan egiteko inplikazioa, etengabe hobetzeko nahia, gurasoen harrera eta gertutasuna... eta nola ez, ikasle goxo, jator, fidakor eta fidagarriak.

Urteak pasa ondoren, lortu nuen nire desioa betetzea, Zumadi eskolaren parte izatea, eta hasiera batean aurkitu nituen osagaiak bere horretan mantentzen direla egiaztatu dut. Noski, hori horrela izateko lan egiten dugu denok, gurasoen laguntzarekin, ikasleen inplikazioarekin...

**Amaia Regillaga**



## HARRO NAGO ZUETAZ!

7 urte pasa dira Amezketako Zumadi eskolara iritsi nintzenetik. Ilusio handiz iritsi nintzen, lehenengo aldiz, luze egongo nintzen eskola izango zenez, ikasleekin landu nahi nuen guztiaren progresioa ikusteko aukera izango nuelako. Beso zabalik hartu ninduten lankideek, behar nituen baliabide eta denbora eskainiz. Beso-zabal hartu ninduten ikasleek, irrikaz, saio bakoi-tzean zer eskainiko nien zain. Besoak zabal-zabalik hartu ninduten eskola komunitatea osatzen zuten beste partaideek ere.

Urte hauetan esperientzia, anekdota eta gertaera pila bizi izan ditut eta harro sentitzen naiz. Zorte handia dugu Zumadi eskola osatzen dugun partaideok, egunerokotasunean suertatzen diren gorabeherak barne, talde bikaina osatzen dugulako.

**Zuriñe Arsuaga**





### BERRIA NAIZ, ETA BERRI ONAK ESPERO DITUT

Urtebete eman dut eskolatik urrun, semeaz gozutzen. Iraila iristean, aldiz, Zumadira itzuli naiz lanera, Txindoki magalera. Jasotako harrera goxoa izan da eta lan giroak ere ona dirudi. Hasierako egunetan denbora gehiago igaro dut igerilekuan ikasleekin plisti-plasta, lan formalean baino; badut gogorik, beraz, ikasleekin salto eta dantza eginez ohiko martxan jartzeko. Espero dut ikasturte ederra izango dela eta pasadizo, zein bizipen eta oroitzapen pila nireganatuko ditudala.



**Vanessa Lopez**

### ZUMADI ESKOLA: FAMILIA

Zumadi ikastetxea umeak beren prestakuntza jasotzeko gune soila izate-tik haratago doa. Bertan, familia giroarekin topatzen zara, bai familia eta irakasleen arteko hartu emanengatik, bai irakasleen artekoenagatik. Ez da erraza hori lortzea, eta Zumadi ikastetxean, lanean hasten zarenean bertako giroak indar handia ematen du esku artean dugun proiektuarekin gogotsu jarraitzeko. Plazer handia da bertako kide izatea.



**Izaro Pikabea**



## 5 IKASLE OHIAK ETA GAUR EGUNGO HAUREN GURASOAK

### ZUMADI: NIRE HAURTZAROKO BIGARREN ETXEA



Zumadi eskola...gure haurtzaroko bigarren go etxea. Zenbat aldatu den gure garaiko Zumadi eskolatik gaur egungora!!! Hasteko, eraikinak. Orain denak leku berean daude. Nire garaian, Haur Hezkuntza, orain Kutxa dagoen eraikinean egin genuen, Jexuxa eta Kororekin.

1. mailatik 4. mailara bitartekoak, berriz, parke aldean, orain etxebizitza adosatua dau den eraikinean egin genituen Joxepi eta Guadaluperekin. Han bertan zeuden jangela eta, 1988/89tik aurrera, liburutegia ere bai. 5. mailatik 8. Mailara, oraingo eraikinean. 5. maila Pilirekin eta 6. mailatik 8.era irakasle gehiagorekin: Jose Angel, Mikel eta Iñakirekin.

Txoko bakoitzak ditu bere abenturak. HHan genbiltzala, gure ipuinetako sorgina ez baina, sorgin erreala genuen inguruan: “Xerapiña”. Bere baratzeria baloiren bat joaten bazitzaigun, eskolara etortzen zen oso haserre, gu denok beldurtuz eta mahi azpian gordearaziz.

Lehen Hezkuntzan, berriz, Joxepi eta Guadaluperen goxotasunarekin segi genuen ikasten. Nik, Ergone auzokoa izanik, gogoan dut nola auzoko haur guztiak “Errekaldeko Martin-en” Minian joaten ginen etxera, hamar bat haur, denok kotxe txiki hartan sartuta, elkarren gainean pilotuta. Hura bai abentura!!!

5. mailan hasteak erreparo pixka bat ematen zuen, ia handien zonara joan behar genuela-ko. Salto txiki bat bezala zen, baina Pilirekin ere ederki pasa genuen.

Eta zer esan, LH6tik LH8ra? Nire lehendabiziko Oa (zero patateroa) Iñakik jarri zidala Historiako azterketa batean eta nere lehendabiziko “tripazorriak” orduan pasa nituen, erre- kuperaketa egin beharra izan bainuen. Je, je. Bitxikeria modura esan behar dut, azkeneko ur- teetako irakasleak gizonezkoak izan genituela, nahiz eta orain gehiengo nagusia emakumeak diren. Eta alderdi akademikoari dagokionez, berriz, esan behar da, oraingo haurrek aukera gehiago dituztela: musika dela, tailerrak, antzerkia, informatika, bertsolaritza... Gure kinta

izango da musikako irakaspe- nik jaso ez zuen azken taldea. Gure ondorengoak hasi zirela usten dut Anarekin musika ematen. Beraz, hobera doala esango nuke Zumadi, orain ere irakasle talde bikaina dauka- gulako. Aupa, Zumadi!!! Segi horrela!!!

**Eider Telletxea**



**JUAN LUIS, QUIERO PIS!**

1985eko irailean izan nuen nire lehenengo eskola eguna, 2 urterekin. An-dereño Koro eta Lurdesekin izan genituen hasiera hartako jolas, barre eta negarrak. Asko dira ditudan oroitzapenak: gelan geneukan 2 solairuko etxetxea, lagun bat etxetxoaren leihotik behera lurrera erori zenekoa, udal-letxe ganbaran izaten genuen gaztelera saioa (Juan Luis, quiero pis!), jolas-orduko “Motako” gure jolasak, egunero hartzen genuen basokada esnea... Ez nuke sekula bukatuko guztiak kontatu behar banitu. Hala ere, Zumadik utzi didan onena, 7.maila ezkerre, gelakide izan ginenok elkartzen gaituen San Joanetako afaria da, zalantzarik gabe.

Hori da zortea, nire seme alabak ere ZUMADI eskolaren parte izatea!

**Alaitz Labaien**





## GOXOA ETA HURBILA

*Hurbiltasuna eta goxotasuna kalitate-irizpide garrantzitsuak dira Zumadi eskolan. Eta horrek herri mailako elkarbizitzarako zer esan handia du. Elkartu egiten gaitu, gure seme-alaben onurarako.*

*Beti hurbilekoa sentitu naiz Zumadi eskolan, ateak irekita egoten dira-eta. Jarrai dezagun eskolari dagokion bizia ematen.*



**Idoia Otamendi**



## FAMILIA GIROAN

*Haurrak eta familiak familia giroan sentitzen gara. Oso jatorra da egiten zaigun harrera. Nik ikasi nuen eskola motatik oso urrun ikusten dut Zumadiko hau. Edukiak irakasten dira, noski; baina, horretaz gain, oso garrantzitsuak diren hainbat arlo ere lantzen dira.*



**Arantxa Delera**

## 6 IKASLEEN BAT-BATEKO SENTIPENAK

Gure ustez Zumadi eskola guztietatik hoberena da: irakasle jatorrak, eta ume oso-oso onak. Tailerrak egiten ditugu eta asko gustatzen zaizkigu.

Pertsona asko igaro diren eskola da. Aupa Zumadi!!

LH4an geundela, atea itxita zegoen egun batean eta leiho batetik sartu ginen.

Aspaldi zumadi bat omen zegoen gaur eskola dagoen lekuan. Horregatik deitzen omen da Zumadi.

HH2ko gelan geundenean, gogoratzen naiz nola ibiltzen ginen lasai -lasai egun guztian jolasean.

Ni pozik etortzen naiz eskolara

Gauzak ikasteko oso gustura ibiltzen naiz bertan. Lana egiten dugu eta asko ikasten dugu.

Eskola onena da, eskola polita da. Eskola lagunekin egoteko lekua da.

*Esperimentuak eta eskulanak  
egiten gozaten dugu*

*BAT, BI, HIRU, BI, AUPA  
ZUMADI!!*

*Eskolako gauza asko  
gustatzen zaizkigu:  
gorputz hezkuntza,  
musika, ingelesean  
eta ingurunen  
egindakoak, bereziki.*

*Altzoko erraldoiari buruz  
egin genuen pelikula  
gogoratzen dut. Oso ondo  
pasa nuen. Gainera, ni  
zuzendaria nintzen! Ideia  
ederra da. Estrenaldia oso  
polita izan zen, ederra!*

*Gure eskola oso  
polita da. Inguruan  
zuhaitz asko ikusten  
dira. Futbol zelaia  
ederra da, baina  
belarra jartzea  
nahiko genuke.*

*Eskola berritu egingo  
genuke pixka bat eta  
polikiroldegia jarri  
ondoan igerileku eta  
guzti. Dantza egiteko  
diskoteka bat ere  
eskertuko genuke!*

*Ni gelara iristen  
nintzenean lagun  
bat korrika etortzen  
zen niregana eta  
besarkada ematen  
zidan.*

*Gure inauterik ederrak dira. A ze  
parrak botatzen ditugun! JI,JI,JI!!*

*HH5ean geundela lapurrak sartu ziren eskolara, eta gure gezurrezko dirua eraman zuten. Egiazko dirua gezurrezko mikrouhin labean zegoen.*

*Noizbehinka pelikulak ikusten ditugu eta antzerkiak egiten ditugu. Irteerak asko gustatzen zaizkigu. Baratza ere badugu!!*

#### *GEHIEN GUSTATZEN ZAIGUNA:*

- *Gorputz hezkuntzan ederki pasatzen dugu, jolas politak egiten ditugulako.*
- *Informatika ere asko gustatzen zaigu.*
- *Jolastorduan baseak egitea, musika entzutea, dantza egitea gustatzen zaigu.*
- *Tailerrak ere asko gustatzen zaizkigu: sukaldaritza, antzerkia... Denak!*
- *Eskulanak egitea.*
- *Matematika.*

*Lehenengo mozorroarekin galtzagorriak izan ginen eta txokolate gozo-gozoa jan eta dantza politak egin genituen. Hurrengoan, berriz, Potatoz mozorrotu ginen eta denoi patata jateko gogoa sortu genizuen. Urtea pasa zen, eta banpiroz jantzi ginen, eta harrapatutako guztioi odola zurrupatu genizuen. Gero, arropa zuri-zuriak prestatu eta sukaldariz jantzi ginen, eta bazkari ederrak prestatu genizkizuen. Zahartzen hasi ginen, eta urte bete pasa zen eta aiton-amona martxoso bihurtu ginen. Rapean ere ikasi genuen eta denbora asko pasa baino lehen, dantza ederrak eskaini genizkizuen. Azken mozorroa Elvis Presley-rena izan zen; Las Vegasen ikasitako dantza, Amezketara ekarri genuen eta ederki asko pasa genuen. Aurtengo mozorroa ere pentsatzen hasita gaude eta dagoeneko barregurea aguantatu ezinik gaude.*

## 7 ETORKIZUN HURBILEKO ERRONKA: ESKOLA BERRIA

Esandakako guztiarekin gaurko Zumadi eskolaren muina adierazi dugu. Oraina islatu dugu irakasle, guraso eta ikasleen testigantzen bidez. Eta zer esan etorkizunaz? Guk hemendik HOBEKUNTZA PROPOSAMEN esanguratsua eta beharrezkoa aldarrikatu nahi dugu: ZUMADI BERRIA. Egungoak, Aralar paper-fabrikak egindakoak, sobera bete du bere egitekoa; hau da, hemendik aurrera ez digu lagunduko ZUMADIren Hezkuntz Proiektua garatzen eta hobetzen, ez behintzat guk nahiko genukeen bezala.

Badakigu Udala ere bat datorrela horrekin eta abian den PLAN OROKORREAN txertatu dela behar hori. "Amezketan Amestuz" lemarengatik egin den gogoetan letra lodiz azpimarratu da eskola berriaren beharra, baita kokagune egokia eztabaidatu ere. Hori hor dago.



Hala ere, horrelako azpiegitura beharrezko zein handiaren kudeaketa eta gauzatzea ezin dugu utzi soilik Udalaren esku. Zuzenean Udalak bideratu behar du behar horren aldarrikapena erakundeekin, baina ondoan/azpian edo gainean, nahi duzuen bezala, baina herri osoak eragin behar du, eta bereziki Zumadiko eskola-komunitateak. Gu, Zumadikook, prest gaude. Gai izango ote gara indarrak batu eta hain motel joan ohi diren prozedura administratiboak azkartu eta etorkizun hurbilean Amezketari zor zaion eskola berria izateko? Etorkizun hori gure esku ere badago.





## “EZ DAGO ESKOLARIK HAIN GUTXIREKIN HAINBESTE EGIN DUENIK”

Amezketako Udalak urteak daramatza, beste arduren artean, herri honen eta amezketarren historia aztertzen eta liburu bidez ezagutarazten.

Oraingoan, hari beretik tiraka, Amezketako San Bartolome ikastolaren historiari heldu dio bereziki, eta historia garrantzitsu hori Amezketako Eskolen Historian txertatu eta kokatu du.

Beraz, irakurle, 1693tik hasi eta gaur arteko eskolen historia duzu orri hauetan. Eskola zaharreko testigantzak aurkituko dituzu lehenik; jarraian, 1960ko hamarkadan indar handiz eman zen Ikastolen Fenomeno iraultzailearen berri izango duzu; segidan, mugimendu horretan oinarritzen den Amezketako San Bartolome ikastolaren ibilbide garrantzizko bezaïn arazotsua aurkituko duzu, eta azkenik, egungo Zumadi Euskal Eskola izango dugu aipagai. Eta testu hori gozatu eta irakurketa errazteko asmoz argazki asko txertatu ditugu, batzuk egungoak eta beste batzuk aspaldi samarrekoak.

Amaitzeko, Zumadi euskal eskola da gaur egun Amezketako herriak bere ikasleak hezteko eta bizitzarako prestatzeko duen eskola. Ea historia ezagutzeak bultzatzen gaitun denok eskola horri garrantzia ematera eta Zumadi eskola goi mailan jartzera.